

EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA

VIII. Legealdirako Jarraibideak



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA

VIII. Legealdirako Jarraibideak



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

IZENBURUA: EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako Jarraibideak

EGILEA: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz

LAGUNTZA TEKNIKOA: KUALITATE LANTALDEA

DISEINU GRAFIKOA ETA MAKETAZIOA: ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua

DESKRIBATZAILEAK: Ekintza planak, Administrazio autonomikoa

ALE-ZENBAKIA: 1.200

DATA: 2006ko abendua

INPRIMATEGIA: Industrias Gráficas MARCAL S.A.

ISBN: 84-89630-07-0 . 978-84-89630-07-9

L.G.: BI-3429-06

Salneurria: 18 euro

Gobernu Kontseiluak, 2006ko irailaren 26an egindako bilkuran, eta Lehendakariitzak proposatuta, honakoa adostu du:

AKORDIOA

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoan gizon-emakumeen artean berdintasuna lortzeko IV. Plana. VIII. Legealdirako jarraibideak onartzea, akordio honen eranskin gisa doa.

Bigarrena.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari ematea "EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako jarraibideak" plana sustatzeko eta koordinatzeko funtzioa, honako irizpideei jarraituz:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eremuan, eskumeneko organoek garatutako planaren programa eta ekintzen sustapena eta koordinazioa Gizon Emakumeen arteko Berdintasunerako Sailen arteko Batzordean egingo dira. Batzorde hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bideratzen du.

2.- Akordio honek aipatzen duen plana indarrean dagoen bitartean gaiaren eta lurraldearen arabera eskumena duten lurraldeko eta tokiko Administrazioetako organoek garatutako berdintasunerako plan eta programen koordinazioa Gizon Emakumeen arteko Berdintasunerako Sailen arteko Batzordean egingo da. Batzorde hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bideratzen du.

Hirugarrena.- Euskal Administrazio Publikoek garatutako berdintasunerako neurri eta ekintzen jarraipen eta ebaluazio orokorra Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egingo du, honako irizpideei jarraituz:

1.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, ekitaldi bakoitza ixtean, plana exekutzeko botere publikoek garatutako ekintzak jasotzen dituen ebaluazio-dokumentua egingo du, bertan emakumeen aurkako indarkeriari aipamen berezia egingo zaiolarik.

2.- "EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako jarraibideak" planaren indarraldia amaitzean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak planaren ebaluazio orokorra egingo du, urteko egiaztapenak oinarritzat hartuta.

3.- Urteko ebaluazio-dokumentuak zein ebaluazio orokorrarena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartu beharko ditu, eta hark erabakiaren berri emango dio Legebiltzarrari.

4.- Gizon Emakumeen arteko Berdintasunerako Erakundeen arteko Batzordea eta Gizon Emakumeen arteko Berdintasunerako Sailen arteko Batzordea izango dira planaren urteko ebaluazioan eta ebaluazio globalean parte hartuko dutenak, bakoitzari dagokion eremuan

eta bakoitzaren antolaketa- eta funtzionamendu-arauek jasotzen duten eran. Antolaketa- eta funtzionamendu-arauek zehazten diren arte, Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak eta Sailen arteko Batzordeak beteko dituzte (hurrenez hurren) zeregin horiek. Azken hori uztailaren 15eko 251/1999 Dekretuak arautzen du eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Ekintza Positiborako Planaren exekuzioa koordinatzeko sortu zen.

Laugarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak finantzatutako ekintzei dagokienez, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legean jaso beharko da planaren aurrekontuaren gauzapena.

Bosgarrena.- "EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Plana. VIII. Legealdirako jarraibideak" planaren onarpena eta edukia Legebiltzarrari eta Euskadiko Foru Aldundiei eta udalerriei helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta eragina izan dezan.

AURKIBIDEA

SARRERA	7
1. HASIERAKO DIAGNOSTIKOA: BERDINTASUNEAN ESKU HARTZEA	11
1.1. Aholku Kontseilua: Gomendioak	13
1.2. Esku-hartze estrategiak	16
2. EAEko EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANAREN EGITURA.....	17
2.1. Berdintasunerako IV. Plana lantzeko metodologia	19
2.2. 4/2005 Legearekiko lotura	21
2.3. Planaren egiturazko elementuen deskribapena	23
3. PLANA EZARTZEKO NEURRIAK.....	27
3.1. Bultzatzeko eta koordinatzeko egiturak	29
3.2. Kudeaketa-sistema	34
4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK	37
I. ardatza: Mainstreaminga	39
II. ardatza: Emakumeen Ahalduntzea eta Gizartearen eta Politikaren arloko Parte-hartzea	42
III. ardatza: Bateragarritasuna eta Erantzunkidetasuna: Gizarte-eredu berriaren alde	49
IV. ardatza: Emakumeen aurkako indarkeria	53
5. BERDINTASUNERAKO ZERBITZU OROKORREN ARLOA	59

6.	ESKU-HARTZE ARLOAK	77
6.1.	Kulturaren Arloa	79
6.2.	Hezkuntzaren Arloa	113
6.3.	Lanaren Arloa	149
6.4.	Gizarteratzearen Arloa	191
6.5.	Osasunaren Arloa	231
6.6.	Hirigintzaren, Garraio Publikoaren eta Ingurumenaren Arloa	263
7.	GOMENDATUTAKO EKINTZEN KATALOGOA	297
7.1.	Kulturako Ekintzak	300
7.2.	Hezkuntzako Ekintzak	311
7.3.	Laneko Ekintzak	321
7.4.	Gizarteratzeko Ekintzak	338
7.5.	Osasuneko Ekintzak	351
7.6.	Hirigintzako, Garraio Publikoko eta Ingurumeneko Ekintzak	359

SARRERA



Berdintasunari dagokionez, VIII. legealdian euskal botere publikoen jarduna bideratu behar duten jarraibideekin osatu da EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana. Aurreko hiru planen indarreko urteetan izandako bilakaeraren eta aurrerabidearen ondorioa da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea onartuta sortu den esparru berrian.

Lege-testu hori onartzeak berdintasuna garatzeko aukera berria dakar, bai bultzada instituzionalaren ikuspegitik begiratuta, legearen babesarekin indarberrituta eutsi behar baitio lanari; bai piztu dituen gizarte-arloko itxaropenen ikuspegitik begiratuta. Hori dela-eta, IV. Planaren bitartez, sortutako aukera berriei aurre egin nahi diegu, honako oinarritzko helburu hauek lortzeko tresna baita:

- Legearen artikulua bete, garatu eta ezar daitezen sustatzea.
- Politikak bideratzen zehaztasun handiagoa lortzeko jauzi kualitatiboa egitea, berdintasunari eragin iraunkorra eta biderkatzailea emango dioten hainbat helburu lehenetsita, betiere erakunde guztiek modu bateratuan ekingo badiete helburu horiei.
- Helburu horiek ezartzeko ardura dutenen jardun-eremuak koherenteago eta argiago izatea, urte askotan lan ezin hobe egin baitute eta horien esperientziari eta jakintzari esker, erronka berriei aurre egiteko moduan izango baikara.
- Kudeaketako eta koordinazioko egituren eta sistemen garapena eta eraginkortasuna areagotzea; orain arte, egitura eta sistema horiek funtsezko eginkizuna izan dute eta gaur egun, erronka garrantzitsuei egin behar diete aurre.
- Berdintasunerako politikak izaten ari diren eragina agerian uztea, hasierako gizarte-egoerak neurtuta eta planaren indarraldian izan duten bilakaera aztertuta.

Horretarako, Planaren egiturari eragiten dion osaera-aldaketa proposatu dugu, bi elementu egituratzailearen antolamenduaren arabera egituratuta: alde batetik, lau ardatzak, berdintasunaren arloko esku-hartzearen euskarri direnak —mainstreaminga, ahalduntzea eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea, erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria— ; eta bestetik, arloak, esku-hartze horiek diseinatze, ezartzeko eta gauzatzeko erakunde-eremu nagusiak egituratzen dituzten arloak, alegia.

Jarraian aurkeztuko dugun dokumentuaren lehenengo kapituluak hasierako diagnostikoak aurkeztu eta zehaztuko dira, honako hauek barnean hartuta: berdintasun-politiketan adituak diren emakumeekin plana lantzeko sortu zen Aholku Taldearen gomendioak eta zehazpenak, eta erabilitako esku-hartze estrategiak. Bigarren kapituluak, jardunaren egitura definituko dugu, plana lantzeko jarraitutako metodologia, Planaren eta 4/2005 Legearen arteko lotura, eta egiturazko elementuen deskribapena ere sartuta. Hirugarren kapituluak, Plana ezartzeko neurriak eta tresnak zehaztuko ditugu, baita administrazioen bultzatzeko eta koordinatzeko elementuak

nahiz kudeaketa-sistema ere. Laugarrenean, ardatzen edukiak eta jardun-ildoak ezarriko ditugu. Bosgarrenean, berdintasun-politiken arduradunentzat gomendatutako lan-eremuak eta helburu espezifikoak zehaztuko dira. Seigarren kapituluan, arlo bakoitzeko programak, helburuak eta estrategiak garatuko ditugu. Eta, bukatzeko, proposaturiko helburuak erdiesteko gomendatutako ekintzen katalogoa aurkeztuko dugu, berdintasunari dagokionez, erakundeen jarduna diseinatzea errazte aldera.

1.

HASIERAKO DIAGNOSTIKOA: BERDINTASUNEAN ESKU HARTZEA



1.1.

AHOLKU KONTSEILUA: GOMENDIOAK

2005eko martxoan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak Aholku Kontseilua sortu zuen IV. Plana lantzeko irizpideak eta gomendioak definitzearen, EAEko berdintasun-politiketan eta, oro har, plangintzetan adituak diren emakumezkoekin.

Deialdiaren helburua honako hau zen: berdintasun-politiken diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan izandako esperientziak emandako jakintza oinarri hartuta, aurreko planen hutsuneak eta indarguneak aztertzea, otsailaren 18ko 4/2005 Legea –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea– onartzeak eragindako egoeren ondorioz sortutako aukerak aztertzea, baita Plan berria lantzeko garaian aintzat hartu beharreko aholkuak, argibideak eta iradokizunak aztertzea ere.

Hain zuzen ere, berdintasun-politiketako oinarritzko hiru alderdiren inguruko balioespena eskatu zen: berdintasun-planen egitura eta kudeaketa; erakundeen egoera; eta gizartearen eta kulturaren arloko egoera. Aholku Kontseilu horretan hainbat jenderen ekarpenak jaso ziren, hala nola berdintasun-politiken inguruko adituenak, elkarrizketen eta hausnarketa-taldeen bitartez.

BERDINTASUN PLANEN EGITURA ETA KUDEAKETA

Balioespena:

Euskadiko berdintasun-planetan garapen-maila handia lortu dugu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburua erdiesteko beharrezkoak diren jardunak biltzeari dagokionez. Aitzitik, badute gabezia garrantzitsu bat: nork, noiz eta nola zehaztea; hau da, estrategia bat definitzea (betiere estrategia honako hau dela ulertuta: zenbait jardunen artetik, jardun jakin batzuk lehenestea), helburuak lortzeko bide bat definitzeko asmoz, aukeran izan daitezkeen gainerako bideen gainetik.

Berdintasun-politikak hasiberriak ziren bitartean, oso garrantzitsua zen egin zitezkeen jardun guzti-guztiak biltzea; izan ere, horrela, emakumeen eskubideak eta aukerak sustatzeko politiken garapenean, botere publikoen esku-hartze aukerak eta ekarpen multzoak ezagutarazten baitziren. EAEn hiru PAPME/EEEEPPak garatuta izandako lorpenei esker, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea proposatzeko eta onartzeko adina heldutasun lortu dugu; plan zehaztuagoak proposatzea errazten duen esparrua ezartzea eta aurrerapauso kualitatibo garrantzitsua ematea ekarri du horrek, kudeaketako tresnak gehiago definitzea eta sistematizatzea ahalbidetzearekin batera.

Gomendioak:

Aurrekoa kontuan izanik, aholku-taldeak honako gomendio hauek egin zituen:

- Berdintasun-planen egitura eta edukia definitzeko erreferentzia-esparrutzat erabiltzea legea. Proposamen hori honela zehaztu zuten: Legea abiapuntu izanik, Plan bat lantzea, legealdi honetan Planaren ezarpenean aurrera egiteko eta prozesu hori bizkortzeko lehentasunezko ildoak ezartzea ahalbidetuko duen dokumentua lortu arte, lehentasunezko helburuak adierazita, horien arabera estrategiak eta tresnak finkatuta, eta helburua lortzen tartean sartutako erakundeak aipatuta. Halaber, IV. Planaren funtsezko esparrua legea baldin bada, lege horrek ez ditu aukera guztiak agortu behar, bestelako edukiak txertatzeko moduko tartea irekia utzita, betiere lege-mailako araudian tokirik ez duten eduki motak izanik.
- Berdintasun-politikak zuzentzen dituzten dokumentuen eraginkortasuna, argitasuna eta efikazia areagotzea. Plan zehatzak egitea funtsezkoa da, legearen artikuluetan oinarritutako helburu –lortu nahi den gizarte-aldaketa zehazten duten helburuak izanik– eta guzti, helburuak lortzeko estrategiak proposatuta, eta jarraitu beharreko estrategiaren arabera, jarduteko lehentasunak definituta.
- Azkenik, kudeaketako tresnak hobetzea eta sistematizatzea komeni zela aipatu zen, ebaluazioaren eta plangintzaren arteko feedbacka ziurtatzen baita horrela. Horretarako, honako bi kontu hauek kontuan izatea garrantzitsutzat jo zen: helburuak zehazteko premia –hasierako egoeratik abiatuta, hartutako neurrien bilakaera eta eragina balioesteko erreferentzia lortzea ahalbidetuko duela–, eta eragina ebaluatzeak adierazleak definitzea, helburuak zehazteko baldintza osagarria izanik.

ERAKUNDEEK BERDINTASUN POLITIKEKIN DUTEN LOTURA

Balioespena:

Aholku-taldearen ekarpenak lau eremuren identifikazioaren arabera sailka daitezke; hain zuzen ere, erakundeetan berdintasun-politiken garapena hobetu eta bizkortu nahi badugu, eragin beharreko lau eremu hauen arabera: politikoa, teknikoa, antolaketa-kulturaren eremua, eta koordinazioarena.

Eremu politikoan, berdintasuneko esku-hartzearen zeharkakotasunak eragindako zailtasunak identifikatzen dira; gero eta politika publiko gehiago direnez mota horretakoak (zeharkakoak, alegia), agenda publikoetan lehentasunezko gaitzat hartzea eta ikusaraztea eragozten duen

faktore bihurtzen da. Esate baterako, politika publikoak bultzatzeko eta gauzatzeko baliabide espezifikoak esleitzeko eragozpen izaten da. Aurreko horren ondorioz, eremu teknikoan honako hauek sumatzen dira: langile kualifikatu gutxi izatea, prestatutako baliabideen gehiegizko behin-behinekotasuna eta gabezia, dela dedikazioan, dela prestakuntza-mailatan, baita politika horiek modu eraginkorrean ezartzeko beharrezkoak diren bestelako baliabideetan ere. Horretaz gain, ekintza positiboko politika espezifikoaren ibilbidea sendotua dago dagoeneko, baina horiekin alderatuta, genero-ikuspegia txertatzeko estrategia (mainstreaminga) nahikoa berria denez, erakundeek, oro har, jakintza hobetu behar dute, haien politiken eraginetan genero-harremanek duten ondorioari dagokionez, eta politika sektorialetan esku hartzeko modu berriak txertatu eta egonkortu behar dituzte.

Bukatzeko, erakundearen arteko koordinazioaren ikuspegitik begiratuta, ezinbestekoa da azken urteotako lan-ildoak zabalitzea eta horietan aurrera egitea, koordinazioa hobetzearen eta, dagokionean, eskumenak banatzea, proposaturiko helburuak erdiesten eraginkortasun handiagoa lortzea ahalbidetuko duen moduan.

Gomendioak:

Erakundeetan berdintasun-politiken garapena sustatzeko honako bi gomendio hauek eman zituzten:

- Planean, ahalik eta gehien zehaztea erakunde bakoitzaren erantzukizuna, bai ekintzen garapenean, bai tresnak, mekanismoak eta azpiegiturak sortzeko garaian, betiere inplikazio politikoa areagotzeko eta egitura tekniko handiagoa garatzeko asmoz.
- IV. PAPME/EEEEPPren oinarri izan behar duten jarraibideen elementu zuzentzailetzat hartzea 4/2005 Legea, erakundearen arteko koordinazioa indartzearren. Era berean, erakundearen arteko hausnarketa eta plangintza bateratua indartzeko mekanismoak sortu eta koordinazioko egiturak indartu behar direla aipatu zen.

GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO FAKTOREAK BERDINTASUN POLITIKETAN DUEN ERAGINA

Balioespena:

Gizartearen eta kulturaren arloko eremuan, hain nabaria izan gabe, gizarte-balioetan eragin handia duen ingurunetik datoz zailtasunak. Hain zuzen ere, honako hau da arazo nagusia:

tratuan eta aukeretan desorekak egoteaz gain, egiturazko desoreka jakin batzuk ere badirela. Bestela esateko: tratuan eta aukeretan emakumeen eta gizonen arteko desoreka egituraz errepikatzen da. Alabaina, gizartearen eta kulturaren arloko eremuan, hori ez da arazo izatera heltzen, ez baita agerian uzten, eta agerian geratzen denean ere, ez da arazotzat jotzen.

Gomendioak:

Aholku Kontseiluak badaki zein zaila den horrelako arazo bati aurre egitea, eta hain justu horretarako sortu ziren berdintasun-plan guztiak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea.

Hari berari jarraiki, gomendio nagusia honako hau izan zen: gizarte-eremuan, plana ezartzeko egitura bat sortzea komeni zela, berdintasun-politiken garapenean tartean sartutako erakundeek eta gizartearen arteko komunikazioa sustatzeko lagungarri izanik.

1.2.

ESKU-HARTZE ESTRATEGIAK

Berdintasun-politikak aldatu diren heinean, garatu izan diren estrategia guztiak kontuan izan behar dira erakundeek jarduna planifikatzeko garaian.

Bi estrategia nagusi bereiziko ditugu: ekintza positiboa, eta genero-ikuspegia integratzea edo mainstreaminga. Ekintza positiboaren estrategia honako hau da: ekonomiaren, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko bizitzaren eremu guztietan dauden desorekak murriztera edo desagerraraztera bideratutako neurri espezifikoak eta behin-behinekoak erabakitzea.

Genero-ikuspegia integratzeko estrategia edo mainstreaminga, aldiz, emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko oinarritzko helburua txertatzea politika publikoetan.

Estrategia horiek bateragarriak dira, baina horretaz gain, biak batera landuz gero –gizarte-errealitatearen diagnostikoaren arabera egokia baldin bada–, berdintasun-helburua lortzeko lagungarria den batuketa-eragina izaten dute. Genero-ikuspegia integratzeko estrategiak aparteko aipamena eskatzen du. Plan hau aplikatzeko mekanismo nagusi eta planaren esku-hartzearen zuzeneko objektu botere publikoak izaki, planaren ardatz estrategikoetako bat mainstreaminga dela erabaki da, eta arlo guztietan, desorekak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua txertatzeko modua zehaztu da.

2.

**EAEko EMAKUMEEN
ETA GIZONEN
BERDINTASUNERAKO
IV. PLANAREN EGITURA**



2.1.

BERDINTASUNERAKO IV. PLANA LANTZEKO METODOLOGIA

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana lantzeko metodologia diseinatzean, honako premisa hauei jarraitu zitzaion: gizarteko eta erakundeetako guneen parte-hartzea sustatu behar zuela, eta diziplina anitzeko esparruetako berdintasunari buruzko emakumezko adituen jakintzak barnean hartu behar zituela. Bi eremu horietako informazioa bat egin behar zen, honako lau ezaugarri hauek betetzen zituen plan bat osatzeko:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Lege berriari egokitzea, legearen plan-teamenduak integratuta eta EAEko berdintasun-politikekiko lotura definituta.
- Egitura sinplea eta eragingarria izatea, administrazioaren maila guztietan berdintasun-politikak garatzeari laguntzeko.
- Berdintasunaren helbururantz aurrera egitea ahalbidetuko zuten edukiak erabakitzea, lehentasunak argi eta garbi ezarrita, non gizarte-arloko aurrerapen orok dakarren ezinbesteko tentsioaren eta egingarritasunaren arteko oreka egokia bilatuko zen.
- Plana ezartzeko mekanismoak eta tresnak zehaztea, Planaren beraren egitura eta kudeaketarako mekanismoak eta tresnak definituta.

Hori guztia lortzeko, ongi bereizitako bi etapatan zatitutako prozesua definitu zen: lehenengoan, Planak izan behar zuen egitura berria definitu zen, Legeari egokitze aldera; eta bigarreanean, egiturak izan behar zituen eduki zehatzak definitu ziren, legealdi honetan berdintasunean aurrera egiteko plangintza betetze aldera.

Egitura definitzeko etapa:

IV. Planaren egitura definitzeko, diziplina anitzeko talde bat osatu zen berdintasunaren inguruko jakintza bazuen hainbat eremutako –zuzenbidea, antolaketa eta kudeaketa, antropologia, soziologia eta psikologia– jendearekin, azterketan zenbait ikuspegi integratzearen.

Lehenik, Aholku Kontseilua sortu zuen talde horrek, hau da, berdintasunean adituak diren emakumeekin osatutako lan-taldea, eta aurreko berdintasun-planen ahulezien eta indarguneen lehen diagnostiko bat egin zuten, baita IV. Plana lantzearen nahiz legearen ondorioz sortutako mehatxuen eta aukeren diagnostikoa ere.

Diagnostikoaren osagarri, honako dokumentazio garrantzitsu hau berrikusi eta aztertu zuten:

- Berdintasunari buruz zegoen legedia, eta Plan berria lantzeko izan zitzakeen ondorioak.

- Estatuko berdintasun-politikei buruz landutako materialak, eta Autonomia Erkidegoetako berdintasun-planen arteko konparazio-azterlanak.
- EAEn zeuden berdintasun-planak.
- III. PAPME/EEEEPPren urteko programazioen eta ebaluazioen azterketak.

Azkenik, landa-azterketa bat egin zen, bi fasetan: alde batetik, adituekin elkarrizketa sakonak egin ziren, plan berriak bete beharreko premien inguruko ekarpenak egin zitzaten, baita planaren egiturak bete behar zituen ezaugarriak zehazteko moduaren ingurukoak ere; eta bestetik, bi eztabaida-talde dinamizatu eta aztertu ziren, bata PAPME/EEEEPPren eta legearen arteko integrazioari buruzkoa izanik, eta bestea laugarren PAPME/EEEEPPren kudeaketari eta ebaluazioari buruzkoa.

Horrela, proposamen bat osatu zen eta Aholku Kontseiluari igorri zitzaion, egin beharreko ekarpenak eta hobekuntzak egin zitzan. Ekarpen horiek integratuta, berriro ere Aholku Kontseiluari aurkeztu zitzaion egituraren inguruko dokumentua, onartzeko.

Edukiak definitzeko etapa:

Berdintasun-politiken inguruko jakintza bazuen jendearekin beste talde bat osatu zen, baina oraingoan, Plana osatuko zuten arloei buruzko ideien ekarpena egiteko profila betetzen zuten. Etapa hori lau fasetan osatu zen: aurreneko biak egin dira, eta hirugarrena eta azkena beranduago garatuko dira, Plana lantzeko prozesuari amaiera emateko:

1. Lehenengo fasean, oinarrizko hiru material –4/2005 Legea, EAEko Emakumeentzako Ekintza Positiboaren aurreko Planak, eta beste Berdintasun Plan batzuk– aztertu ziren, eta horietatik abiatuta, planaren lehenengo zirriborroa egin zen. Helburua honako hau zen: hasteko material bat izatea, eta material horretan oinarrituta, gizarte-eragileen eta erakundeen ordezkari esanguratsuek arlo guztietan ekarpenak egitea, elkarrizketa sakonen bitartez. Zirriborroa berriz idazteko baliatu zen informazio hori, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailen arteko Batzordeari aurkeztu zitzaion, aztertzeko.
2. Bigarren fasean, azterketa osatu behar zen, ikuspegi zabalagoa eta zenbakarriagoa lortu, eta erantzukizunak zehaztu. Arlo guztietako helburuen eta ekintzen egingarritasuna eta lehentasun-maila balioesten laguntzeko fitxa batzuk igorri ziren Zuzendaritza Kontseilura eta Batzorde Aholku-emailerara. Fitxetako edukia txertatutakoan, bigarren zirriborro bat idatziz zen eta berriro ere aztertu egin zuten erakundeetako eta gizarte-eragile parte-hartzaileetako ordezkariekin osatutako lan-taldean.
3. Planaren hirugarren fasean, kontsulta publikoa egin eta ekarpenak txertatu ziren.

4. Laugarren eta azken fasean, Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak eta Jaurlaritzaren Kontseiluak IV. Plana onartu dute.

Prozesuak, oro har, gizartean eta erakundeetan adostasun-maila handia duen dokumentua lortu du.

2.2.

4/2005 LEGEAREKIKO LOTURA

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea (05/03/02ko EHAA) aurrerapauso garrantzitsua izan da berdintasun-politikei dagokienez, izan ere, Lege bihurtu baitira eraginpean hartutako erakundeentzat lehen aukerakoak ziren planteamenduak, helburuak, baita ekintzak ere. Hortaz, berdintasun-politikei legitimitate handiagoa emateko lagungarri da, baina ez lege hori lantzeko heldutasun eta esperientzia handia behar delako soilik, baizik eta, batez ere, legearen ezarpena ez dagoelako erantzule politikoen borondatearen mende, lege-tresnak behar bezala aplikatzearen mende baizik. Hori dela-eta, funtsezkoa da lege-dokumentuaren edukia eta IV. Plana uztartzea, bai kudeaketaren eta ezarpenaren alderdiei dagokienez, bai dokumentuaren beraren egiturari dagokionez, hurrengo faseen jarraipena egitea errazteko moduan.

Legeari funtsezko hiru eginkizun esleitu zaizkio, Planaren egitura diseinatzeko eta moldatzeko garaian:

- Plana gauzatzekoan, botere publikoen jarduna arautu behar duten oinarritzko printzipioak ezartzea izan da lehenengo eginkizuna. Atariko Tituluan, zortzi printzipio definitu dira:

1. Tratu-berdintasuna.
2. Aukera-berdintasuna.
3. Aniztasunaren eta ezberdintasunaren errespetua.
4. Genero-ikuspegia integratzea.
5. Ekintza positiboa.
6. Sexuaren arabera rola eta estereotipoak desagerraraztea.
7. Ordezkaritza orekatua.
8. Koordinazioa eta lankidetzak.

EAEn garatzen diren berdintasun-politiken diseinua, ezarpena eta ebaluazioa zuzentzeko, mugatzeko eta horien oinarri izateko baliatu behar dira printzipio horiek guztiak.

— Bigarren eginkizuna eratzailea da; Esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurrien III. Tituluan zazpi kapitulu daude:

1. Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea.
2. Kultura eta Komunikabideak.
3. Hezkuntza.
 - a. Unibertsitateko irakaskuntza.
 - b. Unibertsitatekoa ez den irakaskuntza.
4. Lana.
 - a. Etxeko lanak.
 - b. Enplegua.
5. Oinarrizko beste gizarte-eskubide batzuk.
6. Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea.
7. Emakumeen aurkako indarkeria.
 - a. Ikerketa, prebentzioa eta prestakuntza.
 - b. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta eta babesa ematea Aurreragoko kapituluetan azalduko dugunez, ardatz estrategikoek eta arloek osatzen dute IV. Planaren egitura. EAEn emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzearen egitekoa erdiesteko bide nagusiak dira ardatz estrategikoak. Arloak, aldiz, hori lortzeko landuko diren eremu administratiboak dira. Legeak erabakitzen du Planak zein ardatz eta zein arlo izango dituen, III. Tituluari, bereziki, erreparatuta, eta eginkizun eratzaile honi jarraiki.

— Oinarrizko edukiak definitzea da hirugarren eginkizuna:

- Ardatz estrategikoak arloen bitartez zehazten eta garatzen dira, eta aldi berean, arlo horiek programen bitartez, hau da, jardunaren xede izango diren arloaren barruko alderdien bitartez. Programa bakoitzean hainbat helburu proposatu dira.
- Edukiak definitzeko eginkizun honi jarraiki, lortu nahi diren programak eta programa horien barruan, helburu zehatzak atera dira Legetik, eta apelaezinak dira, gizartearen eta erakundeetan ados jarrita onartu baitira, Lege bihurtu arte. Hari berari jarraiki, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren eginkizuna honako hau da: legealdi honetan, euskal botere publikoen jarduna bideratuko duten jarraibideak adieraztea, eta horretarako, Legetik eratorritako helburuen artean lehentasun-mailak ezarri dira, helburu horiek lortzeko estrategia eta ekintza zehatzak proposatuta. Planaren bitartez, legealdi honetan ezarritako helburuak lortzera bideratu dira jardun publikoaren ahaleginak, baita ahalegin horiek bat-egitera ere, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko aldaketa beharrezkoenak eta premiazkoenak direla ulertuta. Eta hori guztia bestelako jardunak alde batera utzi gabe, hain zuzen ere, administrazioek eta beste botere publikoek garatzen dituzten bestelako jardunak, Legean ezarritako eskumenak eta eskakizunak betez. Bestela esateko, Planean erabakitzen da zeintzuk diren esku-hartze publikoaren lehentasunak

emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, legealdi honetan, baina ez ditu baztertzen izan daitezkeen bestelako jardun-aukerak.

- Eta aurreko hori guztia argi gera dadin, IV. Planean azpigitulu bat erantsi da: “VIII. Legealdirako Jarraibideak”

2.3.

PLANAREN EGITURAZKO ELEMENTUEN DESKRIBAPENA

Planaren egiturazko elementu nagusiak lau dira: ardatzak, arloak, programak eta helburuak. Horietaz gain, Planaren garapenean tartean sartutako administrazio eta erakunde guztiek gero gauzatu beharreko planifikazioari laguntze aldera, eta izan daitezkeen proposamen gisa, proposaturiko helburuak erdiesteko egokiak izan daitezkeen esku-hartze estrategiak erantsi dira, baita estrategia horiek garatzeko ekintzen proposamenak ere. Atal honetan, elementu horietako bakoitza definituko dugu, planaren egituraren barruan betetzen duen eginkizuna azalduko dugu, eta nola zehazten den ere bai.

Ardatz estrategikoak:

Berdintasun-politikei dagokienez, datozen urteotan landuko diren lehentasunezko gaiak definitzen dira ardatz estrategikoen bitartez.

Lehentasuna honako irizpide hauen arabera erabakitzen da:

- a. 4/2005 Legean sartuta daude.
- b. Berdintasunerako politiketan landu beharreko erronka nagusitzat hartu izan dira azken urteotan egindako hausnarketa-foroetan –tokikoak, estatukoak eta Europakoak–.
- c. Erakundeen artekoak dira, eta arlo guztietako lehentasunak egituratzeko gai dira.
- d. Gizarte-premiaren printzipioari erantzuten diote, eta aldatzeko ahalmen handia dute.

Hain justu, lau ardatz definitu dira:

- Mainstreaminga.
- Ahalduntzea, eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea.
- Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna.
- Emakumeen aurkako indarkeria.

Hurrengo kapituluan definituko dugu ardatz bakoitzaren eduki zehatza: zer den, aldatu nahi duen gizarte-errealitatea –ikuspegia– eta horretarako jardun-ildo nagusiak.

Arloak:

Berdintasuna lortzeko lanaren abiapuntu izango diren esku-hartze eremu funtzionalak dira arloak. IV. Plana nahiz Legea aplikatzeko mekanismo nagusi izaki, euskal administrazio publikoen egitura antolaketa funtzionalean oinarritzen da, sailka. Erakunde bakoitzak sail-egitura propioa duen arren, IV. Planean jasotzen diren esku-hartze arloak –4/2005 Legetik ateratakoak– administrazioetan agertzen dira, egitura zehatzetan erraz ezagutzeko moduan. Sailetako erantzukizunak ez dira arlo jakin batera mugatzen, izan ere, zenbait sailen eskumen-eremuan arlo bat baino gehiago sar baitaitezke; hala ere, arloka antolatuta errazagoa da bakoitzaren eginbeharraren ikuspegi bateratua –zein ildo politiko garatu behar diren– lortzea, betiere berdintasunaren helburuak erdiesten laguntzeko.

Programak:

Jardun-eremuak dira: arlo bakoitzean berdintasun-politiken ardatz estrategikoak zehazteko modua definitzen dute; hortaz, guztietan gutxienez esku-hartze programa bat izaten da ardatz bakoitzeko. Berdintasunerako legetik bertatik eta arlo bakoitzeko premien diagnostikotik sortzen dira programak, ardatzetako zein jardun-ildo sartzen diren erabakita.

Helburuak:

Programak helburuez osatuta daude, eta aldatu nahi den gizarte-errealitatea definitzen dute. Egin beharrekoa lehenesteko eginkizuna betetzen dute helburuek, eta proposaturiko adierazleen bitartez eta osteko ebaluazioen bitartez, lortutako emaitzen nondik norakoa zehazten dute. Halaber, helburuen bitartez adierazten da estrategien eraginkortasun-maila, helburuak lortzeko administrazioek proposatutako eta erabilitako estrategiena, hain zuzen ere. Helburuek zehatzak eta neurgarriak izan behar dute, eraginkorrak eta erraz ulertzeko modukoak; hortaz, lortu nahi dena argi eta garbi azaldu behar da, helburua osatzen duten kontzeptuak argitu eta mugatu behar dira –zalantza eragin badezakete–, eta gizarte-eraginaren adierazleak definitu behar dira. Era berean, eragin-adierazleen bitartez, gaur egungo egoera alderatu ahal izango dugu Plana ezarri osteko gizarte-errealitatearekin. Definitutako lau elementu horiek osatzen dute Planaren nukleo nagusia, eta 4/2005 Legearen 15. artikuluko 1. puntuan adierazitako eskakizunari erantzuten diote, alegia, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, euskal botere publikoen jarduna bideratu behar duten esku-hartze ildoak eta jarraibideak zehazteko eskakizunari. Administrazio publikoen jarraibide horiek abiapuntu hartuta, eta 15. artikulua 2. eta 3. puntuei jarraiki, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek berezko berdintasun-planak egin behar dituztela ulertzen da, non Plan honetan ezarritako helburuak betetzeko lagungarri izango diren prozesuak, epeak eta baliabideak erabakiko eta zehaztuko

dituzten. Hala ere, proposaturiko lau elementuen inguruan beharrezko adostasuna lortutakoan, esku hartzeko eredu edo proposamen gisa, eta plangintza horiek osatzeko lan teknikoaren lagungarri, beste bi elementu gehitzea proposatu da: **estrategiak** eta **ekintzak**.

Estrategiak:

Proposaturiko ekintzen zentzua zehazten da estrategien bitartez; hots, helburua lortzeko gara daitekeen lan-prozesu egoki bat eta ikuspuntu bat deskribatzen dituzte. Oro har, helburu bakoitzerako estrategia bakarra proposatzen da, baina helburu konplexuetan batera daitezkeen bi estrategia deskribatu izan dira.

Ekintzak:

Helburu bera lortzeko ekintza guztiek elkarlotzen dituen logika bati jarraitzen diote, dela elkarren segidako lotura bat badutelako –batzuk besteren mendekoak dira–, dela hainbat eremutatik edo tresna ezberdinak baliatuta, emaitza bera lortzeko batuketa-eragina lortu nahi dutelako. Estrategiak garatzeko proposamen zehatzak dira, eta helburua erdiesteko lehentasunez-kotzat jotakoa adierazten dute, lortzeko prozesu horretan laguntza handiagoa ematen dutelako, edo bestela, ekintza kritikoei ekin aurretik garatu beharreko alde aurreko urratsa direlako. Administrazioak eskura dituen esku-hartze tresnen arabera sailkatzen dira proposatutako ekintzak:

- Jakintza sortzea.
- Sentsibilizazioa, informazioa eta zabalkundea.
- Prestakuntza.
- Baliabideak eta zerbitzuak sortzea eta egokitzea.
- Arauak sortzea eta egokitzea.
- Jarraipen-mekanismoak sortzea eta egokitzea.

3.

PLANA EZARTZEKO NEURRIAK



3.1.

BULTZATZEKO ETA KOORDINATZEKO EGITURAK

Dokumentu honetan proposatutako berdintasun-politiken helburuak betetze aldera, plana erakunde-maila guztietan ezartzea eta ahaleginak koordinatzea (dela erakundea osatzen duten sailen artean, dela erakundeen beraien artean) ahalbidetzeko egitura jakin batzuk beharrezkoak dira.

Jarraian, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plan honen garapenaren oinarri diren egiturak adieraziko ditugu, bakoitzean ebaluazio-adierazleak definituta. Zenbait kasutan, 4/2005 Legean xedatua dago egitura horiek sortzea, eta era berean, legearen indarraldian lortu beharreko helburuak dira horien zehaztapena, garapena eta/edo indartzea.

ERAKUNDE BARRUAN EZARTZEKO EGITURAK

I. AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA

a. Bultzatzeko egiturak:

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea:

Berdintasunerako Legearen 9. artikuluari jarraiki, Autonomia osoko eremuan, oro har, Planaren ezarpena sustatzea dagokio, baita Plana lantzea, ebaluatzea eta laguntza teknikoa ematea ere, administrazio publiko guztietan gauzatu dadin.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitate administratiboak:

Berdintasunerako Legearen 11. artikuluan xedaturikoa betez, sail bakoitzean osatu beharko dira. Unitate horien egitekoa da dagokien sailean emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken ezarpena sustatzea, Plana garatzeko sailaren jarduna indartzea eta lantzea, eta saileko langileei eta gainerako erakundeei laguntza teknikoa ematea, bakoitzaren sektore-eremuan berdintasun-printzipioa aplikatzeari dagokionez.

Ebaluazio-adierazleak:

- Sortutako berdintasunerako unitate kopurua.
- Berdintasunerako unitateek egindako programazio eta ebaluazio kopurua.

b. Koordinatzeko egiturak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sailen arteko batzordea:

Berdintasunaren inguruko Eusko Jaurlaritzaren jardunak koordinatzeko organoa da, Legearen 13. artikuluan arabera. Besteak beste, honako egiteko hauek dagozkie: Jaurlaritzan Planaren gauzapena koordinatzea, programazioko, jarraipeneko eta ebaluazioko prozesuak dinamizatuta; eta gai horren inguruan, sailen arteko ekintzak indartzea. 1993. urtean sortutako Batzorde horretan sail bakoitzean sailburuorde-maila duten ordezkariak daude, eta talde tekniko baten laguntza izaten du. Legealdi honetan, hainbat arlotako berdintasun-politiken ezarpen-mailari eta kudeaketari buruzko jakintza sortzeko Batzorde horrek eta talde teknikoak egiten duten ahalegina indartzea lortu nahi da, esperientziak elkartrukatzea, sailen arteko jardunak koordinatzea eta bultzatzea, trebetasunak garatzea, eta eremu horretarako tresnak sortzea.

Ebaluazio-adierazleak:

- Sailen arteko batzorde politikoak urtean egindako bilera kopurua.
- Sailen arteko talde teknikoak urtean egindako bilera kopurua.

II. FORU ADMINISTRAZIOA

a. Bultzatzeko egiturak:

Berdintasunerako foru-organismoak edo foru-unitate administratiboak:

Legearen 10. artikuluan aurreikusten dira. Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren ezarpena sustatu behar dute. Horretarako, eta Legearen 10. eta 15. artikuluen arabera, berdintasunerako foru-plana landu, indartu eta horri jarraipena egin beharko diote, Legean aurreikusitako jarraibideak zehaztuta. Horretaz gain, Foru Administrazioa osatzen duten gainerako organoei eta erakundeei aholkularitza eskaini behar diete gai horren inguruan.

Ebaluazio-adierazleak:

- Sortutako berdintasunerako foru-organismoen edo foru-unitateen kopurua.
- Berdintasunerako foru-organismoek eta foru-unitateek egindako programazio eta ebaluazio kopurua.

b. Koordinatzeko egiturak:

Berdintasunerako koordinazioko foru-organoak.

Berdintasunerako IV. Plana eta dagokion Foru Plana gauzatzeko prozesuan, Foru Aldundi bakoitzaren jardunak koordinatzeko organoak sortzea sustatuko da. Berdintasunerako foru-politiken programazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatzeaz, eta gai horren inguruko sailen arteko ekintza koordinatua bultzatzeaz arduratuko direla aurreikusten da. Autonomiako Administrazioaren Sailen arteko Batzordearen antzeko osaera eta eginkizunak izan ditzake.

Ebaluazio-adierazleak:

- Sortutako koordinazioko foru-organoen kopurua.
- Koordinazioko foru-organoek izandako bilera kopurua.

III. TOKIKO ADMINISTRAZIOA

a. Bultzatzeko egiturak

Berdintasunerako tokiko organoak edo unitate administratiboak:

Legearen 10. artikuluan aurreikusten dira. Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren ezarpena sustatu behar dute. Horretarako, eta Berdintasunerako Legearen 10. eta 15. artikuluen arabera, berdintasunerako tokiko plana landu, indartu eta horri jarraipena egin beharko diote, Legean aurreikusitako jarraibideak zehaztuta. Horretaz gain, Tokiko Administrazioa osatzen duten gainerako organoei eta era-kundeei aholkularitza eskaini behar diete gai horren inguruan.

Ebaluazio-adierazleak:

- Sortutako berdintasunerako tokiko organo edo unitate kopurua.
- Berdintasunerako tokiko organoek edo unitateek egindako udal-programazio eta -ebaluazio kopurua.

b. Koordinatzeko egiturak

Berdintasunerako koordinazioko tokiko organoak.

Berdintasunerako IV. Plana eta dagokion Udal Plana gauzatzeko prozesuan, udal bakoitzaren jardunak koordinatzeko organoak sortzea sustatuko da. Berdintasunerako udal-politiken pro-

gramazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatzeaz, eta gai horren inguruko sailen arteko ekin-tza koordinatua bultzatzeaz arduratuko direla aurreikusten da. Autonomia Erkidegoko eta Foru Administrazioetako organoen antzeko osaera eta eginkizunak izan ditzakete.

Ebaluazio-adierazleak:

- Sortutako koordinazioko tokiko organoen kopurua.
- Koordinazioko tokiko organoek izandako bilera kopurua.

Udalen arteko koordinazioa:

Sareak sortzeari bultzada emango zaio, tokiko eremuan berdintasunerako politiken ezarpena eta garapena indartze aldera, antzeko ezaugarriak dituzten udalerriek komunean dituzten arazo-en inguruan batera lan egiteko eta hausnartzeko gune bat sortuta.

Sare horiei esker, elkarri praktika onen berri emateko eta hausnarketarako guneak sortuko dira, kudeaketa-tresnak garatu, jardunak batera egin, etab. Halaber, Berdintasunerako Planak uda-lerrietara egokitzearen gaineko jakintza sortzea ahalbidetuko duten dinamikak ere sortuko dira.

Ebaluazio-adierazleak:

- Udalen arteko koordinazio-sareen kopurua.
- Izandako bilera kopurua.

ERAKUNDEEN ARTEAN EZARTZEKO EGITURAK

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundeen arteko batzordea:

Berdintasunerako Legearen 12. artikulua arabera sortutako organo hori arduratzen da Euskal Administrazio Publikoaren hiru mailetan garatzen diren berdintasunaren inguruko poli-tikak eta programak koordinatzeaz. Ildo berari jarraiki, autonomiako administrazioei, foru-administrazioei eta tokiko administrazioei dagokie Legearen 15. artikuluan araututako berdintasunerako planen egiazko aplikazioa bultzatzea eta koordinatzea, baita aplikatzeaz ardu-ratzen diren erakundeekin eta organoekin lankidetzan aritzea ere. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gaiari dagokionez, Euskal administrazio publikoen arteko elkarri-zketarako organo izango da, baita esperientzia eta proposamenak elkartrukatzeko gunea ere, adminis-

trazioaren maila guztien artean sinergiak sortzearen, berdintasun-politiken kudeaketa eta emaitzak optimizatzeko aldera. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako proposamenak egin eta jarraibideak ezarriko ditu, euskal administrazio publiko guztien esku-hartzeak eta jardunak koordinatzeko, bai politika espezifikoei dagokienez, bai politika sektorialetan berdintasun-printzipioa txertatzeari dagokionez. Euskal hiru administrazio publikoetako sailburuorde-maila edo baliokidea duten ordezkariekin osatuko da, administrazio bakoitzak ordezkari kopuru berdina duela. Batzordearen barruan, laguntza emateko erakundeen arteko talde tekniko bat osatuko da, baita hainbat lan-talde ere, gai zehatzak modu espezifikagoan edo sektorialagoan aztertze aldera.

Ebaluazio-adierazleak:

- Erakundeen arteko Batzordeak izandako bilera kopurua.
- Laguntza emateko erakundeen arteko talde teknikoak izandako bilera kopurua.
- Sortutako lan-talde espezifikoko/sektorial kopurua.
- Egindako txosten kopurua.

GIZARTE EZARPENeko EGITURAK

Emakumeek eta mugimendu asoziatiboak politika publikoetan parte hartzeko erakundea:

4/2005 Legearen 24.5. artikuluan aurreikusten da erakunde horren sorrera. Gaur egun kontsulta-prozesua gauzatzen ari da, eta prozesu horren arabera izango dira erakundearen behin betiko osaera eta konfigurazioa; besteak beste, honako eginkizun hauek izan ditzake: euskal administrazio publikoei aholkularitza ematea berdintasunaren inguruan; berdintasun-planari eta EAEn gai horren inguruan egiten diren arau-proiektuei buruzko txostenak egitea; emakumeen elkarleen arteko lankidetzaren indartzea, eskualdeko eta tokiko kontseiluen sorrera sustatzea; emakumeen ahalgintza sustatzea; Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan aritzea eta erakundearen zuzendaritza-kontseiluan parte-hartzea.

Ebaluazio-adierazleak:

Emakumeek eta mugimendu asoziatiboak politika publikoetan parte hartzeko erakundeak eta Emakundek urtean izandako bilera kopurua.

3.2.

KUDEAKETA SISTEMA

Proposatu diren kudeaketa-mekanismo nagusiak bi dira:

- Programazioa.
- Ebaluazioa.

PROGRAMAZIOA

Legaren 15. artikuluan xedaturikoa betez, Jaurlaritzaren sailek, Foru Aldundiek eta Udalek **berezko Berdintasun-planak edo -programak** egin beharko dituzte. Plan edo programa horiek onartu aurretik, Emakundek berretsi behar du Autonomia Erkidegoko plan orokorrean aurreikusitako jarraibideei egokitzen zaizkiela; hortaz, gutxienez lau urtean behin berritzea gomendatzen da, baina aldi hori eraginkorra ez den kasuetan, administrazio bakoitzak egoki iritzitako aldizkakotasuna ezarriko da.

Dokumentu honetan ezarritako jarraibideen arabera planak edo programak direla bermatzeko, eta aldi berean, aplikazio-lurraldearen premietara egokitzen direla bermatzeko, honako prozesu honi jarraitzea gomendatzen da:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana aztertzea, erakundea zein helburutan den eskuduna zehaztuta.
- Dagokion lurralde-eremuaren gizarte-premien diagnostikoa egitea, eskura dagoen informazioa edo *ad hoc* azterlan bat oinarri hartuta.
- Berdintasunerako IV. Planaren jarraibideetan eta premien diagnostikoan oinarrituta, Planaren aplikazioaldian erakundeak ezarriko dituen lehentasunezko helburuak erabakitzea.
- Helburua lortzeko gomendaturiko estrategiak eta ekintzak ezartzea bideragarria ote den aztertzea. Bideragarriak ez badira, ordezeko jardunak bilatzea.
- Gomendatuak izan ala ez izan, helburuak erdiesteko proposatzen den jardun sorta definitzea.
- Urteko jardunaren ebaluazio-irizpideak, arduradunak eta banaketa-kronograma ezartzea.

Aurreko guztia alde batera utzi gabe, eta Legeak erabakitako egituren sorrerak ahalbidetzen duen heinean, bultzatzeko egituren bitartez, administrazio guztietako sail edo arlo bakoitzak dokumentu bat lantzea sustatuko da, eta dokumentu horretan honako hauek zehaztuko dira: urtean zehar egingo diren jardunak barnean hartuko dituen **urteko programazioa**, lortu nahi diren emaitzak, arduradunak, eta esleitutako aurrekontuak.

EBALUAZIOA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak egingo du planaren ebaluazio orokorra, urteko ebaluazio orokorretatik abiatuta, eta erakunde bakoitzak bere ardurapeko jardunei buruz egin beharreko beste ebaluazio partzialak alde batera utzi gabe.

Prozesu horren emaitzan honako atal hauek sartuko dira:

- Eraginaren ebaluazioa: arloetako adierazleen bilakaera aztertuta, lorturiko gizarte-aldaketaren maila deskribatuko da. Adierazleen bilakaeraren azterketa kuantitatiboa osatzearren, datuen interpretazioa hobetzeko eta horren arrazoiak aztertzeko azterlan kualitatiboa egingo da.
- Betetze-mailaren edo emaitzen ebaluazioa: helburuak betetzeko erakundeek garatutako jardunak aztertuko dira, baita sorturiko koordinazioko egiturak eta dinamikak ere.

Parte-hartze prozesuen bitartez gauzatuko da hori guztia, behar bezala komunikatuta, eta gizarte-eremuan eraginda.

4.

ARDATZ ESTRATEGIKOAK



1.

MAINSTREAMINGA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAN

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen printzipio nagusien artean, honako hau dago: botere publikoek gauzatzen dituzten politika eta ekintza guztietan genero-ikuspegia integratzea, emakumeen eta gizonen arteko desorekak ezabatzearen eta berdintasuna sustatzearen (Atariko titulua, 3. artikulua). Legearen ondorioetarako, honako hau da genero-ikuspegiaren integrazioa: “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea”.

Legearen bigarren tituluan, euskal botere eta administrazio publikoen jardunean genero-ikuspegia integratzeko neurriak ezartzen dira. Hartu beharreko lehenengo neurria planifikazioa da; planifikazioaren bitartez, Plan honetan proposaturiko jarraibideak aintzat hartuta, administrazio bakoitzak berdintasun-plan bat edo berdintasunerako jardun-programa bat lantzea lortu nahi da. Bigarren kapituluan, administrazioek egiten dituzten estatistiketan eta azterlanean genero-ikuspegia benetan integratzen dela bermatzeko beste hainbat neurri ezartzen dira. Hirugarren kapituluan, administrazio langileen gaikuntza arautzen da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloan, hain zuzen ere, genero-ikuspegia administrazio-jardunean benetan integratzen dela bermatzearen. Halaber, administrazioaren araudian eta jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak biltzen dira Legearen laugarren kapituluan; esate baterako: generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzea, botere publikoek hizkuntza modu ez sexistan erabili beharra, eta diru-laguntzak esleitzeko eta kontratazioko balorazio-irizpidetza hartzea genero-ikuspegia. Legegintzako neurri horien helburua da prozesu etengabe bat indartzea eta bultzatzea: euskal administrazio publikoen jardun orokorrean genero-ikuspegia integratzeko prozesua, alegia. Neurri horiek modu mailakatuan ezarrita, etorkizunean erabakiko diren Politika Publikoen plangintzan eta esku-hartzean genero-ikuspegia kontuan izango da, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko dute.

2.

POLITIKA PUBLIKOETAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEAREN ALDE

Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialeko Batzordeak 1987. urtean proposatu zuen lehen aldiz mainstreaminga edo zeharkakotasuna, baina 1991. urtean hartu zen espresuki estrategia orokortzat Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako III. Ekintza Komunitarioko Programaren (1991-1995) barruan.

Europako Kontseiluko Aditu Taldearen arabera, genero-mainstreaminga honako hau da: “neurri politikoak hartzen tartean sartuta egon ohi diren eragileek prozesu politikoak antolatzea (berrantolatzea), hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, politika guztietan genero-berdintasunaren ikuspegia txerta dezaten, maila eta etapa guztietan.” Hari berari jarraiki, lehendik baziren berdintasun-politika espezifikoak osatzea litzateke zeharkakotasunaren xedea, politika sektorialetan berdintasun-printzipioa txertatuta, eta sektore jakin horretan emakumeen eta gizonen errealitatean eragingo duen esku-hartze publikoa planifikatzeko jakintza sortzeari dagokionez, beharrezko euskarria lortzea errazten duen bide bakarra dela jakinda.

3.

ZEHARKAKOTASUNA ESTRATEGIA GISA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANEAN

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren bitartez, mainstreamingaren estrategia lantzea lortu nahi da, hainbat ildotatik:

Planaren egituratik bertatik, lau ardatz sektore –mainstreaminga, ahalduntzea, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria– definitzen baititu, eta horiek guztiak administrazioaren arlo guztietan jasotzen dira, sektoreetatik horiei ekitea ahalbidetuz.

Planaren abiapuntutik eta kudeaketatik bertatik, hainbat eragile sartzen baitira tartean plana indartzeko garaian –zentzu horizontalean eta bertikalean–, aldez aurretik badiren edo horretarako aurreikusitako bultzatzeko eta koordinatzeko egiturak eta mekanismoak tartean sartuta.

Sektore-mailan, Planean bertan –eta modu espezifikoan, mainstreamingaren ardatzean– txertatzen diren hainbat programatik, esku-hartze arloan bertan genero-ikuspegia integratzeko helburua dutela.

Horrela, Plan honen arlo bakoitzean programa bat sartzen da, sektorearen barruan estrategikotzat jotzen den eremu batean genero-ikuspegia integratzearekin loturik, Berdintasunerako

Legear sartzen diren genero-ikuspegia integratzeko neurri espezifikoekin loturiko jardunak sartuta programak osatzen dituzten helburu bakoitzaren esku-hartze zikloan.

Bestalde, eta lehen ere esan dugunez, genero-mainstreamingak edo genero-ikuspegia integratzeak honako hau dakar: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, itxaropen eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea esku-hartze publikoan. Dena den, emakumeen eta gizonen kolektiboak ez dira kolektibo homogeneoak eta Planak ezin du alde batera utzi kolektibo bakoitzaren barruan dagoen aniztasuna. Ildo berari lotuta, bereziki aipatu behar ditugu askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeak edo emakume taldeak, diskriminazio-egoerak eragin ditzaketen beste hainbat faktorek bat egiten dutelako haiengan; esate baterako, honako faktore hauek: arrazak, koloreak, jatorri etnikoak, hizkuntzak, erlijioak, alde bateko edo besteko iritzi politikoek, gutxiengo nazional jakin batekoa izateak, ondareak, jaiotzak, ezintasunak, adinak, sexu-orientazioak edo bestelako baldintza edo egoera pertsonal edo gizarte-mailakoak.

Hori dela-eta, oro har, eta zeharkako moduan, Plan honetan aurreikusitako helburu eta jardun guztiak garatu, gauzatu eta ebaluatzeko garaian, kontuan izan beharko dira emakumezko eta gizonezko taldeen espezifikotasunak, eta batik bat, askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeenak. Horretaz gain, esku-hartze orokor eta zeharkako horren osagarri, helburu eta jardun espezifikoak ere proposatu dira talde horiei begira, estrategia duala –zeharkakotasuna eta neurri espezifikoak– kasu horietan ere aplikatu ahal izateko.

II. ARDATZA

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA

1. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAN

1. artikuluaaren arabera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen xedea da emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta bermatzea, eta bereziki, emakumeen autonomia sustatzea eta haien egoera indartzea. Gainera, printzipio orokorrak biltzen dituen 3. artikuluaaren bitartez, Legeak honako hau aldarrikatzen du: "Euskal herri-aginteeek neurri ego-kiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomi-koak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne". Legean argi eta garbi geratzen da auke-ra-berdintasuna ez dagoela baliabideetarako eta etekinetarako sarbidean, eta botererako sar-bideko hasierako edo abiapuntuko baldintzekin soilik loturik, baizik eta baita horiek gauza-tzeko eta benetan kontrolatzeko baldintzekin ere.

Illo beretik, Legeari jarraiki, emakumeek botererako eta baliabideetarako sarbidea lor deza-ten ez ezik, horiek gauzatzea eta kontrolatzea ahalbidetzeko neurriak ere ezarri behar dira. Artikulu horretan ahalduntze hitza espresuki agertzen ez den arren, modu inplizituan prozesu hori aipatzen du (1).

(1) 1984. urtean Indian sortutako estrategia da ahalduntzea, eta Emakumeari buruzko III. Munduko Konferentzia (Nairobi, 1985) sartu zuten, honela definituta: "baliabide materialen (fisikoak, giza baliabideak edo finantzarioak, hala nola ura, lurra, basoak, gorputzak, lana, dirua), baliabide intelektualen (jakintza, informazioa, ideiak) eta ideologiaren (sinismenak, balioak, jarrerak eta jokabideak zabaltzeko, horiei eusteko eta instituzionalizatzeko erraztasunak) kontrolerako emakumeen itzulera mai-lakatua.

Halaber, hirugarren tituluaren barruan, kapitulu oso batean gizartearen eta politikaren arloko emakumeen parte-hartzea indartzeko neurriak ezartzen dira. Neurri horien artean daude honako hauek: politika publikoen garapenean, emakumeen eta emakume-elkarteen benetako parte-hartzea ahalbidetuko duen erakunde bat sortzea, baita euskal administrazio publikoekin hitz egiteko mintzakide baliozkoa izatea ahalbidetuko duena ere, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez.

2.

AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA, BOTEREEN ARTEKO OREKA BERRIZ EZARTZEKO ESTRATEGIATZAT

Emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrerapauso handiak egin ditugun arren, gure gizartean desoreka handiak daude oraindik boterearen, baliabideen eta etekinen banaketan.

Sistema patriarkalean genero maskulinoa boteretik definitzen da, funtsean, eta beraz, genero femeninoa, mendekotasunetik. Bizitzaren eremu guztietan agertzen dira botere-harreman desorekatuak, eta hainbat modutan adieraz daitezke: eremu pribatuan, menderatzeko eta kontrolatzeko mekanismotzat indarkeria baliatuta, eta eremu publikoan, emakumeak agintetik, eragin-ahalmenetik (2), dirutik eta baliabideetatik kanpoan utzita, modu sistematikoan. Hau da, emakumearen autonomia fisikoa, ekonomikoa, politikoa eta gizarte-arlokoa ukatuta.

Hierarkia-harreman horiek ezabatu eta boterea berriro ere orekatzea lortzeko, emakumeek boterea konkistatu behar dute arian-arian, genero-harremanak berriz eraikita, gizarte-arloan. Baina ez sistema patriarkalak izan duen botere-kontzeptuan oinarrituta, baizik eta boterea beste modu batera ulertuta, emakumeen erabateko autonomian eta herritartasunean oinarrituta, alegia.

Ilido beretik, emakumeek konkistatu beharreko lau autonomia mota, gutxienez, aipa ditzakegu: autonomia fisikoa, emakumeek beren gorputzaren, sexualitatearen eta ugalkortasunaren gaineko boterea eta kontrola gauzatzeko aukera izanda; autonomia ekonomikoa, baliabideetarako eta ondasunetarako sarbidea eta horien gaineko kontrola izanda; autonomia politikoa, oinarritzko eskubideetarako benetako sarbidea eta horiek gauzatzeko aukera izanda, esate

(2) Emakumeentzako Nazio Batuen Fondoaren (Unifem) txostenaren arabera, erabakiak hartzeko zentroetan emakumeek duten presentzia da aldatzen ez den desoreka-adierazle bakarra, herrialdearen pobrezia-mailaren arabera.

baterako erakundeetan parte hartzeko eskubidea, erabakiak hartzeko guneetan, alderdi politikoetan... Gizartearen eta kulturaren arloko autonomia, kultura-baliabideetarako eta informazioarako sarbidea eta horien kontrola ez ezik, nortasun independentea, norberaren balioaren onarpena eta autoestimua-sentimendua izateko eskubidea ere izanda.

Emakumeen ahalduntzea, eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea ezinbesteko estrategiak dira autonomia eta eskubide osoko herritar izatea lortzeko.

Baina zeri esaten diogu ahalduntzea? Ahalduntzea hitza ingelesezko empowerment kontzeptuaren itzulpen literala da, eta “boterea irabazi” esan nahi du, indartzea, alegia, emakumeen gizartearen, ekonomiaren eta politikaren arloko egoeran. Emakumeen kontzientziazio-prozesuarekin –banakakoa eta kolektiboa– loturik dago, eragin-gaitasunerako eta boterea gauzatzeko sarbidea ematen duten prozesuetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte-hartzea areagotzeko aukera dutela.

Ahalduntze-prozesuan bi maila sartzen dira, banakakoa eta kolektiboa. Banakako mailan, emakumeen mendekotasunari buruzko kontzientziazio-prozesua da, eta maila kolektiboan, bizitzaren hainbat eremutan emakumeek pairatzen duten gizarte-mendekotasunari eta diskriminazioari buruzko kontzientziazioa lortzea.

Hortaz, estrategia zabala dela esan dezakegu, subjektiboa nahiz objektiboa barnean hartzen dituen, banakakoa nahiz kolektiboa, tokikoa nahiz orokorra.

Banakakoa, emakume bakoitzak bere indarguneak ezagutu eta botere pertsonala sendotuko duen banakako kontzientziazioaren bitartez ekiten zaiolako, bere eragin-gaitasuna gauzatzearren.

Kolektiboa, banakako horretan prozesua ez dela amaituko ulertuta, ikuspuntu kolektibora ere igaroko baita. Banakotasunetik eta subjektibotasunetik egindako lan horri esker, emakumeen interes kolektiboen aldeko borrokaren inguruan, hots, genero-interesen alde antolatzeke aukera izango dute emakumeek.

Tokikoa eta Orokorra, emakumeei ingurune hurbileneko (gizartearen, politikaren, ekonomiaren, ekologiaren eta kulturaren arloko ingurunea) errealtatea ulertzeko aukera ematen dien estrategia delako, zapaltzen dituzten botere-egituren gainean hausnartzeko aukera, eta munduan haien egoera eta baldintzak hobetzeko ekimenei ekiteneko aukera.

Hori horrela izanik, boterea lortzeko eta norberaren banakotasuna erabateko autonomiatik eta herritartasunetik gauzatzen duten lagun bihurtzeko balio duen estrategia da ahalduntzea. Aldi berean, prozesu bat ere bada, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna lortzeko ezinbesteko prozesua, berdintasun hori ez baita iritsiko botere-harreman hierarkikoak ezabatzen ez badira, eta emakumeak kanpoan uzten ez dituen botere-eredu berri bat eraikitzen ez bada.

Hala ere, zaila izango da gizarte-antolaketako eredu barne-hartzaile eta ez-hierarkizatua erai-
kitzea, biztanleriaren %50 prozesu horretatik at baldin badago. Horregatik guztiagatik, ema-
kumeak ahalduz erekin batera, ezinbestekoa da formula eta gune jakin batzuk prestatzea,
non gizonak –banaka nahiz, dagokionean, modu kolektiboan– egungo sistema patriarkalaren
zuzentasunari, bidezketasunari eta iraunkortasunari buruz hausnartuko duten eta gai horien
inguruan sentsibilizatuko diren, izan ere, gizonetako egiturazko mendekotasun-egoeran uzten
baititu emakumeak; sexuaren araberrako estereotipo eta rolak izaki sistema patriarkal horren
oinarri, estereotipo eta rol horiek norberaren nortasunaren garapen integralean duten eragin
negatiboari buruz ere hausnartuko dute, haien gaitasun eta ahalmen guztiak baliatzea era-
gozten edo oztopatzen duten heinean, batik bat, ugalketaren eta maitasunaren munduarekin
loturiko gaitasunak eta ahalmenak.

Gure ustez, sentsibilizazioko eta hausnarketako prozesu horiek lagungarri izan daitezke geroz
eta gizon gehiagok zalantzan jar dezaten maskulinitasun-eredu tradizionala, sistema patriar-
kalak eman diezazkiekeen pribilegioei uko egin diezaieten, eta modu aktiboan konpromisoa
har dezaten gizarte-eredu demokratikoagoa, bidezkoagoa eta berdintasunezkoagoa lortzeko;
gizarte-eredu horretan, jende guztia libre izango da –eremu publikoan nahiz pribatuan– nor-
beraren gaitasunak garatzeko eta erabakiak hartzeko, sexuaren araberrako rol tradizionalak
ezarritako mugak gaundituta, eta emakumeen eta gizonen jarrera, itxaropen eta premia ezber-
dinak kontuan hartu, balioetsi eta indartuko dira. Hori horrela izanik, gizarte-eredu berri hori
eraikitzeko gizonen inplikazio handiagoa sustatzeko zenbait jardun sartu dira Planean.

3.

AHALDUNTZEA ETA GIZARTEAREN ETA POLITIKAREN ARLOKO PARTE-HARTZEA BULTZATZEA ETA INDARTZEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANEAN

Emakumeen ahalduntzerako prozesuak sustatzeko, indartzeko eta errazteko egitura izan behar
du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak. Baina hasierako abiapuntuan ditu-
gun mugak ezberdinak dira. Alde batetik, nortasunetan eta subjektibitateetan, eta banakako
kontzientziantan eragiteko esku-hartze publikoak berak dituen mugak aurkituko ditugu. Bestetik,
indartu nahi den prozesuak berak dituen mugak, norberaren banakako kontzientziazioetik dato-
rren prozesua baita ahalduntzea, eta ezin baitu ezein erakundek eragin, baina erakundeen
prozesu horri lagun diezaiokete.

Hari berari jarraiki, ahaluntze-prozesu horiek bultzatzen eta sustatzen laguntzeko asmoa du Planak, baita emakumeen autonomian eragitekoa ere. Horretarako, lau lan-ildo antolatu dira, emakumeen autonomia fisikoa, politikoa, ekonomikoa, eta gizartearen eta kulturaren arloko autonomia lortzeko lagungarri. Ildo horien barruan programak daude, eta programa horietako esku-hartze estrategietan jardunak sartzen dira, emakumeen kontzientziazioan eragiteko helburua dutela, ahaluntze-prozesuei bultzada ematearekin batera. Emakumeen gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea zeharkako ildotzat txertatu da, emakumeen ahaluntze kolektiboa lantzeari dagokionez. Ildo horretan jardunak daude, gizartearen eta politikaren eremuan emakumeen parte-hartzea sustatzeko helburua dutela, demokrazia parte-hartzaileko mekanismoak ezarrita, parte-hartze organoak indartuta, eta politika publikoen, eta batik bat, berdintasun politiken jarraipenean eta kontrolean, eragiteko gaitasuna areagotzearekin loturiko jardunak eginda.

4.

ARDATZAREN LAN ILDOAK

Ardatz honetan gauzatuko diren lan-ildoak garatuko ditugu atal honetan.

1. LAN-ILDOA: AUTONOMIA FISIKOA

Lan-ildo honen helburua honako hau da: emakumeen autonomia fisikoa areagotzean eragitea, emakumeek beren gorputzaren, sexualitatearen eta ugalkortasunaren gaineko boterea eta kontrola gauzatzeko aukera izatea ahalbidetu eta sustatuko duten programak antolatuta. Ildo honetan osasunaren arloarekin harreman zuzena duten bi programa daude, honako hauekin loturik daudela: alde batetik, emakumeengan eragin handiagoa duten gaixotasunak atzemateko eta horiei arreta emateko eskaerak sartzearekin medikuntzaren sektorean; eta bestetik, emakumeek ugalketa-osasunaren inguruko kontrola areagotzearekin.

OSASUNA:

1A.: Ugalketa-osasunari dagokionez, emakumeek erabaki gehiago hartzea.

2. LAN-ILDOA: AUTONOMIA EKONOMIKOA

Emakumeen autonomia ekonomikoa areagotzearekin loturiko programak sartzen dira ildo honetan, gizartearen eta ekonomiaren arloko ondasunen eta baliabideen gaineko kontrola eta horietarako sarbidea izatea baitakar. Enpleguaren eta gizarteratzearen arloan zuzenean eragiten dute diseinatutako programek. Enpleguaren arloko programak enplegurako eta lan-baldintzetarako sarbidearekin loturik daude, gizonen aukera berdinak izanik. Gizarteratzeko programan, gizarte-bazterketa eta askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko lan egiten da.

LANA:

1A.: Enplegurako sarbidea aukera-berdintasunean.

2A.: Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea.

GIZARTERATZEA:

1A.: Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea.

3. LAN-ILDOA: AUTONOMIA POLITIKOA

Lan-ildo honetan, emakumeen autonomia politikoa indartzen da, oinarrizko eskubide politiko-etarako sarbidea eta horien benetako gauzatzea baitakar; esate baterako, erakundeetan parte hartzeko eskubidea, erabakiak hartzeko eremuetan, alderdi politikoetan... Bi programa bereizten dira. Lehenengoan, gune publikoaren planifikaziorako sarbidea izateko eta horretan esku hartzeko emakumeek duten eskubidean eragiten da zuzen-zuzenean; eta bigarreanean, hezkuntza-sektorean emakumeen presentzia areagotzean eragiten da.

HEZKUNTZA:

1A.: Hezkuntza-sisteman, erabakiak hartzeko eremuetarako sarbidea izatea.

HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA:

1A.: Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren eremuetan, plangintza, diseinua eta hobekuntzak egiteko prozesu guztietan emakumeek parte hartzea eta parekotasuna.

4. LAN-ILDOA: GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO AUTONOMIA

Azkenik, laugarren lan-ildoan gizartearen eta kulturaren arloko autonomiari ekingo diogu, kultura-baliabideetarako eta informaziorako sarbidea eta horien kontrola ez ezik, nortasun independentea, norberaren balioaren onarpena eta autoestimu-sentimendua izateko eskubidea ere izanda.

Horretarako, hiru norabideetan aritzen diren bost programa sartu dira. Hirigintza, Garraio Publikoa eta Ingurumenaren programan eta Kulturaren 2A. programan, emakumeek artearen eta kulturaren mailan izandako lorpenen onarpen sinbolikoa lantzen da, baita haien memoria historikoaren eta autoestimua berreskuratzea ere. Hezkuntzaren 2A. programan jakintzaren ikuspegi ez androzentrikoa lortu nahi da. Eta kulturako gainerako bi programetan (1A. eta 3A.), kirolaren eta komunikazioaren eremuetan emakumeek aukera-berdintasunean sartzeko eta parte hartzeko aukera izateko helburua lortu nahi da.

HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA:

2A.: Emakumeek gune publikoari egindako ekarpena –gizartearen, kulturaren eta historiaren arlokoa– onartzea.

HEZKUNTZA:

2A.: Jakintza ez-sexista sortzea eta horretaz jabetzea.

KULTURA:

1A.: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kirolaren eremuan.

2A.: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturaren eta artearen eremuan.

3A: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea komunikabideetan.

ZEHARKAKO LAN-ILDOA:

Emakumeen gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea indartzea. Zeharkako lan-ildo honetan, emakumeen ahalduntze kolektiboan eragitea lortu nahi dugu, honako jarraibide hauen –zenbait jarraibide Legeak aldeztu aurretik ezartzen ditu– bitartez:

- Emakumeek modu aktiboan parte hartuko duten demokrazia parte-hartzaileko prozesuak txertatzea.
- Emakumeen parte-hartze organoak indartzea, hala nola Berdintasun Kontseiluak.
- Gizartearen, politikaren, kulturaren, hezkuntzaren eta abarren arloko erakundeetan, Aukera Berdintasunarekin loturiko helburuak txertatzea.

III. ARDATZA

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA: GIZARTE EREDU BERRIAREN ALDE

1.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAN

Berdintasunerako Lege horren hirugarren tituluan, bizitzaren eremu guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun iraunkorra sustatzeko zenbait neurri arautzen dira, norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea lehentasunezko esku-hartze arloetako bat dela agerraraziz. Titulu horren seigarren kapituluaren ezarritako neurriak uztartze horri laguntzeko dira, eta hirugarren titulu hori osatzen duten gainerako sei kapituluetan ere neurri gehiago gehitu dira.

Kapitulu horretan xedaturikoari jarraiki, euskal administrazio publikoek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dute, hiru neurri motaren bitartez: etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna izan dezaten bultzatzea; enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharretara egokitzea; eta azkenik, zerbitzu sozio-sanitarioak, laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak egokitzea.

Erantzunkidetasuna sustatzeari dagokionez, Lege horren bitartez, etxeko lanekin eta jendearen zaintzarekin loturiko egungo eta etorkizuneko premien eta erantzukizunen kargu egiteko adina jakintza ikasle guztiei helaraztera behartua dago hezkuntza-administrazioa. Halaber, gizonezkoek ere etxeko lanen ardura har dezaten sustatzera bultzatzen ditu euskal herri-administrazioak, eta lan-baldintzen inguruko neurrietan eremu horretako gizonen erantzunkidetasuna bultzatzeko neurriak sartzera ere bai.

Lan-baldintzei dagokienez, Lege horren arabera, lanaldia malgutzeko eta berriz antolatzekeo neurriak ere hartu behar dira, eta etxeko premiei erantzutekeo eta laguntza behar dutenak zaintzeko eszedentziak, baimenak eta lanaldi-murrizketak hartzen dituzten langileentzako laguntzak ere eman behar dira.

Azkenik, zerbitzu soziokomunitarioak egokitzekeo dagokionez, eta Legean xedatutakoari jarraiki, zerbitzu eskuragarriak, malguak, kalitatekoak eta erraz lortzekoak ezarri behar dituzte

administrazioek, hain zuzen ere, autonomia funtzional nahikoa ez izatearen ondorioz eguneroko bizitzako jardunerako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen arreta-beharrizanei erantzuteko. Bestalde, honako zerbitzu hauek izango direla bermatu behar dela ere ezartzen du Legeak: hezkuntzari arreta emateko eta haurtzaroko asistentziako zerbitzuak, eskola-jantokien zerbitzu osoa, curriculumaz gaindiko eskolaz kanpoko arreta osagarria emateko zerbitzua, zerbitzu-enpresei laguntzeko zerbitzuak, eta azkenik, zaintza-lanetan aritzen direnentzako atsedeen hartzeko programen zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak, teknikoak eta psikosozialak.

2. BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA, EDO GIZARTE ORDENAREN EREDU BERRIA?

Errealitate jakin bat ukatzearen edo ikusezin bihurtzearen ondorioz sortu da bateragarri egitearen "arazoa"; honako errealitate hau, hain zuzen: jendearen oinarritzko premiak betetzeko behar den denbora eta lana. Gizartean behar-beharrezkoa den denbora eta lan hori agerian geratu eta arazo bihurtzen da, honako kasu honetan soilik: orain arte lan hori isil-isilik egiten zuten emakumeak soldatapeko lanak egiten hasten direnean, eta etxeko eta zaintzako lanak ere haien gain geratzen direnean, inoren laguntzarik izan gabe.

Industrializazio-garaian sortutako lan-kontzeptuaren ikuskera androzentriko eta mugatuaren ondorio da egoera hori, zuzen-zuzenean. Orduan sortutako lanen sexu-banaketa sendotzen ari gara gaur egun: gizonak soldatapeko lanetan aritzen dira eta hornitzailearen egitekoa betetzen dute; emakumeak, aldiz, etxeko lanetan aritzen dira, soldatarik gabe, femeninitasunaren luzapen naturalizat jo izan baita ("euren" zereginak, emakumeenak, izanik) eta, beraz, ez zuten balio espezifikorik, ezta, batik bat ekonomikorik ere. Hortaz, produkzioaren eremuko lana lotzen da enpleguaren kontzeptuarekin, eta ordainetan, soldata jasotzen du; aldiz, etxeko lanetan aritzen direnak "ez-aktibotzat" eta "mendekotzat" jotzen dira. Ikuskera horren eraginez, etxeko lanak egitea baliorik eta nortasunik gabeko jardueratzat hartzen denez, lana diseinatzeko eta kudeatzeko mota guztietatik at geratu da modu sistematikoan, hezkuntzatik at, hiri-planifikaziotik at, gizarte-zerbitzuen sistemetatik at... eta nola ez, soldata eta lan-eskubideak izatetik at.

Etxeko lanaren balioespen eskasaren edo balioespenik ezaren ondorioz garrantzitsuenetakoa da lan hori ikusezin bihurtzea. Ez da kasualitatea bateragarritasuna agenda publikoan txertatu izana, emakumeek pairatzen dituzten zama psikologiko, ekonomiko eta gizarte-arlokoen eragile eta arazo praktikoa bihurtu denean. Eta ez da kasualitatea "bateragarritasuna" izena hartu izana, bi eremurekin loturik egongo balitz bezala: eremu publikoarekin eta pribatuarekin, iragazgaitzak, bereiziak eta bateratu beharrekoak izanik. Antza, egokiagoa da "gizarte-

antolaketa berriaz” hitz egitea, “bateragarritasunaz” baino, gizarte-eredu berriranzko bidea egitea baita gure erronka, emakumeentzat eta gizonentzat bidezkoagoa eta zuzenagoa izango den gizarte-eredurantz, alegia. Honako honek izan beharko luke eredu berri horren oinarri: bizitzaren maila guztiak harmonizatzeko, maila horiek guztiak maila bakarrera egokitu behar duten egungo egoera saiheste aldera, maila hori honako hau izanik: lana. Era berean, eredu berri horretan, etxeko eta zaintzako lanak behar bezala balioetsi beharko lirateke –produkzioko lana bezainbeste edo gehiago– ezinbestekoak baitira gure gizarteek funtziona dezaten, jarraipena izan dezaten eta iraun dezaten.

3. BERDINTASUNERAKO IV. PLANA GIZARTE EREDU BERRIAREN ALDE

Gizartea antolatzeko modu berria eraikitzeke beste aurrerapauso bat da Berdintasunerako IV. Plana, betiere lanaren banaketa orekatuan oinarrituta, non emakumeek eta gizonek hein berean hartuko duten etxeko eta zaintzako lanen erantzukizuna, eta produkzioko lanaren erantzukizuna, eta gizartearen garapenerako eta iraupenerako ezinbestekoa den lan guztiari denbora ez ezik, gizarte-balioa eta balio ekonomikoa ere ematen dion gizartea izanik.

Ilido beretik, arlo bakoitzean hainbat programa antolatu ditu Planak, gizarte-eredu berri hori lortzeari begira. Berdintasunerako Legean dagoeneko ezarritako hiru ildoren arabera dira programa horiek: erantzunkidetasuna sustatzea, enplegu-egiturak norberaren eta familiaren premietara egokitzea, eta zerbitzu sozio-komunitarioak egokitzea.

4. ARDATZAREN LAN ILDOAK

Jarraian, ardatz honetan modu sektorialean gauzatuko diren lan-ildo guztiak azalduko ditugu.

1. LAN-ILDOA: GIZONEN ERANTZUNKIDETASUNA SUSTATZEA

Ardatz honen funtsezko lan-ildoetako bat honako hau da: etxeko eta zaintzako lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzea. Emakumeen eta gizonen gaitasunen garapen partziala ekarri du sexu/genero sistemak, baita zereginen eta rolen banaketa jakin bat ere, non emakumeak soilik diren etxeko eta inoren laguntza behar dutenen zaintzako lanen erantzule, horrelako lanetatik at utzita gizonetzkoak. Bidegabea eta diskriminatzailea izateaz gain, egoera horren ondorioz emakumeen lanaldiak amaigabeak izaten dira, eta emakumeen bizitzako beste hain-

bat arlotako –lanbidean, kulturean, aisialdian– garapena mugatzen du, haien osasun fisikoan eta mentalean ere eragin dezakeela.

Hortaz, generoan oinarritutako gizarte-erakuntza desagerraraziko duten programak landu behar dira, hainbat esparrutatik, etxeko eta zaintzako lanen erantzukizuna gizonek har dezaten bultzatuta, eta lan hori betetzeko gaitasunak garatuta. Hari berari jarraiki, hezkuntzaren, kulturearen eta lanaren arloek gizarteratzeko ahalmen handia dute helburu horiek lortzeko dagokionez, eta horregatik, plan honetan, norabide horretan aurrera egiteko hiru programa txertatu ditugu hiru arlo horietan:

HEZKUNTZA:

1B.: Ikasleengan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea.

KULTURA:

1B.: Erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea.

LANA:

1B.: Gizartea antolatzeke eredu berria sustatzea.

2. LAN-ILDOA: ENPLEGU- -EGITURAK EGOKITZEA

Lan-ildo honetan, enplegu-egiturak norberaren, familiaren eta lan-arloko premietara egokitzea lortu nahi dugu. Horrela, bi erronka ditugu aurrean. Alde batetik, enpresa publiko eta pribatuetan malgutze hori egiaz gertatzea, zenbait neurriren bitartez, hala nola aitaltasunagatikoko/amatasunagatikoko eta inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatikoko baimenen eta lizenzien bitartez. Bestetik, horrelako neurriak hartzeko garaian dagoen genero-aldea murriztea.

Lan-ildo hau gauzatzeko, bi erronka horiek helburuetan sartzen dituen programa bat txertatu dugu enpleguaren arloan.

LANA:

2B.: Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak.

3. LAN-ILDOA: ZERBITZU KOMUNITARIOAK EGOKITZEA

Zerbitzu soziokomunitarioak sortzea eta egokitzea lortu nahi dugu lan-ildo honen bitartez, zaintzako lana eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteari laguntzeko. Ildo beretik, hainbat programa sortu dira azpiegiturak egokitzeko eta berriz antolatzeke premiari erantzutearren, eta beste zenbait zaintzako lanak eragindako zama murriztearren.

GIZARTERATZEA:

1B.: Autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak.

OSASUNA:

1B.: Osasun-arazoak dituztenak zaintzeak etxeko eremuan eragindako lan-zama murriztea.

HEZKUNTZA:

2B.: Eskolako denbora eta azpiegiturak egokitzea eta berriz antolatzea.

HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA:

1B.: Hiriko eta garraioaren azpiegiturak egokitzea norberaren, familiaren eta lan-arloko bizi-tza bateragarri egiteko, eta norberaren autonomia garatzeko.

IV. ARDATZA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

1.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAN

Legeari bertan, oro har, indarkeria sexistaren prebentzioa lortu nahi da, baita hezkuntzaren, komunikabideen edo lanaren inguruko kapituluetan aurreikusitako neurri espezifikoaren bitartez ere, baina horretaz guztiaz gain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen III. tituluaren VI. kapituluaren VI. artikuluan, Emakumeen aurkako Indarkeria modu espezifikoan lantzen da.

Lehenik eta behin, horrelako indarkeria zeri esaten zaion definitzen da zehatz-mehatz:

“sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira halaber emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan”.

Aurrerago, kapitulu horretan bertan, indarkeriaren fenomenoari aurre egiteko administrazioak gauzatu behar dituen esku hartzeko moduak zehaztu dira bi ataletan. Lehen, ikerketari, pre-

bentzioari eta prestakuntzari buruzkoa, eta bigarrena etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimen babesari buruzkoa.

Lehenengo atalean hain zuzen, ikerketaren premia aipatzen da, indarkeriaren zergatiak eta ondorioak ezagutzeko, baita Euskadiko Autonomia Erkidegoan dauden baliabideak eta programak ebaluatzeko premia ere. Halaber, prebentzioaren, sentsibilizazio-kanpainen, eta emakumeen aurkako indarkeria-kasuetako esku-hartzean parte hartzen duten langileen prestakuntzaren garrantziari buruzko bi artikulatu ere jasotzen dira.

Bigarren atalean, gure Erkidegoan ohikoenak diren emakumeen aurkako bi indarkeria moten, hau da, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimeztako arreta eta babesa dira ardatz, eta emakume horien beharrei erantzuteko garatu behar diren neurrien multzoa zerrendatzen da, modu espezifikoa: poliziaren babes (54. art.), laguntza juridikoa (55. art.), laguntza psikologikoa (56. art.), harrera-pisuak eta larrialdietarako zerbitzuak (57. art.), prestazio ekonomikoak (58. art.), etxebizitza (59. art.), laneratzea (60. art.), hezkuntza (61. art.), eta erakundeen arteko koordinazioa (62. art.).

Azkenik, 43. artikuluan jazarpen sexista aipatzen da, erakundeetan horrelako jarreraren prebentziorako eta horiek desagerrarazteko politikak ezartzera, nahiz biktimei laguntza ematera zuzendutako neurriak definituta eta proposatuta.

2. BERDINTASUNEZKO GIZARTEAREN ALDE, INDARKERIARIK GABEKO GIZARTEAREN ALDE

Emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazpen larrienetako bat da emakumeen aurkako indarkeria. Ildo beretik, giza eskubideen urraketa larri eta onartezin hori desagerrarazte aldera lan egiteko premia larria dagoela ere nabaria da. Horretarako, ezinbestekoa da biktimei babes (54. art.), arreta emateko neurriak (55. art.) eta baliabideak antolatzea, baina baita gure gizartean emakumeek pairatzen duten diskriminazioaren aurka modu aktiboan lan egitea ere, bizi-tzaren eremu guztietan.

Hari berari jarraiki, honako hau ere nabarmendu behar dugu: publizitatearen eta komunikabideen bitartez, emakumeen gainetik gizonen nagusitasun-balioak indartzen dituzten jarrerak, balioak eta mezuak zabaltzen dira oraindik, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu eta horretara bultzatzera ere irits daitezkeela. Beste zenbait eremutan (lanean, esaterako), gero eta emakume gehiagok pairatu behar izaten dute indarkeria mota gaitzesgarri bat: jazarpen sexista eta horren aldaera den sexu-jazarpena, hain zuzen ere.

Emakumeen aurkako indarkeria desagertu egingo da pixkanaka, berdintasun-maila handiagoa lortzen dugun heinean, gizarte-mailan ez ezik, maila subjektiboan eta banakakoan ere. Hori dela-eta, gaur arte nagusi izan den sexu/genero sistema urratuko duen balio-sistema berria lortzeko eragin behar dugu, emakumeak eta gizonak berdintasun-mailan jarriko dituen, horri esker lortuko baitugu emakumeek indarkeria pairatu behar izango ez duten gizarte-sistema orekatuagoa.

3.

ARDATZAREN LAN ILDOAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean, emakumeen aurkako indarkeriari modu integralean eta intersektorialean egiten zaio aurre. Horrela, indarkeria horrek dituen adierazpenak lantzea proposatzen da, Berdintasunerako Legean aldez aurretik identifikaturiko bi lan-ildotatik: prebentzioaren eta arretaren ildoetatik, koordinazioa bietan zeharkako ildoak izanik.

1. LAN-ILDOA: PREBENTZIOA

Epe luzean, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko funtsezko lan-ildoak da prebentzioa. Ildo honetan, Kulturaren, Hezkuntzaren eta Hirigintza eta Ingurumenaren sektoreak tartean sartzen dituzten hainbat programa diseinatu ditugu.

Hezkuntzako programan honako hau sartzen da: gazteenei zuzenduta, helburu nagusia prebentzioa duen esku-hartze estrategia integrala, jendearen aniztasunaren balioaren gaineko hausnarketaren bitartez, eta berdintasunezko harremanak eta errespetua ikasita, familiak, irakasleak eta ikasleak ere prozesuan sartuz.

Kultura-arloko programa beste maila batean dago; programa horren bitartez, emakumeak sinbolikoki beheragoko mailan kokatzen dituzten komunikabideetako eta gizarte- eta kultura-arloko eremuko jardun sexistak ezabatu nahi dira, emakumeen mendekotasuna, eta hortaz, emakumeen aurkako indarkeria babesten duen ideologia indartzen baitituzte.

Azkenik, hiri-eremuan emakumeen aurkako erasoen prebentziorako programa aipatuko dugu. Programa horren helburua honako hau da: hirigunetik “puntu beltzak” ezabatzea, emakumeei gune publikoez gozatzeko aukera emanda, eta erasoak jasateko beldurraren eraginez, haien mugikortasuna murriztu ez dadin.

HEZKUNTZA:

11.: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa eta bitartekotza.

KULTURA:

11.: Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea.

HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA:

11.: Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa hobetzea.

2. LAN-ILDOA: ARRETA

Indarkeria-egoeretan modu eraginkorren eta premiaz eragitea da lan-ildo honen helburua. Hori lortzeko, lau programa antolatu dira sektore guztietan, indarkeria-kasuetan arreta hobe ematearren. Hezkuntzaren sektorean, eskola-komunitateko indarkeriaren prebentziorako eta bitartekotzarako programa txertatu da. Lanaren sektorean, jazarpen sexistaren biktima diren emakumeei laguntza emateko helburua duen programa txertatu da.

Gizarteratzeko arloan, tratatu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta hobe emateko programa sartu da. Programa horretan bi helburu bereiz daitezke. Aurreneko helburuarekin, tartean sartutako eragile guztietan arreta koordinatua eta eraginkorra bermatzea lortu nahi da, etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen aurrean arreta emateko tokiko protokoloak ezarrita. Bigarrenarekin, aldiz, etxeko tratatu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak izango direla eta horien kalitatea bermatzea. Bukatzeko, osasunaren arloan, tratatu txarren biktima diren emakumeei arreta fisikoa eta psikologikoa emateko programa txertatu da.

HEZKUNTZA:

11.: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa eta bitartekotza.

GIZARTERATZEA:

11.: Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean, prebentzioa eta arreta hobetzea.

LANA:

11.: Lanean jazarpen sexistaren prebentzioa eta desagertzea.

OSASUNA:

11.: Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta fisiko eta psikologikoa ematea.

ZEHARKAKO ILDOA: KOORDINAZIOA

Prebentzioan nahiz arretan zeharka txertatu behar den ildotzat sartu da koordinazioa ardatz honetan.

2001eko azaroan, "Sexu-erasoak eta etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioa" sinatu zuten euskal administrazioek; akordio horretan, gai horretan eskudunak diren erakunde-maila guztiek esku-hartze protokolo garbiak adostu zituzten, eta honako konpromiso hau hartu zuten haien gain, espresuki: prestakuntza-planak abiarazteko, eta protokolo horiek benetan aplikatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak, baliabide materialak eta teknikoak eskuragarri jartzeko. Akordioa sinatu zenetik, nabarmen egin du gora emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta hori desagerarazteko jardueren kopuruak. III. PAPME/EEEPren ebaluazio-datuei jarraiki, eremu horretan 2001. urtean gauzatutako jardueren bikoitza baino gehiago egin zituzten euskal administrazio publikoek 2004. urtean. Gai horren inguruko esku-hartze publikoa areagotzeko lagungarri izateaz gain, erakundeen arteko koordinazioari esker esku-hartze hori askoz ere modu eraginkorragoan eta eragingarriagoan gauzatzen da.

Jardun programak ardatzetan eta arloetan nola banatzen diren adierazteko matrizea

	MAINSTREAMINGAREN ARDATZA	AHALDUNTZEAREN ARDATZA	BATERAGARRITASUNAREN ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA	INDARKERIAREN AURKAKO ARDATZA
KULTURA	1M.: Genero-ikuspegia txertatzea kulturaren arloetan.	1A.: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kirolaren eremuan. 2A.: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturaren eta artearen eremuan. 3A.: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea komunikabideetan.	1B.: Erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzea.	1I.: Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea.
HEZKUNTZA	1M.: Ikastetxeetan hezkidetzatza sustatzea.	1A.: Hezkuntza-sisteman, erabakiak hartzeko eremuetarako sarbidea izatea. 2A.: Jakintza ez-sexista sortzea eta horretaz jabetzea.	1B.: Ikasleengan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzea. 2B.: Eskolako denbora eta azpiegiturak egokitzea eta berriz antolatzea.	1I.: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa eta bitartekotza.
LANA	1M.: Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.	1A.: Enplegurako sarbidea aukera-berdintasunean. 2A.: Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea.	1B.: Gizartearen antolatzearen eredu berria sustatzea. 2B.: Norberaren, familiaren eta lan-arloko biziitza bateragarri egiteko neurriak eta laguntza-zerbitzuak.	1I.: Lanean jazarpen sexistaren prebentzioa eta desagertzea.
GIZARTERATZEA	1M.: Gizarte-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.	1A.: Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea.	1B.: Autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak.	1I.: Etxeko indarkeriaren eta sexu-erabakien aurrean, prebentzioa eta arreta hobetzea.
OSASUNA	1M.: Osasun-sisteman genero-ikuspegia txertatzea 2M.: Emakumei bereziki eragiten dieten gaixotasunei aurre egitean hobetzea.	1A.: Ugalketa-osasunari dagokionez, emakumeek erabaki gehiago hartzea.	1B.: Osasun-arazoak dituztenak zaintzeko etxeko eremuan eragindako lan-zama murriztea.	1I.: Indarkeriaren biktimak diren emakumei arreta fisiko eta psikologikoa ematea.
HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA	1M.: Genero-ikuspegia integratzea hirigintzarekin, garraioarekin eta ingurumenarekin loturiko politiketan eta proiektuetan.	1A.: Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren eremuetan, plangintza, diseinua eta hobekuntzak egiteko prozesu guztietan emakumeek parte hartzea eta partekotasuna. 2A.: Emakumeek gune publikoari egindako ekarpena —gizartearen, kulturaren eta historiaren arlokoa— onartzea.	1B.: Hiriko eta garraioaren azpiegiturak egokitzea norberaren, familiaren eta lan-arloko biziitza bateragarri egiteko, eta norberaren autonomia garatzeko.	1I.: Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa hobetzea.

5.

BERDINTASUNERAKO ZERBITZU OROKORREN ARLOA



Arlo honen xedea honako hau da: erakundeek berdintasun-politikak garatzeko oinarrizkoak diren zerbitzuak definitzen laguntzea. Hain justu, arlo honetan biltzen dira berdintasun-politiken arduradunentzat gomendatutako lan-eremuak eta jarduteko helburu espezifikoak; bi multzo handitan sar ditzakegu:

Lehenengo lan-eremua honako hau da: administrazioaren barruan, berdintasun-politikak garatzeko baldintza egokiak sortzea. Sail guztien zereginetan genero-ikuspegia behar bezala ezarri behar da eta ahalduz, erantzunkidetasuna eta familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borroka sustatzearen alde lan egin behar dute, baina horretarako, ezinbestekoa da zerbitzu orokor jakin batzuk eskaintzea, berdintasunaren aldeko helburuak garatzeko babes, koordinazioa, prestakuntza eta aholkularitza emateko, baita hori guztia lortzeko beharrezkoak diren tresna eta baliabideak ere.

Bigarren lan-eremu handia honako hau da: gizarte-sareari zuzendutako ekintza zuzenak egitea, berdintasunerako politikei buruzko ebaluazioan, hausnarketan eta horien ezarpenean duen interes-maila, jakintza, inplikazioa eta parte-hartzea areagotze aldera. Esan gabe doa lan-eremu hori ez dela eragozpen sail bakoitzak berezko prozesuak gara ditzan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea sustatzeko; aitzitik, sailen eta gizarte-eremuaren arteko loturaren mesederako zerbitzuak eta tresnak sortzea dakar, beste erakunde-esparruetatik at geratzen diren helburuak garatuta.

Ardatz guztietan garatzen dira bi eremu horiek, jarraian deskribatuko dugun moduan.

MAINSTREAMINGA

Mainstreamingaren eremuan berdintasun-politikak garatzea ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko, tresnak sortu behar dira; hain zuzen ere, sailei genero-ikuspegia integratzeko gaitasuna emango dieten tresnak, baita administrazioaren zerbitzu orokorretan eta zeharkako politika eta planetan genero-ikuspegiaren integrazioa sustatzeko eta koordinatzeko ekintzak egiteko gaitasuna ere.

Bestalde, gizarte-sareari zuzendutako lanaren ardatza honako hau izango da: gizartearekiko lotura ezartzea eta horri eustea, berdintasun-politiketan duen interesa eta inplikazioa areagotze aldera.

AHALDUNTZEA

Ahalduntzearen ardatzean, parte-hartze prozesuak areagotzea da jardun nagusia, emakumeek parte-hartze aktiboa izan dezaten politika publikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzeko prozesuetan, sailen eta emakume-elkarteen arteko hartu-emanari lagunduta. Horretaz gain, berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotu eta indartu behar da.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Bateragarritasunaren eremuan, administrazioa gaitzea lortu nahi badugu, bateragarritasunaren eta erantzunkidetasunaren aldeko gizarte-antolamendu berria eraikitzea erraztuko duten tresnak sortu behar dira, hala nola bateragarritasunaren aldeko zerbitzuen mapa bat, bateragarritasunaren mesederako zerga-neurriak, etxeko lanen balio ekonomikoa aztertzea, eta abar.

Gizarte-eremuan, lana egiteko garaian erantzunkidetasunaren inguruko kontzientziazio eta gizarte-inplikazio handiagoa sustatu behar da gizonen artean, komunikazioko, parte-hartzeko eta prestakuntzako prozesuen bitartez.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeriaren ardatzean egiturak sortu behar dira, administrazioen arteko koordinazio sendoa ahalbidetuko duten egiturak, alegia, dela sailen artean, dela erakundeen artean; eta horrela, Sexu-erasoak eta etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioa indartu eta garatuko da. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko lanean jarraitu behar dugu, behar bezalako sentsibilizazio-kanpainen bidez.

HELBURUEN ZERRENDAA

MAINSTREAMINGA

1M. HELBURUA:

Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena emango dioten programak sortzea.

2M. HELBURUA:

Gizarteak berdintasun-politiketan duen interesa eta inplikazioa areagotzea.

AHALDUNTZEA

1A. HELBURUA:

Administrazioaren barruko prozesuak areagotzea eta indartzea, politika publikoen definizioan, jarraipenean eta ebaluazioan emakumeek parte har dezaten.

2A. HELBURUA:

Berdintasunaren aldeko asoziazio-sarea areagotu eta indartzea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

1B. HELBURUA:

Gizarte-antolamenduaren aldaketari lagunduko dioten tresnak sortzea, emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasunaren alde, eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearen alde.

2B. HELBURUA:

Erantzunkidetasunaren aldeko erronkei eta aurrerabideei dagokienez, gizartearen jakintza-maila, inplikazioa eta parte-hartzea areagotzea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

1I. HELBURUA:

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokan administrazioaren koordinazioa indartzea eta hobetzea.

2I. HELBURUA:

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak egitea.

HELBURUAK GARATZEA ETA JARDUN ESTRATEGIAK

MAINSTREAMINGA

1 M. HELBURUA:

ERAKUNDEARI GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEKO AHALMENA EMANGO DIOTEN PROGRAMAK SORTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Administrazioaren sail eta barruti guztietan genero-ikuspegia ezartzea ahalbidetu, erraztu eta sustatzeko beharrezkoak diren jardunak diseinatzea, bultzatzea eta horien jarraipena eta balioespena egitea.

Administrazio publikoen zerbitzu orokorretan, zeharkako planetan eta garapen lankidetzan genero-ikuspegia ezar dadin koordinatzea eta bultzatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Erakundeari genero-ikuspegia integratzeko ahalmena emateko eta horretan laguntzeko programen barruan sartuko dira erakundearen diagnostikoari egokitutako jardunak; hala nola:

- Langileen prestakuntzako eta sentsibilizazioko jarduerak, berdintasun-politiken gainean.
- Genero-ikuspegia txertatzeko tresnatzat, estatistikak hobetzeko ikerketa- eta jakintza-jarduerak.
- Genero-ikuspegia integratzen ari direnei edo integratzeko interesa dutenei zuzendutako aholkularitza- eta babes-jarduerak, erakundean genero-ikuspegia txertatzea erraztuko duten tresnak sortzeko eta zabaltzeko jarduerak barnean hartuta.
- Sailei mainstreaminga ezartzea errazteko baliabideak mobilizatzeraz eta bilatzera bideratutako jarduerak.

Genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- Dokumentuak lantzeko garaian, genero-ikuspegia integratzen bada sexuaren arabera datuei, irudi ez-sexistei eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokienez.
- Jardun edo arau jakin bat diseinatu aurretik, emakumeen premien diagnostiko bat baldin badago.
- Diseinaturiko ekintzen edo arauen genero-eraginaren aurreikuspena egiten bada.
- Emakumeen egoeraren edo baldintzen gainean eragin negatiboa izango duten ekintzak edo arauak aldatzen edo ezabatzen badira.
- Diagnostikoan atzemandako emakumeen premiak betetzeko ekintza espezifikoak egiten badira.
- Eraginpean hartzen dituen emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak edo arauak izango duen eragina ebaluatzen bada.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Emakunde.
- Eusko Jaurlaritzaren Sailak.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Berdintasun-politiken gaineko prestakuntza jaso duten erakundeko kideak, sailka.
- Mainstreaminga ezartzeko aholkularitza jaso duten erakundeko kideak, sailka.
- Beste sailei mainstreaminga ezartzen laguntzeko mobilizaturiko baliabideak (baliabide ekonomikoak, zerbitzuak, hornidurak...).
- Genero-ikuspegia integratzen duten erakundearen zeharkako planen eta politiken kopurua.
- Genero-ikuspegia integratzen duten diru-laguntzetarako eta kontratuetarako deialdien kopurua.
- Genero-ikuspegia integratzen duten egindako aurrekontuen kopurua.

1M. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

Honako bi estrategia hauek gomendatzen dira:

- Lehen, genero-ikuspegia etorkizunean ezartzeari begira, sailetan dagoen ezarpen-mailaren, sentikortasunaren eta iragazkortasunaren diagnostikoa egitea. Diagnostiko horretatik gabeziak eta premiak ondorioztatuko dira, hau da, erakundea orokorrean gaitzeko ezarri behar diren neurriak, egingarritasun-ordenaren eta eragin positiboa izateko gaitasunaren arabera lehenetsita. Azterketa horren osagarri, eskura dauden edo egon daitezkeen baliabideen azterketa eta bilketa egingo da administrazioaren maila guztietan, eta diseinaturiko ekintzak diseinatzeko, ezartzeko eta horiei jarraipena egiteko lagungarri izango da.
- Hona hemen gomendaturiko bigarren estrategia: genero-ikuspegiaren ezarpena koordinatzea eta bultzatzea, berdintasun-politikak koordinatzeko egituretan aholkularitza, laguntza eta integrazioa eskainita honako politika hauen arduradunei: garapenerako lankidetzaren, gazteriaren, euskararen, ingurumenaren, lehendakaritzaren, zerbitzu juridikoen, ogasunaren eta egoki iritzitako bestelako zeharkako plan edo politika ororen arduradunei.

2M. HELBURUA:

GIZARTEAK BERDINTASUN POLITIKETAN DUEN INTERESA ETA INPLIKAZIOA AREAGOTZEA.

ESKU HARTZEAREN HELBURUA

Esku-hartzearen helburua da gizartearen jakintza-maila areagotzea, garatzen ari diren berdintasunerako politiken inguruan: zeintzuk diren politika horiek bultzatzen dituzten arrazoiak –diagnostikoak–, zein ekintza ezarri diren edo ezarriko diren, eta jardunaren ebaluazioak eta balioespenak. Horretaz gain, ezarritako politiken eraginei, balioespenei eta gizarte-iritziei buruzko informazio-bilketako prozesuak areagotzeko ahalegina ere egingo da. Horrela, interesa eta inplikazioa sustatuko da eta gizarte-sarea bera bihurtuko da berdintasun-politiken eskatzaile eta jarraitzaile nagusi.

KONTZEPTUAK MUGATZEA

Gizartearen interesa eta inplikazioa areagotu dela esango dugu berdintasun-politiketako arduradunen eta gizartearen artean lotura izateko eta elkarriketarako joera nagusitzen denean, betiere gizarte-eskaerak eraginda.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Emakunde.
- Eusko Jaurlaritzaren Sailak.
- EITB.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Berdintasun-politiketako arduradunei jendeak egindako kontsulten kopurua.
- Ezarritako berdintasun-neurrien gaineko jakintza-maila.
- Egindako jardunarekiko gogobetetze-maila.

2M. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Berdintasun-politikak ezagutarazteko prozesuak areagotzea gomendatzen da, honako hauen bitartez: komunikazio-kanpainak eginda, komunikabideetan berdintasunarekin loturiko gaiak (prentsan, irratan eta telebistan eztabaidak, magazinak, informatiboak eta albisteak) agertzea indartuta, berdintasun-politikak eragiten dituzten diagnostikoei buruzko konferentziak, jardunaldiak eta biltzarrak eginda, informazio-buletinak argitaratuta...

Horretaz gain, arduradunek herritarren iritziei buruzko informazio-bilketari bultzada ematea ere gomendatzen da, bai metodologia kuantitatiboen (inkestak) bitartez, baita kualitatiboen (eztabaida-mahaiak, lan-taldeen foroak) bitartez ere.

Azkenik, herritarrei arreta emateko prozesuak diseinatzea eta ezartzea komeni da, egiten diren kontsultei eta ekarpenei behar bezala erantzutea ahalbidetze aldera, dela eguneroko lanean, dela parte-hartze prozesuetan.

1 A. HELBURUA:

ADMINISTRAZIOAREN BARRUKO PROZESUAK AREAGOTZEA ETA INDARTZEA, POLITIKA PUBLIKOEN DEFINIZIOAN, JARRAIPENEAN ETA EBALUAZIOAN EMAKUMEEK PARTE HAR DEZATEN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Erakundeen barruan parte-hartze prozesuak egin daitezen sustatzea, udalerriaren gizarte-arloko, parte-hartzeko eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan emakumeen eta emakume-elkar-teen parte-hartzeari lagunduta eta erraztasunak jarrita.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Parte-hartzea sustatu dela esango dugu honako kasu honetan: emakumeek eta emakume-elkar-teen parte-hartze prozesuen inguruan izandako jakintza, bertaratzea eta egindako ekarpenen kopurua handitzen direnean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Emakunde.
- Eusko Jaurlaritzaren Sailak.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Erakundean zabaldutako parte-hartze prozesuen kopurua.
- Parte-hartze prozesuetako deialdietan bertaratutako emakumeen %.
- Emakumeek egindako ekarpenen eta alegazioen kopurua.

1A. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Erakundearen barruan parte-hartze prozesuak egin daitezen sustatzea, honako gai eta/edo eremu politiko hauek lehenetsita: emakumeen parte-hartzeak haien ahalduntzea erraztu, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna areagotuko dutenak; esate baterako, aurrekontuak lantzea.
- Emakume-elkarteen erregistroa sortzea, eta parte-hartze prozesuak egin behar dituzten sail guztiei helaraztea.
- Erakundeetako parte-hartze prozesuen hiruhileko egutegia osatzea eta erregistroan sartutako elkarte guztietara igortzea; halaber, erregistro horretan sartuko dira banako moduan parte hartzen duten emakumeak ere, etorkizuneko parte-hartze prozesuetara gonbidatze aldera.

2A. HELBURUA:

BERDINTASUNAREN ALDEKO ASOZIAZIO SAREA AREAGOTU ETA INDARTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Gizarte-eremuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna indartzeko lan egiten duten elkarten kopurua handitzeko jardunak garatzea, baita elkarte horietan gizarteak duen parte-hartzea handitzeko jardunak ere. Egun, berdintasunaren alde aritzen den elkarte-sarea indartzea, koordinatzea eta horri laguntzea lortu behar da.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Berdintasunaren alde aritzen diren elkarteak –gizonezkoenak nahiz emakumeenak– sartzen dira helburuan. Hain zuzen ere, maskulinitasun-ereduak aldatzeko eta sistema orekatuagoaren alde lan egiten duten eta azterketak egiten dituzten gizonen elkarteak eta lan-taldeak hartzen dira barnean.

Modu inplizituan nahiz esplizituan, gai horiek lantzen dituzten elkarten kopurua areagotzea, eta gizartearen parte-hartzea eta laguntza indartzea lortu behar da.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Emakunde.
- Eusko Jaurlaritzaren Sailak.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Sortutako erakundeen kopurua.
- Elkarteen tamaina.

2A. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Berdintasunerako elkarteak sortzeko eta horiei eusteko prozesua erraztuko duen programa bat definitzea, honako hauek barnean hartuta:
 - Emakume-elkarteak osatzeko eta erregistratzeko aholkularitza.
 - Diru-laguntzen programak.
 - Autonomia Erkidegoaz gaineko administrazio-mailetako baliabideei buruzko informazioa.
 - Lokalen mailegua.
 - Material-mailegua.
- Emakumeak eta gizonen lan-taldeak ahalduntzeko eskolak sor daitezen sustatzea, maskulinitasun-ereduen gainean, eta berdintasunean oinarritutako banakako eta gizarte-arloko harremanen gainean.
- Berdintasunaren alde aritzen diren elkarteek, taldeek eta gizarte-eragileek bat egiteko, hausnartzeko eta esperientziak elkartrukatzeko jardunaldiak ezartzea.
- Asoziazio-mugimenduaren eta berdintasun-politiketako arduradunen artean harremanetarako eta komunikaziorako mekanismo egonkorrak ezartzea, jakintzak elkarri helaraztearren eta asoziazio-mugimendua indartzeko neurriak eguneratzearren.

1 B. HELBURUA:

GIZARTE ANTOLAMENDUAREN ALDAKETARI LAGUNDUKO DIOTEN TRESNAK SORTZEA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO ERANTZUNKIDETASUNAREN ALDE, ETA NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEAREN ALDE.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Esku-hartzearen helburua honako hau da: erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna sustatzera bideratutako laneko eta koordinazioko tresnak, baliabideak eta prozesuak garatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Tresna honako honi esaten diogu: gizartearen eta erakundeen jakintza, gizarte-sentikortasuna, prestakuntza eta lankidetzaren areagotzea xede duen ekintza orori, betiere etxeko eta zaintzako lanak emakumeek nahiz gizonek maila berean egingo dituzten sistema lortze aldera.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Foru Aldundietako Berdintasun Zerbitzuak.
- Udaletako Berdintasun Zerbitzuak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

Gizarte-antolamenduaren aldagaitari laguntzeko sortutako tresnen kopurua.

1 B. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Bateragarritasunaren nahiz erantzunkidetasunaren aldeko tresnak sortzea gomendatzen da. Hain justu, honakoa hau proposatzen da:

- Bateragarritasunari dagokionez, gizarte-zerbitzuak zein egoeratan dauden eta horien arteko koordinazioa ere ikustea ahalbidetuko duen mapa bat sortzea, betiere norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza modu eraginkorrean bateratzea lortzeko dagokionez. Zerbitzuak sortzerakoan tartean sartutako sailei eta arloei udal-mailan bateragarritasun-jardunetako lehentasunei buruzko jakintza erraztuko dien diagnostiko koordinatua eskaintzea da kontua.
- Erakundearen barruan, sailen arteko eztabaidarako egiturak sortzea, bateragarritasun-zerbitzuak koordinatzea sustatzearen.
- Bateragarritasun-zerbitzuak sortzeko erakundearen arteko akordioak sustatzea, egindako diagnostikoetatik abiatuta.
- Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea sustatzeko zerga-neurriak ezartzea.
- Zaintzako eta ugalketako lanaren balio ekonomikoa aztertzea eta ezagutaraztea.

2B. HELBURUA:

ERANTZUNKIDETASUNAREN ALDEKO ERRONKEI ETA AURRERABIDEEI DAGOKIENEZ, GIZARTEAREN JAKINTZA MAILA, INPLIKAZIOA ETA PARTE-HARTZEA AREAGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Erantzunkidetasuna eta bateragarritasuna errealitatea izango diren gizarte-antolamendua lortzeko, tresnak eta baliabideak ez ezik, eta batez ere, behar-beharrezkoak dira ikasitako balioak zalantzan jartzeko eta sentsibilizazioko prozesuak ere. Horretarako, ezinbestekoa da gizartearekin zuzeneko kontaktua izatea, baina ez igorle soilik izanik –prestakuntza, informazioa, sentsibilizazio-kanpainak–, baizik eta lortu nahi dugun gizarte-antolamenduko ereduak dagokionez, baita gizarte-eragileei parte harraraziz eta jaramon eginez ere.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Erantzunkidetasunari dagokionez, gizartearen jakintza-maila, inplikazioa eta parte-hartzea areagotu dela esango dugu gizonengan portaera erantzunkideak areagotzen direnean –etxe-ko eta zaintzako lanetan emandako denbora handitzea–, eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza garatzeko emandako denboraren banaketa emakumeen eta gizonen artean homogeneizatzeko joera finkatzen denean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Emakunde.
- Eusko Jaurlaritzaren Sailak.
- EITB.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Etxeko lanetarako astean emandako orduak, sexuaren arabera.
- Lanbide-eremuari astean emandako orduak, sexuaren arabera.

2B. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

- Gizonei zuzendutako prestakuntzako eta sentsibilizazioko ikastaroak egitea, erantzunkidetasunaren inguruko jakintzak eta sentikortasuna areagotze aldera; emakumeei zuzendutako ikastaroetan, familiaren eta lan-arloko bizitza garatzeaz gain, norberaren bizitza garatzea zein garrantzitsua den ikusaraztea.
- Gizarte-antolamendu berrirantz aurrera egiteko eta erantzunkidetasun-maila handiagoa lortzeko formulei buruz eztabaidatzeko foroak, jardunaldiak eta lan-taldeak antolatzea.
- Gizonengan lan erantzunkidea sustatzeko komunikazio-kanpainak egitea.
- Erantzunkidetasunean gizonen inplikazioa aztertzeke tailerrak eta jardunaldiak egitea.

11. HELBURUA:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURKAKO BORROKAN ADMINISTRAZIOAREN KOORDINAZIOA INDARTZEA ETA HOBETZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioa garatzeko garaian, administrazioaren maila guztietan tartean sartutako sail eta organismo guztiek modu koordinatuan jarduten dutela bermatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Indarkeriaren aurkako eremu eskudunak honako hauek dira:

- Zerbitzu juridikoak.
- Polizia-zerbitzuak.
- Osasun-zerbitzuak.
- Gizarte-zerbitzuak.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Emakunde.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Herrizaingo Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Izandako bileren kopurua.
- Lortutako akordioen kopurua.

11. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

- Sailen eta erakundeen arteko koordinazio-egiturak sortzea, indarkeriaren aurkako borroka koordinatze aldera.
- Jardun Protokoloaren eragina aztertzea.
- Ikerketak egitea, biktimei harrera hobea ematea eta arreta-zerbitzu gehiago garatzea ahalbide-tuko duten metodologia egokiak dituzten parte-hartze prozesu eta guzti.
- Prebentzio-neurri berriak eta/edo hobeak aztertzea eta sustatzea.

21. HELBURUA:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO SENTSIBILIZAZIO KANPAI-NAK EGITEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Herritarrak sentsibilizatzeko kanpaina iraunkorrak eta koordinatuak egitea, emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztearren eta emakumeei eskura dituzten zerbitzuei buruzko informazioa ematearren.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Komunikazioko kanpainez gain, arlo horretan aritzen diren profesionalen prestakuntzarako eta parte-hartzerako neurriak barnean hartzen dituzten kanpainak ere egin behar dira.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Emakunde.
- Eusko Jaurlaritzaren Sailak.
- EITB.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Komunikazio-kanpainen kopurua.
- Irratian eta telebistan gai horren inguruko eztabaidak izaten diren saioak.

2I. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

- Prentsan, irratan eta telebistan komunikazio-kanpainak sortzea.
- Gizarte-eztabaida sustatzea, gai horren inguruko eztabaidak izaten diren irratiko eta telebistako saioen kopurua areagotuta.
- Profesionalen lana agerian uztea.
- Tratu txarrak ematen dizkion laguna utzi eta/edo salatzeko erabakia hartzen duenak zer egin eta nora jo dezakeen jakiteko informazioa errazago lortzea.

6.

ESKU-HARTZE ARLOAK



6.1

KULTURAREN ARLOA



SARRERA

Gure ingurunean, kulturaren barruan hainbeste esparru sartzen direnez, Plan honetan kulturaren arloari ekiteko garaian azpisektoreen arabera ekintza proposatzen da (kirola, komunikabideak, artearen eta kulturaren arloko sorkuntza...). Azpisektore horietan guztietan, balio-eskala jakin bat da nagusi; hain zuzen ere, emakumeak eta gizonak eremu ezberdinetan (privatua eta publikoa) eta balio bereiziek (femeninoak eta maskulinoak) kokatzen dituen sexu/genero sisteman oinarritzen den eskala. Eta horren ondorioz, parte-hartze orekatua eragozten da, eta eremu publikotik eta, zehatz-mehatz, kulturaren eremutik at geratzen dira emakumeak, kasu askotan.

Berdintasuna lortzeko funtsezko elementuetako bat da administrazioen esku-hartzea, eta horri gagozkiola, Berdintasunerako Legearen 25. artikuluan honako hau xedatzen da, kultura-jardueren inguruan: Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan.

MAINSTREAMINGA

Kulturaren eremuan emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da administrazio publikoen kultura-arloetan genero-ikuspegia txertatzeari eustea eta horretan aurrera egitea. Horretarako, tokiko administrazioen kultura-arloak lehene-tsi behar dira estrategiaren ardatz gisa, horiek baitute kulturari dagokion plangintza egiteko eskumena, herritarrengandik gertuen dauden erakundeak direnez. Gertutasun horri esker, kulturaren eremuko gizarte-errealitatean modu bizkorragoan eta eraginkorragoan eragiteko aukera izaten dute. Kultura-eskaintzan berehalako eragina izatea lortu nahi da, emakumeen eta gizonen kultura-arloko interesen, itxaropenen eta zaletasunen errealitateari erantzunda, eta kulturaren eremutik eragin beharreko arlo garrantzitsuak identifikatuta, betiere aukera-berdintasunaren alde.

AHALDUNTZEA

Kulturaren arloak berebiziko garrantzia du emakumeen ahalduntzea bultzatzeari dagokionez, izan ere, denbora luzez egon baitira emakumeak gune publikotik at. Azken urteotan, kultura-guneetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea nabarmen areagotu den arren, badira oraindik gaingaitu beharreko oztopo handiak, emakumeek kultura-baliabideetarako sarbidea eta horien gaineko kontrola gizonen aukera berdinekin izan dezaten.

Kulturaren arlotik abiatuta, emakumeen ahalduntzeari laguntzeko ikuspegia azpisektoretan egituratzen da; hain justu, Legeak biltzen dituen azpisektoreetan: kirol-jarduerak, kultura-jarduerak, eta gizarte-komunikabideak eta publizitatea, kulturaren eremuan emakumeen presentzia eta parte-hartzea –eta horren ondorioz, emakumeen ahalduntzea– eragozten duten oztopoak ezabatzeke helburuak eta estrategiak ezarrita.

Kirolaren eremuan, eta zehatzago, kirol-erakundeetako botere-egitura eta -organoen barruan, bereizketa horizontala murriztu behar da, boterea eta erabakimena duten karguetarako emakumeen sarbidea areagotuta, dela zuzendaritzako eta gerentziako esparruetan, dela lanbide teknikoetan.

Bestalde, emakumeen kirol-jarduerari dagokionez, kirol-praktika dibertsifikatzearen alde lan egin behar da, kirol maskulinizatuetan emakumeen sarbidea eta kirol feminizatuetan gizonen sarbidea ahalbidetuz; horrela, kirol-hautaketan eragiten duten estereotipoak alde batera uztea lortu behar dugu, genero-markarik gabeko kirol-praktika librea egia bihurtu dadin. Baina bada beste premia bat ere: kirola egiten duten emakumeen proportzioa areagotzeko premia, parte-hartze kirolek abiatuta, bai federazioetan eta klubetan, bai ezein elkarteko kide izan gabe, banaka.

Kulturaren eta artearen eremuari helduta, estrategikotzat jotzen da emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza eta produkzioa sustatzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista ematen duten proposamenak agerian utzi eta sortzen dituzten bestelako ekimenak ere. Emakumeek gizaritari egindako ekarpena integratu eta balioesten duen kulturaren definizio berria lortzea da helburua, emakumeen ahalduntzeari laguntze aldera, berezko balioaren ezagumendua funtsezko alderdia baita ahalduntze-prozesuetan.

Komunikabideei dagokienez, erakunde izaki, komunikabideetan ere emakumeen parte-hartze kuantitatiboa eta kualitatiboa areagotzea funtsezkoa da, emakumeak sekzio, zeregin eta erabaki-organo guztietan aukera berdinekin txertatuz, eta horrela, gizaritean gehien eragiten duen eremuetako batean emakumeen eragin-gaitasuna areagotuko da. Komunikabideetatik emakumeen ahalduntzeari laguntzeko beste alderdi garrantzitsu bat da emakumeak agerian uztea edo ikusaraztea; horretarako, politikaren, gizaritearen eta kulturaren arloko jarduera guztietan emakumeen presentzia –aukera-berdintasunean– sustatzera bideratutako saioak ugaritu behar da.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Kultura produzitzeko eta erreproduzitzeko tresnek zeregin garrantzitsua izan dute generoan oinarritutako gizarte-eraikuntzako prozesuetan, non zaintzako eta ugalketako lanetarako sozializatu diren emakumeak. Sozializazio horren eraginez, gizonak lan horren gaineko eran-

tzukizunetik aske geratu dira eta erantzunkidetasunaren eta ondokoak zaintzearen kultura garatzea eragotzi zaie.

Egiazko aukera-berdintasuna lortzearen, estrategikoa da jardun jakin batzuetan sakontzea; hain zuzen ere, gizonengan zaintzaren etika eta erantzunkidetasunaren balioak sustatzea lehentasunezko helburu izango duten jardunetan. Gizartearen eta kulturaren arloko guneek gaitasun handia dute herritarrengan eragin eraginkorra izateko, eta hortaz, aukera hori baliatu behar dugu, erantzunkidetasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak eta edukiak areagotuta, pixkanaka-pixkanaka gizonak ere beren gain hartuko duten zaintzaren kultura lortzeari begira.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, kulturaren arlotik prebentzio-eremua landu behar da. Komunikabideetan gauzatuko da esku-hartzea, batik bat eta modu estrategikoan.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean oinarritutako kultura berria bultzatzera bideratzen da prebentzioaren bidea, gizartearen eta kulturaren arloko eremuan sexismoa eta indarkeria ezabatuta. Horretarako, komunikabideetan emakumeen aurkako indarkeria onartzen duen balio, jarrera edo mezu oro ezabatzearekin loturiko helburua diseinatu da. Ilido berari jarraiki, Legearen artikuluetan honako hau xedatzen da: Hedabideetako batek ere ezin izango du adierazi, pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Gizartea gero eta sentiberagoa da horrelako mezuekiko, eta batik bat, emakumeen aurkako indarkeriarekiko; hori horrela izanik, legearen artikulua hori egiaz betetzeko estrategia jakin batzuk proposatu dira Plan honetan, Legean ezarritakoa are gehiago mugatuz, eta eskumen-eremuak ahalbidetzen duen bezainbeste zabalduz jardun-eremua.

Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioko beste bide bat honako hau da: herritarrei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, indarkeria-egoeren inguruko estereotipoak eta gezurrezko usteak desagertzeko asmoz, egoera horien egiazko arrazoiak agerian utzita eta arrazoi horiek neutralizatzeko moduko emakumeen eta gizonen berdintasuneko balioak sustatuta.

PROGRAMEN ETA HELBURUEN ZERREDA

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA –1M–:
GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA KULTURA ARLOETAN

1M.1. HELBURUA:

Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:
EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA KIROLAREN EREMUAN

1A.1. HELBURUA:

Bereizketa bertikala eta horizontala murriztea kirol-arlo eta –organismo publiko eta pribatuetan.

1A.2. HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen kirol-praktika dibertsifikatzea, kirol maskulinizatuetan emakumeen sarbidea eta kirol feminizatuetan gizonen sarbidea ahalbidetuta.

1A.3. HELBURUA:

Parte-hartze kirolak egiten dituzten emakumeen proportzioa areagotzea, baita haien interesen arabera kirol-praktika hautatzeko aukerak ere.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:
EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA KULTURAREN ETA ARTEAREN EREMUAN

2A.1. HELBURUA:

Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere.

3. AHALDUNTZE PROGRAMA –3A–:

EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA KOMUNIKABIDEETAN

3A.1. HELBURUA:

Komunikabideetan emakumeen parte-hartzea areagotzea.

3A.2. HELBURUA:

Komunikabideetako saioetan emakumeen presentzia areagotzea, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko jardueretan aukera-berdintasunean duten presentzia agerian uztearren eta haien ahalduntzeari laguntzearren.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–:

ERANTZUNKIDETASUNAREN KULTURA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEA

1B.1. HELBURUA:

Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –1I–:

GIZARTEAREN ETA KULTURAREN EREMU GUZTIETAN SEXISMOA DESAGERRARAZTEA

1I.1. HELBURUA:

Sexuaren arabera, sexu batekoa edo bestekoa izan, jendeak giza duintasun gutxiago edo gehiago duela edo sexu-objektu soil direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak murriztea, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen dutenak desagerraraztea.

1I.2. HELBURUA:

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sentsibilizazio-kanpainak kopurua handitzea.

KULTURA: Programen eta jardun helburuen banaketa ardatzetan

MAINSTREAMINGA	AHALDUNTZEA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	INDARKERIA
1M: Genero-ikuspegia txertatzea kultura arloetan 1M.1. HELBURUA: Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea.	1A: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kirolaren eremuan 1A.1. HELBURUA: Bereizketa bertikala eta horizontala murriztea kirol-arlo eta -organismo publiko eta pribatuetan. 1A.2. HELBURUA: Emakumeen eta gizonen kirol-praktika dibertsifikatzea, kirol maskulinizatuetan emakumeen sarbidea eta kirol feminizatuetan gizonen sarbidea ahalbidetuta. 1A.3. HELBURUA: Parte-hartze kirolak egiten dituzten emakumeen proportzioa areagotzea, baita haien interesen arabera kirol-praktika hautatzeko aukerak ere. 2A: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea kulturaren eta artearen eremuan 2A.1. HELBURUA: Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere. 3A: Emakumeek presentzia eta parte-hartzea izatea komunikabideetan 3A.1. HELBURUA: Komunikabideetan emakumeen parte-hartzea areagotzea. 3A.2. HELBURUA: Komunikabideetako saioetan emakumeen presentzia areagotzea, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko jardueretan aukera-berdintasunean duten presentzia agerian uztearren eta haien ahalduntzeari laguntzearren.	1B: Erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sutatzea 1B.1. HELBURUA: Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea.	1I: Gizartearen eta kulturaren eremu guztietan sexismoa desagerraraztea 1I.1. HELBURUA: Sexuaren arabera, sexu batekoa edo bestekoa izan, jendeak giza duintasun gutxiago edo gehiago duela edo sexu-objektu soil direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak murriztea, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen dutenak desagerraraztea. 1I.2. HELBURUA: Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sentsibilizazio-kanpainen kopurua handitzea.

PROGRAMAK, HELBURUAK ETA JARDUN ESTRATEGIAK GARATZEA

MAINSTREAMINGA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1 M–:

GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA KULTURA ARLOETAN

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

25. artikulua.– Kultura-jarduerak

1. Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Kulturaren arloetan genero-ikuspegia txertatzeko, hainbat faktorek eragindako eragozpenak izango ditugu.

Lehenik, honako hau azpimarratu behar dugu: gero eta zeharkako politika gehiago dauden arren, eta Administrazioak ere gero eta eskarmentu handiagoa duen arren lehenetsun sektorialak eta zeharkakoak uztartzen, oraindik ere ezinbestekoa da kudeaketako eta prestakuntzako tresnak eta baliabideak diseinatzeko lan egiteari eustea, genero-ikuspegitik begiratuta, dela diagnostikoak egitea erraztearren, dela kulturaren arloetan berdintasun-neurriak diseinatzearren eta ezartzearren, dela tartean sartutako erakundeak koordinatzearren.

Bigarrenik, ezin dugu ahaztu genero-ikuspegia txertatzeko erritmoak eta mekanismoak ez direla berdinak Administrazioaren maila guztietan, eta maila bakoitzaren barruan ezta maila horiek osatzen dituzten erakundeetan ere, bakoitzaren esperientziaren, baliabideen, eta abarren arabera. Aurreko baieztapena sektore orotan aplikatu daiteke, baina kulturaren eremuan

eragozpen erantsia izaten da, kultura-aldaketa lortzeko jardun koordinatuen diseinuan premia larriagoa baita.

Horretaz gain, kultura-eremuan askotariko esparruak sartzen direnez, abiapuntuak eta bila-kaerak ere oso bestelakoak izaten dira azpisektoreen artean; hortaz, arlo honetako zeharkako politikak konplexuagoak dira. Hori dela-eta, eta kulturaren eremuan emakumeen presentzia handitzen ari den arren, eta Administrazioak bultzatutako kultura-jardueren plangintzan eta gauzatzean genero-ikuspegia gero eta gehiago txertatzen den arren, Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen kultura-arloetan mainstreaminga guztiz ezar dadin lortzeko lanean jarraitzea beharrezkoa da.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1M.1. HELBURUA:

Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea.

1 M. 1 . HELBURUA:

KULTURA JARDUERAK GENERO IKUSPEGIARI JARRAIKI PLANIFIKATZEN ETA BETEARAZTEN DITUZTEN ADMINISTRAZIOETAKO KULTURA ARLOEN KOPURUA HANDITZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten hobekuntzak izan dituzten administrazioen kultura-arloen kopurua handitzea, baita horien arteko koordinazioa ere.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Helburuaren ardatz eragileak izango dira, hain zuzen ere, honako hauetako kultura-kudeatzaileak:

- Euskal Administrazio Publikoa.
- Azpikontrataturiko Hirugarren Sektoreko erakundeak.

Genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- Sexuaren arabera bereizitako estatistikak egiten direnean.

- Igorri eta argitaratutako dokumentuetan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten denean.
- Jardun edo arau jakin bat diseinatu aurretik, emakumeen premien diagnostiko bat baldin badago.
- Diseinaturiko ekintzen genero-eraginaren aurreikuspena egiten bada.
- Kulturaren eremuan, emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean eragin negatiboa izango duten ekintzak aldatzen edo ezabatzen badira.
- Diagnostikoan atzemandako emakumeen premiak betetzeko ekintza espezifikoak egiten badira.
- Eraginpean hartzen dituen emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak edo arauak izango duen eragina, eta genero-interes estrategikoak ebaluatzen badira.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Genero-ikuspegia txertatzen hobekuntza nabarmenak izan dituzten kultura-arloen kopurua (Plan honetan ezarritako irizpideei jarraiki, genero-ikuspegia txertatzen duten diagnostikoen, planifikazioen eta esku-hartzeen kopurua).

1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Administrazioko nahiz azpikontratatutako zerbitzu-enpresetako langileei Aukera Berdintasunaren inguruko prestakuntza ematea, genero-ikuspegia txertatzeko gaitasuna izan dezaten.
- Kulturari dagokionez, politika publikoen diagnostikoan, diseinuan eta ebaluazioan, aukera-berdintasunaren eremuko jarraibide eta praktika onak biltzen dituen gida bat egitea eta zabaltzea administrazioetan eta enpresetan.
- Genero-ikuspegia txertatzen duten planak, jarduerak, programak eta arauak egitea sustatuko du, fase guztietan: diagnostikoan, diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.

- Kulturaren arloan, berdintasun-politikak txertatzeko praktika onen inguruko lan-mahaiak osatuta, administrazioen arteko koordinazioa sustatzea.

AHALDUNTZEA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1 A–:

EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA KIROLAREN EREMUAN

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

23. artikulua.– Xedapen orokorra

Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

24. artikulua.– Elkarateak eta erakundeak.

1. Euskal herri-administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritzako organoetan. Horretarako, gehitu edo egokitu ahal izango dituzte elkarte eta erakundeei adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak.

2. Euskal herri-administrazioek ezin izango diete inolako laguntzarik eman kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardunean sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeei.

3. Lege honetan aipatzen diren helburuak lortzeko asmoz eratutako elkarteak bultzatuko dituzte euskal herri-administrazioek.

25. artikulua.– Kultura-jarduerak

3. Euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonek tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko.

4. Euskal herri-administrazioek emakumeen nahiz gizonen kirol-jarduerei laguntzea sustatuko dute, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan. Halaber, gehitu egingo dira emakumeak gehiengoa diren kirol modalitateentzako laguntza publikoak.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Kirola praktika multzotzat hartu izan da, ludikoak eta arautuak izanik, bitartekotzaren, borrokaren, lehiaren, nagusitasunaren eta botere-erakustaldiaren balio maskulinoak transmititzeko praktika multzotzat, alegia, historian zehar, emakumeek kirol-praktika bizitzeko izan dituzten eta dituzten moduei eta balioei arreta eta balioespen txikiagoa emanda, eta horiek ikusezin bihurtuta. Hasierako egoera horren zenbait ondoriok gaur egun ere badiraute, eta maila guztietan, kirolarekin ongi pasatzeko gizonen eta emakumeen arteko aldeetan atzematen dira. Estatistiken arabera, emakumeen parte-hartzea gero eta handiagoa da kirolaren eremuan, baina genero-aldeak hor dirau. Euskadin, emakumeen %12k soilik egiten du kirola astean egunen batean, gizonen tasa (%20,7) baino 11 puntu gutxiago. Federatutako kirolaren barruan, federatuen %18 soilik da emakumea. Halaber, kirol-egituretan desoreka handiak daude erabakiak hartzeko organoetarako eta karguetarako emakumeen sarbideari dagokionez; presidente-karguen %2,4 soilik betetzen dituzte emakumeek euskal federazioetan, eta proportzio hori %17,2ra igotzen da presidenteordetzaren kasuan; hala ere, bereizketa bertikal nabarmena dago oraindik ere. Era berean, egitura horietan emakumeek betetzen dituzten postuetan bereizketa horizontala ere nabarmena da: federazioen barruan, zuzendaritza teknikoaren postuen %5,6 soilik betetzen dituzte emakumeek. Entrenatzaileen kasuan, proportzioa %10,8ra igotzen da.

Datu horiek ikusita, ezinbestekoa da administrazio publikoen egitekoari eustea, hainbat estrategiatatik esku-hartzearen bitartez, gizarte-errealitatea aldatzeko, eta kirolaren eremuan emakumeen presentzia eta parte-hartze handiagoa ahalbidetzeko.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1A.1. HELBURUA:

Bereizketa bertikala eta horizontala murriztea kirol-arlo eta –organismo publiko eta pribatuetan.

1A.2. HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen kirol-praktika dibertsifikatzea, kirol maskulinizatuetan emakumeen sarbidea eta kirol feminizatuetan gizonen sarbidea ahalbidetuta.

1A.3. HELBURUA:

Parte-hartze kirolak egiten dituzten emakumeen proportzioa areagotzea, baita haien interesen arabera kirol-praktika hautatzeko aukerak ere.

1 A. 1 . HELBURUA:

BEREIZKETA BERTIKALA ETA HORIZONTALA MURRIZTEA KIROL ARLO ETA ORGANISMO PUBLIKO ETA PRIBATUETAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Kirol-sistema publikoan nahiz pribatuan, botere- eta erabakimen-egituretarako eta -organoetarako emakumeen sarbidean dagoen desoreka murriztea, dela zuzendaritzako eta gerentziako karguetarako sarbidean, dela lanbide teknikoetarako sarbidean.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

- Bereizketa bertikala honako hau da: zuzendaritzako eta gerentziako postuetarako emakumeen sarbidean desoreka izatea.
- Bereizketa horizontala, aldiz, lanbide teknikoak betetzeko sarbidean emakumeen eta gizonen arteko desorekarekin loturik dago, generoaren arabera gizarte-eraikuntzan oinarrituta, gizonezkoei loturiko postuak izateagatik.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Eusko Jaurlaritzan, Foru Aldundietan etan eta euskal hiriburu eta zinegotzigoetan, kirol-eremuko kargu politikoetan dauden emakumeen eta gizonen proportzioa.
- Kirolaren Aholku Kontseiluan dauden gizonen eta emakumeen proportzioa.
- Sustapen Olinpikoko Euskal Batzordean dauden emakumeen eta gizonen proportzioa.
- Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordean dauden gizonen eta emakumeen proportzioa.
- Euskal federazio eta klubetako zuzendaritzetan dauden emakumeen eta gizonen proportzioak.

- Lanbide teknikotan, entrenatzaile edo kirol-epaile gisa, eta kudeaketa-lanbidetan ari diren emakumeen eta gizonen proportzioa.

1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Euskal administrazioetako kirol-arlo eta –organismoetan, eta kirol-klub eta -federazioetan bereizketa horizontalaren eta bertikalaren inguruko diagnostikoa egitea, eta hori abiapuntu hartuta, jarduteko gomendioak ematea.
- Diagnostikoaren emaitza ezagutaraztea euskal administrazioetako kirol-arlo eta –organismoetako, eta Kirol Klub eta Federazioetako politikariak eta teknikariak sentsibilizatzeko jardueren bitartez, maila teknikoan edo zuzendaritzakoan, kirol-lanbideetan emakumeen presentzia areagotzea sustatuko duten neurriak edo Berdintasun Planak ezartzeko dauden baliabideak eta emaitzak aditzera emateko.
- Berdintasunerako Eragileak edo aholkularitza-zerbitzuak kontratatze laguntza ekonomikoak sortzea, giza baliabideetako politiketan genero-ikuspegia txertatzeko garaian euskal administrazioetako kirol-arlo eta –organismoei, eta Klub eta Federazioei aholkularitza eman diezaieten.
- Euskal administrazioetako kirol-arlo eta –organismoei, nahiz kirol-federazio eta –klubei ebaluazio-txostenak eskatzea, bereizketa horizontala eta bertikala ezabatzeko hartutako neurrien gainean.

1A.2. HELBURUA:

EMAKUMEEN ETA GIZONEN KIROL PRAKTIKA DIBERTSIFIKATZEA, KIROL MASKULINIZATUETAN EMAKUMEEN SARBIDEA ETA KIROL FEMINIZATUETAN GIZONEN SARBIDEA AHALBIDETUTA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Kirol-jarduna dibertsifikatzea, emakumeek eta gizonak kirol mota oro egiteko dituzten barneko nahiz kanpoko oztopoak ezabatuta; horrela, egun kirol maskulinizatua edo feminizatua izatea alde batera utzita, edozein kirol-praktikarako sarbidea ahalbidetuko da. Emakumezko kirolarien praktika ikertu eta balioetsi behar da, eta ezagutzera eman, emakumeen eta gizonen kirolek duten gizarte-prestigioan dagoen desoreka orekatze aldera. Horrela, lehentasunezko iritzi diogu eskolako kirolean eragiteari, betetzen duen gizarteratze-eginkizuna dela-eta; izan ere,

eskolako kirolean eraikitzen baitira helduaroko kirol-jarduera edo jarduera fisikoa baldintzatuko duten neska-mutikoen kirol-balioak eta -ohiturak.

Bestalde, kirol federatutan ere esku hartuko da, kirol mota hori eskolako kirolaren jarraipen izango denez, eragozpenak ezabatu behar direla pentsatuta, kirol-sisteman emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatzeko. Halaber, udaletako kirol-instalazioetako kirol-eskaintza (parte hartzeko, aisialdian eta atsegin hartzeko egiten dena) dibertsifikatzeko eta eragozpenak ezabatzeko esku-hartze estrategia ere diseinatuko dugu.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Kirol maskulinizatutzat edo feminizatutzat joko ditugu sexu baten edo bestearen ordezkaritza %60 baino handiagoa duten kirolak.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Kirol-kategorietan federatutako emakumeen eta gizonen proportzioa.
- Kirol-praktika "maskulinizatuetan" federatutako emakumeen proportzioa.
- Kirol-praktika "feminizatuetan" federatutako gizonen proportzioa.
- Hezkidetza bultzatzeko diru-laguntzaren bat barnean hartzen duten Foru Aldundien eskolako kirol-programak.
- Kirolaren Euskal Eskolako ikasleak, prestakuntza-programaren eta sexuaren arabera.

1A. 2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

A ESTRATEGIA:

- Genero-ikuspegitik begiratuta, kirolean –batik bat, euskal herri kirolean– emakumeen bilakaera, historia eta ibilbidea aztertzea, ikuskera androzentrikoa agerian utzita, eta emakume kirolarien lorpenak eta ibilbidea agerian utziko dituzten ezagutarazteko eta zabalkundeko materialak sortuta. Kirolean desorekak irauteko arrazoiak aztertu beharko dira iker-

lanean, eremu federatuan kirol-praktikaren bereizketan, eta batik bat, emakumeen kirol-jarduerak duen babes-maila txikian eragiten duten faktoreak aztertuta.

- Zuzendaritzako langileei eta teknikariei prestakuntza ematea, eragozpenak gaintzeko eta kirol-egiturak egokitzeko.
- Komunikabideetako kirol-emanaldiak, eta sariak eta ordainsariak orekatzearen, kuotak ezartzea.
- Emakumeak gehiengoa diren kirol modalitateentzako laguntza publikoak eta zerga-pizgarriak sortzea.

B ESTRATEGIA:

Eskola-eremuari begira:

- Neska-mutilen kirol-praktika dibertsifikatzea mugatzen duten faktoreak ikertzea.
- Hezkuntza-komunitatea (gurasoak eta irakasleak, eskola-kiroleko eta aisialdiko begiraleak, entrenatzaileak) tartean sartzea, sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren bitartez; Aukera Berdintasunean oinarrituta, jarduera fisikoan eta kirol-jardueran hezteko premia ere izango da ardatz, kirol-praktikaren bat aukeratzeko garaian generoan oinarrituriko gizarte-erakuntzak ezarritako mugak saihestuta.

1A.3. HELBURUA:

PARTE-HARTZE KIROLAK EGITEN DITUZTEN EMAKUMEEN PROPORZIOA AREAGOTZEA, BAITA HAIEN INTERESEN ARABERA KIROL PRAKTIKA HAUTATZEKO AUKERAK ERE.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Kirola egiten duten emakumeen kopurua handitzea, emakumeen artean kirol-jarduna muga dezaketen eragozpenak ezabatuta, betiere haien interesei jarraiki.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Federazio eta Klubetan parte hartzen duten emakumeak, eta kirola bakarka –ezein elkarteko kide izan gabe– egiten dutenak ere sartzen dira helburuan. Dena den, parte-hartze kirolari (aisialdian, atsegin hartzeko eta osasunaren mesederako egiten dena) begirako estrategia da, eta berdintasun-parametroetatik abiatuta indartu behar den kirol-praktika dela iritzi diogu.

Hartutako neurrien eragina neurtze aldera, udal kirol-instalazioak izango dira estrategiaren ardatz.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Emakumeek udal kirol-instalazioak baliatzeko denborak eta moduak, adinaren eta kirol motaren arabera.
- Gune irekietan kirola egiten duten emakumeen eta gizonen proportzioa, adinaren eta kirol motaren arabera.
- Federazio eta klubetan kirola egiten duten emakumeen proportzioa.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

- Kirol-jardunean, gizonen eta emakumeen premia, interes eta aukera bereizgarrien inguruan ikertzea.
- Eskaintza, guneak eta ordutegiak egokitzeko jardunak egitea, emakumeengan kirol-praktika muga dezaketen faktoreak neutralizatze aldera.
- Egindako egokitze-jardunen eraginaren eta diseinuaren ebaluazioa eta jarraipena sustatzea.
- Udal-kiroldegietako kirol-eskaintzaren jarraipena egitea, baita zerbitzuak, ekipamenduak eta guneak emakumeen eta gizonen premia, zaletasun eta interes bereizgarrietarako egokitzearena ere.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:

EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA KULTURAREN ETA ARTEAREN EREMUAN

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

25. artikulua.– Kultura-jarduerak

1. Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonen parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izaten diren kultura-jarduera guztietan.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Ohiko moduan, gizakiaren adierazpen artistikoak, ohiturak eta jakintzak hartu izan dira kulturaren arloko sorkuntzatzat. Hala ere, ikuskera hori partziala izan da historian zehar, gehienbat gizonen kultura-sorkuntza aipatzen baitu. Hori horrela izanik, ez dira behar bezainbeste aintzat hartu emakumeen giza bizipenak eta emakumeen kultura sortzeko eta transmititzeko moduak eta erak, gizonen moduetan eta ereduetan oinarrituta definitu izan baita kulturaren kontzeptua eta denbora luzez egon baita zalantzan jarri gabe.

Pixkanaka-pixkanaka, diagnostiko hori aldatzen ari da, eta emakumeen egitekoari garrantzi eta onarpen handiagoa ematen ari zaio, bai kultura-sortzaile gisa, bai kultura-kontsumitzaile gisa. Dena den, eta urtetan izandako alde handiaren eraginez, kulturaren eremuko desoreka kuantitatiboek eta kualitatiboek beren horretan diraude, eta botere publikoen esku-hartzea beharrezkoa da, emakumeen eta gizonen kultura-presentzian berdintasunezko oreka sustatze-arren.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

2A.1. HELBURUA:

Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere.

2A.1. HELBURUA:

EMAKUMEEN KULTURAREN ETA ARTEAREN ARLOKO SORKUNTZA HANDITZEA, BAITA GIZARTEAREN IKUSPEGI EZ SEXISTA SUSTATZEN DUENA ERE.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Kultura-eremu guztietako kulturaren eta artearen arloko sorkuntzan emakumeen presentzia indartzea, emakumeen balioak, ohiturak, jakintzak, adierazpenak eta sentimenduak gizonen maila berean onartu eta balioesteko ezinbesteko elementutzat; horrela, bi generoak barnean hartuko dituen kulturaren kontzeptua berriz definitzea lortuko dugu, arian-arian. Horretaz gain, esku-hartze horren bitartez, gizartearen ikuspegi ez-sexista emango duten planteamenduak sortu eta agerian utziko dituen kultura-sorkuntza sustatzea lortu nahi da.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

- Plan honi dagokionez, kultura-produkzioztat hartuko da jarraian deskribatuko ditugun kulturaren eremuen eta sektoreen barnean hartzen dena:

Kultura sortzea eta ezagutaraztea	Kultura-industriak	Kultura Ondarea
Antzertia	Eskulangintza	Arkeologia O.
Dantza	Argitaletxeak	Arkitektura O.
Literatura	Ikus-entzunezkoak	Industria O.
Arte Plastikoak	Fonografikoak	Etnografia O.
Ahozko tradizioa	Multimedia	Arte O.
Musika	Kultura digitala	Liburutegiak
Eskulangintza-produktuak		Artxiboak
		Museoak

- Gizartearen ikuspegi ez-sexista honako honi esaten diogu: emakumeen pentsamoldeak, desioak, interesak, sentimenduak eta balioak barnean hartzen dituen emakumeen giza bizi-pena kontuan hartu, eta genero-desoreka zalantzan jartzen duen ikuspegiari, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bultzatuta.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Emakumeek egindako eta/edo produzitutako kultura-produkzioen edo –ekintzen kopurua, eremuen arabera.
- Gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duten obren edo egindako ekintzen kopurua, eremuen arabera.

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Emakumeen kultura-produkzioa indartzeko beharrezko zerbitzuak eta baliabideak ematea emakume artistei, honako hauen bitartez: emakumeentzako erreferentziako kulturaguneak sortuta; sektore guztietan, genero-azterketak egiteko ikerketa-bekak ezarrita; emakume gazte artistei bekak emanda, beren obrak garatze aldera; eta emakumeen kultura-sorkuntza eta pentsamolde feminista sustatzen duten argitalpenei, hitzaldiei, konferentziei, erakusketei eta bideoei laguntzak emanda.
- Emakumeen kultura-sorkuntzaren inguruko eztabaida publikoa sustatzea, artisten eta kultura-sortzaileen arteko eztabaida-foroak eta topaketak antolatzea, eta Administrazioak bultzatzen edo egiten dituen ezagutarazteko jarduera guztietan, emakumeek egindako lanak eta obrak sartzea.
- Jarduera horien emaitzak ebaluatzea, kultura-eremu guztietan emakumeek eta gizonek sortutako arte-produkzioak aztertzeke jarraipen-ekintzen bitartez.

Kultura-ondarearen eremuan, honako hau gomendatzen da:

- Historian zehar, gizonek eta emakumeek kultura sortzeko izan dituzten moduak, eta emakumeek kultura-ondareari egindako ekarpen historikoa sistematizatuko duten ikerketak egitea eta ezagutaraztea.

3. AHALDUNTZE PROGRAMA –3A–:

EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE–HARTZEA IZATEA KOMUNIKABIDEETAN

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

26. artikulua.- Gizarte-komunikabideak eta publizitatea

3. Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaindu behar dituzte ume zein gazteentzako edukiak. Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonekiko berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduntzeko lagungarri diren jarduerak ere.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko komunikabideek bultzatu egingo dituzte, eta beren publizitate-espazioetan lehentasunezko tratua eskaini, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak, ezberdintasunak ezabatu eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuarekin, sustatzen dituen erakunde arteko kanpainei. Horretarako, beharrezkoak diren mekanismoak edo erakundeen arteko lankidetzarako itunak ezarriko dira.

5. Euskal herri-administrazioek, erakunde autonomoek eta haien mende edo haiei lotuta dauden gainerako entitate publikoek, beren eskumen-eremuan, aurreko paragrafoan aipatutako erakunde arteko kanpainak hedatzen lagunduko dute. Horretarako, publizitatea jartzeko barruan nahiz kanpoan dituzten gune edo lekuak lagako dituzte erakunde arteko kanpaina horietarako.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Balioak, ideologiak eta pentsamoldeak transmititzeko baliabide indartsuak dira komunikabideak. Gure gizartearen eraginez, komunikabideek gertakarien arrazoi eta esanahi itxuraz neutroak eskaini dituzte, sexurik eta generorik gabe, eta gizonak eta emakumeak barnean hartuta. Praktika hori berriz aztertu denean, ikusi da kosmoikuspegi horrek emakumeen errealitatea ezkutuan uzten zuela, eta kulturaren, zientziaren, politikaren eta gizartearen arloetako emakumeen lorpenak, esperientziak, lana eta jarduerak ez ziren behar bezainbat ezagutarazten. Beraz, emakumeen errealitatea barnean hartzen duen ikuspegi berri zabalagoa eta gizartearen ikuspegi ez-sexista indartuko duten ekintza positiboak egiteari bultzada eman behar zaio.

Bestalde, komunikabideak erakunde izaki, haietan ere diskriminazio bertikalak nahiz horizontalak irauten duela ikus daiteke. Hori dela-eta, ezinbestekoa da erabakiak hartzeko organoetarako sarbidea aukera-berdintasunean izan dadin sustatzea, baita lanbide-jardunean emakumeen eta gizonen bereizketa horizontala ezabatzea eta horri aurrea hartzea ere. Ez dugu ahaztu behar eremu publikoarekin loturiko atalak (ekonomia, politika, kirolak) gizonei eta eremu pribatuarekin loturikoak (kultura, gizartea...) emakumeei egokitzeko joera izan dela.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

3A.1. HELBURUA:

Komunikabideetan emakumeen parte-hartzea areagotzea.

3A.2. HELBURUA:

Komunikabideetako saioetan emakumeen presentzia areagotzea, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko jardueretan aukera-berdintasunean duten presentzia agerian uztearren eta haien ahalduztzeari laguntzearren.

3A.1. HELBURUA:

KOMUNIKABIDEETAN EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA AREGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Komunikabideetan, emakumeen eta gizonen presentzia orekatzea lortzea. Hainbat ataletara, zereginetara eta erabakiak hartzeko organoetara aukera berdinekin sartzan badira emakumeak, beren erabakiak hartzeko gaitasuna areagotuko da garrantzi handiko eremu batean; hain zuzen ere, kultura-produkzioan eta horren zabalkundean, eta aukera-berdintasuna lortzeko aurrerabidean elementu estrategikoa izango da.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Helburu honi dagokionez, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua honako honi esaten diogu: berdintasunean oinarrituta, emakumeek eta gizonek komunikabideen barruko erantzukizun handiko postuetan eta maila guztietako erabakiak hartzeko organoetan sartzeko aukera izateari, baita zeregin, atal edo arlo guztietarako sarbidea izateari ere. Berdintasunerako Legearen 3.7. artikuluan xedaturikoaren ildotik, adierazitako eremuetan sexuen arteko gora-behera-maila %60-%40 proportzioa baino txikiagoa izatea proposatzen da, mugatzeko irizpidetzat.

Helburu honi dagokionez, komunikabideetat honako hauek hartuko dira:

- Publizitatearen eremukoak –publizitate-enpresa edo -agentziak–, eta kazetaritzaren eremukoak –irratia, prentsa idatzia, telebista–.
- Titulartasun publikoa nahiz pribatua dutenak.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- EITB.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Kazetaritzaren –prentsa, irratia, telebista– eta publizitatearen eremuko titulartasun publikoa eta pribatua duten komunikabideetan lan egiten duten emakumeen eta gizonen proportzioa.
- Titulartasun publikoa eta pribatua duten kazetaritzaren eremuko komunikabideetan, “maskulinizatutako” arloetan, ataletan, zereginetan aritzen diren emakumeen proportzioa.
- Titulartasun publikoa eta pribatua duten kazetaritzaren eremuko komunikabideetan, “feminizatutako” arloetan, ataletan, zereginetan aritzen diren gizonen proportzioa.
- Titulartasun publikoa eta pribatua duten kazetaritzaren eremuko komunikabideetan, erantzukizun handiko postuetan dauden emakumeen eta gizonen proportzioa.

3A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako estrategia honako hauek bideratua dago:

- Komunikabideen barruan emakumeek eta gizonen bizi duten egoera ezberdina agerian uztea eta ezagutaraztea.
- Komunikabide publiko nahiz pribatuetan, berdintasun-planak diseinatu eta ezartzea, erantzukizun handiko mailatan nahiz zeregin, atal edo arlo guztietan emakumeen parte-hartzea areagotuko duten helburuak eta ekintzak barnean hartuta.

3A.2. HELBURUA:

KOMUNIKABIDEETAKO SAIOETAN EMAKUMEEN PRESENTZIA AREAGOTZEA, POLITIKAREN, GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO JARDUERETAN AUKERA BERDINTASUNEAN DUTEN PRESENTZIA AGERIAN UZTEARREN ETA HAIEN AHALDUNTZEARI LAGUNTZEAREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Honako hau da helburuarekin lortu nahi dena: politikaren, gizartearen, zientziaren, ekonomiaren eta kulturaren arloko jardueretan, aukera-berdintasunean emakumeen presentzia agerian utziko duten komunikabideen barruko guneak eta saioak ugaritzea, eta horren aurkako estereotipoak eta irudiak sustatzen dituztenak ezabatzea. Horretaz gain, emakumeek beraiek ezarritako ahalduntze-estrategiak erakustea lortu nahi dugu, kulturaren, ekonomiaren, zientziaren, politikaren eta gizartearen arloko bizitzan presentzia eta parte-hartzea lortzeko.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Komunikabideetako saioa honako honi esaten diogu: titulartasun publiko edo pribatuko prentsan, irratietan eta telebistan emandako produkzio orori, publizitateko nahiz informazioko edo ongi pasarazteko helburua izanik.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- EITB.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Emakumeen presentzia sustatzera bideratutako komunikabideetako kazetaritzako eta publizitateko saioen proportzioa, titulartasun publikoa duten komunikabideetan.
- Emakumeen presentzia sustatzera bideratutako komunikabideetako kazetaritzako eta publizitateko saioen proportzioa, titulartasun pribatua duten komunikabideetan.

3A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako esku-hartze estrategia hau gomendatzen da:

- Komunikabide publiko eta pribatuetako kazetaritzaren eta publizitatearen eremuko saioetako edukiak aztertzea eta berrikustea.
- Komunikabideetako profesionalak lanbiderako gaitzea eta sensibilizatzea, gizartearen, politikaren, zientziaren eta ekonomiaren eremuetan emakumeen errealitatea ikusezin bihurtuko ez duen moduan trata dezaten informazioa, genero-ikuspegitik begiratuta.
- Komunikabide publikoek nahitaez betetzeko araudia garatzea, guztien intereserako gaiak eztabaidatzen diren saioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua arautzeko.
- Berdintasunerako Legearen araudia betetzen dela egiaztatzea eta horren jarraipena egitea; araudi horren arabera, titulartasun publikoa duten komunikabideek, euskal administrazioek, organismo autonomoek eta gainerako erakunde publikoek –mendekoak edo lotura dutenak– lehentasunezko tratua emango diete erakunde arteko kanpainei (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak sustatuak), eta bultzatu egingo dituzte, betiere helburua honako hau izanik: desorekak desagertzea, eta gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzea, publizitatera bideratutako barruko nahiz kanpoko tokien edo saioen %30 utzita.
- Eragina izango duten publizitate-kanpainak diseinatzea, politikaren, gizartearen, zientziaren, ekonomiaren eta kulturaren arloko jardura guztietan emakumeen presentzia berdintasun-egoeran sustatzeko, baita emakumeak ahalduntzea eta genero-estereotipoak desagerraraztea sustatzeko ere.
- Erakunde publikoetatik, eta batik bat, komunikazio-enpresa pribatuetatik bultzaturiko publizitate-kanpainen eragin mediatikoa aztertzea eta praktika onak sistematizatzea eta ezagutaraztea, genero-estereotipoak desagerrarazteko lagungarri badira.
- Publiko nahiz pribatu, komunikabideetako saioetan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko baliabideak garatzea: “generoaren eta komunikazioaren arloko aditua” irudia, berdintasun-eragileak kontratatzea, estilo-liburuak, etab.

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1 B –:

ERANTZUNKIDETASUNAREN KULTURA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

47. artikulua.– Xedapen orokorra

Euskal herri-administrazioek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dute. Horretarako, honako alderdiak sustatuko dituzte: etxeko lanetan gizonek erantzunkidetasuna edukitzea; enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharrei egokitzea; zerbitzu soziokomutarioak sortzea eta egokitzea; laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak eratzeara; eta delako helbururako egoki iritzitako beste edozein neurri.

26. artikulua.- Gizarte-komunikabideak eta publizitatea

3. Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaindu behar dituzte ume zein gazteentzako edukiak. Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduerak politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonekiko berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduzko lagungarri diren jarduerak ere.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duen gizarte bidezkoa lortzeko, erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika ezinbesteko balioak dira. Gaur arte, zaintzaren erantzukizuna eta etxeko lanak gehienbat emakumeek egin izan dituzte; baina horrek diskriminazio-egoera dakar, eta emakumeek gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren arloko jardueretan sarbidea, parte-hartzea eta horietaz baliatzeko aukera berdintasun-egoeran izan dezaten eragozpen eta aurreiritzi larriak dira.

Generoan oinarrituriko gizarte-eraikuntzak lagundu egiten du zaintzako eta etxeko lanak emakumeen esku soilik egoteko egoera horri bere horretan eusten, jende guztiaren garapen integrala mugatuta eta behar ez diren mendekotasunak eraginda.

Eskaintzen diren gizartearen eta kulturaren arloko guneek eginkizun garrantzitsua izaten dute egoera hori aldatzeko, kulturak eragindako desorekak indartzen laguntzea saihestuta, eta kulturaren, komunikabideen edo aisialdiaren eremuko guneak eta saioak areagotuta, betiere genero-estereotipoak eta –rolak zalantzan jartzen badituzte, eta zaintzaren etika eta erantzunkidetasuna bultzatzen dituzten balioak sustatzen badituzte.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1B.1. HELBURUA:

Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea.

1 B. 1 . HELBURUA:

ERANTZUNKIDETASUNA ETA ZAINZAREN ETIKA SUSTATZEN DITUZTEN GIZARTEAREN ETA KULTURAREN ARLOKO GUNEAK AREAGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Balioak aldatzeko eta kultura eraldatzeko ahalmen handia dute gizartearen eta kulturaren arloko, aisialdiko eta denbora libreko guneek. Administrazioaren kultura-arloak, eta zaintzaren kultura eta erantzunkidetasuna sustatzen duten jarduerak bultzatzeko gizartearen eta kulturaren eremuko zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeak tartean sartzea lortu nahi dugu helburu horrekin.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Gizartearen eta kulturaren arloko guneak aipatzen ditugunean, administrazio publikoek, gizartearen eta kulturaren eremuko zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeek, edo kirolaren, komunikabideen, gizartearen, aisialdiaren eta denbora librearen eremuarekin loturiko erakundeek garatutako jarduez edo programez ari gara.

Esku-hartze prozesu horretan, administrazioaren kultura-arloetan, eta gizartearen eta kulturaren eremuko zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeetan, batik bat, eragingo da, bereziki gizonen eta gazteen zuzendutako balio-aldaketaren eragile nagusitzat.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Administrazio publikoen kultura-arloetan, erantzunkidetasunaren eta zaintzaren kultura sustatzeko guneen (jarduerak, programak) kopurua.
- Euskal administrazioek utzitako titulartasun publikoa duten komunikabideek, organismo autonomoek eta gainerako erakunde publiko mendeak egindako saioen proportzioa, betiere helburua honako hau izanik: zaintzaren etikaren eta erantzunkidetasunaren inguruko gizonen pentsamoldea aldatzea.

1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako estrategia honako honetan oinarritzen da:

- Erantzunkidetasunaren kultura emakumeengan eta gizonengan zenbateraino dagoen txertatua eta zenbateraino den nagusi aztertzeko ikerketak egitea, eta zaintzaren eta erantzunkidetasunaren kultura sustatzeko gizartearen eta kulturaren eremuko praktika onak eta esperientzia berritzaileak sistematizatzea.
- Kultura-kudeaketaren profesionalei prestakuntza ematea, dela administrazioaren eremuan, dela zerbitzu-enpresen eremuan.
- Sentsibilizazio-kanpainak garatzea, erantzunkidetasunaren kultura sustatzearren.
- Enpresei eta elkartei diru-laguntzak emateko garaian eta horiek kontratatzeke garaian, honako hauek lehenestea: erantzunkidetasuna sustatzeko ekintzak egiten dituztenak, emakumeen eta gizonen eginkizunak dibertsifikatzeko tailerrak egiten dituztenak, eta haurren eta gazteen artean erantzunkidetasuna sustatzeko jarduerak egiten dituztenak.
- Egindako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 1 I –:

GIZARTEAREN ETA KULTURAREN EREMU GUZTIETAN SEXISMOA DESAGERRARAZTEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

26. artikulua.- Gizarte-komunikabideak eta publizitatea

1. Hedabideetako batek ere ezin izango du adierazi, bere jarduna Euskal Autonomia Erkidegoaren baitakoa baldin bada, pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela, ez eta objektu sexual soilak direla ere. Orobat, ezingo zaie zabalkundea eman emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten edukiei.

2. Debeku da pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate-iragarki oro egin, eman edo erakustea, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

27. artikulua.- Publizitatea kontrolatzeko Organoa

Eusko Jaurlaritzan organo bat eratuko da, komunikabideen eta publizitate-euskarrien bitartez hedatzen den publizitatearen inguruan aholku eman eta hori aztertzeaz arduratuko dena; horrela, sexuan oinarritzen den pertsonen bereizkeria-mota oro erauzterik izango da. Aldi berean, komunikabide publikoek zabaldutako edukiek beren kode etikoak izan ditzaten zainduko da.

52. artikulua.- Prebentzioa

Lege honetan jasota dauden gainerako neurri prebentiboak kontuan izan behar badira ere, euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan eta modu koordinatuan, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Gizarteak indarkeriaren maila jakin batzuk onartzen dituen heinean, indarkeria hori gizartearen eta kulturaren arloko eremuetan adierazi eta eremu horietatik bideratzen da. Gizartean

indarkeria badenez (emakumeen aurka, xenofobia-jarrerak, etab.), adierazpen horiek gizartearen eta kulturaren eremuetako zenbait esparrutara heltzen dira, hein handiagoan edo txikiagoan, eta modu esplizituan edo inplizituan.

Komunikabideetan ematen den emakumeen irudia nabarmen aldatu da azken urteotan, baina oraindik ere, emakumeak diskriminatu edo sexu-objektu soiltzat aurkezten dituzten irudiak eta edukiak aurki ditzakegu. Irudi horiek oraindik ere agertzea lagungarri izaten da generoan oinarritutako gizarte-eraikuntza diskriminatzaileari eusteko, eta eraikuntza horrek hainbat adierazpen izan ditzake, larriena emakumeen aurkako indarkeria izanik. Horregatik, horrelako mezuen eragina ahalik eta txikiena izan dadin lortu behar dugu, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen saio oro ezabatzea.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko sentsibilizazio-kanpainak ugaritu egin dira azken urteotan, eta gertakari horien aurrean gizartearen gaitzespena areagotzeko eraginkorrak direla frogatu denez, indarkeriaren prebentziorako lagungarri izan daiteke eta izan behar du, gizarte-kontrol ez-formalaren bitartez. Hori dela-eta, gizarte-sentsibilizazioko kanpainak egiteko gero eta gehiago baliatu behar dira.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

11.1. HELBURUA:

Sexuaren arabera, sexu batekoa edo bestekoa izan, jendeak giza duintasun gutxiago edo gehiago duela edo sexu-objektu soil direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak murriztea, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen dutenak desagerraraztea.

11.2. HELBURUA:

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sentsibilizazio-kanpainen kopurua handitzea.

11.1. HELBURUA:

SEXUAREN ARABERA, SEXU BATEKOA EDO BESTEKOA IZAN, JENDEAK GIZA DUINTASUN GUTXIAGO EDO GEHIAGO DUELA EDO SEXU-OBJEKTU SOIL DIRELA ADIERAZTEN DUTEN IRUDI ETA EDUKI MEDIATIKOAK MURRIZTEA, ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA JUSTIFIKATU, HORRI GARRANTZIA KENDU EDO HORRETARA BULTZATZEN DUTENAK DES-AGERRARAZTEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Berdintasunerako Legearen arabera, debeku da pertsonen, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitatea egitea. Neurri hori osatzeko eta babesteko, ezinbesteko iritzi diogu horrelako irudiak eta edukiak murrizteari komunikabideetako gainerako emanaldietan. Emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duten eduki mediatikoen kasuan, guztiz ezabatzea lortu behar dugu, gaia oso larria baita eta komunikabideek ahalmen handia baitute gizartearen balioak eta jokabideak aldatzeko.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Irudi eta eduki mediatikoa honako honi esaten diogu: titulartasun publiko edo pribatuko prentsan, irratietan eta telebistan emandako produkzio orori, publizitateko nahiz informazioko edo ongi pasarazteko helburua izanik.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Kultura, Gazteria eta Kirol Saila.
- EITB.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Publizitatea kontrolatzeko eskumena duten organoetan eta erakundeetan aurkeztutako salaketa-kopurua.
- Publizitatea kontrolatzeko eskumena duten organoek eta erakundeek gauzatutako jardunen kopurua.

11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

A ESTRATEGIA:

Erakundeetatik eta komunikabideetatik bertatik irudi sexistak ematearen prebentziorako mekanismoak egituratzea izango da gomendatutako lehenengo estrategiaren ardatza; honako mekanismo hauek, alegia:

- Emandako edukien inguruko kode bat osatzea, batik bat, haurrei eta/edo gazteei zuzendutako saiioetarako.
- Komunikabide publikoetako eta pribatuetako profesionalei prestakuntza ematea irudi eta eduki diskriminatzaileak identifika ditzaten, hizkera egokia erabiltzeak duen garrantziaz jabe daitezen, eta eguneroko lanean hizkera ez-sexista erabiltzeko metodologiak eta baliabideak izan ditzaten.
- Komunikabide pribatuetako zuzendaritzetako langileak sensibilizatzea.
- Diru-laguntzak ezartzea, saiioak emateko garaian, sexuak eragindako diskriminazio-praktikak zuzentze aldera.
- Baliabide arau-emaileak betetzen direla zaintzea, publizitatea onartzeko irizpideei dagokionez eta produkzio-etxeen konpromiso-klausulari dagokionez; klausula horren arabera emakumeentzako iraingarriak eta/edo diskriminatzaileak diren irudiak edo mezuak ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dute produkzio-etxeek.
- Titulartasun publikoa eta pribatua duten komunikabideetan, irudi eta eduki sexistak atzemateko ikerketak egitea.

B ESTRATEGIA:

Herritarrak eta, batik bat, gurasoak sensibilizatzea du ardatz, komunikabideetan irudi eta eduki sexistak identifika ditzaten, salatze aldera:

- Herritarrak sensibilizatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoen eta adierazpen moduen inguruan, irudi eta eduki sexistak desagerrarazteko tartean sar daitezen eta horretarako jarritako bideen bitartez salaketak jar ditzaten. Seme-alabak haurtzaroan eta gaztaroan dituzten gurasoen kolektiboak, bereziki, zuzendutako jardunak egitea, kolektibo horiei prestakuntza egokia emanda.
- Gurasoei prestakuntza ematea, irudi eta eduki sexistak identifika ditzaten, eta hezkidetzan oinarritutako irizpideak har ditzaten seme-alabek ikusteko programazioa hautatzeko garaian.

11.2. HELBURUA:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO ETA HORREN PREBENTZIO-RAKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINEN KOPURUA HANDITZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Komunikabideen bitartez ematen diren indarkeriaren aurkako sentsibilizazio-kanpainen kopurua areagotzea da helburua.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Titulartasun publiko edo pribatuko prentsa, irratiak eta telebistak hartuko ditugu komunikabidetzat.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Eusko Jaurlaritza.
- EITB.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Egindako sentsibilizazio-kanpainen kopurua.


11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Erakunde arteko akordioak egiteari bultzada ematea, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sentsibilizazio-kanpainak egiteko.
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztearen eta horren prebentzioaren inguruan sentsibilizatzeko edukiak programazioan sartzen dituzten komunikabideei diru-laguntzak ematea.

6.2

HEZKUNTZAREN ARLOA



SARRERA

Hezkuntza formaleko guneak –famihiarekin eta komunikabideekin batera– lehen mailako sozia-
lizazio-prozesuen protagonista izaki, sexu/genero sistema eraikitzen funtsezko egitekoa bete-
tzen dute, neskengan eta mutikoengan rol, balio eta gaitasun ezberdinak bultzatuta, sexuaren
arabera.

Lehenik eskola mistoa sortuta, eta aurrerago, eskolan hezkidetzaren printzipioak modu maila-
katuan garatu eta ezarrita, genero-rolak izugarri aldatu dira, baina hala ere, gaur egun, curri-
culum-eduki androzentrikoak, eta balio eta itxaropen ezberdinak transmititzen zaizkie oraindik
neskei eta mutikoei; rol maskulinoek femeninoek baino balioespen handiagoa dute oraindik
ere, modu inplizituan. Hortaz, ezinbestekoa da hezkuntzaren eremutik prebentzio-zereginari
eustea emakumeen eta gizonen artean etorkizunean izan daitekeen desoreka saihestearren,
eta horretarako, hezkidetzaren printzipioak aplikatuko dituzten hezkuntza-prozesuak eskaini
behar zaizkie neskei eta mutikoei, berdintasuna balio nagusi dela.

Bestalde, hezkuntza-sistemaren antolamendua ere lagungarri izan daiteke emakumeen eta
gizonen arteko desorekei eusteko. Alde batetik, sisteman parte hartzen duten emakumeei dago-
kienez, erabakiak hartzeko eremuetan presentzia txikiagoa baitute; eta bestetik, familiaren eta
lan-arloko bizitza bateragarri egiteko premiei erantzuteko mugei dagokienez, emakumeen bizi-
baldintzetan hein handiagoan eragiten baitute.

MAINSTREAMINGA

Legaren 29. artikuluaen arabera, “Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sus-
tatuko ditu, eta hezkidetzak-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakin-
tza-arloetako eta -diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean”; hortaz, nahitaez,
EAEko hezkuntza-politiketan genero-ikuspegia txertatzen sakondu behar da. Hori lortzeko ikus-
pegi estrategiko eraginkorrena honako hau lortzea da: lehen eta bigarren hezkuntzako, eta
Helduen Hezkuntzako zentro guztietako hezkuntza-proiektuan lehenik, eta urteko programa-
zioan gero, hezkidetzaren edukiak eta printzipioak sartzea, eta genero-ikuspegia aintzat har-
tzen ez duen hezkuntza-material oro ezabatzea.

AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea indartzeari begira, hezkuntzaren arloak garrantzi bikoitza hartzen
du. Gizarte-sistema da etorkizuneko herritarren prestakuntzaren erantzule baina horretaz gain,
baita jakintza (eta horren ondorioz, ohiko moduan onartzen diren gizarte-paradigmak) sor-
tzearen eta zabaltzearen erantzule ere –batik bat, unibertsitate-eremuan–; beraz, oso garran-
tziatsua da emakumeek berdintasuneko presentzia izan dezaten lortzea, maila guztietako era-

bakiak hartzeko eremuetan: unibertsitatearen, eta lehenengo eta bigarren hezkuntzaren eremuan.

Unibertsitatearen eremuan, emakumeen berdintasunezko presentzia lortzea estrategikoa da, bai administrazioaren eta boterearen eremuetan, bai irakaskuntzaren eta ikerketaren eremuetan, emakumeen jakinduria sortzea eta gizartean zabaltzea erraztearren.

Bigarren hezkuntzaren eremuan, ezinbestekoa da emakumeak zuzendaritzako postuetara heltzea, zentroetako botere-banaketan berdintasuna lortzeaz gain, neskek eta mutikoek emakumezko zuzendariak izan ditzaten agintaritza-irudiaren erreferentetzat, eta ohiko rol-banaketa alde batera utz dadin.

Lehen hezkuntzaren eta haur-hezkuntzaren eremuan, aldiz, gizonen tutoretzako eginkizunetarako sarbidea izan dezaten lortu behar da, nesken eta mutikoengan nahiz gizarte-eremuan erreferente maskulinoak sustatze aldera zaintzako zereginetan.

Emakumeen ahalduntzeari laguntzeko hezkuntzaren arloak duen bigarren eginkizun garrantzitsua –prebentziokoa– honako hau da: emakumeek gizarteari egindako ekarpenak agerian utziko dituen eta haien ahalduntzeari lagunduko dion jakintza sortu eta zabal dadin lortzea. Jakintza sortzeari dagokionez, genero-harremanen azterketan unibertsitateak funtsezko eginkizuna hartu behar du, desoreka-egoerak sortu eta erreproduzitzen dituzten faktoreak identifikatuta, eta horiek ezabatzen laguntzeko formulak eta tresnak bilatuta. Horretaz gain, eskura dituen tresnen bitartez sortutako jakintzak ezagutaraztea sustatu behar du.

Hona hemen beste helburu garrantzitsu bat, jakintzaren zabaltze ez-sexista lortzeko: neskei eta mutikoei ikasketei buruzko orientazioa emateko garaian aldeak murriztea; bestela esateko, karrerak eta lanbideak hautatzerakoan, sexu/genero sistemak eragina izan dezan saihestea, neskei emakumeak nagusi diren lanbide eta karrera estereotipatuak –ohiko moduan eremu pribatuarekin loturik daudela– aukeratzea ez bultzatzearen, gizartean eta etorkizunari begira proiektio txikiagoa dutenez.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Bateragarritasunaren eremuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko lagungarri izan daiteke hezkuntzaren arloa, bi modutan: alde batetik, prebentzioa sustatuta, eta bestetik, dauden oztopoak ezabatuta.

Prebentzioaren aldetik, ikasleen artean zaintzaren erantzukizuna eta etika sustatuko dituzten ekintzak egitea estrategikoa da, horrela lortuko baita mutikoek txikitatik ikas dezaten norberaren zaintza beste norbaitengan ez uzten, ahal den heinean, baita eremu pribatuko balioen eta trebetasunen garrantzia berriz balioestea ere.

Bateratzeak egun dituen oztopoak ezabatzeari dagokionez, bi alderdi estrategiko erabakigarri izan daitezke familietan norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko. Lehenengoa: 0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta jangelako eta garraioko zerbitzuen estaldura hobetzea. Bigarrena: hezkuntza-zentroetako ordutegiak eta egutegiak zabaltzea, eskolaz kanpoko jarduerak egiteaz gain, haurrentzat ikasteko eta harremanetarako gune egonkor bat eskura izan dezaten familiek.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eremuan, hezkuntzak eginkizun bikoitza betetzen du berriro ere: prebentzioa eta asistentzia. Prebentzioaren eremuari dagokionez, funtsezkoa da neskak eta mutikoak berdintasunean oinarritutako harreman-giroan hezte, eta gatazkak hitz eginda eta indarkeriarik gabe ebazten direla ikastea. Asistentziaren eremuari dagokionez, esan gabe doa etxeko tratu txarren egoerek neska-mutikoen eskolako errendimenduan eta harremanetan eragina dutela. Beraz, irakasleek maiz egoera konplexuei aurre egin behar izaten diete eta ez daude horretarako prestatuak. Hori horrela izanik, beharrezko prestakuntza, informazioa eta aholkularitza eskaini behar dira, eta jarduteko gidatzat baliatu den protokolo bat ere sortu behar da.

PROGRAMEN ETA HELBURUEN ZERRENDA

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA –1M–: IKASTETXEETAN HEZKIDETZA SUSTATZEA

1M.1. HELBURUA:

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazio guztietan hezkidetza integratzea.

1M.2. HELBURUA:

Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialen erabilera ezabatzea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:

HEZKUNTZA SISTEMAN ERABAKIAK HARTZEKO EREMUETARAKO SARBIDEA

1A.1. HELBURUA:

Unibertsitate-sistemaren erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.

1A.2. HELBURUA:

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.

1A.3. HELBURUA:

Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, irakasleen maila eta eginkizun guztietan, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:

JAKINTZA EZ-SEXISTA SORTZEA ETA HORRETAZ JABETZEA

2A.1. HELBURUA:

Unibertsitate-eremuan, genero-harremanen azterketari buruzko jakintzaren sorkuntza eta zabal-kundea areagotzea.

2A.2. HELBURUA:

Neska-mutilek ikasketak hautatzean sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, etorkizuneko aukera hobeak eskaintzen dituzten ikasketei eta tarte handiena dutenei lehentasuna emanda.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–:

IKASLEENGAN ERANTZUNKIDETASUNA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEA

1B.1. HELBURUA:

Etzeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna areagotzea nesketan eta mutiletan.

2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –2B–:

ESKOLAKO DENBORA ETA AZPIEGITURAK EGOKITZEA ETA BERRIZ ANTOLATZEA

2B.1. HELBURUA:

0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea.

2B.2. HELBURUA:

Hezkuntza-zentroetan eta haur-eskoletan ordutegiak eta egutegiak malguagoak izatea, horien antolaketa-autonomia kontuan izanik, eta familien premiak betetzea bermatze aldera.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –1I–:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN PREBENTZIOA ETA BITARTEKOTZA

1I.1. HELBURUA:

Ikastetxeetan etxeko indarkeria-kasu guztiak atzematea, eta adostutako protokolo eraginkorri jarraiki, kasu guztiei erantzuna ematea.

1I.2. HELBURUA:

Indarkeriaren prebentziorako programa esperimental egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetza eta lankidetza lortzeko harremanen kultura aldatuta.

HEZKUNTZA: Programen eta jardun helburuen banaketa ardatzetan

MAINSTREAMINGA	AHALDUNTZEA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	INDARKERIA
1M: Ikastetxeetan hezkidetzatza sustatzea 1M.1. HELBURUA: Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazio guztietan hezkidetzatza integratzea. 1M.2. HELBURUA: Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialen erabilera ezabatzea.	1A: Hezkuntza sisteman erabakiak hartzeko eremuetarako sarbidea 1A.1. HELBURUA: Unibertsitate-sistemaren erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea. 1A.2. HELBURUA: Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea. 1A.3. HELBURUA: Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, irakasleen maila eta eginkizun guztietan, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea. 2A: Jakintza ez-sexista sortzea eta horretaz jabetzea 2A.1. HELBURUA: Unibertsitate-eremuan, genero-harremanen azterketari buruzko jakintzaren sorkuntza eta zabalkundea areagotzea. 2A.2. HELBURUA: Neska-mutilek ikasketak hautatzean sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, etorkizuneko aukera hobeak eskaintzen dituzten ikasketei eta tarte handiena dutenei lehentasuna emanda.	1B: Ikasleengan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sutatzea 1B.1. HELBURUA: Etxeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna areagotzea nesketan eta mutiletan. 2B: Eskolako denbora eta azpiegiturak egokitzea eta berriz antolatzea 2B.1. HELBURUA: 0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea. 2B.2. HELBURUA: Hezkuntza-zentroetan eta haur-eskoletan ordutegiak eta egutegiak malguagoak izatea, horien antolaketa-autonomia kontuan izanik, eta familien premiak betetzea bermatze aldera.	1I: Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean prebentzioa eta bitartekotza 1I.1. HELBURUA: Ikastetxeetan etxeko indarkeria-kasu guztiak atzematea, eta adostutako protokolo eraginkorrari jarraiki, kasu guztiei erantzuna ematea. 1I.2. HELBURUA: Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetzatza eta lankidetzatza lortzeko harremanen kultura aldatuta.

PROGRAMAK, HELBURUAK ETA JARDUN ESTRATEGIAK GARATZEA

MAINSTREAMINGA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1 M–:

IKASTETXEETAN HEZKIDETZA SUSTATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

29. artikulua.– *Curriculuma*

1.– Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzak helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean.

- a) Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren arabera aurreiritzi, estereotipo eta rola ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.
- b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- c) Beharrezko ezagutzak sartzea, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.
- d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren hezkidetzak-ereduak ere.

30. artikulua.– Irakaskuntzako materialak

1.– Debeku da pertsonen, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen testu-liburu edo irakaskuntzako material oro zabaldu eta erabiltzea Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testu-liburuek eta irakaskuntzako beste material guztiek, inola ere, aurreko artikuluko 1. paragrafoan adierazi diren hezkidetzako helburuak barneratuta izan behar dituzte. Bestalde, ez dute hizkuntza modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatu behar dute.

31. artikulua.– Pertsonak eta egiturak

1.– Beren zereginetan genero-ikuspegia integratzeko, hezkidetzan trebakuntza zehatza jaso duten langileak izango dira hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu eta berritzeaz arduratzen diren organoetan eta irakasleen laguntzarako zerbitzuetan.

2.– Hezkuntza Administrazioak zera bultzatuko du: emakume zein gizon irakasleek presentzia orekatua izan dezatela jakintza-arlo eta hezkuntzako etapa ezberdinetan, eta halaber ikastetxeen zuzendaritza-organoetan.

32. artikulua.– Prestakuntza

1.– Hezkuntza Administrazioak hezkidetzari buruzko prestakuntza-planak jarriko ditu abian; plan horiek irakaskuntzako profesionalei zuzenduta egongo dira, eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztiak hartuko dituzte beren baitan.

2.– Ikastetxe bakoitzak prestakuntza-plan horiek abian jartzerakoan neurri egokiak ezarritzan, Hezkuntza Administrazioak beharrezko egokitzapenak egingo ditu ordutegian eta antolaketan. Gainera, mekanismoak ezarriko dira plan horietan aurreikusi diren egutegi eta ordutegiek afektatutako ikasleei erantzuteko.

3.– Irakaskuntzako profesionalei –banaka zein ikastetxeen bidez– zuzentzen zaien etengabe-ko prestakuntzarako eskaintzak, bere edukietan, zeharka, hezkidetzako filosofia barneratu behar du, eta, horrezaz gain, hezkidetzari buruzko ikastaro zehatzak jaso behar ditu.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Ikastetxeetan hezkidetza txertatzea funtsezko jarduna da etorkizunean emakumeen eta gizonen artean izan daitezkeen desoreken prebentziorako. Aurreko hamarkadan hainbat jardun gauzatu ziren arren, etorkizuneko belaunaldietan berdintasuna sustatzeko horrelako neurriak oso garrantzitsuak direnez, ezinbestekoa da hezkidetza garatzeko jardunak sistematizatzeko gogo biziz lan egiteari eustea –administrazio publikoen bultzadaren laguntzarekin–. Gaur egun oraindik ere, zenbait ikastetxetan hezkidetza ez dago hezkuntza-proiektuan txertaturik, ezta jardueraren urteko programazioan ere. Hezkidetza funtsezko helburutzat duten kasuetan, gerta daiteke zailtasunak izatea helburua modu eraginkorrean garatzeko. Hortaz, zentroetako jarduna planifikatzeko dokumentuetan hezkidetza jasotzeari dagokionez, eta hezkidetzaren ezarpen praktikoari dagokionez, ezinbestekoa da hezkidetza errealitate izan dadin lanean jarraitzea.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1M.1. HELBURUA:

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazio guztietan hezkidetza integratzea.

1M.2. HELBURUA:

Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialen erabilera ezabatzea.

1 M. 1 . HELBURUA:

LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO, ETA HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN URTEKO PROGRAMAZIO GUZTIETAN HEZKIDETZA INTEGRATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Helburu horrekin honako hau lortu nahi da: ikastetxe guztietan hezkidetza behar bezala integratzea, urteko programazioan jarduerak txertatuta, kalitatezko hezkuntza-proiektuaren funtsezko zatitzat har dadin.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako nahiz Helduen Hezkuntzako ikastetxeak hartzen ditu barnean helburuak.

Hezkidetza behar bezala integratua dagoela esango dugu, honako kasu hauetan:

- Ikastetxean hezkidetza ezartzeko arduradun bat jartzeko ordu-kreditua erabakitzen denean.
- Irakasleek eta zuzendaritza-taldeek hezkidetzaren inguruko prestakuntza jaso dutenean.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eta berdintasunean oinarrituta hezteko jarduerak planifikatzen direnean ikastetxeetako urteko programazioan.
- Hezkidetzaren ezarpen-maila aztertzeko jarraibideak erabakitzen direnean sisteman dauden kontrol- eta jarraipen-prozesuetan.
- Sexuaren arabera bereizitako estatistika-datuak daudenean.
- Hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzen denean.
- Generoaren eragina aintzat hartzen denean zentroetako jarduerak planifikatzeko, diseinatzeko eta ezartzeko prozesu guztietan.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Hezkidetzaren ikuspegia integratzen duten ikastetxeetako hezkuntza-proiektuen kopurua.
- Hezkidetzaren ikuspegia integratzen duten ikastetxeetako urteko programazioen kopurua.
- Urtero hezkidetzako jarduerak egiten dituzten ikastetxeen kopurua.
- Ikastetxe bakoitzak urtean egindako hezkidetzako jardun kopurua.

1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Bi esku-hartze estrategia gomendatzen dira:

- Berritzeguneetako profesionalak eta irakasleak trebatzea hezkidetza txertatzeari dagokionez, prestakuntzaren, esperientziak eta praktika onak trukatzearen, eta pizgarrien bitartez.
- Hezkidetzaren ezarpen-adierazle espezifikoak definitzea, ikastetxeetako urteko planen jarraipenean eta ebaluazioan kalitate-irizpideen artean txertatzeko.

1M.2. HELBURUA:

BERDINTASUNERAKO LEGEAREN 30. ARTIKULUA BETETZEN EZ DUTEN HEZKUNTZA MATERIALAK ERABILERA EZABATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Helburuarekin honako hau lortu nahi da: hezkuntza-material guztiak –erabiltzen ari direnak eta argitaratu berriak– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 30. artikulua urra dezaten saihestea, eta zehatz-mehatz, hezkuntza modu sexistan erabil dadin eragozteko, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta ez-estereotipatua bermatuz bai irudietan, bai edukietan.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Hezkuntza-material berriak edo erabiltzen ari direnak.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Berdintasunaren Defentsa Erakundean salatutako material kopurua.
- Aztertutako material kopurua.

1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Hezkuntza-materialen azterketa sakonagoak egitea eta materialak aztertzeko ardura dutenei jakinaraztea berdintasun-legean xedaturikoa betetzen ez duten materialak baztertu behar direla.
- Irakasleei prestakuntza ematea, legea urratzen duen materiala atzeman dezaten erabiltzen ari diren materialaren artean.
- Legearen 30. artikulua betetzen ez duen materialaren berri eman dezaten pizgarriak ematea ikastetxeei.

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1 A–:**HEZKUNTZA SISTEMAN ERABAKIAK HARTZEKO EREMUETARAKO SARBIDEA**

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:*23. artikulua.– Xedapen orokorra*

Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatueta kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoen artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.

24. artikulua.– Elkarrekin eta erakundeak

1. Euskal herri-administrazioek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila profesionalen, enpresaren, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikaren, kulturen eta bestelako arloetako elkarrekin eta erakunde zuzendaritzako organoetan. Horretarako, gehitu edo egokitu ahal izango dituzte elkarrekin eta erakundeoi adierazitako helburua betetzearen arabera dagozkien diru-laguntzak.

33. artikulua.– Xedapen orokorrak

1.– Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek, betiere, emakumeek eta gizonen aukera berdinak izatea bultzatuko dute, bai irakasle-karreran, bai erabakiak hartzen diren eremuetara sartzeko; eta, horrekin batera, ikasleek, sexuaren arabera, diziplina eta jakintza-arlo guztietan partaidetza orekatua izan dezatela sustatuko dute.

2.– Orobat, jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenera egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin bermatuko dute.

3.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak zera bultzatuko du: euskal unibertsitateek modu egonkorrean eskaini dezatela emakumeen eta gizonen berdintasunerako agente izateko prestakuntza berezia, eta genero-ikuspegia txertatu dezatela beren diziplina eta jakintza-arlo guztietan.

4.– Prestakuntza eta ikerketaren aldeko deialdietan, Hezkuntza Administrazioak batik bat honako ezaugarriak betetzen dituzten proiektuak baloratuko ditu:

- a) Proiektuen buru emakumeak izatea, emakumeen ordezkaritza txikia den ikerketa-eremuetakoak badira.
- b) Ikerketa-taldean emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea.
- c) Emakumeen eta gizonen ezberdintasunarekin eta sexuen arteko hierarkia-harremanarekin zerikusia duten arazoak ulertzen laguntzea.
- d) Ezberdintasunak ezabatzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak proposatzea.

5.– Hezkuntza Administrazioak diru-laguntzak ezarriko ditu, euskal unibertsitate-sistemaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko proiektuak egitea bultzatzeko.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Eragin soziopolitikoaren ikuspegitik begiratuta, hezkuntza-eremuaren maila guztietako erantzukizuneko postuen banaketan badira hainbat joera kezkagarri, berdintasunaren helburua lortzeari dagokionez:

Unibertsitatean, irakasleen %35 soilik da emakumea. Irakaskuntzako eta ikerketako eremuetan gizonen presentzia emakumeena baino askoz handiagoa da, batik bat, goi-mailako kategorietan; eta horrek eragina du bai jakintza transmititzeko moduan, bai sortzen den jakintza motan ere.

Bigarren Hezkuntzan, bi sexuetako irakasle kopurua orekatua den arren, kuantitatiboki, zuzendaritzako postuetan dauden emakumeen proportzioa txikiagoa da, etapa horretako zenbaketa orokorrean duten ordezkaritzarekin (bigarren hezkuntzak irakasleen %55 emakumea da) alderatuta.

Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, emakumeak gehiengoa dira: irakasleen %6 soilik da gizona haur-hezkuntzan, eta %20 lehen hezkuntzan. Azken eremu horretan, batik bat, gizonak ere sartzen ari dira, baina irakasgai jakinetako (ingelesa, gimnasia) arduradun gisa, batik bat; tutoretzetan gizonen presentzia oso txikia da oraindik ere (3).

(3) Iturria: Emakumeak zifratu 2004. Emakunde. Eusko Jaurlaritza.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

1A.1. HELBURUA:

Unibertsitate-sistemaren erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.

1A.2. HELBURUA:

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.

1A.3. HELBURUA:

Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, irakasleen maila eta eginkizun guztietan, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.

1 A. 1 . HELBURUA:

UNIBERTSITATE SISTEMAREN ERABAKIAK HARTZEKO EREMURAKO SARBIDEAN, SEXUEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Unibertsitateko bizitzaren eremu eta diziplina guztietan emakumeen eta gizonen kopuruak orekatuak izan daitezen sustatzea:

Irakasleen eta administrazioko langileen artean, desoreka kuantitatiboa murriztea:

- Irakaskuntzako ekipoa.
- Zuzendaritza-organoak.

Ikertzaileen artean, desoreka kuantitatiboa murriztea:

- Ikertzaileak.
- Proiektu-zuzendariak.
- Ikerketa-taldeetako zuzendariak.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Desoreka kuantitatiboa honako honi esaten diogu: kolektibo jakin bat osatzen duten emakumeen eta gizonen kopuruetan %60-40 baino alde handiagoa izateari.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Unibertsitateak.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia (EUSKEEA).

ERAGIN ADIERAZLEAK:

EAEko unibertsitate guztien datuak, honako hauei buruz:

- Irakasleen banaketa, fakultateen eta sexuaren arabera.
- Irakasleen banaketa, maila eta kategoria akademikoaren eta sexuaren arabera.
- Irakasleen banaketa, kontratu motaren eta sexuaren arabera.
- Kudeaketa-ardura duten irakasleen banaketa, kudeaketa-arloen eta sexuaren arabera.
- Ikerketa-proiektuak zuzentzen dituzten emakumeen eta gizonen kopurua.

1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Prestakuntzari eta ikerketari laguntzeko deialdietan, honako proiektu hauek balioestea bereziki: proiektuen buru emakumeak direnak, emakumeen ordezkariak txikia den ikerketa-eremuetakoak badira; eta ikerketa-taldeetan emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua dutenak.
- Erabakiak hartzeko eremuetarako sarbidea errazteko mekanismoak ezartzea, familiaren eta norberaren bizitza bateragarri eginda.

1A.2. HELBURUA:

BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN ERABAKIAK HARTZEKO EREMURAKO SARBIDEAN, SEXUEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, zuzendaritzako postuetan eta/edo erantzukizun handiko postuetan dauden emakumeen kopurua areagotzea, emakumezko zuzendarien kopurua

–ikastetxeetako zuzendari-eginkizuna betetzen dutenen guztirakoarekin alderatuta– bat etor dadin bigarren hezkuntzaren etapan irakasleen artean duten ordezkaritzarekin. Horrela, egoera orekatuagoa lortzeaz gain, zuzendaritzako postuetan dauden emakumeen erreferentzia-ereduen kopurua areagotzen da.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Desoreka kuantitatiboa murriztea diogunean, bigarren hezkuntzan irakasle diren emakumeen proportzioaren eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetako zuzendari diren emakumeen proportzioaren arteko aldea txikitzea esan nahi dugu, bakoitzari dagokion guztirakoarekin alderatuta.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako zuzendaritzetan dauden emakumeak.
- Bigarren hezkuntzako irakasleak, sexuaren arabera.

1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Bigarren hezkuntzako sisteman, emakumeen eta gizonen presentziari buruzko azterlana egitea, sexuaren arabera, espezialitateen arabera eta zentroetan bete daitezkeen eginkizunen arabera banakatua; eta zuzendaritzako postuetarako emakumeek sarbide txikiagoa izatearen arrazoiak aztertzea, diagnostikoei jarraiki, emakumeen sarbideari laguntzeko neurriak ezartze aldera: prestakuntza, pizgarriak, sentsibilizazio-jarduerak...
- Sarbide horren mesederako, bigarren hezkuntzako hezkuntza-sistemaren erabakiak hartzeko eremuetako parte-hartzea, eta norberaren eta familiaren bizitza bateragarri izatea errazteko beharrezkoak diren jardun guztiak gauzatuko dira.
- Horretaz gain, bigarren hezkuntzako ikastetxeetako antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudiaren kalitateari buruzko txostenetan, emakumeen baldintzak eta egoera berdintasunezkoa izatea modu positiboan balioesteko mekanismoak ezarriko dira.

1A.3. HELBURUA:

LEHEN HEZKUNTZAN ETA HAUR HEZKUNTZAN, IRAKASLEEN MAILA ETA EGINKIZUN GUZTIAN, SEXUEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikastetxeetan, zaintzako eta tutoretzako eginkizunak betetzen dituzten gizonetako kopurua areagotzea, egoera orekatuagoa izan dadin, eta hurrek gizonetako erreferentzia-eredu gehiago izan ditzaten zaintzako lanetan.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Plan honi dagokionez, desoreka kuantitatiboa dagoela esango dugu kasu honetan: lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikastetxeetan, zaintzako eta tutoretzako zereginak egiten dituzten emakumeen eta gizonen arteko proportzioaren banaketan %40-60 baino alde handiagoa dagoenean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikastetxeetan, zaintzako eta tutoretzako zereginak egiten dituzten gizonen kopurua.
- Haur-hezkuntzako ikastetxeetako irakasleak, sexuaren arabera.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Ikasleentzat erreferentzia-eredu izan dadin, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuagoa sustatzea lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako curriculum-gaietan, zentroetako erantzukizunen eta eginkizunen banaketan eta esleipenean.
- Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikastetxeetako antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudiaren kalitateari buruzko txostenetan, hezkidetzaren ikuspegia txertatzea modu positiboan balioesteko mekanismoak ezartzea.

- Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako sisteman, emakumeen eta gizonen presentziari buruzko azterlana egitea, sexuaren arabera, espezialitateen arabera eta zentroetan bete daitezkeen eginkizunen (garraioa, jangela, eskolaz kanpokoak...) arabera banakatua.
- Familiekin sentsibilizazioko jarduerak egitea, haurrek zaintzako zereginetan gizonezko eredu erreferenteak izateak duen garrantziaren gainean hausnar dezaten.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:

JAKINTZA EZ-SEXISTA SORTZEA ETA HORRETAZ JABETZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

28. artikulua.– Xedapen orokorra

Hezkuntza-politika publikoek bultzatu beharreko hezkuntza-ereduek, betiere, helburu hauek izan behar dituzte: sexuaren araberako estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala eskaintzea, bereizkeria-mota oro baztertzea, eta generoak behartu gabeko orientazio akademiko eta profesionala bermatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan: curriculumean, antolaketan eta abarrean.

33. artikulua.- Xedapen orokorrak - (Unibertsitate-eremua)

1.– Euskal unibertsitate-sistema osatzen duten unibertsitateek, betiere, emakumeek eta gizonek aukera berdinak izatea bultzatuko dute, bai irakasle-karreran, bai erabakiak hartzen diren eremuetara sartzeko; eta, horrekin batera, ikasleek, sexuaren arabera, diziplina eta jakintza-arlo guztietan partaidetza orekatua izan dezatela sustatuko dute.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Jakintza sortzeko, transmititzeko, zabaltzeko eta jasotzeko moduak eragin garrantzitsua du gizartearen antolamenduan, genero-harremanen produkzioan eta erreprodukzioan, eta horiekin loturiko roletan eta estereotipoetan. Horregatik da hain garrantzitsua jakintza sortzeko nahiz jasotzeko garaian estereotipo eta rol sexistak produzitu eta erreproduzitu daitezen saihestea.

Unibertsitatearen eremuan, esaterako, diziplina guztietan emakumeek egin dituzten eta egiten dituzten ekarpenak hein handiagoan aditzera ematea eta onartzea ezinbestekoa da.

Garrantzitsua da, halaber, genero-harremanek politikaren, gizartearen eta ekonomiaren arloko alderdi guztietan nola eragiten duten aztertzea, desorekaren arrazoiak atzeman eta eza-batzearen.

Arrazoi horien artean, funtsezkoa da erosteko ahalmena; emakumeen erosteko ahalmena txikiagoa da gizonena baino. Hainbat faktorek eragiten dute desoreka hori: soldatetan diskriminazioa –ezkutukoa edo agerikoa–, familia-karga handiagoa, ezkutuko ekonomian laneragarritasun handiagoa... Hala ere, egoera hori eragiten duten faktoreen artean, hona hemen bat: neskei eta mutilei ikasketei buruzko orientazioa emateko garaian, nahita edo nahi gabe, eragin handia dute eredu eta estereotipoek, eta baldintza eta egoera jakin batzuek; horiek guztiak eragozpen izaten dira neskak ikasketa eta karrera jakin batzuetan sartzeko, alegia, ongi ordaindutako eta etorkizuneko aukera handiak dituzten lanpostuetara heltzeko egin behar diren ikasketa eta karreretan. Izan ere, gaur egun, badira zenbait lanbide emakumeen presentzia oso-oso txikia dena oraindik ere. Lanbide horietako asko teknikaren, zientziaren edo teknologiararen arlokoak dira, jakintzaren punta-puntako sektoreekin loturikoak; hortaz, gizartearen, ekonomiaren eta politikaren praktiketan eta ordenan eragiteko ahalmen handia dute. Hari berari jarraiki, datu hauek nabarmendu behar ditugu:

Zenbait Batxilergo motatan nesken eta mutikoen arteko proportzioa ikusita, argi geratzen da teknologiarekin loturiko adarrean dagoela desorekarik handiena, neskek ez baitute osatzen bosten bat ere. Eta alderantziz, Arteekin eta Giza eta Gizarte Zientziekin loturiko Batxilergoetan, mutilak heren bat inguru dira.

Unibertsitatearen eremuan ere beste horrenbeste gertatzen da. Badira zenbait karrera –batik bat, Osasun Zientzietan eta Humanitateetan– emakumeen presentzia %75 baino handiagoa dena: adibidez, Hezkuntza Bereziko Irakasle Ikasketak, Farmazia, Medikuntza, Dietetika eta Nutrizioa, Elikagaien Zientzia eta teknologia, Pedagogia, Psikologia, Psikopedagogia, Gizarte Lana, Gizarte Hezkuntza, hainbat espezialitatetako Irakasle Ikasketak, Itzulpengintza eta Interpretetza, Turismoa, Artearen Historia, Publizitatea eta Harreman Publikoak, eta zenbait Filologia. Aitzitik, ikasleen %75 baino gehiago gizonezkoak diren karrerak arlo zientifiko-teknikoetakoak dira: Itsas Makinak, Industrial, Itsas Nabigazioa eta ingeniari tekniko ugari; hala nola, Ingeniaritza Tekniko Elektronikoa eta Industrial, Ingeniaritza Tekniko Mekanikoa, Automatika eta Elektronika Ingeniaritza... Beraz, neskek etorkizunerako aukera handienak dituzten karrerak hauta ditzaten erraztu eta sustatu behar da.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

2A.1. HELBURUA:

Unibertsitate-eremuan, genero-harremanen azterketari buruzko jakintzaren sorkuntza eta zabal-kundea areagotzea.

2A.2. HELBURUA:

Neska-mutilek ikasketak hautatzean sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, etorkizuneko aukera hobeak eskaintzen dituzten ikasketei eta tarte handiena dutenei lehentasuna emanda.

2A.1. HELBURUA:

UNIBERTSITATE EREMUAN, GENERO HARREMANEN AZTERKETARI BURUZKO JAKINTZAREN SORKUNTZA ETA ZABALKUNDEA AREAGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Genero-harremanen azterketari buruzko jakintza –garatua eta irakatsia– areagotzea, emakumeen jakituria produzitzeko, ezagutarazteko eta aplikatzeko oinarriak ezartze aldera.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Jakintzaren sorkuntza aipatzen dugunean, honako honetaz ari gara: graduatuondoko programetan, proiektuak eta ikerketak egiteaz; jakintzaren zabalkundea diogunean, aldiz, beste honetaz: graduatuondoko ikasleei genero-harremanen azterketari buruzko prestakuntza emateaz, ikerketa-prozesuen emaitzak argitaratzeaz, eta jardunaldiak, biltzarrak eta konferentziak egiteaz.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Unibertsitateak.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia (EUSKEEA).

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Unibertsitate guztietan, generoari buruzko graduatuondoko ikasketetako ikasleak, sexuaren arabera.
- Generoaren inguruan irakurritako tesiak.
- Generoaren inguruan inskribatutako tesiak.
- EHUK administrazio publikoekin dituen kontratuak eta hitzarmenak, generoaren inguruan.

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Ikerketa sustatzeko, honako hauek gomendatzen dira:

Ikerketari laguntzeko deialdietan, lehentasunezkoztat jotzea honako proiektu hauek:

- Emakumeen eta gizonen ezberdintasunarekin eta sexuen arteko hierarkia-harremanarekin zerikusia duten arazoak ulertzen laguntzen dutenak.
- Ezberdintasunak ezabatzeko, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak proposatzen dituztenak.

Sortutako jakintzaren zabalkundea sustatzea argitalpenen, biltzarren, jardunaldien eta konferentzien bitartez, eta gai horren inguruko graduatuondoko ikastaroak eta udako ikastaroak sortzea.

2A.2. HELBURUA:

NESKA-MUTILEK IKASKETAK HAUTATZEAN SEXUEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA, ETORKIZUNeko AUKERA HOBEAK ESKAINTZEN DITUZTEN IKASKETEI ETA TARTE HANDIENA DUTENEI LEHENTASUNA EMANDA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Datozen urteotan, enplegu-aukera onak dituzten ikasketetan nesken presentzia handitzea, batik bat, nesken presentzia txikiagoa den lanbideetan.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Helburu horri dagokionez, desoreka kuantitatiboa honako honi esaten diogu: kolektibo jakin bat osatzen duten emakumeen eta gizonen kopuruetan %60-40 baino alde handiagoa izateari.

Honako ikasketa hauetan eragin nahi dugu:

- Batxilergoetan.
- Lanbide Heziketako zenbait lanbide-familiatan.
- Unibertsitateko karreretan.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Batxilergoan matrikulatutako ikasleak, modalitatearen eta sexuaren arabera.
- Batxilergoan matrikulatutako ikasleak, emaitzaren eta sexuaren arabera.
- Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, adarraren eta sexuaren arabera.
- Lanbide Heziketan matrikulatutako ikasleak, adarraren, lan-eskaintzaren eta sexuaren arabera.
- Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak, karreraren eta sexuaren arabera.

2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Eremu guztietan, estereotipatu gabeko orientazioa sustatzea: orientazioko profesionalei prestakuntza ematea, familiekin eta ikasleekin saioak eta topaketak egitea.
- Maskulinizatutako lanbide-adarretako irakasleei prestakuntza ematea, prestakuntzaren nahiz lanbidearen ingurunean nesken sarbidea sustatu eta erraztu dezaten.

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1 B –:

IKASLEENGAN ERANTZUNKIDETASUNA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

47. artikulua.– Xedapen orokorra

Euskal herri-administrazioek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dute. Horretarako, honako alderdiak sustatuko dituzte: etxeko lanetan gizonek erantzunkidetasuna edukitzea; enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharrei egokitzea; zer-bitzu soziokomunitarioak sortzea eta egokitzea; laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak eratztea; eta delako helbururako egoki iritzitako beste edozein neurri.

29. artikulua.– Curriculum

1.– Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzak-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean.

- a) Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren arabera aurreiritzi, estereotipo eta rola ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.
- b) Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea; horretarako, eta irakasten diren edukiak berrikusiko dira eta, hala dagokionean, zuzendu.
- c) Beharrezko ezagutzak sartzea, neska-mutil ikasleek, etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta, gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharrian eta erantzukizunen ardura har dezaten.
- d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu generoan oinarritutako baldintzapenak.

e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ere.

2.– Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarritzko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketarekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ikastearekin.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Etorkizunean helduak izango direnen belaunaldietan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzearen, ezinbestekoa da haurtzarotik hasia balio horietan oinarritutako prestakuntza eta heziketa ematen, familietan ez ezik, ikastetxeetan ere. Horrela, familiaren eta eskolaren artean sinergia positiboak sortzen dira eta errazagoa izaten da honako ideia hau barneratzea: autozaintzari eta ingurukoen zaintzari buruzko alderdi guztiekiko konpromisoa aukera pertsonala baino gehiago, norberaren eta gizartearen erantzukizuna den ideia.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1B.1. HELBURUA:

Etxeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna areagotzea nesketan eta mutiletan.

1 B. 1 . HELBURUA:

ETXEKO ETA ZAINZAKO LANETAN ERANTZUNKIDETASUNA AREAGOTZEA NESKETAN ETA MUTILETAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Etxeko lanekin loturiko neska-mutikoen egungo eta etorkizuneko premiez jabe egiteko gaitasunak txertatzea haien heziketan, eta jendea –bereziki inoren laguntza behar duen jendea– zaintzeko etika sustatzea haiengan.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Erantzunkidetasuna txertatzeak honako hau dakar: hezkuntza-prozesuan, arreta berezia eskainiko zaio denboraren erabilera –neskek eta mutilek etxeko eta zaintzako lanak egiteko hartzen duten denbora– parekoa izateari. Etxeko lanetatik edozein egin beharko dute, eta mutilek lan feminizatuak eta neskek lan maskulinizatuak egin ditzaten ahalegina egingo da. Batik bat, inoren laguntza behar duten lagunen zaintza sustatuko da, baita laguntza behar duen edonoren zaintza ere.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Etxeko eta zaintzako lanak egiteko neskek eta mutilek astean ematen dituzten orduak.
- Eskolaren zaintzan erantzunkidetasuna sustatzeko ekintzak egiten dituzten ikastetxeen kopurua.
- Ikasleek ziklo bakoitzean egindako etxeko eta zaintzako lanak.
- Etxeko eta zaintzako lanak sustatzeko ikasgaia sortzea.

1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Neska-mutilengan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko gune eta tarte bereziak sortzea irakaskuntzan, erantzunkidetasunari dagokionez abiapuntuko egoera eta ezaugarri bereizgarriak aintzat hartuta, horrelakorik eskatzen duten kolektiboen kasuan.
- Lehen Hezkuntzan, adin bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera, etxeko eta zaintzako lanak egiteko beharrezkoak diren jakintzak ikasteko tailerrak egitea.
- Bigarren Hezkuntzan nahitaez eskaini beharreko aukerako ikasgaia sortzea, etxeko eta zaintzako lanak egiteko gaitze aldera, eta familiaren eremuan erantzukizunak hartze aldera.
- Ikasleak modu aktiboan tartean sartzea eskolako azpiegituren eta ikasleen beraien –kolektibo gisa– premien mantentze-lanetan eta zaintzan, Lehen nahiz Bigarren Hezkuntzan.

- Erantzunkidetasunaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzea familiak eta gai hori lantzea familiekin, erantzunkidetasuna garatzeko baterako estrategiak diseinatuta.

2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA -2B-:

ESKOLAKO DENBORA ETA AZPIEGITURAK EGOKITZEA ETA BERRIZ ANTOLATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

49. artikulua.– Erkidegoarentzako zerbitzu soziokomunitarioak.

1.– Euskal herri-administrazioek zerbitzu eskuragarriak, malguak, kalitatekoak eta erraz lortzekoak ezarri behar dituzte, hain zuzen ere, autonomia funtzional nahikoa ez izatearen ondorioz eguneroko bizitzako jardunerako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen arreta-beharrizanei erantzuteko.

2.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskudunak diren gainerako administrazioekin lankidetzan, beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar ditu hurrei hezkuntzaren zein laguntzaren aldetik arreta eskaintzeko zerbitzuak daudela bermatzeko. Zerbitzuok ondo entzun behar diete eremu edo eskualde bakoitzean eskolatze-adina baino lehenagoko haurrek dituzten beharrian guztiei, eta ordutegi eta egutegi zabal eta malguak eskaini behar dituzte.

3.– Hurrei hezkuntzaren eta laguntzaren aldetik arreta eskaintzeko zerbitzuei, eguneko zentroe, egoitzei eta mendeko pertsonen arreta eskaintzeko gainerako zentro eta programei zuzenduta dauden laguntzen deialdietan, euskal herri-administrazioek lehentasuna emango diete gainerako kalitate-irizpideak betetzeaz gain ordutegi eta egutegi zabal eta malguak dituzten zentro eta programei.

4.– Hezkuntza Administrazioak, eskudunak diren gainerako administrazioekin lankidetzan, jantoki-zerbitzu osoa egongo dela bermatu behar du hezkuntzaren maila guztietan eta eskariaren arabera.

5.– Euskal herri-administrazioek beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar dituzte haur eta lehen hezkuntzan zehar, curriculumetik kanpo, arreta osagarria eskaini dakien hurrei, ezarritako dagoen eskola-ordutegia eta -egutegia zabaldua, horri esker, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztu dakien emakumeei eta gizonei.

6.– Euskal herri-administrazioek laguntzak emango dituzte, hain zuzen ere, emakumeek eta gizonek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartu ahal izateko zerbitzuak eskaintzea helburu duten enpresak sortu eta mantendu daitezen.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Familiaren eta norberaren bizitza bateragarri egiteko funtsezkoa den zereginetako bat seme-alabak zaintzea da. Hari berari jarraiki, zerbitzu-sare egokia sortzea oinarrizko premia da, eta bada beste premia bat ere, aurrekoa bezain garrantzitsua: sortutako zerbitzuen ordutegia eta egutegia bat etortzea gurasoen lan-ordutegiekin. Enplegu-arlotik, lanaldia malgutzea lortu nahi dugun arren, ezinbestekoa da hezkuntzaren eremuak ere bat egitea arazo hori konpontzeko ahaleginarekin, eskoletako azpiegiturak baliatzeko ordutegiak malguago bihurtuta.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

2B.1. HELBURUA:

0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea.

2B.2. HELBURUA:

Hezkuntza-zentroetan eta haur-eskoletan ordutegiak eta egutegiak malguagoak izatea, horien antolaketa-autonomia kontuan izanik, eta familien premiak betetzea bermatze aldera.

2B.1. HELBURUA:

0-3 URTE BITARTEKO HAURRENTZAKO TOKIAK AREAGOTZEA, ETA LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN JANGELA ETA GARRAIO ZERBITZUEN ESKAERA BETEKO DELA BERMATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

0-3 urte bitarteko etapan dagoen eskaerari aurre egiteko beharrezko zerbitzuak sortzea, eta lehen eta bigarren hezkuntzan jangelako eta garraioko eskaera beteko dela bermatzea, baliabideen banaketan zentzuzko irizpideei jarraiki.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Jangelako eta garraioko eskaera betetzeko, landa-eremuk egoera bereziki aztertu beharko da, eremu horretan egoera konplexuagoa eta defizitarioagoa izan daitekeelako.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Sortutako haur-eskolen eta tokien kopurua, Lurralde Historikoetan dagoen eskaeraren arabera.
- Jangelako tokien kopurua, eskatutakoak eta eskainitakoak.
- Garraioko tokien kopurua, eskatutakoak eta eskainitakoak.

2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da: bateragarritasunaren mesederako zerbitzuak areagotzea, bai eremu publikoan, bai pribatuan:

- Erakunde-eremuan, hezkuntza-eremuarekin loturiko zerbitzuen –jantokiak, garraioa, Haur Eskolak...– eskaintza eta eskaria aztertzea gomendatzen da, batik bat, tokiei, jardueri eta egokitzeari dagokienez, gurasoen askotariko baldintza, egoera eta premiak aintzat hartuta. Azterlanean eskaintza eta eskaria alderatu behar dira, banaketa geografikoarekin loturiko irizpideei jarraiki, baita aztertutako zerbitzuen eta ekipamenduen eskaintza zabaltzeko aukerak proposatu ere. Azterlanaren arabera, 0-3 urte bitarteko etapan dagoen eskaerari aurre egiteko zerbitzuak eta baliabideak areagotuko dira (jangela eta garraioa). Prozesu osoaren jarraipena egingo da, eta prentsan izandako lorpenen berri eta tarteetan sartutako erakundeen lankidetzaren mailaren berri emango da.
- Eremu pribatuan, zerga-pizgarriak ezartzea gomendatzen da, hezkuntzarekin loturiko bateragarritasunaren mesederako zerbitzu soziokomunitarioak mantentzeko eta/edo egokitze-laguntza ekonomikoa ematen duten enpresentzat.

2B.2. HELBURUA:

HEZKUNTZA ZENTROETAN ETA HAUR ESKOLETAN ORDUTEGIAK ETA EGUTEGIAK MALGUAGOA IZATEA, HORIEN ANTOLAKETA AUTONOMIA KONTUAN IZANIK, ETA FAMILIEN PREMIAK BETETZEA BERMATZE ALDERA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Ikastetxeen eta haur-eskolen ordutegia malguagoa izatea, ikastetxeak auzoko bizitzan txerta daitezen sustatuta, eskola-ordutegitik at ere baliatuz eskolako azpiegiturak, eta aldi berean, familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea erraztuz gurasoei.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Ikastetxeetako ordutegiak eta egutegiak malgutzeko garaian, ikasleen familia-unitateak osatzen dituzten kide guztien erantzukizunak –norberaren, familiaren eta lanbidearen arlokoak– bateragarri egiteko premiei jarraitu behar zaie.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Ordutegi malgua eta egutegi zabalagoa duten ikastetxeen kopurua.
- Ordutegi malgua eta egutegi zabalagoa duten haur-eskolen kopurua.

2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako esku-hartze estrategia hau gomendatzen da:

Gurasoen, aisialdi hezitzailearen arloko profesionalen eta irakasleen artean eztabaida sortadin sustatzea, ikastetxeetako ordutegiak malgutzeko formulen bideragarritasun-maila eta helburu hori lortzeko praktika egokienak aztertzearen. Praktika on horiek ezarri ostean, GKEen, gizarte-eragileen, udalen, aldundien, jaurlaritzaren eta guraso-elkarteen artean, erakunde arteko hitzarmena sinatzea, zentroak zabalik izatea ahalbidetuko duen planifikazioa lortze aldera, honako bi bide osagarri hauen bitartez:

- Irakasleen ordutegiak malgutzera, eta zentroko liburutegia edo ikasteko gela bat eskola-ordutegitik at zabalik izateko ordu-kredituak sortzea.
- GKEek eta elkarteek parte hartzea, ikastetxeetan jarduerak egiteko aukera izan dezaten edo herritarren erantzukizunak beren gain har ditzaten.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 11–:

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN PREBENTZIOA ETA BITARTEKOTZA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

29. artikulua.– *Curriculum*

1.– Hezkuntza Administrazioak hezkidetzako proiektuak sustatuko ditu, eta jarraian aipatzen diren hezkidetzak-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila ezberdinetako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean.

e) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ere.

2.– Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarritzko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldiotan, honakoekin zerikusia duten alderdi eta edukiak integratuko dira: etxearekin, pertsonen zainketaekin, harreman pertsonalen funtzionamendua ezagutzearekin, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta aniztasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetzak-ereduak ikastearekin.

31. artikulua.– *Pertsonak eta egiturak*

Irakasleek ikastetxeen zuzendaritza-organismoek jakitera eman behar diete emakumeen eta nekato-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria-zantzu oro.

53. artikulua.– Prestakuntza

1.– Euskal herri-administrazioetan langileak prestatzeko eskumena duten erakundeek, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan, emakumearen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzen duten langileek prestakuntzaren arloan dituzten beharrezkoen diagnostikoa egin behar dute, eta aldian-aldian eguneratu; eta diagnostiko horren arabera profesional-taldeek dituzten beharrezkoen egokitzeko prestakuntza-programak jarriko dira abian.

2.– Euskal herri-administrazioek, betiere, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta ezabatzen eta biktimak zaintzen eta haiei laguntzen diharduten erakunde pribatueta langileek prestakuntza jaso dezaten lagunduko dute.

61. artikulua. – Hezkuntza

Erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan eta beren egoera sozioekonomikoaren arabera, etxeko tratu txarren biktimek lehentasunezko tratua izango dute erabat edo zati batean euskal herri-administrazioetako funtsekin finantzatuta dauden haur-eskoletara sartzeari dagokionez, bai eta hezkuntza-arloan dauden beka eta bestelako laguntza eta zerbitzuetarako ere.

HASIERAKO EGOERA MUGATZEA:

Eskolako esperientziak berebiziko garrantzia du haurren gizarteratzean; gune horretan, balioak, jarrerak eta portaerak ikasi, praktikan jarri, ahalegindu edo zuzentzen dira, sexismoa eta matxismoa, besteak beste. Horiekin loturiko alderdiak garatzeko gune pribilegiatua denez, behar-beharrezkoa izaten da oso txikitatik jarduten hastea, eskolako bizitzan egunero gertatzen diren genero-estereotipoak eta -rolak agerrarazteko, horien inguruan hausnartzeko eta aldatzeko; izan ere, horrela errazagoa izango da emakumeen aurkako indarkeria natural bihurtzea ahalbidetzen duten elementuak desagerraraztea.

Bestalde, amaren aurka, edo bereziki, haurren aurkako indarkeriaren eta/edo tratu txarren egoerak gertatzen diren etxeetan bizi diren hurrek ondorio fisiko eta psikologiko garrantzitsuak pairatzen dituzte, eta haien jarreran eragin handia izaten dute, baita ikastetxeko errendimenduan ere. Horregatik, egoera horien aurrean zer egin eta nola jokatu behar duten jakiteko, oso garrantzitsua da irakasleei jakintza helaraztea, adostutako protokolo eraginkorren bitartez, eta prestakuntza egokiaren bitartez.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

11.1. HELBURUA:

Ikastetxeetan etxeko indarkeria-kasu guztiak atzematea, eta adostutako protokolo eraginkorri jarraiki, kasu guztiei erantzuna ematea.

11.2. HELBURUA:

Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetza eta lankidetza lortzeko harremanen kultura aldatuta.

11.1. HELBURUA:

IKASTETXEETAN ETXeko INDARKERIA KASU GUZTIAK ATZEMATEA, ETA ADOSTUTAKO PROTOKOLO ERAGINKORRARI JARRAIKI, KASU GUZTIEI ERANTZUNA EMATEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Esku-hartzearekin helburua honako hau da: etxeko indarkeria –emakumeen edo haurren aurka egiten dena– pertsonalki pairatzen duten edo horren lekuko diren ikasleen kasuak zenbat diren jakitea, kasuak agerian jarri ostean, behar bezala erantzutearren.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Indarkeriatzat hartuko dugu bai hurrek pairatzen duten etxeko indarkeria, baita amen aurka-koa ere.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

— Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

— Atzemandako kasuen kopurua.

— Artatutako kasuen kopurua.

11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

— Honako estrategia hau gomendatzen da: ikastetxeetan atzemandako etxeko indarkeria-kasuen aurrean jarduteko protokolo bat lantzea eta zabaltzea, eta irakasleei laguntzeko prestakuntza-jarduerak egitea, kasu horiek atzematen eta behar bezala esku hartzen jakin dezaten. Kideen arteko indarkeriaren kasuetarako jardun-protokoloa ezartzeko prozesuekin koordinatuta landu eta zabalduko da protokolo hori; kideen arteko indarkeria-kasuetarako protokoloan, eragin-datuak sexuaren arabera bereiztea eta genero-baldintzen azterketa eranstea proposatu da.

11.2. HELBURUA:

INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO PROGRAMA ESPERIMENTALA EGITEA IKASTETXEE-TAN, BERDINTASUNEAN OINARRITUTAKO BIZIKIDETZA ETA LANKIDETZA LORTZEKO HARREMANEN KULTURA ALDATUTA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Hainbat ikastetxetan proiektuak garatzea, ikasgela barruko nahiz kanpoko eguneroko harremanetan, elementu nagusitzat honako hauek izatea bultzatuko duena: norberaren nortasuna eraikitzean generoak duen eraginaren inguruko hausnarketa, eta eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak ikastea. Ikastetxe horietan, jarraian xedatuko diren irizpideei jarraiki, ikastetxearen eguneroko funtzionamenduaren alderdi guztiak berrikusteko eta berriz antolatzeko zereginetan ikasleak eta irakasleak tartean sartzea da kontua.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Besteak beste, honako eduki hauek izan behar ditu programa esperimentalak:

- Gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak ikastea, baita emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan eta aniztasunean oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ere.
- Emakumeei eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta erai-ki diren sexuaren araberako aurreiritziak, estereotipoak eta rola ezabatzea.
- Harreman pertsonalak hierarkizatzean generoaren eragina ezabatzea.
- Norberaren nortasuna eraikitzean generoak duen eraginaren inguruko azterketa eta ezta-baida.
- Maskulinitasunaren eta femininitasunaren eredu tradizionalak aztertzea eta zalantzan jartzea, indarkeriarekin duten lotura eta eredu berriak eraikitzea.
- Femininitasunarekin loturiko balioak eskolan txertatzea.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Proiektu pilotua ezarritako ikastetxeen kopurua.

11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Kontzeptuak mugatzean ezarritako parametroen arabera proiektuak garatzea, eta horretarako, prestakuntzako, sentsibilizazioko, ikerketako, eta tresnak eta baliabideak lantzeko ekintzak gauzatzea, prozesu horretan eskola-komunitate osoa tartean sartuta, familiak eta guzti; halaber, baita emaitzak ezagutaraztea eta gainerako ikastetxeetan esperientzia ezar dadin sustatzea ere.

6.3

LANAREN ARLOA



SARRERA

Jendea gizarteratzeko funtsezko elementua da, baita beren autonomia ekonomikoa bermatzeko ere. Ikuspegi integraletik begiratuta, lanaren barruan sartzen dira bai produkzio-lana, bai ugalketako eta bizitzari eusteko lana. Bi horien arteko alde nagusia honako hau da: produkzio-lanak truke-balioa du merkatuan eta gizonezkoen kolektiboak garatu izan du, ohiko moduan; alabaina, ugalketa-lanari ez zaio balio hori aplikatzen eta batik bat, emakumeen doako lanarekin bete izan da eta betetzen da.

Bi lan mota horiek balio ekonomiko ezberdina dutenez, genero-berdintasuna lortzeko, kolektibo gisa emakumeek doan egiten duten lanaren balio ekonomikoa onartu behar da, eta bi jardura horiek gizonen eta emakumeen artean banatu behar dira, gizarte-premia oinarritzkoak betetze aldera. Horrelakorik gertatzen ez den bitartean, ezin izango dugu esan berdintasuna dagoenik emakumeen eta gizonen lanbiderako sarbidean eta lanbide-garapenean.

Hortaz, etxeko eta zaintzako lanetan gizonei –gizaki direnez– dagokien erantzukizuna beren gain hartzera bideratzen da lanaren arloko jarduna, eta Berdintasunerako Legearen 36. artikuluari jarraiki, baita honako hau lortzera ere: "... emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna erreal eta benetakoa, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-, ordainketa- eta kontratuen amaiera-baldintzetan."

MAINSTREAMINGA

Berdintasunerako Legearen 3. artikuluan honela definitzen da genero-ikuspegiaren integrazioa: "emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea". Enplegu-politiken planifikazioan, gauzatzean eta ebaluazioan egiturazko aldaketa hori –emakumeek berdintasunean parte hartzea bermatuko duena– gerta dadin, honako hau jotzen da, hain justu, estrategiarik eraginkorrenzat: erabilitako laneratzeko prozesu, protokolo, tresna eta baliabide guztiak genero-berdintasunaren arabera egokitzea. Enplegu-politika publikoetatik diskriminazioa eta desoreka ezabatzeko estrategiarik zuzenena dela uste dugu, eta hartara, emakumeei enplegurako sarbidea bermatuko zaie.

AHALDUNTZEA

Lanaren arloan, emakumeen autonomia ekonomikoa lortzea da ahalduntzearen ardatza. Arlo horren barruan, bi ekarpen nagusi egin daitezke: enplegurako sarbidea berdintasunean iza-

tea, eta emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea, biak ala biak Legearen 36. artikuluan esanbidez aipatzen direla.

Euskal lan-merkatuan emakumeen egoera zein den aztertuz gero, konturatuko gara kolektibo horren enplegu publikorako sarbidea orekatu samarra dela, baina sektore pribatuan, nagusiki zerbitzuen arloan gertatzen da sarbidea, eta batez ere, erdi- eta behe-mailako kualifikazioko postuetan. Kontuan izan behar dugu Plan baten xedea, oro har, honako hau dela: merkatuak berez sortuko ez dituen ondorioak eragitea, eta merkatuak bai eragiten dituen beste zenbait ondorio zuzentzea, ez direlako nahi zirenak. Horrela bada, IV. PAPME/EEEPren indarreko datozen lau urteetarako bi estrategia lehenetsi dira: bata ekonomiaren puntako sektoreetarako sarbideari dagokiona, eta bestea, teknikarien erdi-mailako lanpostuetarako eta industriaren sektoreko produkzioko lanpostuetarako sarbideari dagokiona.

Etorkizunari begira, Euskal Autonomia Erkidegoak apustu handia egin du jakintzan, teknologian eta berrikuntzan balio erantsia duen jarduera ekonomikoaren alde, eta ahalegin handia egin beharko da gure erkidegoko ekonomiaren puntako sektore horietan emakumeak egoteko; eta are gehiago, lanbide horiekin loturiko jakintza-arlo askotan emakumeen parte-hartzea nahikoa orekatua izanik. Hori horrela dela, emakumeen kolektiboak –gizonenak bezalaxe– kalitateko enplegu-segmentu bat baliatu ahal izango du, lanbide-proiektzio handiekin, eta emakumeen gaitasunak eta lanbide-karrera garatzeko aukera errealak izango da.

Industriaren sektorean sartzeko izango dute emakumeek zailtasun handiena. Hala ere, eskulan gutxi dagoenez, erdi-mailako lanbide teknikoetan eta produkziokoetan lan-eskaintza handia dago, eta lanbide horiek kalitate handiagoko enplegua eskaintzen dute, zerbitzuen sektoreekin alderatuta. Aldi berean, beharrezkoa den prestakuntza teknikoak espezializazio-maila jakin bat eskatzen du, baina hori lagungarri izango da lanpostu horietan sartzen direnen enplegarritasunari eusteko.

Horretaz gain, sinergia-egoera ere gertatzen da. Industria-sektorea zabaldu eta emakumeak produkzioko kategoria teknikoetara sartzen hasiz gero, lanbide-kategoria guztietan –baita kualifikazio-maila txikienetan ere– emakumeak hartzea gehien kostatzen zaion sektorea izateari uzteko mesedegarri izango litzateke.

Bi estrategia horiek osatzeko, autoenpleguan eta enpresa-ekimenak sortzen emakumeen parte-hartzea areagotu beharko litzateke, Berdintasunerako Legearen 38. artikuluan esanbidez aipatzen diren jardunak baitira, eta gainera, enplegu-politika publikoen funtsezko osagai baita enpresa-jarduera sustatzea.

Emakumeen ahalduntzeak –emakumeen autonomia ekonomikoa lortzeak, alegia– emakumeen eta gizonen arteko desoreka garrantzitsuenak ezabatzea ere badakar: bereizketa horizontala, kasu horretan, emakumeen eta gizonen lan-baldintzetan berdintasunik ezatzat hartuta; eta bereizketa bertikala, edo erantzukizun handiko postuetan emakumeen parte-hartze txikiagoa.

Erantzukizun handiko lanpostuetara igotzea lan-baldintzetan sar daitekeen arren, helburuak bereizi egin ditugu estrategia eta tresna ezberdinak eskatzen dituztelako, eta horrela, proposaturiko estrategiak eraginkorragoak, argiagoak eta zehatzagoak izango dira.

Lan-baldintzak parekatzearen kasuan eta erantzukizun handiko postuetarako emakumeen sarbidearen kasuan, bigarren bereizketa estrategiko bat egin dugu: lan-merkatu pribatu eta publikoak. Administrazio publikoek eta beren mendeko enpresek badiutuzte barne-antolamendua eta funtzionamendua genero-berdintasunari egokitzeko eskumenak eta tresnak, baina merkatu pribatua negozioazio kolektiboan oinarrituta egituratzen da. Azken kasu horretan, Administrazio Publikoak bitarteko-eginkizuna betetzen du, eta enpresetan berdintasun-planak ezartzeko pizgarriak eman ditzake, baita negozioazio kolektiboan genero-ikuspegia txerta dadin sustatu ere, enpresa-erakundeei eta sindikatuari zuzendutako jarduerak gauzatuta.

Lanaren arloko ahalduntze-ardatzaren barnean hartzen da honako premia hau: Gizarte Segurantzaren erregimen berezien lan-baldintzak eta gizarte-estalduraren maila parekatzeko premia. Emakumeek egindako lanetan aplikatzen diren erregimenak dira (Etxeko Langileen Erregimena), eta/edo emakumeen laneko eta bizitzako baldintzetan eragin negatiboa dutenak (Nekazaritzako Erregimen Berezia).

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Berdintasunerako Legearen 34. artikuluan argi geratzen da emakumeek etxeko eremuan doan egiten duten lana ekonomikoki balioesteko premia dagoela, eta hainbat neurri proposatzen dira gizarte-antolamenduko eredu berria diseinatzea ahalbidetzeko, oinarritzeko giza premia guztiak betetze aldera.

Baina hori guztia egin ahal izateko, ezer baino lehen etxeko eta zaintzako lanetan gizonen erantzunkidetasuna lortu behar da, ezinbestean, Berdintasunerako Legearen 35. artikuluan espresuki adierazten denez. Lan-arloari lotuta, honako hau egin beharko litzateke: gizonezkoen kolektiboak aitasunagatik eta inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatik lizentziak eta baimenak gehiago baliatzea, egun horrelako oso kasu gutxi gertatzen baitira.

Etxeko lanetan gizonen erantzukizuna hartzea ez da nahikoa. Gizarte-denboren banaketa orekatuagoaren arabera egokitu beharko dira lan-baldintzak. Eta hori guztia lortzeko, laneko denbora malgutzeko neurriak aplikatu (48. artikulua) eta bestelako jardunak eta zerbitzuak abiarazi (49. artikulua) beharko dira, gizonen nahiz emakumeen familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri izan daitekeela bermatzearren.

Ahalduntzearen ardatzean bezalaxe, enplegu publikoaren eta sektore pribatuaren kasuan estrategiak ez dira berdinak izango, izan ere, administrazio publikoek eta beren mendeko enpresek eskumenak, gaitasuna eta tresnak baitituzte horrelako neurriak zuzenean aplikatze-

ko. Bestalde, sektore pribaturako honako estrategia hau proposatzen da, berriro ere: sindikatuen eta enpresaburuen elkarteen artean elkarriketa aktibatzeke jarduerak gauzatzea.

INDARKERIA

Laneko arloari dagokionez, indarkeriaren aurkako ardatzaren xedea da emakumeek lan-eremuan pairatzen duten jazarpen sexista ezabatzea, Berdintasunerako Legearen 43. artikuluari jarraiki.

Etxeko eremuan emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan bezalaxe, jazarpen sexista ezabatzeke estrategiarik zuzenena honako hau da: jazarpen sexistaren prebentzioko eta tratamendurako protokoloak lantzea eta aplikatzea, horren eragina agerian uzteko eta salaketak sustatzeko modutzat.

PROGRAMEN ETA HELBURUEN ZERRENDA

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA –1M–:
ENPLEGU ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA

1M.1. HELBURUA:
Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:
ENPLEGURAKO SARBIDEA AUKERA BERDINTASUNEAN

1A.1. HELBURUA:
Teknologiaren eta jakintzaren arloko osagai handia duten puntako sektoreetako enplegu teknikoetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.

1A.2. HELBURUA:

Industria-sektore tradizionalak osagai teknikodun enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.

1A.3. HELBURUA:

Enpresa-ekimenak sortzen eta sendotzen emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumezko sustatzaileen parte-hartzea areagotuta, batik bat, ordezkaritza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:

EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN BALDINTZAK PAREKATZEA

2A.1. HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpreetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jardura-adarrei lehentasuna emanda.

2A.2. HELBURUA:

Sektore publikoan eta sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia areagotzea.

2A.3. HELBURUA:

Gainerako langileen lan-baldintzetatik at dauden emakumezkoen langile-kolektiboen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura parekatzeari bultzada ematea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–:

GIZARTEA ANTOLATZEKO EREDU BERRIA SUSTATZEA

1B.1. HELBURUA:

Etxeko eta zaintzako lanen balio ekonomikoa sistematikoki gehitzea gizarte-egituraren eta egitura ekonomikoaren inguruko azterketei, betiere produkzio-eremuarekin loturik aurkeztuta, hau da, produkzio-lanean eta ugalketa-lanetan emandako denborak batuta.

2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –2B–:

NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK
ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

2B.1. HELBURUA:

Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboraren erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa hori honela zehaztuta: inoren laguntza behar duten lagunak zaintzeko eta amatasunak/aitatasunak eragindako baimenak eta lizentziak hartzen dituzten gizonen kopurua areagotuta administrazio publikoetan nahiz sektore pribatuan.

2B.2. HELBURUA:

Laneko denbora berrantolatzeke eta ordutegia malgutzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezartzea langileen lan-baldintzetan, administrazio publikoetan eta horien mendeko enpreetan, baita sektore pribatuko enpreetan ere, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –1I–:

LANEAN JAZARPEN SEXISTAREN PREBENTZIOA ETA DESAGERTZEA

1I.1. HELBURUA:

Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpreetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda, jazarpen sexista hori agerian uzteko eta murrizteko asmoz.

LANA: Programen eta jardun helburuen banaketa ardatzetan

MAINSTREAMINGA	AHALDUNTZEA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	INDARKERIA
1M: Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea 1M.1. HELBURUA: Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.	1A: Enplegurako sarbidea aukera berdintasunean 1A.1. HELBURUA: Teknologiaren eta jakintzaren arloko osagai handia duten puntako sektoreetako enplegu teknikoetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta. 1A.2. HELBURUA: Industria-sektore tradizionalak osagai teknikoaren enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta. 1A.3. HELBURUA: Enpresa-ekimenak sortzen eta sendotzen emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumezko sustatzaileen parte-hartzea areagotuta, batik bat, ordezkariak txikiegia duten sektoreetan eta lanbidetan. 2A: Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea 2A.1. HELBURUA: Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jardura-adarrei lehentasuna emanda. 2A.2. HELBURUA: Sektore publikoan eta sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia areagotzea. 2A.3. HELBURUA: Gainerako langileen lan-baldintzetatik at dauden emakumezkoen langile-kolektiboan lan-baldintzak eta gizarte-estaldura parekatzeari bultzada ematea.	1B: Gizartea antolatzeako eredu berria sustatzea 1B.1. HELBURUA: Etxeko eta zaintzako lanen balio ekonomikoa sistematikoki gehitzea gizarte-egituraren eta egitura ekonomikoaren inguruko azterketei, betiere produkzio-eremuarekin loturik aurkeztuta, hau da, produkzio-lanean eta ugalketa-lanetan emandako denborak batuta. 2B: Norberaren, familiaren eta lan arloko bizi-bateragarri egiteko neurriak eta laguntza zerbitzuak 2B.1. HELBURUA: Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboraren erabilera emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa hori honela zehaztuta: inoren laguntza behar duten lagunak zaintzeko eta amatasunak/aitatasunak eragindako baimenak eta lizentziak hartzen dituzten gizonen kopurua areagotuta administrazio publikoetan nahiz sektore pribatuan. 2B.2. HELBURUA: Laneko denbora berrantolatzeako eta ordutegia malgutzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezartzea langileen lan-baldintzetan, administrazio publikoetan eta horien mendeko enpresetan, baita sektore pribatuko enpresetan ere, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jardura-adarrei lehentasuna emanda.	1I: Lanean jazarpen sexistaren prebentzioa eta desagertzea 1I.1. HELBURUA: Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioa eta jarduteko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jardura-adarrei lehentasuna emanda, jazarpen sexista hori agerian uzteko eta murrizteko asmoz.

PROGRAMAK, HELBURUAK ETA JARDUN ESTRATEGIAK GARATZEA

MAINSTREAMINGA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1 M–:

ENPLEGU ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

37. artikulua.- Enplegu-zerbitzuak

1. Laneratzeari laguntzeko prozesuan parte hartzen duten enplegu-zerbitzuek ezin dute sexua-ren zioz bereizkeriarik sortzen duen lan-kontraturik izapidetu.

2. Enplegu-zerbitzuak emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipiora egokitu daitezen, eus-kal herri-administrazioek honakoak egin behar dituzte: (a) Laneratzen laguntzeko prozesu inte-graleko fase bakoitzean genero ikuspegia nola txertatu erakutsiko diete, hain zuzen, beren enplegu-zerbitzuetako langileei eta erakunde laguntzaileetakoei. Laguntza-faseok hauek dira: informazioa eta orientazioa, prestakuntza, bitartekotza, laneratze laguntza eta laneratzearen jarraipena, eta sustapen enpresariala eta autoenpleguaren sustapena. (b) Enplegu-zerbi-tzuek emakume gutxi dagoen lanpostuetan emakume gehiago kontratatu daitezen lortzea hel-buru duten neurriak har ditzatela sustatuko dute.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Lan-merkatuan enplegua banatzeko modu tradizionalaren jatorria estereotipoak dira, gizarte-aren eta kulturaren arloko estereotipoak, hain zuzen ere; hortaz, tradizioan emakumezkoenak izan diren enpleguetara, okupazioetara eta prestakuntzetara bideratzen dira emakumeak orientazioa emateko garaian. Plan honen Ahalduntzeko 1. Programan proposatzen denari jarraiki, emakumeen okupazio-aukera zabaltzeko, enplegu-zerbitzuetan zuzenean eragin beharko dugu, laneko erregulazioan eta orientazioan funtsezko elementuak baitira zer-bitzu horiek. Sektore berriekin eta industria-sektoreekin loturik, emakumeentzako enplegu, oku-pazio eta prestakuntza motak sartzera bultzatu behar dute zerbitzu horiek, baita emakumeen

beraien aukeraketak berriz bideratuko dituzten jarduerak sartzera ere. Halaber, gizartearen eta kulturaren arloko aurreiritziek lan-bitartekotzari eragiten diote, izan ere, gizarte-inertziari jarraiki, modu automatikoan jarduten baita. Hari berari jarraiki, enplegu-zerbitzu publikoak emakumeen eta gizonen berdintasunera egokitzea erraztuko duten jakintzak eta tresnak sistematizatzen aurrera egitea ezinbestekoa da.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1M.1. HELBURUA:

Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.

1 M. 1 . HELBURUA:

ENPLEGU ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Enplegu mota guztietarako sarbidean emakumeen aukera-berdintasuna bermatzeko, enplegu-zerbitzuetako lan-prozesuak egokitzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Enplegu Zerbitzuak dira honako zeregin hauek betetzen dituztenak: informazioa, orientazioa, lanerako prestakuntza eta birkalifikazioa, enpresetako praktikak, enpleguaren bitartekotza, laneratzea eta sustapena, autoenpleguari eta, oro har, enpresak sortzeari laguntzea, nahiz titularitasun publikokoak nahiz diruz lagundutako pribatuak izan (zentro laguntzaileak).

Genero-ikuspegia integratu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- 1.- Sexuaren arabera bereizitako estatistikak egiten direnean.
- 2.- Ateratzen diren dokumentuetan hizkuntza modu ez-sexitan erabiltzen denean.
- 3.- Jardun bat diseinatu aurretik, emakumeen premien diagnostiko bat baldin badago.
- 4.- Diseinaturiko ekintzen genero-eraginaren zehaztapena egiten bada.
- 5.- Enpleguaren eremuan, emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean eragin negatiboa izango duten alderdiak aldatzen edo ezabatzen direnean.

6.- Diagnostikoan atzemandako emakumeen premiak betetzeko ekintza espezifikoak egiten direnean.

7.- Eraginpean hartzen dituen emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak izango duen eragina ebaluatzen denean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Lan-mundurako sarbidean, emakumeen aukera-berdintasuna bermatzeko zerbitzuak eta/edo neurriak txertatu dituzten enplegu-zerbitzuen proportzioa.
- Lan-mundurako sarbidean, emakumeen aukera-berdintasuna bermatzeko zerbitzuak eta/edo neurriak txertatu dituzten zentro laguntzaile guztien gaineko proportzioa.
- Berdintasun-printzipioari jarraiki, programak eta zerbitzuak, eta barne-antolaketa egokitu dituzten enplegu-zerbitzu guztien gaineko proportzioa, Lurralde Historikoen arabera.

1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Enplegu-zerbitzuetan genero-mainstreaminga txertatzen laguntzeko baldintzak ezartzea; esate baterako, estatistikak, diagnostikoak, azterlanak eta ikerketak egokitzea; laneratze-ari laguntzeko prozesuaren fase guztietan genero-ikuspegia txertatzeko moduak ikastearren, enplegu-zerbitzuetako langileak gaitzeko prestakuntza homologatzea.
- Lan-prozesu guztiak (informazioa, orientazioa, prestakuntza, enpresetan praktikak egitea, bitartekotza, laneratzea, eta autoenpleguaren eta enpresak sortzearen sustapena) eta prozesu horietan baliatzen diren tresna eta baliabide guztiak egokitzea genero-ikuspegiaren arabera.
- Bateratzeari laguntzeko neurriak ezar daitezen sustatzea.
- Neurri horiek zentro laguntzaileetara zabaltzeko jardunak ezartzea.

- Emakumeenganako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa identifikatzeko jarraipen-mekanismoak ezartzea, baita administrazio-unitate bat ere, jardun horiek abiarazteko garaian enplegu-zerbitzu guztiak planifikatzea eta koordinatzea ahalbidetzeko.

AHALDUNTZEA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1 A–:

ENPLEGURAKO SARBIDEA AUKERA BERDINTASUNEAN

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

36. artikulua.– Xedapen orokorrak

Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna erreal eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituzte, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-, ordainketa- eta kontratuen amaiera-baldintzetan.

38. artikulua.- Enplegua lortzea

Emakumeei enplegua lortzen laguntzeko asmoz, arlo horretan eskumenak dituzten euskal herri-administrazioak honakoak egingo dituzte:

- a) Kontratazioa sustatzeko neurriak aurreikusten dituzten enpresei zuzendutako laguntzei dagokienez, emakumeak eta gizonak kontratatzeak portzentajeak ezarriko dituzte, enpresaren tamainaren, jardunaren sektorearen eta bete behar diren lanpostuetarako lortu daitezkeen emakumeen eta gizonen kopuruen arabera.
- b) Emakumeek enplegu finkoa eta kalitatekoa lor dezaten sustatzeko eta haien kontratazioaren alde egiteko proiektuak garatuko dituzte; horien bitartez, alde batetik, kontratazio-modalitate ezberdinetan emakumeek duten partaidetza gehitu nahi da, eta bestetik, gaur egun emakumeen artean nagusi diren kolokako enplegua eta aldi baterako enplegua desagerrarazi nahi dira.

c) Emakume gutxi dagoen sektore eta lanbideetan, lehentasuna emango diete emakumeek sustatuko ekimenei eratze-gastuak, aktiboetan egindako inbertsioak eta funtzionamendugastu orokorrak finantzatzeko diru-laguntzen deialdietan.

d) Laguntza publikoak hartzen dituzten elkarren bermerako sozietateek sustatzaileen artean emakumeak gehiengoa diren enpresa-ekimenak eratzen edota finkatzen laguntzeko fondo bereziak izatea sustatuko dute.

39. artikulua.– Prestakuntza-planak

1.– Enpresen prestakuntza-planei laguntzak emateko deialdi publikoetan, lehentasuna emango zaie erakundearen barruan emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu duten prestakuntza-ekintzei, bai eta emakumei praktikak egiten lagunduko dietenei ere, bereziki emakumeek gutxi ordezkatuta dauden lanbideetan.

2.– Halaber, emakumeek prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren laguntza-mekanismoak eta -zerbitzuak eratu behar dira, bai inoren konturako lanaren esparruan –bereziki emakumeak gutxiengoa diren lanpostuetara eta mailetara sartzeko gaitzen dituzten prestakuntza-ekintzak–, bai autoenpleguaren eta enpresen sorreraren arloan.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Oro har, enplegua honako hauen arabera segmenta daiteke: jakintzaren kualifikazioaren eta zehaztasunaren arabera. Jarduera ekonomikoetan jakintza areagotu denez, lanpostuetan behar den ere kualifikazio-maila handitu egin da, eta, oro har, enpleguaren kalitatea ere bai, egonkorragoa baita, eta lan-baldintzak eta soldata-baldintzak ere hobeak izanik. Horretaz gain, industria-sektore tradizionala ez da aski erdi-mailako kualifikazioa (Lanbide Heziketa gehi lan-esperientzia) eta espezializazio-maila jakin bat eskatzen duten industria-postuen eskaera betetzeko. Horrela, eta eskulan-eskasiaren arabera, soldata-baldintza hobeak lortzen dira.

Sexuaren araberako daturik ez dagoen arren, zeharkako adierazleen arabera, jakintzaren arloko osagai handia duten ekonomiaren puntako sektoreetan emakumeen presentzia oso txikia da, sektore batzuetan bestetan baino handiagoa izanik ere. Bestalde, emakumeek industria-sektorean duten presentziari dagokionez, 2003an okupaturiko emakumeen %11,3 (4) zen, baina kontuan izaten badugu sektore horretako enplegu administratiboak ere sartzen direla ehuneko horretan, lekukotasunezkoa baino ez dela esan daiteke. Industriaren sektorean emakumeak sartzeko hainbat eragozpen izaten dira. Kulturak eragina du pentsamoldeetan, banakakoetan nahiz kolektiboetan; hortaz, sektore horretatik urruntzen dituen prestakuntza aukera-

(4) EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea: "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak", 2. liburukia, Vitoria/Gasteiz, 2005 (2003. urteko datuak).

tzen dute emakumeek eta beren hautatzeko aukerak mugatzen dituzte, familia-inguruneak bulztatuta –estereotipo femeninoen barruan sartzen diren unibertsitateko ikasketen bitartez eta bestelako bitartekoen bitartez presio eginez–, eta emakumeak kontratatzearen aurka enpresaburuek dituzten kultura-arloko aurreiritzien eraginez desmotibatuta.

Sektore horietan emakumeei sarbidea irekita, euren lanbide-aukera areagotuko da, baita kualifikazio-maila txikiko enpleguetan ere, emakumeek lor ditzaketen enplegu motak handituta. Etorkizunari begira, jakintza teknikoak ez ezik, bestelako eskumenak edo abileziak ere –zeharkakoak nahiz pertsonalak– eskatuko dira baldintzetan; hala nola taldean lan egitea, komunikatzeko gaitasuna, erantzukizun-maila jakin bat, eta balioaniztasun funtzionala. Orain kontua ez da bizitza osorako enplegu bat bilatzea, baizik eta bizitza osorako “enplegagarritasuna” izatea. Eta zeharkako abilezia horiek garatu behar direla esan nahi du horrek, baita jarrera pertsonal positiboa izatea ere, aldaketari begira.

Enplegu autonomoari edo enpresak sortzeari ere aplika dakioke besteren konturako lanari buruz esan dugun guztia. Orain arte, honako hau egiaztatua dago emakumeei –kolektibo gisa– dagokienez: ez dira hain ekintzaileak; batik bat, zerbitzuen sektoreko jarduera ekonomikoak edo autoenplegua sustatzen dute, eta haien ekimenak gizonen –kolektibo gisa– sustatutakoak baino txikiagoak izaten dira. Aurrerantzean, horretaz gain, jarrera berritzailea (produktuetan, prozesuetan edo antolatzeke eta kudeatzeko moduetan) ere gakoa izango da, enpresa-ekimenek izan ohi duten heriotza-ratio handia leuntzeko finantziario-iturrietarako sarbidearekin batera.

Hiru eremu hauek ditu ardatz Planak emakumeen presentzia indartzeko: ordezkaritza txikiegia duten sektoreak, sartzeko zailtasunak dituzten industria-sektoreak, eta emakumeek beraiek bulztaturiko enpresa-ekimenak.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

1A.1. HELBURUA:

Teknologiaren eta jakintzaren arloko osagai handia duten puntako sektoreetako enplegu teknikoetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.

1A.2. HELBURUA:

Industria-sektore tradizionalerako osagai teknikodun enpleguetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.

1A.3. HELBURUA:

Enpresa-ekimenak sortzen eta sendotzen emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumezko sustatzaileen parte-hartzea areagotuta, batik bat, ordezkaritza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan.

1 A. 1 . HELBURUA:

TEKNOLOGIAREN ETA JAKINTZAREN ARLOKO OSAGAI HANDIA DUTEN PUNTAKO SEKTORREAKO ENPLEGU TEKNIKOETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA, EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA AREAGOTUTA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Berrikuntzan, jakintzan eta giza kapitalaren sustapenean oinarritutako balio erantsiko estrategien bitartez, emakumeen enplegua sortzea eta horri eustea, kostuak murriztean eta deslokaltzeetan oinarritutako lehiakortasuneko enpresa-estrategien aurrean. Eta horrek, aldi berean, emakumeen balio erantsia eta jakintza areagotzea ekarriko du, emakumeen enpleguaren kalitateari (lan-baldintzei) mesede eginez. Horretaz gain, emakumeen karrera profesionalak gartatzeari laguntzea, soldataren eta lanbidearen aintzatespena areagotuta.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Teknologiaren eta jakintzaren arloko osagai handia duten puntako sektoreak dira APTeren (Espainiako Parke Teknologikoen Elkartea) enpresa berritzaileen sailkapenaren barnean hartutakoak. Honako hauek dira: Aeronautika eta Automozioa; Industria; Energia eta Ingurumena; Informazioa, Informatika eta Telekomunikazioak; Elektronika; Nekazaritzako elikagaiak; Bioteknologia; Medikuntza eta Osasuna; Prestakuntza eta Giza Baliabideak; Ingeniaritza, Aholkularitza eta Kontsultoretza; Zentro Teknologikoak eta I+Ga.

Desoreka kuantitatiboa honako honi esaten diogu: kolektibo jakin bat osatzen duten emakumeen eta gizonen proportzioan %60-40 baino alde handiagoa izateari.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Emakunde.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Gizonezkoen Okupazio Tasa eta emakumezkoen Okupazio Tasa, erreferentzia-sektoreen eta lanbide-kategorien arabera.
- Okupazio Tasetako desoreka kuantitatiboa, sektoreen eta kategorien arabera.

- Gizonezkoen eta emakumezkoen Jarduera Tasak, erreferentzia-sektoreen arabera.
- Gizonezkoen eta emakumezkoen Langabezia Tasak, erreferentzia-sektoreen arabera.
- Erdi- eta goi-mailako ikasketak dituztenen Langabezia Tasetako desoreka kuantitatiboa, erreferentzia-sektoreen arabera.
- Emakumeen enpleguaren %-a, establezimenduaren tamainaren eta enplegu-mailaren arabera.
- Emakumezko enpleguaren %-a, establezimendu motaren arabera.

1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

- Emakumeen laneratzeari buruz, erreferentziako sektoreetan jardun ahal izateko adina jakintza sortzea; esku-hartze prozesu guztian baliatuko da jakintza hori, eta batik bat, sektore horietako kontratazioan esku hartzen duten eragile guztiei eta enpresaburuei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak prestatzean.
- Erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza duten emakumeei orientazioa ematea sektore horietan lan egiteko aukeren inguruan, eta enpresetara gertura daitezen lortzea, bi bide-
ren bitartez. Alde batetik, emakumezko bekadunei, ikertzaileei eta erlazionaturiko karrer-
tako azken ikasturteko ikasleei zeharkako eskumenen gaineko prestakuntza emanda, kua-
lifikazioa hobetze aldera, eta haien lanbide-proiektzioa areagotzea ahalbidetuko duten jar-
dunak barnean hartuta. Bestetik, enpresetan lan egiteko proiektuetan eta programetan
parte hartuta.
- Emakumeak kontratatzekeo pizgarriak ezartzea, baita baztertzailleak izan daitezkeen lan-
eskaintzak atzemateko eta tratatzeko prozedurak ere.

1A.2. HELBURUA:

**INDUSTRIA SEKTORE TRADIZIONALETAKO OSAGAI TEKNIKODUN ENPLEGUETAN EMAKU-
MEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA, EMAKUMEEN
PARTE-HARTZEA AREAGOTUTA.**

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Kualifikazio-maila ertaina/txikia duten emakumeei enplegua lortzen laguntzea, batik bat, Autonomia Erkidegoan ezarpen garrantzitsua duen industria-sektore tradizionaletako osagai

teknikodun okupazioetan, kalitatezko lanpostuak eskaintzen baitituzte eta profesional gutxi baitago maila horretan; beraz, kontratatzeko aukera handiak eskaintzen dituzte. Horretaz gain, okupazio horiek eskatzen duten espezializazio teknikoak kualifikazioa hobetzea ahalbidetzen du. Balio erantsi bat ere izango du esku-hartze horrek: emakumerik eza nagusi izan den industria-sektorea zabaltzea emakume-kolektiboak sarbidea izan dezan, produkzioko kategoria eta postu guztietan.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Industria-sektore tradizionalako oinarri teknikodun enplegutzat hartzen dira Estatistikako Institutu Nazionalaren (IEN) sailkapenean manufaktura-sektore gisa eta goi-teknologiako zerbitzuen sektore gisa sartu ez direnak, alegia, JESN 244 Farmazia-gaiak egitea; JESN 30 Bulegorako makineria eta informatika-tresneria egitea; 321 JESN Maskorrak, hodiak eta bes-telako osagai elektronikoa egitea; JESN 32-321 Irratiak, TB eta komunikazioko tresneria egitea; EJSN 33 Medikuntza-kirurgiako, doitasun handiko, optikako eta erlojugintzako tresneria egitea; EJSN 353 Aireontziak eta espazio-ontziak egitea.

Emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa honako honi esaten diogu: kolektibo jakin bat osatzen duten emakumeen eta gizonen proportzioan %60-40 baino alde handiagoa izateari.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Emakunde.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Erreferentzia-sektoreetan, gizonezkoen eta emakumezkoen Okupazio Tasak, lanbide-kategoriaren arabera.
- Erreferentzia-sektoreetan, gizonezkoen eta emakumezkoen Okupazio Tasetako desoreka kuantitatiboa.
- Enplegu-eskaintza jardueraren eta erreferentzia-sektoreen arabera.
- Erregistratutako langabetuen enplegu-eskaera, sexuaren, adinaren eta jarduera-sektorearen arabera.
- Urteko kontratazioak, sexuaren, erreferentzia-sektoreen eta lanbide-kategoriaren arabera.

1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Emakume langabetuek egiten dituzten prestakuntza-hautaketak bideratzeko ahalegina egitea, industria-sektore tradizionaletako lanbide teknikoetara bideratze aldera, emakumeei beraiei eta familia-inguruneari zuzendutako sentsibilizazio- eta orientazio-prozesuen bitartez, eta aldi berean, industria-sektoreko enpresaburuekin ere jardutea, emakumeek egin ditzaketen jardueri eta beren gaitasunei buruzko sinesmen estereotipatuak desagerrarazteko, eta praktikak egitea eta kontratazioa sustatzeko.
- Lanbide horietan emakumeak kontratatze laguntzak ezartzea, eta emakumeek aukeraberdintasunean parte hartzeko aukera eta enpresetan praktiko egiteko aukera bermatuko duten Lanerako Prestakuntzako proiektuetarako diru-laguntzak esleitzeko irizpideak ere ezartzea.
- Enpleguan eta prestakuntzan lan egiten duten profesionalen sareak indartzea, esperientziak eta praktika onak elkartrukatu eta konpartituta, eremu horretako jardunen eraginkortasuna hobetze aldera.

1A.3. HELBURUA:

ENPRESA EKIMENAK SORTZEN ETA SENDOTZEN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA, EMAKUMEZKO SUSTATZAILEEN PARTE-HARTZEA AREAGOTUTA, BATIK BAT, ORDEZKARITZA TXIKIEGIA DUTEN SEKTORETAN ETA LANBIDETAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Emakumeek sustaturiko enpresa-arloko eta autoenpleguko ekimenen kopurua areagotzea da helburu horren xedea, batik bat, ordezkaritza txikia duten sektoreekin loturiko jardueratan eta ekimen handiagoak eskatzen dituzten jardueratan. Aldi berean, ekimen horiek sendotzeari ere laguntzeko ahalegina egingo da, ekimenen heriotza-tasa murriztuta.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa honako honi esaten diogu: kolektibo jakin bat osatzen duten emakumeen eta gizonen proportzioan %60-40 baino alde handiagoa izateari.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Autonomoen kolektiboan, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa, jarduera motaren arabera.
- Enpresa-ekimen berrietan, emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa, jardue-
ra motaren arabera.
- Gizarte Ekonomiako enpresak sortzen emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitati-
boa.
- Enpresa-ekimenen eta Gizarte Ekonomiako enpresen heriotza-tasa, sustatzaileen sexuaren
eta jarduera motaren arabera.
- Lan-sozietate anonimoetan bazkide diren emakumeen proportzioa.
- Lan-sozietate anonimoetan bazkide diren eta lan egiten duten emakumeen proportzioa.
- Lan-sozietate anonimoetan bazkide kapitalista diren emakumeen proportzioa.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Emakumezko enpresaburuen egoerari eta premiei buruzko jakintza sortzea, proposatzen
diren jardunak ahalik eta modu eraginkorrenean garatzeko.
- Emakumeek sustatuko enpresa-ekimen guztiei lehentasuna eta pizgarriak ematea, batik bat
ordezkaritza txikia duten sektoretan.
- Gizarte-ekonomiako enpresetan emakume langabetuak sartzeko pizgarriak ematea.
- Enpresa-proiektuan finantziazioari laguntzea, emakumezko sustatzaileei zeharkako presta-
kuntza ematea, emakumeek osatutako enpresa-sareetako lana sustatzea, eta oro har, eki-
men horien heriotza-tasa murrizteko jardunak egitea.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:

EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN BALDINTZAK PAREKATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

36. artikulua.– Xedapen orokorrak

Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasuna errealia eta benetakoa izateko behar diren baldintzak sustatu behar dituzte, hala norbere konturako zein inoren konturako lana lortzean, nola lan-, prestakuntza-, sustapen-ordainketa- eta kontratuen amaiera-baldintzetan.

40. artikulua.- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak eta politikak

1. Partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresak beti, bai eta enplegatutako pertsona kopuruaren edo beste irizpide batzuen arabera erregelamenduz zehaztuko diren enpresa pribatuak ere, hala enpresa barruan nola kanpoko jardunean, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak biltzen dituzten planak edo programak egin behar dituzte.

2. Erregelamenduz ezarriko dira berdintasunerako plan edo programa horietan jaso behar diren gutxieneko edukiak, eta plan edo programa horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak. Derrigorrezko gutxieneko eduki horiek ezingo dira izan lan-harremanen esparrukoak.

3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak laguntzak ezarri behar ditu emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta enpresek arlo horretan adituak diren pertsonak kontratatzeko. Laguntzak eskuratzeko, laguntzak izango duen eraginari buruzko txostena aurkeztu behar du erakunde onuradunak.

41. artikulua.- Erakunde laguntzaileak.

Lan eta gizarte arloan aukera-berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenei bultzada emateko asmoz, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erakunde laguntzaitzat hartu ahal izango ditu erakundean bertan berdintasunerako politikak garatzen dituzten erakundeak, betiere erregelamenduz ezarritako baldintzetan. Baldintza horien artean, gutxienez, berdintasunari buruz diagnostiko bat eta jarduketan-plan bat egitea egongo da, bai eta plan hori egikaritzeko konpromisoa hartzea ere. Planak, beste neurri batzuen artean, lan-baldintzetan eta enpleguaren kalitatean emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna bermatzeko neurriak jaso beharko ditu.

42. artikulua.- *Negoiazio kolektiboa*

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak, bere langileekin hitzarmen kolektiboak negoziatzeko orduan, enplegu publikoaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak planteatu behar ditu. Era berean, elkarrizketa sustatu behar du lan-munduko ordezkarien artean, eremu pribatuko hitzarmen kolektiboen negoziazioan era honetako neurriak ere sar daitezen, batik bat ordainsari-bereizkeria desagerraraztera zuzendutakoak.

2. Autonomia Erkidegoko Administrazioak, hitzarmen kolektiboen erregistroaren bitartez, hitzarmenotan emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkako klausularik ez egotea, hizkera ez-sexista erabiltzea eta jazarpen sexistaren aurka berariazko neurriak jasotzea zaindu beharko du. Horrekin batera, sexuaren ziozko bereizkeria kontrolatzeko eta erazuteko ikuskatzailatza bultzatuko du Administrazioak.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Eskura ditugun datuen arabera, emakumeen eta gizonen –biak ere kolektibo gisa hartuta– lanbaldintzetan desoreka nabarmena dago. Gure Autonomia Erkidegoan, kontratu mugagabeen proportzioa txikiagoa da emakumeen artean (soldatapeko emakumezko okupatuen %63,9), gizonen artean baino (soldatapeko gizonezko okupatuen %76,3) (5). Behin-behineko kontratuen iraupena ere laburragoa da emakumeentzat, eta handiagoa txandatze-tasa. Lanaldi partzialeko kontratu gehienak emakumeenak dira; lanpostuen balioespenari dagokionez, genero-joera nabarmenak ikus daitezke, emakumezko langileen –zuzenean ez bada ere– diskriminazioa sor dezakeela, eta horrek soldata-eskalan ere eragina du. Hori dela-eta, gizonek eta emakumeek jasotzen duten soldatan ezberdintasun kuantitatiboa dago.

Jarduera-sektore guztietan agertzen da diskriminazio bertikala, gehiago edo gutxiago. Alegia, erantzukizun handiko postuak gizonezkoek betetzen dituzte kasu gehienetan, baita emakumeak nagusi diren erakundeetan ere. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Erakunde Autonomoen goi-mailako karguen (Sailburuetan, Sailburuordetzetan eta Zuzendaritzetan) %25 soilik eta Foru Aldundietako goi-mailako karguen %16,7 soilik (6) betetzen dituzten emakumeek.

Gizarte Segurantzaren Erregimenei dagokienez ere, egun oraindik egiazko diskriminazioa gertatzen da formaren aldetik, etxeko langileen kolektiboaren laneko baldintzetan eta gizarte-estalduran (Etxeko Langileen Erregimen Berezia). Sektoreko langileei eragiten dien arren, Nekazaritzako Erregimen Bereziak modu berezian eragiten die familiako ustiategietan lan egi-

(5) EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea: "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak", 2. liburukia, Vitoria/Gasteiz, 2005 (2003. urteko datuak).

(6) Idem.

ten duten emakumeei; izan ere, emakume horien kasuan ez dira bereizten etxeko lana eta produktio lanak.

Honako hiru eremu hauek dira Planaren ardatz: Sektore publikoan nahiz pribatuan eragitea, bai lan-baldintzak parekatzeko, bai erantzukizun handiko postuetan; horretaz gain, gainerako langileen lan-baldintzetatik at dauden emakumezkoen langile-kolektiboen lan-baldintzetan eta gizarte-estalduran eragitea.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

2A.1. HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jardura-adarrei lehentasuna emanda.

2A.2. HELBURUA:

Sektore publikoan eta sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia areagotzea.

2A.3. HELBURUA:

Gainerako langileen lan-baldintzetatik at dauden emakumezkoen langile-kolektiboen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura parekatzeari bultzada ematea.

2A.1. HELBURUA:

EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN BALDINTZAK PAREKATZEA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN ETA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN, OKUPATUTAKO BIZTANLERIAREN PROPORTZIO HANDIENAK METATZEN DITUZTEN JARDUERA ADARREI LEHENTASUNA EMANDA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Gehienbat kapital publikoarekin partaidetutako enpresatan eta eginkizun publikoan lan egiten duten emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea, eta sektore pribatuko enpresetan aritzen diren emakumeen lan-baldintzetan diskriminazioak ezabatzea. Azken kasu horretan, enpresei guztietara bideratuko dira jarduerak, ETEetan baitago emakume-metatze handiena, baita soldata-mailen banaketa okerreana ere, emakumeen ikuspegitik begiratuta. Enpresa handienei dagokienez, "derrigortze" handiagoa izango dute, enpresa horiek baitituzte baliabide gehien, eta hortaz, neurri zuzentzaileak aplikatzeko zailtasun gutxien izango baitute, baita negoziatzeko gaitasun handiagoa ere.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Honako lan-baldintza hauetan eragin nahi dugu: kontratuen iraupenean; lanaldiaren arabera-ko kontratu motetan; lanpostuen balioespenean; soldata-eskaletan, soldatetan edo ordainsarrietan; kontratua eteteko arrazoietan eta enpresetako langileen osasuna zaintzeko protokoloetan.

Desoreka kuantitatiboa honako honi esaten diogu: kolektibo jakin bat osatzen duten emakumeen eta gizonen proportzioan %60-40 baino alde handiagoa izateari.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Emakunde.
- Lan Harremanen Kontseilua.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Administrazio publiko eta mendeko enpresa guztien gainean, erakundeetan berdintasunerako planak ezarri dituztenen proportzioa, Lurralde Historikoaren arabera.
- Sektore pribatuan, emakumeen eta gizonen kontratu mugagabeetako desoreka kuantitatiboa, jarduera-sektorearen arabera.
- Sektore pribatuan okupaturiko emakumeen eta gizonen Txandatzeko Tasako desoreka kuantitatiboa.
- Jarduera-sektorearen eta lanbide-kategoriaren arabera, dagoen soldata-desoreka (sektore pribatuan eta publikoan).
- Langileen kopurua, lanaldi motaren eta sexuaren arabera (sektore pribatuan).

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

A ESTRATEGIA: SEKTORE PUBLIKOA

- Diagnostikoak egitea desoreka- edo diskriminazio-arloak identifikatzeko, eta arlo horiek desagerrarazteko neurriak dituzten berdintasun-planak ezartzea, balio berdina duten lanean soldata-diskriminazioak desagerrarazteari arreta berezia jarrita.

- Administrazio publikoetan eta horien mendeko enpresetan, enpleguan emakumeen eta gizonen berdintasuna ziurtatzeko neurriak proposatzea, negoziazio kolektiboaren bitartez.
- Administrazioetan eta mendeko enpresetan, lan-baldintzak kudeatzeaz arduratzen direnei prestakuntza ematea, proposaturiko jardunak gauzatzeko beharrezko jakintza lor dezaten.

B ESTRATEGIA: SEKTORE PRIBATUA

- Emakumeen eta gizonen ordainsariei buruz dagoen informazioa hobetzea, jardun-sektoreak eta lanbide-kategoriak aintzat hartuta. Informazio horri esker, abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezko adierazleak osatu ahal izango ditugu.
- Emakumeak gehiengo diren lanbide-kategorietan lanpostuen balioespena berrikustea alderdi teknikitik baina genero-joerarik gabe.
- Genero-ikuspegitik begiratuta, negoziazio-kolektiboaren eremuko gidak, metodologiak eta praktika onak biltzea eta ezagutaraztea, baita erakundeetan berdintasun-politikak ezartze-koak ere, gizarte-eragileen lana erraztearren.
- Enpresetan, sindikatuetan eta enpresa-erakundeetan berdintasun-politikak ezartzeko pizgarriak ematea, berdintasun-planak ezarrita, eta/edo negoziazio kolektiboaren bitartez.
- Emakumeen lan-baldintza txarrak hobetzeko, diruz lagundutako prestakuntza-ekintzak, zerga-pizgarriak eta jardunetarako pizgarriak ezartzea.
- Berdintasun-politikak garatu dituzten erakundeen aintzatespena sustatzea.
- Berdintasun-ikuskatzaileei prestakuntza ematea, sexuak eragindako diskriminazioa kontrolatzeko eta desagerrarazteko ekintza eraginkorra izan dadin haien lehentasunetako bat.

2A.2. HELBURUA:

SEKTORE PUBLIKOAN ETA SEKTORE PRIBATUAN, ERANTZUKIZUN HANDIKO POSTUETAN EMAKUMEEN PRESENTZIA AREAGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Sektore publikoko eta pribatuko erakundeetan, erakundearen barnean lanpostuz igotzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea eragozten duten oztopoak ezabatzea, bi sektoreetako erantzukizun handiko postuetan parekotasuna lortu arte, pixkanaka-pixkanaka.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Erantzukizun handiko postutzat hartuko ditugu honako hauek: zuzendaritzako postuak eta erdi-mailako kargudunak, eta programetan eta zerbitzuetan erantzukizuna dutenak edo koordinazioko postuak.

Desoreka kuantitatiboa honako honi esaten diogu: kolektibo jakin bat osatzen duten emakumeen eta gizonen proportzioan %60-40 baino alde handiagoa izateari.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Eusko Jaurlaritzaren Sail guztiak.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Sektore publikoan (Zuzendaritzak), Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundietan, erantzukizun handiko postuetan gizonetzkoen okupazioa.
- Sektore publikoan (Zuzendaritzak), Eusko Jaurlaritzan eta Foru Aldundietan, erantzukizun handiko postuetan emakumezkoen okupazioa.
- Sektore publikoan (Zuzendaritzak), Eusko Jaurlaritzan eta Aldundietan, erantzukizun handiko postuetako okupazio-tasen arteko desoreka kuantitatiboa.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien mendeko erakunde autonomo publikoetako eta enpresetako zuzendaritzako langileak, sexuaren arabera.
- Sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumezkoen eta gizonetzkoen Okupazio Tasak, jarduera-adarraren arabera.
- Sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumezkoen eta gizonetzkoen Okupazio Tasetako desoreka kuantitatiboa, jarduera-adarraren arabera.

2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

A ESTRATEGIA: SEKTORE PUBLIKOA

- Erantzukizun handiko postuetara heltzeko beharrezkoa den prestakuntza homologatzea, horrelakorik ez badago.
- Emakumeei barne-prestakuntzarako sarbidea bermatzea.

- Zerbitzu-batzordeen esleipen-prozedurak berrikustea eta emakumeen aldeko ekintza positiboko neurriak ezartzea, erantzukizun handiko postuetan parekotasuna lor dadin pixkanaka-pixkanaka.
- Erantzukizun handiko postuen ordutegia egokitzea lan-ordutegiaren arabera, lanaldiaren barruan izatea barne-prestakuntza, eta/edo bateragarritasunari laguntzeko neurriak edo zerbitzuak ezartzea.

B ESTRATEGIA: SEKTORE PRIBATUA

- Diru-laguntza publikoa duen Etengabeko Prestakuntzarako sarbidea bermatzea emakumei, ekintza positiboen bitartez, eta erakundeen barnean lanpostuz igotzeko prozesuetan horrelako ekintzak ezartzea.
- Patronalaren eta sindikatuen arteko elkarrizketa sustatzea, erantzukizun handiko postuetan norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri izateari laguntzearen, eta emakumeak lanpostuz igotzeko eragozpen izan ez dadin elementu hori.

2A.3. HELBURUA:

GAINERAKO LANGILEEN LAN BALDINTZETATIK AT DAUDEN EMAKUMEZKOEN LANGILE KOLEKTIBOEN LAN BALDINTZAK ETA GIZARTE ESTALDURA PAREKATZEARI BULTZADA EMATEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

- Nekazaritzako eta etxeko langileei dagozkien Gizarte Segurantzaren erregimen bereziak besteren konturako lanaren Erregimen Orokorrearekin parekatzea. Eusko Jaurlaritzak Gizarte Segurantzaren eskumenik ez duenez, parekatze hori sustatzeko ekintza zehatzak proposatu beharko dira.
- Jarduera nagusia nekazaritzako ustiapenetan garatzen duten emakumeak jabe gisa edo jabe-kide gisa titular edo titularkide izatea indartuko da.
- Etxeko zerbitzuko langileekin esperientzia pilotua egingo da, zerbitzuak emateko erakundeak sortuta, Enplegu Sorgune Berrien filosofiari jarraiki eta ordaintzeko ordezkio bideak bilatuta, sektore horretan dagoen ezkutuko ekonomia agerian uzte aldera eta langileen lan-baldintzak hobetze aldera.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Etxeko langileen Erregimen Berezia eta Nekazaritzako Erregimen Berezia dira aipagai.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Emakunde.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

Kasu horretan, eragin-adierazleak kualitatiboak izango dira; honako hauek, alegia:

- Egindako proposamenak, eta dauden negoziazio- eta parekatze-prozesuen jarraipena.
- Goian zehazturiko esperientzia pilotua burutzea, eta frogaturiko eredia orokortzea ahalbideratuko duten praktika onak ondorioztatzea.

2A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

- Ezkutuko enpleguaren egoerak legeztatzeak, lan-emaileak eta langileak informatzea eta sentsibilizatzea, eta horretara bultzatzea.
- Emakumezko langileen lan-baldintzak hobetzeko zerbitzu horiek eskaintzeko beste modu batzuekin esperientzia pilotua egitea.

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1 B –:

GIZARTEA ANTOLATZEKO EREDU BERRIA SUSTATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

34. artikulua.– Xedapen orokorra

Euskal herri-administrazioek aldian-aldian egingo dute Euskal Autonomia Erkidegoan eginda-ko etxeko lanen balio ekonomikoaren kalkulua –hartan sartuta pertsonak zaintzeak dakarren lana–, eta kalkulu hori euskal gizarteari jakinaraziko diote, etxeko lanen garrantzi ekonomiko eta soziala ezagutu dezan. Halaber, etxeko lanen balioa aintzat hartuko dute politika ekonomikoak eta sozialak diseinatzerakoan.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Emakumeentzat eta gizonentzat ekitate-baldintzak ezartzeko, ugalketako eta bizitzaren mantenuko lanari eta lan produktiboari balio bera ematen dion eta, maila berean, bi lanak beharrezkotzat jotzen dituen gizarte-antolamenduko eredu berriaren alde egin behar dugu. Diruaren truke aldatzen denak soilik balio duen merkatu-sistema batean, bizitzaren mantenuko lana –emakumeek doan edo ia musu-truk egiten duten lana– gizartean ez dago behar beste balioetsia, eta are gutxiago, ekonomikoki.

Sexuen arteko ekitatea lortu nahi badugu, gizarte-antolaketako eredu jakin bat behar dugu; hain zuzen ere, bi lan mota horiek emakumeen eta gizonen artean modu ekitatiboan banatuko dituen eredua, eta horren ondorioz, lan horiek gauzatzeko behar diren gizarte-denboren banaketa berria ezartzen duena.

Hala ere, gaur egun, gizartearen eta kulturaren ereduak ezarritako ildoak eta tradizioak gaindituta, produkzio-lanean sartu dira emakumeak, baina gizonak ez dute beren gain hartu etxeko eta zaintzako lanetatik dagokien zatia. Argi ikusten da egoera hori emakumeen eta gizonen denboraren erabilera ezberdinari erreparatzen badiogu, gizonak norberaren denbora edo aisialdi gehiago baitute, emakumeen kaltetan. Aipatu behar dugu emakumeek gizonak baino ordu erdi gehiago ematen dutela egunean adin txikikoak zaintzeko, gizonak baino hiru aldiz

denbora gehiago inoren laguntza behar duten helduak zaintzeko, eta ia denbora bikoitza etxeko lanetarako (7).

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

1B.1. HELBURUA:

Etxeko eta zaintzako lanen balio ekonomikoa sistematikoki gehitzea gizarte-egituraren eta egitura ekonomikoaren inguruko azterketei, betiere produkzio-eremuarekin loturik aurkeztuta, hau da, produkzio-lanean eta ugalketa-lanetan emandako denborak batuta.

1 B. 1 . HELBURUA:

ETXEKO ETA ZAINZAKO LANEN BALIO EKONOMIKOA SISTEMATIKOKI GEHITZEA GIZARTE EGITURAREN ETA EGITURA EKONOMIKOAREN INGURUKO AZTERKETEI, BETIERE PRODUKZIO EREMUAREKIN LOTURIK AURKEZTUTA, HAU DA, PRODUKZIO-LANEAN ETA UGALKE-TA-LANETAN EMANDAKO DENBORAK BATUTA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Etxeko eta zaintzako lanaren balio ekonomikoa eta gizarte-balioa onartzea, ezagutaraztea eta baliatzea, gizartea eta ekonomia antolatzeko moduak aldatu behar direla ikusarazteko, jendearen premia guztiak (produkziokoak nahiz ugalketakoak) betetzeko ezinbestekoa den lan mota oro barnean hartuko duen eredua lortzearen, herritarren denbora-erabilera bidezko moduan banatuta bi lan horien artean, eta zerbitzu soziokomunitarioak eta bateragarritasun-neurriak ezarrita, premia horiek betetze aldera.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Oro har, eta gehiegi luzatu gabe, gizarte-antolaketaren aldaketak honako hauek dira:

- Norberaren eta familiaren erantzukizunei erantzuteko gizonek emandako denbora handitzea, eta bi lanen –ugalketako eta produkzioko– arteko denboraren erabilerak orekatzeara, lanaldi zentzuzkoagoak lortze aldera gizonentzat nahiz emakumeentzat.

(7) EUSTAT: “2003ko denbora-aurrekontuen inkesta”, in EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea: “Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak”, 2. liburukia, Vitoria/Gasteiz, 2005.

- Horren arabera, sexua gorabehera, norberak bere bizitzaren eta ekintzen erantzukizuna hartu beharko du bere gain, baita etxeko intendentziaren premiak, eta norberaren eta bere kargura dauden zaintzako premiak betetzearena ere.
- Hortaz, produkzio-lanean eta ugalketa-lanean aukera berdinekin aritzeko eskubidea eta betebeharra du jende guztiak.
- Emakumeen eta gizonen arteko lan-banaketa orekatua sustatzearen, zerga-neurriak egokitu beharko dira.
- Erakundeak eta enpresak –publikoak nahiz pribatuak– egokitu egin beharko dira, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Gizonek etxeko lanen eta jendea zaintzearen erantzukizuna har dezaten lortu beharko da.
- Inoren laguntza behar dutenei zuzendutako zerbitzu publiko gehiago ezarri beharko dira.
- Zerbitzu publikoen, administrazioen eta zerbitzu-establezimenduen ordutegiak ere egokitu egin beharko dira, oro har, zerbitzu horien erabiltzaileen edo hartzaileen premien eta denboraren arabera. Gizarte-denborak egokitu eta birbanatu beharko dira, alegia.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- EUSTAT.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Etxeko eta zaintzako lanaren balio ekonomikoa eta lanaldi osoaren kalkuluak barnean hartzen dituzten azterlanen, ikerketen eta diagnostikoen kopurua.
- Emakumeek doan egindako etxeko eta zaintzako lanek eragindako gizarte-aurrezkiaren bolumena, dirutan.
- Lanaldi osoaren kalkuluen kopuruak, erreferentziako lanbide-kategorien arabera.
- Etxeko lanen balio erantsi gordinaren egitura merkatuko prezioan, eguneko prezioetan.
- Kontuen Sistema Europarraren (KSE) barnean hartu gabeko produkzioaren balioespena, eginkizunen, lurralde historiakoaren eta sexuaren arabera (milako euro).

- Merkatuz besteko etxeetako produkzioa, eginkizunen arabera (milako euro).
- Etxeetako kontuak, eginkizunen arabera (milako euro).
- Etxeko produkzioaren kontuak, ekonomia zabalduaren guztirako zatitzat (milako euro).
- Ekonomia zabalduaren eta etxeko produkzioaren (ez KSE) guztirakoa, KSE ekonomiari dagokionez (milako euro).

1B. 1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Etxeko lanaren (jendea zaintzea barnean hartuta) balio ekonomikoa kalkulatzeko sistemak garatzea eta aplikatzea. Emakumeen etxeko eta zaintzako lanek eragindako gizarte-aurrez-
kia kalkulatzea. Honako hauek ahalbidetuko dituen esperientzia pilotua gauzatzea lortu behar
da: eskualdearen edo udalaren eremuan, gizarte-antolamenduari eta sexuen arteko lan-bana-
keta ekitatiboari dagozkion ezinbesteko gizarte-aldaketekin esperimintatzea, eta inoren
laguntza behar dutenak zaintzeko ezinbestekoak diren baliabide publikoak txertatzea, espe-
rientzia hori beste lurralde-eremuetara zabal dadin errazte aldera.

2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –2B–:

NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

35. artikulua.– Erantzunkidetasuna

Euskal herri-administrazioek, hain zuzen, gizonak etxeko lanetan ere –pertsonak zaintzea
barne– erantzukizunak har ditzatela sustatuko dute. Orobat, egokiak diren neurriak hartuko
dituzte 49. artikuluan jasotakoa garatzeko arauetan gizonak ere arlo horretan erantzukizunak
hartzea bultzatuko duten neurriak jaso daitezzen.

47. artikulua.– Xedapen orokorra

Euskal herri-administrazioek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dute.
Horretarako, honako alderdiak sustatuko dituzte: etxeko lanetan gizonak erantzunkidetasuna

edukitzea; enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharrei egokitzea; zerbitzu soziokomunitarioak sortzea eta egokitzea; laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak eratztea; eta delako helbururako egoki iritzitako beste edozein neurri.

48. artikulua.– Enplegu-baldintzak

1.– Euskal herri-administrazioetako langileen lan-baldintzak erregulatzen dituzten arauetan, zehazki, lan-denbora malgutzeko eta berrantolatzeke neurriak jaso behar dira –neurri horiek ez dute kalterik ekarri behar enpleguaren kalitatean eta langileen eskubideetan–, bai eta beste zenbait neurri ere, emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea errazteko.

2.– Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, enpresentzako laguntzak bideratu behar dituzte, enpresok lan-denbora malgutu eta berrantolatu dezaten, bai eta emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztea helburu duten beste zenbait neurri har ditzaten ere.

3.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak laguntzak emango dizkie etxeko beharrezanean erantzuteko mendeko pertsonak zaintzeko eszedentziak, baimenak eta lanaldi-murrizketak hartzen dituzten langileei. Laguntzok erregulatzen dituzten arauetan jasota egon behar dira aukera horiek baliatzen dituztenak lanera itzultzea errazteko neurriak, bai eta beren lanbidesustapenean kalterik izan dezaten saihestekoak ere.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Etxeko eta zaintzako lanaren banaketan desoreka izatearen ondorioa da honako hau: emakumeek eta gizonek ezberdin baliatzea denbora, eta besteak beste, amatasunagatik/aitatasunagatik lizentzien edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeko lizentzien erabilera ezberdinean ikus daiteke hori. Lizentzia horiek eskatzen dituzten gizonen kopurua hutsaren hurrengo izaten da. Halaber, enpresa eta erakunde gehienek ere ez dute denbora behar beste malgutu, eta ez dago nahikoa zerbitzurik norberaren eta familiaren premiak laneko ordutegiarekin bateragarri egiteko beharrezko denborak banatu ahal izateko.

Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko ezinbestekoa den malgutasuna lortzeko zerbitzu publiko eta pribatuaren –ekonomikoki eskuragarriak izanik– eskaintza urria ez ezik, dibertsifikazio txikikoa ere bada.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

2B.1. HELBURUA:

Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboraren erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa hori honela zehaztuta: inoren laguntza behar

duten lagunak zaintzeko eta amatasunak/aitatasunak eragindako baimenak eta lizentziak hartzen dituzten gizonen kopurua areagotuta administrazio publikoetan nahiz sektore pribatuan.

2B.2. HELBURUA:

Laneko denbora berrantolatzeko eta ordutegia malgutzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezartzea langileen lan-baldintzetan, administrazio publikoetan eta horien mendeko enpresetan, baita sektore pribatuko enpresetan ere, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda.

2B.1. HELBURUA:

ETXEKO ETA ZAINZAKO LANETAN EMANDAKO DENBORAREN ERABILERAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO DESOREKA KUANTITATIBOA MURRIZTEA, MURRIZKETA HORI HONELA ZEHAZTUTA: INOREN LAGUNTZA BEHAR DUTEN LAGUNAK ZAINZAKO ETA AMATASUNAK/AITATASUNAK ERAGINDAKO BAIMENAK ETA LIZENTZIAK HARTZEN DITUZTEN GIZONEN KOPURUA AREAGOTUTA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN NAHIZ SEKTORE PRIBATUAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Pixkanaka-pixkanaka, gizonak erreferentziako baimenak eta lizentziak eskatzea, gaur egun emakumeekin alderatuta dagoen alde izugarria ezabatuta, eta horrela, inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eta etxeko lanetarako gizonak hartzen duten denbora handitzea, emakumeen gehiegizko dedikazioa maila berean txikitzeko.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Etxeko lanetan sartzen dira honako hauek: etxe barruan egiten diren intendentziako lan guztiak, guneak erabiltzeko moduan eta jendearen oinarritzko premiak betetzeko moduan izateko (etxea bera eta etxeko tresnak garbitzea, erosketak egitea, otorduak prestatzea, arropa zaintzea, etxeko aurrekontua kudeatzea, etab.)

Inoren laguntza behar dutenak, aldiz, honako hauek dira: adingabeko seme-alabak, adinekoak, eta beren kabuz balia ez daitezkeen gaixoak edo ezinduek.

Parte-hartzea parekatzea honako honi esaten zaio: horrelako lizentziak eta baimenak baliatzeko garaian %60-40ko proportzioa izateari emakumeen eta gizonen parte-hartzean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Emakunde.
- Lan Harremanen Kontseilua.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Etxeko lanetarako hartutako denbora, sexuaren, egindako lanen eta jarduerarekiko loturaren arabera.
- Etxeko lanetarako hartutako denboraren erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa, jarduerarekiko loturaren arabera.
- Inoren mendekoak zaintzeko hartutako denbora, sexuaren, egindako lanen eta jarduerarekiko loturaren arabera.
- Inoren laguntza behar dutenak zaintzeko hartutako denboraren erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa, jarduerarekiko loturaren arabera.
- Administrazio publikoetan, amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimenen eta lizentzien erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa.
- Sektore publikoan, inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko baimenen eta lizentzien erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa.
- Sektore publikoan, amatasunagatiko/aitatasunagatiko eta inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko baimenek eta lizentziek eragindako kontratazioen kopurua, sexuaren arabera.
- Administrazio pribatuan, amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimenen eta lizentzien erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa, jarduera-adarren arabera.
- Inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko baimenen eta lizentzien erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa, jarduera-azpisektoreen arabera.
- Sektore pribatuan, amatasunagatiko/aitatasunagatiko eta inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko baimenek eta lizentziek eragindako kontratazioen kopurua, jarduera-adarren eta sexuaren arabera.

2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

A ESTRATEGIA: SEKTORE PUBLIKOA

- Etxeko eta zaintzako lanetan gizonen erantzukizuna sustatzearen, sentsibilizazioko, informazioko eta prestakuntzako prozesuak garatzea, eta sentsibilizazio-ekintzak egitea, gizonen zaintzagatiko eta aitatasunagatiko baimenak eta lizentziak eska ditzaten motibatzeke.
- Gizonen eta emakumeen soldatak parekatzea lortzeko ekintzak garatzeari bultzada ematea, gauza jakina baita familia-unitatetan kostua/etekina irizpidea erabiltzen dela, pentsamoldeak gorabehera, lana egiteari zein bikotekidek utziko dion erabakitzeko, neurri horiei atxikitzearen. Kolektibo gisa, emakumeek diru-sarrerara txikiagoak dituztenez, soldatak berdinduz gero, errentagarritasunaren aldetik familientzat berdin-berdin izango da gizonak edo emakumek hartzea baimen eta lizentzia horiek. Baimen horiek baliatzeko motibatut behar bada, baimenak hartzen dituztenak kaltetuak ez suertatzea bermatu beharko da, ez lanbide-garapenean, ezta lan-baldintzetan ere.

B ESTRATEGIA: SEKTORE PRIBATUA

- Enpresaburuei eta langileei zuzendutako sentsibilizazio-prozesuak garatzea, gizonen neurri horiek hartzera motibatzearen, pizgarriak emanda.
- Lan Harremanen Kontseiluan elkarrizketa sustatzea, balio bereko lanengatiko soldatak parekatzeari ekiteko, eta modu sistematikoan, ez daitezen emakumeak izan neurri horiek hartzen dituztenak; horretaz gain, amatasunagatiko/aitatasunagatiko edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko baimenak eta lizentziak hartzen dituztenak kaltetuak ez suertatzea bermatu beharko da, ez haien karrera profesionalean, ezta lan-baldintzetan ere, gai horren inguruko prestakuntzarako diru-laguntzak emanda.

2B.2. HELBURUA:

LANEKO DENBORA BERRANTOLATZEKO ETA ORDUTEGIA MALGUTZEKO ZERBITZUAK ETA/EDO NEURRIAK EZARTZEA LANGILEEN LAN BALDINTZETAN, ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN ETA HORIEN MENDEKO ENPRESETAN, BAITA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN ERE, OKUPATUTAKO BIZTANLERIAREN PROPORTZIO HANDIENAK METATZEN DITUZTEN JARDUERA ADARREI LEHENTASUNA EMANDA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitzaren bateragarritasuna bermatuko duten neurriak eta/edo zerbitzuak modu mailakatuan eta sistematikoan ezartzea da esku-hartzearen helburua, baita neurri eta zerbitzu horien erabilera parekoa izatea ere, emakumeen eta gizonen artean. Horrela, produkzioko eta ugalketako lanen banaketa ekitatiboa lortuko dugu, arian-arian.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Bateragarritasun-ekintzak honako hauek dira: norberaren, etxeko eta/edo laneko eremuetan, emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua lortzeko lagungarri direnak, denborak orekatzeko ahalbidetuta, eremu horietako batean ere kalterik eragin gabe. Oro har, eta gehiegi luza-tu gabe, bateragarritasun-neurrien eta -zerbitzuen honako tipologia hau ezar daiteke:

- Malgutasuna ordutegian eta espazioan: ordutegien malgutasuna, oporraldi-egutegiaren malgutasuna, etxetik lan egiteko aukera (telelana), lanaldi-murrizketak, lan-aste trinkotuak, lan partekatua (bi lagunek lanpostu bera partekatzea), urteko orduak (urtean ordu kopuru jakin bat betetzeko baldintza beteta, lana antolatzea).
- Zerbitzuak: haurtzaindegiak edo kanpoko enpresa batekin hitzarmena egitea zerbitzua emateko, adingabeak edo adinekoak zaintzeko laguntza ekonomikoak, zaintzari buruzko informazio-zerbitzuak, zerbitzu-txekea, umezain-zerbitzuak.
- Malgutasun-politikak osatzeko jardunak: amatasunagatiko/aitatasunagatiko bajaran dauden emakumeek eta gizonak aukera profesionalak ez galtzera bideratutako planak, amatasunagatiko/aitatasunagatiko bajaran aldiak luzatzea, edoskitzealdia luzatzea, laguntza ekonomikoak, senitartekoak ospitaleratzen direnerako ordaindutako baimenak, seme-alabei arreta emateko eszedentzia, arrazoi pertsonalek eragindako egun libreak, zaintza bereziak (senitarteko gaixoren bat dutenek kobratu gabe denboraldi bat hartzeko aukera izatea, itzultzeko garaian hasierako postua ziurtatua izanda), denboraldi sabatikoa, ordaindu gabeko oporraldia.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Laneko denbora malgutzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezarri dituzten administrazio publikoen gaineko proportzioa.
- Administrazio publikoek ezarritako malgutzeko zerbitzuen eta neurrien tipologia.
- Bizitza eta lana bateragarri egiteko lagungarriak diren zerbitzuak ezarri dituzten enpresa pribatuen kopurua, enpresaren tamainaren, jarduera-sektorearen eta zerbitzu motaren arabera.
- Laneko denborak eta guneak bateragarritasunaren alde egokitzeko neurriak hartu dituzten enpresa pribatuen kopurua, enpresaren neurriaren, jarduera-sektorearen eta neurri motaren arabera.
- Laneko denborak eta guneak bateragarritasunaren alde egokitzeko neurriak eta/zerbitzuak ezarri dituzten enpresa guztien gaineko proportzioa, enpresen tamainaren eta jarduera-sektoreen arabera.

2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

A ESTRATEGIA: SEKTORE PUBLIKOA

- Lanaldia malgutzeko lagungarri izango diren neurriak aplikatzea; lanaren antolaketa egokitzea, bateragarritasunaren alde; inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko eta amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimenak hobetzea; eta langileen premien eta lehentasunen arabera, bestelako laguntza-neurriak edo -zerbitzuak ezartzea.
- Gizonek neurri horiek balia ditzaten sustatzeko sentsibilizazio-ekintzak egitea.

B ESTRATEGIA: SEKTORE PRIBATUA

- Bateratze-neurriak ezartzeko aholkularitza tekniko ematea, baita zerga-pizgarriak ere, zerbitzu soziokomunitarioei eusteko laguntzen duten enpresei, eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko ekintzen barruan, neurri horiek sartzen dituztenei.
- Kalitate-metodologietan –EFQM esaterako– alderdi horiek txertatzea, eta ziurtagiri berriak sortzea, betiere proposatutako helburuak lortzeko eraginkorrak badira.

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 11–:

LANEAN JAZARPEN SEXISTAREN PREBENTZIOA ETA DESAGERTZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

43 artikulua.- Jazarpen sexista

1. Delitu modura izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, lege honen ondoretarako, jazarpen sexista hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada. Jokabide horrek sexuarekin zerikusia duenean, jazarpen sexista izango da.

2. Jazarpen sexista diziplinako hutsegite oso larria izango da euskal herri-administrazioetako langileen kasuan, lege honetako 2.1 artikulua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 83.b artikuluari dagokionez, ezartzen duenarekin bat.

3. Euskal herri-administrazioek ofizioz jardungo dute jazarpen sexista salatzen denean. Era berean, lanean jazarpen sexista prebenitzeko eta erauzteko politikak jarri behar dituzte abian, beren langileei zuzenduta. Politika horiek, beste neurri batzuen artean, jarduketa-protokolo batzuk prestatzea eta aplikatzea aurreikusi beharko dute.

4. Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doanekoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatu behar diete jazarpen sexistaren biktima direnei.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Emakumeen aurkako indarkeria mota oro bezalaxe, jazarpen sexistaren egoerak ikusezin izaten dira, jazarpenaren eta horren ondorioen gainean gizarte-kontzientziarik ez dagoelako, eta jazarpena pairatzen dutenek salaketarik ez egiteko jasotzen dituzten presioen eraginez. Eskura ditugun datu urriei erreparatuta, horrelako egoerak uste baino ohikoagoak direla ikus daiteke. Emakumezko langileei eragiten dien arazo horri aurre egitearren, eta "0" tolerantzia-maila ezartzearen, emakumeen aurkako tratu txarrak edo etxeko indarkeria desagerrarazteko abiarazi zen ibilbide berdinari ekin beharko zaio: gizarte osoari, eta batik bat, enpresa-

buruei eta lankideei, jazarpen sexista zer den ikusaraztea, eta erakunde guztietan arazo horren prebentziorako eta tratamendurako protokoloak ezartzea, horren egiazko eragina agerian uzte aldera eta desagerrarazteko lan egite aldera.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

11.1. HELBURUA:

Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda, jazarpen sexista hori agerian uzteko eta murrizteko asmoz.

11.1. HELBURUA:

JAZARPEN SEXISTARI AURRE EGITEARREN, PREBENTZIOKO ETA JARDUTEKO PROTOKOLOAK EZARTZEA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN ETA SEKTORE PRIBATUKO ENPRESETAN, OKUPATUTAKO BIZTANLERIAREN PROPORTZIO HANDIENAK METATZEN DITUZTEN JARDUERA ADARREI LEHENTASUNA EMANDA, JAZARPEN SEXISTA HORI AGERIAN UZTEKO ETA MURRIZTEKO ASMOZ.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Arian-arian, jazarpen sexistaren prebentzioko eta tratamenduko protokoloak ezartzea, kasu guzti-guztiak agerian uztea eta salatzea lortzeko.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Jazarpen sexista honako hau izango da: lanean, nahi ez duen pertsona batekin eta horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada. Jokabide horrek sexuarekin zerikusia duenean, jazarpen sexista izango da. (Berdintasunerako Legearen 43. 1. artikulua)

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezarri dituzten administrazio publikoen eta mendeko enpresen proportzioa.
- Sektore publikoan egindako esku-hartzeen kopurua eta aplikatutako zigorren proportzioa.
- Jazarpen sexistak eragindako salaketa kopuruaren hazkundearen proportzioa, aurreko urtearekin alderatuta.
- Sektore pribatuan, jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezarri dituzten enpresen kopurua.
- Sektore pribatuan, Lan Ikuskaritzak egindako esku-hartzeen kopurua eta aplikatutako zigorren proportzioa.
- Jazarpen sexista hutsegite oso larritzat hartzen duten hitzarmen kolektiboen proportzioa.

11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

A ESTRATEGIA: SEKTORE PUBLIKOA

- Jazarpen sexistak izan ditzakeen formak aztertzea, eta eremu horretan, hasierako egoera kuantifikatzea ahalbidetuko duten adierazleak identifikatzea.
- Jazarpen sexita desagerrarazteko administrazio publikoen konpromisoa espresuki adieraztea.
- Gai horren inguruko prestakuntza ematea, sektore horretan langileen kudeaketaz arduratzeko direnei.
- Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezartzea.

B ESTRATEGIA: SEKTORE PRIBATUA

- Jazarpen sexistaren inguruko eta aplika daitekeen araudiaren inguruko informazioa ematea eta sentsibilizatzea.
- Gai horren inguruan, eta prebentzioko eta tratamenduko ereduaren inguruko prestakuntza ematea.
- Erakunde guztietara egoki daitekeen protokolo orokorra lantzea.
- Lan Ikuskaritzak zaintza zorrotzagoa egin dezan sustatzea, jazarpen sexista desagerrarazteko.

6.4

GIZARTERATZEAREN ARLOA



SARRERA

Politika publikoetatik lan handia egin da eta egiten da jende guztiak sarbidea izan dezan gu-txieneko baliabideetara (ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren arloko baliabideetara), baina hala ere, bada gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desoreka bat, eta beste fak-tore batzuekin batera, emakumeak egoera bereziki urrakorrean uzten ditu, zenbait kasutan askotariko diskriminazioa ere pairatzen dutela. Horren ondorioz, erakundeek arreta berezia eman behar diete baliabide horiek banatzeko prozesuei eta emakumeak pairatu behar izaten dituzten diskriminazio-egoerei. Hari berari jarraiki, Berdintasunerako Legearen gizarteratzeari buruzko 45. artikulua arabera, Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobrezia eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondo-rioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarritzko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-pro-grametan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboei zuzendu-tako programa zehatzak diseinatuko dituzte.

MAINSTREAMINGA

Gizarteratzearen arloan mainstreamingean aurrera egitea ezinbesteko neurria da emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desoreka agerian uzteko, eta emakumeen pobrezia- eta baz-terketa-maila handiagotan eragiten duten faktoreak modu eraginkorrean neutralizatzeko.

Gizarte-ekintzaren eremuan genero-ikuspegia txertatzeak honako hau eskatzen du: diagnosti-koa, planifikazioa, esku-hartzea eta ebaluazioa aintzat hartzea, alde batera utzi ezinezko alderdiak baitira, bazterketa-arrisku handiagoa izatean eragiten dutelako; esate baterako, lana sexuaren arabera banatzea, emakumeen eta gizonen rol ezberdinak, eta botere- eta infor-mazio-eremutarako sarbidean dagoen desoreka.

Hori dela-eta, oso garrantzitsua da maila guztietako administrazio publikoetako gizarte-ekin-tzako politiketan genero-ikuspegia integratzea bai diagnostikoetan, bai planifikazioetan, bai esku-hartzeetan, bai ebaluazioetan, eta horretarako estrategikoa da honako hauetara bidera-tutako jardunak gauzatzea: alde batetik, gizarte-ekintzako eremuetako diagnostikoetan, plani-fikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegitik begiratuta izan daitezkeen gabeziak atzematera; bestetik, arlo horietako teknikariak gaitzera, beren lana genero-ikuspe-gitik begiratuta gara dezaten, eta gizarte esku-hartzearen fase guztietan genero-ikuspegia txer-tatzen izandako hobekuntzen jarraipena egitera.

AHALDUNTZEA

Pobrezia eta gizarte-bazterketak emakumeengan eragin handiagoa izatea desorekaren beste adierazgarri bat baino ez da, hain zuzen ere emakumeen eta gizonen artean maila guztietan

dagoen desorekaren adierazgarri, ekonomiaren, kulturaren, politikaren eta abarren arloko baliabideen eta ondasunen gaineko sarbide- eta kontrol-maila ezberdinak eragindakoa. Desoreka are eta nabarmenagoa izaten da generoaz gain, beste hainbat faktore ere tartean sartzen direnean, hala nola gutxiengo etniko batekoa izatea, arraza, kolorea, gaixotasuna, ezintasuna, mendekotasuna... eta horren guztiaren ondorioz, askotariko diskriminazioa esaten zaiona sortu da.

Plan honekin, legean aldeztu aurretik jasotakoa garatzen da, izan ere, “ezinbestekoa da pobrezia- eta bazterkeriaren arrisku handiagoa zuzentzeko jardutea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboek zuzendutako programa zehatzak diseinatu”. Horretarako, bazterketa-arriskuan dauden kolektiboekin lan egiten duten programa sektorialak egokitzea bideratutako helburuak egituratu behar dira, kolektibo bakoitzaren barruan emakumeen premia espezifikoak aintzat hartuta, eta egoera horietan dauden emakumeen ahalduzko bultzada ematera bideratuta; hartara, emakumeen baldintzak ez ezik, egoera ere hobetuko da.

Hain justu, lehentasunezko helburutzat definitu dira gizarte-bazterketako arrisku-egoeran egonik, bestelako egoeraren batekin loturiko arazoak dituzten emakumeak; esate baterako, drogamenetasunekin, prostituzioarekin, askatasunik gabe egotearekin, etorkinak izatearekin, ezintasunen bat izatearekin, adinekoak izatearekin, edo ekonomia-pobrezia egoeran egotearekin.

Zehaztu behar dugu ikuspegi horrekin ez dugula esan nahi emakume etorkinak, adinekoak, ezintasunen bat dutenak eta horrelakoak soilik gizarteratzearen arloan kokatu behar direnik, ezta horiek guztiak bazterketa-arriskuan daudenik ere. Laugarren kapituluaren (ardatz estrategikoak – mainstreaminga) zehazten denez, kolektibo horietako emakumeen premia espezifikoak plana osatzen duten arlo eta helburu guztietan lantzen dira, behar izanez gero. Hala ere, kolektibo horiek guztiz zeharkako bihurtuko bagenu, ahaztu egingo genuke horietako batzuk pobrezia-poltsa handien barruan daudela, estutasun-egoeran eta gizarte-zailtasunekin. Gizarteratzearen arloari dagokio bazterketa-arriskuko faktoreei aurre egitea eta jende guztia- ren gizarteratzea ahalbidetzea. Hortaz, gizarte-bazterketako arriskuan dauden kolektibo horietako kideak arlo honetan kokatzeak zentzu estrategikoa du, kolektibo horien barruan emakume askoren baldintza txarrak onartzea ahalbidetzen duelako.

Bestalde, emakume horien baldintzak eta egoera hobetzeko lan eginez gero, haien ahalduztzeari laguntzeko lan egingo da, haien berehalako premia praktikoak –baliabide ekonomikoetarako, enplegurako, prestakuntzarako, kulturarako eta etxebizitzarako sarbidea– nahiz genero-interes estrategikoak barnean hartzen dituen prozesutik abiatuta, baita informaziorako, gizartearen eta politikaren arloko baliabideetarako sarbidearekin, eta emakumeek, oro har, pairatzen duten diskriminazio-egoeraz jabe arazteko eta haien egoera agerian uzteko baliabideetarako sarbidearekin loturik dauden interes estrategikoak ere.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Emakumeak dira, oraindik ere, inoren laguntza behar duten pertsonak eta gaixoak zaintzen dituztenak. Modu informalean eta ikusten ez dela egiten den lan horrek ekonomiaren, gizartearen eta psikologiaren arloko kostu eta zama handiak eragiten dizkie egileei. Gizarte-ekintzaren arlotik, erantzunkidetasunaren eta gizarte-antolamendua aldatzearen alde egin behar den jardunaren oinarria honako hau da: zaintzako lanak egiten dituzten emakumeen zamak (ekonomikoak, psikologikoak eta gizarte-arlokoak) murriztea arian-arian, horretara bideratutako baliabide publikoak areagotuta, emakumeek zaintzearen ohiko formulaz bestelako aukera berriak bilatuta, eta zaintzako lanak egiten dituztenei zama horiek arintzeko neurriak –atseden hartzeko programak eta laguntza-zerbitzuak– ezarrita.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Gizarteratzearen arloko esku-hartzearen ardatza emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitea da, dela prebentzioaren bidetik, dela arretaren bidetik.

Prebentzioaren bidea garatzeko, estrategiko deritzogu indarkeria-zikloa goiz atzemateko prozesuak ugaritzeari, eta zehatz-mehatz, etxeko indarkeria-zikloa goiz atzemateari, osteko faseen garapena leuntzearen.

Arretaren bidean, biktimekiko arreta hobetzea ezinbestekoa da, tokiko administrazioek jardun-protokoloak landu eta ezarriz; hain zuzen ere, tratu txarren eta sexu-erasoen biktimen eskarrei (arreta, asistentzia eta babesak) kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzuteko jardun-protokoloak. Horretaz gain, “Sexu-erasoak eta tratu txarrak jasaten dituztenei harrera hobe egiteko Erakundeen arteko Akordioaren” Jarraipen Batzordeak landutako “Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan” bildutako neurriak ezarri eta etengabe hobetu behar dira.

Esku-hartze horietan arreta berezia eman behar zaie honako kolektibo hauei: alde batetik, duten adinagatik, ezintasunagatik edo etorkinak izateagatik, eta bestetik emakume izateagatik, gure gizartean diskriminazio bikoitza eta babesgabetasuna pairatu behar duten kolektiboak; izan ere, tratamendu ez-neutroa eskatzen dute, dela prebentzioari, dela arretari dagokionez.

PROGRAMEN ETA HELBURUEN ZERREDA

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA –1M–:

GIZARTE ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

1M.1. HELBURUA:

Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:

ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA PAIRATZEN DUTEN ETA/EDO BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEA

1A.1. HELBURUA:

Pobrezia ekonomikoaren egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.2. HELBURUA:

Prostituzioan aritzen diren eta gizarte-bazterketaren arrisku-egoeran dauden emakumeei zuzendutako baliabideak egokitzea, haien baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.3. HELBURUA:

Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.4. HELBURUA:

Askatasunik gabeko egoeran daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.5. HELBURUA:

Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.6. HELBURUA:

Ezinduak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.7. HELBURUA:

Adinekoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horretako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–:

AUTONOMIA FUNTZIONALIK EZ DUTENEI ARRETA EMATEKO BALIABIDE SOZIOKOMUNITARIOAK

1B.1. HELBURUA:

Zaintzako lanetan aritzen direnen gizarte-arloko zama, eta zama ekonomikoa eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –1I–:

ETXEKO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN, PREBENTZIOA ETA ARRETA HOBETZEA

1I.1. HELBURUA:

Indarkeria-zikloa goiz atzematen diren kasuak areagotzea.

1I.2. HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarrita, EAEko udalerrietan.

1I.3. HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei harrera emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta.

GIZARTERATZEA: Programen eta jardun helburuen banaketa ardatzetan

1M: Gizarte-zerbitzueta genero-ikuspegia txertatzea 1M.1. HELBURUA: Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea.	1A: Askotariko diskriminazioa pairatzen duten eta/edo bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzea 1A.1. HELBURUA: Pobrezia ekonomikoaren egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren. 1A.2. HELBURUA: Prostituzioan aritzen diren eta gizarte-bazterketaren arrisku-egoeran dauden emakumei zuzendutako baliabideak egokitzea, haien baldintzak eta egoera hobetearren. 1A.3. HELBURUA: Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren. 1A.4. HELBURUA: Askatasunik gabeko egoeran daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren. 1A.5. HELBURUA: Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren. 1A.6. HELBURUA: Ezinduak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren. 1A.7. HELBURUA: Adinekoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.	1B: Autonomia funtzionalik ez dutenei arreta emateko baliabide soziokomunitarioak 1B.1. HELBURUA: Zaintzako lanetan aritzen direnen gizarte-arloko zama, eta zama ekonomikoa eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea.	1I: Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen aurrean, prebentzioa eta arreta hobetzea 1I.1. HELBURUA: Indarkeria-zikloa goiz atzematen diren kasuak areagotzea. 1I.2. HELBURUA: Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarrita, EAEko udalerrietan. 1I.3. HELBURUA: Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei harrera emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta.

PROGRAMAK, HELBURUAK ETA JARDUN ESTRATEGIAK GARATZEA

MAINSTREAMINGA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1 M–:

GIZARTE ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

45. artikulua.- Gizarteratzea

1. Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobreziak eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarritzko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboetako programa zehatzak diseinatuko dituzte.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Gizarte Zerbitzuen eremutik, eta batik bat, administrazioetako gizarte-ekintzako arloetatik, diseinuan, planifikazioan, esku-hartzean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzeko lanetan sakontzen jarraitu behar da, pobreziak eta gizarte-bazterketak emakumeengan duen eragin handiagoa neutralizatze aldera. Eragin handiago horren arrazoia emakumeen eta gizonen arteko desoreka da, egiturazkoa baita, gure gizartearen ezaugarri izanik. Lurralde bakoitzeko premiak aztertzean eta zehaztean, beharrezko baliabideen programazioa egitean, eta programak diseinatu eta ebaluatzean, emakumeen eta gizonen baldintzetan, egoeretan eta premietan dauden aldeak kontuan izaten dituen ikuspegiari jarraitu behar zaio. Gizartearen eremuan, genero-ikuspegiari jarraiki egindako diagnostikoa eta planifikazioa izanez gero, emakumeek pairatzen dituzten ezberdintasunak agerian geratuko dira eta esku-hartze fasean horiei aurre egin ahal izango zaie, modu eraginkorragoan.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERREDA:

1 M.1. HELBURUA:

Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea.

1 M.1 . HELBURUA:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO GIZARTE EKINTZAKO ARLOETAN, DIAGNOSTIKOETAN, PLANIFIKAZIOETAN, ESKU-HARTZEETAN ETA EBALUAZIOETAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Gizarte-ekintzaren eremuan, administrazio publikoek egindako planifikazioko eta esku-hartze-ko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzen aurrera egitea, gizarte-arloko esku-hartzearen diagnostikoa, diseinua, gauzatzea eta ebaluazioa aintzat hartuta.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Genero-ikuspegia integratzea esaten dugunean, zera esan nahi dugu: emakumeen eta gizonen baldintzen, egoeren eta premien arteko aldeak kontuan izatea, gizarte-ekintzaren diagnostikoan, planifikazioan, gauzatzean eta ebaluazioan. Horretaz gain, esku-hartzeko prozesu horretan jardunak eta estrategiak ere sartu behar dira, baliabideetarako sarbidean, parte-hartzean eta kontrolean gizonen eta emakumeen arteko desoreketan eragiteko, gizartearen eta ekonomiaren arloko emakumeen egoera hobetuta.

Plan honi dagokionez, genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- Jardun edo arau jakin bat diseinatu aurretik, emakumeen premien diagnostiko bat baldin badago.
- Diseinaturiko ekintzen genero-eraginaren aurreikuspena egiten bada.
- Emakumeen egoeraren edo baldintzen gainean eragin negatiboa izango duten ekintzak aldatzen edo ezabatzen badira.
- Diagnostikoan atzemandako emakumeen premiak, baldintzak eta egoera betetzeko ekintza eta programa espezifikoak egiten badira.

- Eraginpean hartzen dituen emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak edo arauak izango duen eragina, eta genero-interes estrategikoak ebaluatzen badira.

Esku-hartzearen xede honako hauek izango dira: Eusko Jaurlaritzaren gizarte-ekintzako arloak, Foru Aldundiak, Udalak eta Mankomunitateak.

EAEko Gizarte Zerbitzuei dagokien legegintzako, legeak garatzeko, antolamenduko eta planifikazio estrategiko orokorra egiteko eskumena du Jaurlaritzak.

Foru Aldundiek, aldiz, eskumenen artean honako hauek dituzte: gizartearen arloan, beren lurraldeko premiak aztertzeari eta zehazteari dagokion plangintza estrategikoa egitekoa, beharrezko baliabideen programazioa egitekoa, eta beren lurralde-eremuko gizarte-zerbitzu espezializatuak antolatzeko eta egituratzeko eskumena.

Udalen eta Mankomunitateen kasuan, tokiko plangintzak egiteko eskumenak dituzte, gizarte-arazoei buruzko ikerketak eta azterlanak sustatzeko eta egiteko, eta udal-mailako premiei eta baliabideei dagokienez. Halaber, oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzeko, kudeatzeko eta arautzeko eskumena duten erakundeak dira.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Genero-ikuspegia txertatzen hobekuntza nabarmenak izan dituzten gizarte-ekintzako arlo-en kopurua (Plan honetan ezarritako irizpideei jarraiki, genero-ikuspegia txertatzen duten diagnostikoen, planifikazioen eta esku-hartzeen kopurua).

1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Helburua lortzeko gomendatutako esku-hartze estrategia honako hau da: gizarte-ekintza arlo-etako plangintzetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia txertatzeko garaian izan daitezkeen gabeziak atzemateko jarduerak egitea; arlo horietako teknikariak gaitzea, beren lana genero-ikuspegitik begiratuta gara dezaten, eta gizarte esku-hartzearen fase guztietan genero-ikuspegia txertatzen izandako hobekuntzen jarraipena egitea.

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1 A–:**ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA PAIRATZEN DUTEN ETA/EDO BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEA**

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:*3. artikulua.– Printzipio Orokorrak***1. Tratu berdina.**

c) Ez dira sexuaren ziozko bereizkeria kontsideratuko justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere. Neurri horien artean helburu hauek dituztenak sartu behar dira: emakumeentzako ekintza positiboa, sexuei arrazoi biologikoengatik babes berezia eman beharra, edo gizonek etxe-ko lanetan eta pertsonen zainketan parte har dezaten sustatzea.

45. artikulua.- Gizarteratzea

1. Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobreziak eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarritzko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboek zuzendutako programa zehatzak diseinatuko dituzte.

2. Euskal herri-administrazioek beharrezko neurri juridikoak eta ekonomikoak bultzatuko dituzte gertakari batzuen ondorioz baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonen baldintzak hobetzeko. Gertakari horiek bi izango dira: batetik, alargun gelditzea, eta bestetik, hitzarmen judizialki onartuan edo ebazpen judizialean ezarritako pentsio osagarriak eta mantenu-pentsioak ez jasotzea. Bigarren hori gertatzeko egoerak hauek izan ohi dira: ezkontza-deuseztasuna, legezko ezkontza-banaketa, dibortzioa, izatezko bikotea hausturaz iraungitzea edo filiazio-edo mantenu-prozesua. Gorago aipatutako helbururako, berme-funts bat sortuko dute pentsioak ordaintzen ez direnerako, eta osagarriak eratuko dituzte alarguntasun-pentsio apalenerako.

3. Euskal herri-administrazioek adineko emakumeen ongizatea eta gizarte-babesa zainduko dute, eta adineko emakumeek bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte har dezaten sustatuko.

4. Autonomia Erkidegoko Administrazioak plan bat prestatuko du prostituzioaren arloan jarduteko, administrazio enparauekin eta eremu horretan lanean ari diren gizarte-taldeekin batera.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Gizarte-bazterketatzat joko dugu herritar guztien gizarte-eskubideak (enplegurako, hezkuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako, osasunerako, gizarte-babeserako eta abarrerako eskubideak) bermatzeko gizartearen ezintasuna; bereziki emakumeek pairatzen dute gizarte-bazterketa hori. Bazterketa-prozesuen jatorria soldatapeko lana lortzeko zailtasunak, batik bat, izaten dira, horrelako lanak ziurtatzen baititu gizarte-arloko eskubideak eta eskubide politikoak gure gizarte-ereduan. Eremu publikoan egindako lana soilik balioetsita, historian zehar emakumeek egin izan duten ugalketako eta zaintzako lanari ez zaio xedatu ez eskubiderik, ez bermerik. Gainera, gizonekin alderatuta, baldintza txarragoetan, diru-sarrera txikiagoekin eta desoreka-egoeran sartzen dira emakumeak soldatapeko lanean. Askotan, emakumeek gizonezkoaren figuraren bitartez lortzen dituzte eskubide horiek, eta horrela mendekotasun sozioekonomikoren egoeran geratzen dira; hortaz, harremana etenez gero, gizarte-bazterketaren egoeran geratzeko arrisku handiagoa dute.

Horretaz gain, pobrezia feminizatzen ari da, hau da, pobrezia-egoeran dauden emakumeen kopurua handitzen ari da, baita pobreen kolektiboan emakumeen proportzioa ere; beste hainbat faktore demografikorekin eta gizarte-aldaketako faktoreekin batera, horren guztiaren eragile dira honako hauek: gero eta gurasobakar gehiago izatea, eta bizi-itzaropena luzatzea –are gehiago emakumeen kasuan–.

Bazterketarekin edo lan-merkatuan sartzeko zailtasunarekin batera, eta horri dagokionez, badira bazterketa-prozesuak eragin ditzaketen beste hainbat faktore ere: gutxiengo etniko batekoa izatea, arraza, kolorea, gaixotasuna, ezintasuna, mendekotasuna... Genero-harremant oinarritutako gizarte-eredua hierarkikoa da, eta horrelako prozesuetan dauden emakumeak kalteberago bihurtzen ditu. Hari berari jarraiki, askotariko diskriminazio-egoerak sortzen dira, sexuaz gain, bestelako metatze-faktoreek eragindako diskriminazioa pairatzen baitute emakumeek.

Hortaz, bazterketa desagerrarazteko neurrietan, programetan eta jardunetan ezin zaie tratatzea neutroa, sexurik gabea eta orokorra eman emakumeei eta gizonei; aldiz, genero-ikuspegitik begiratutako azterketa hartu behar dute barnean, bazterketa pairatzen duten emakumeen egoerak, baldintzak eta premiak kontuan izanda, eta baliabide eta programa orokorrak ego-kitura haien baldintzetara eta egoeretara. Kasu askotan, diskriminazio-faktore bat baino gehiago batera gertatu direlako sortzen dira babesgabetasun-egoerak, eta horren ondorioz, gizarte-arloko esku-hartzea ikuspegi integraletik begiratuta egiten da, eta neurri orokorrak –hau da, langabeziaren aurkako borroka, etxebizitzarako sarbide-politikak, eskolatzeko ekintzak, gizar-

te-lana eta lan komunitarioa, etab.– egokitu egiten dira. Neurri horiekin batera, bazterketa- eta diskriminazio-egoera bakoitzari egokitutako beste neurri espezifikoak ere hartzen dira, administrazioek eta erakundeek egiten dituzten plangintza sektorialeiei zentzua emanez.

Dena den, kolektibo bakoitzaren diskriminazio-egoerak zehaztearen eta agerian uztearen aldeko hautua egin dugu Plan honetan, errealitate eta problematika ezberdinei egokituta eta modu espezifikoagoan aurre egin ahal izateko. Baliabide orokorrak nahiz sektorialak egokitzera bideratu ditugu helburuak, askotariko diskriminazioa eta bazterketa-arriskua pairatzen duten emakumeen baldintzak eta egoera hobetze aldera. Emakumeen egoera hobetzeko eta ahalduzko-prozesuak indartzeko ikuspegitik lan egiteak genero-interes estrategikoetan aurrera egitea dakar.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

1A.1. HELBURUA:

Pobrezia ekonomikoaren egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.2. HELBURUA:

Prostituzioan aritzen diren eta gizarte-bazterketaren arrisku-egoeran dauden emakumeei zuzendutako baliabideak egokitzea, haien baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.3. HELBURUA:

Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.4. HELBURUA:

Askatasunik gabeko egoeran daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.5. HELBURUA:

Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.6. HELBURUA:

Ezinduak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.7. HELBURUA:

Adinekoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.1. HELBURUA:

POBREZIA EKONOMIKOAREN EGOERAN EGONIK, BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, EGOERA HORRETAN DAUDEN EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Pobreziaren aurka lan egitera zuzendutako programetan eta baliabideetan genero-ikuspegia integratuta, egoera ekonomiko kaxkarrak emakumeengan duen eragin handiagoa kontuan ez izateko arriskua dakarren ikuspegi orokorregia gaingitzen da.

Esku-hartzearekin honako hau lortu nahi dugu: dauden programak eta baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko, haien ahalduntzea indartzeko eta gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak neutralizatzeke.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Plan honi dagokionez, egoera ekonomiko txarrean eta bazterketa-arriskuan dauden emakumetzat honako hauek hartuko ditugu: etxeko eremuan egindako lana ekonomikoki balioesten ez duen gizartearen eta ekonomiaren arloko ereduaren ondorioz, berezko diru-sarrera nahikorik ez duten emakumeak, eredu horrek eragozpen gehiago jartzen baitizkie emakumeei produktio lan-merkatuan. Emakumeen tipologia horretan honako hauek sartuko ditugu: bananduak, alargunak, ama nerabeak, bikotekideak edo senarrak zama ekonomikoa partekatzen ez duten etxeetan bizi diren emakumeak, eta aipaturiko arrazoiek eraginda sor daitezkeen bestelako egoeratan daudenak.

Emakumeen berehalako premiekin loturik daude baldintzak, hala nola: baliabide ekonomiko-etarako, enplegurako, hezkuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako sarbidearekin. Egoera, aldiz, honako honekin loturik dago: gizartearen, politikaren eta informazioaren arloko baliabideetarako sarbidearekin; emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoeraren gainean kontzientziazteko baliabideetarako sarbidearekin; eta egoera hori agerian uztearekin.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Baliabide ekonomikoetarako sarbidea hobetzera.
- Enplegurako sarbidea hobetzera.
- Etxebizitzarako sarbidea hobetzera.
- Prestakuntzarako sarbidea hobetzera.
- Kulturarako sarbidea hobetzera.

- Bazterketa-arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Informaziorako sarbidera.
- Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea sustatzera.
- Autoantolaketa eta kontzientziazioa sustatzera.

1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Emakume horien baldintzak, egoera eta premiak aztertzea, jardun-ildoak ezartzeko.
- Jasotzen dituzten etxebizitzaren eta ekonomiaren arloko laguntza eta baliabideen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo kolektiboa lehenesteko irizpideak balioestearren, baita baliabide horiek sortzeko premia ote dagoen ere.
- Baliabide ekonomikoak ezartzea pentsioak ordaintzen ez direnerako, alarguntasun-pentsio txikia dutenentzako osagarriak, eta emakume horien seme-alabentzako laguntza espezifikoak.
- Ama ezkongabeei informazioa, orientazioa eta aholkularitza emateko zerbitzuak sortzea edo egokitzea.
- Administrazioako langileei prestakuntza ematea, emakume horien egoera hobetzeko programak diseinatu eta planifikatu ditzaten, eta haien ahalduntzea susta dezaten.

- Abiarazitako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita izaten ari diren eraginarena ere.

1 A.2. HELBURUA:

PROSTITUZIOAN ARITZEN DIREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN ARRISKU EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, HAIEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Prostituzioan aritzen diren eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeei zuzendutako baliabideak egokitzea, haien baldintzak eta egoera hobetearren. Emakume horien premiak modu eraginkorrean betetzea lortu behar da, baliabideak egokituta eta genero-ikuspegitik begiratu-ta, premia larrienekotzat eta estrategikotzat hartutako arloetan banatuta, emakume horien ahal-duntze-prozesuak indartzearekin loturikoak barnean hartuta.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen berehalako premiekin loturik daude baldintzak, hala nola: baliabide ekonomiko-etarako, enplegurako, prestakuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako sarbidearekin. Egoera, aldiz, honako honekin loturik dago: gizartearen, politikaren eta informazioaren arloko baliabideetarako sarbidearekin; emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoeraren gainean kontzientziazteko baliabideetarako sarbidearekin; eta egoera hori agerian uztearekin.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Osasun Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Prostituzioan aritzen diren eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeraz zuzendutako baliabide berrien kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko baliabideetat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Baliabide ekonomikoetarako sarbidea hobetzera.
 - Enplegurako sarbidea hobetzera.
 - Etxebizitzarako sarbidea hobetzera.
 - Prestakuntzarako sarbidea hobetzera.
 - Kulturarako sarbidea hobetzera.
 - Osasunerako sarbidea hobetzera.
- Prostituzioan aritzen diren eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzera zuzendutako baliabide berrien kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko baliabideetat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Informaziorako sarbidera.
- Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea sustatzera.
- Autoantolaketa eta kontzientziazioa sustatzera.

1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Prostituzioaren arloan jarduteko plana egitea, garatu beharreko lan-ildoei buruzko orientazioa emateko.
- EAEn, sexu-esplotazioa helburu duen emakumezkoen salerosketaren ezaugarriak eta nondik norakoa aztertzea, eta salerosketa hori desagerrarazteko neurri espezifikoak eta koordinatuak antolatzea.
- Egun jasotzen dituzten laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
- Emakumeentzako orientazioko eta atsedeen hartzeko zentroak sortzea, baita beharrezko beste hainbat zerbitzu ere (ginekologia-osasuna).
- Prestakuntza-plana garatzea, nahi duten emakumei laneko orientazioa emateko eta haien ahalgintza-prozesua indartuko duten alderdiak txertatuta zeharkako moduan.
- Teknikarientzako prestakuntza-plana garatzea, emakume horien baldintzak eta egoera hobetzea ahalbidetuko duten programak diseinatzeko.

- Abiarazitako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita izaten ari diren eraginarena ere.

1 A.3. HELBURUA:

DROGA-MENDE-TASUN ARAZOAK IZANIK, GIZARTE BAZTERKETAREN ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, KOLEKTIBO HORIETAKO EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Droga-mendetasuna dutenekin tratamendua eta esku-hartzea egitera bideratutako baliabideetan eta programetan genero-ikuspegia integratzen aurrera egiten jarraitzea, pairatzen duten diskriminazio bikoitzak eraginda, emakumeen premia espezifikoetara gehiago egokitzearen, eta droga-mendetasun arazoak dituzten emakumeen eta gizonen errealitate ezberdinei arreta ematearren. Helburu horrekin honako hau lortu nahi dugu: dauden programak eta baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko, haien ahalduztzea indartzeko eta gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak neutralizatzeko.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen berehalako premiekin loturik daude baldintzak, hala nola: baliabide ekonomiko-etarako, enplegurako, prestakuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako sarbidearekin. Egoera, aldiz, honako honekin loturik dago: gizartearen, politikaren eta informazioaren arloko baliabideetarako sarbidearekin; emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoeraren gainean kontzientziatzeko baliabideetarako sarbidearekin; eta egoera hori agerian uztearekin.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Osasun Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Baliabide ekonomikoetarako sarbidea hobetzera.
- Enplegurako sarbidea hobetzera.
- Etxebizitzarako sarbidea hobetzera.
- Prestakuntzarako sarbidea hobetzera.
- Kulturarako sarbidea hobetzera.
- Osasunerako sarbidea hobetzera.

- Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan dauden emakumeen egoera hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Informaziorako sarbidera.
- Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea sustatzera.
- Autoantolaketa eta kontzientziazioa sustatzera.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Droga-mendetasunetan eragiten duten genero-rolekin loturiko faktoreak ikertzea.
- Tratamendu-programak egokitzea, droga-mendetasun arazoak dituzten eta askotariko diskriminazio-egoeran dauden emakumeen ezaugarri eta premia berezietara.
- Profesionalei prestakuntza ematea, baita parekoei eta osasun-eragileei ere.
- Mendetasuna gainditzeko tratamenduari ekin nahi dioten baina bizileku egonkorrik ez duten emakumeentzat, etxebizitza-aukera emateko baliabideak erabakitzea.
- Ikerketako, osasun-hezkuntzako eta prebentzioko proiektuetan genero-ikuspegia integratzea.
- Droga-mendetasunen inguruan antolatzen diren jardunaldietan, genero-ikuspegiak droga-mendetasunetan duen eraginari buruzko sentsibilizazio-programak egitea, eta egoera

horretan dauden emakumeei bereziki zuzendutako edo gizarte-arlokoagoak diren programak ere bai.

- Abiarazitako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita izaten ari diren eraginarena ere.

1 A.4. HELBURUA:

ASKATASUNIK GABEKO EGOERAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, KOLEKTIBO HORRETAKO EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Askatasunik gabe daudenekin tratamendua eta esku-hartzea egitera bideratutako baliabideetan eta programetan genero-ikuspegia integratzea. Emakume horiek pairatzen duten askotarikoko diskriminazioa aintzat hartu behar da, baita pairatzen duten babesgabetasun-maila handiagoa ere, haien eskubideen estigmatizazioaren, sakabanaketaren eta urraketaren aurrean, eta horren guztiaren ondorioz, gizarteratzeko aukera gutxiago izaten dute. Helburu horren bitartez honako hau lortu nahi dugu: dauden programak eta baliabideak egokitzea, askatasunik gabeko egoeran dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzearen; haien ahalduntzea indartzea eta gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak neutralizatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen berehalako premiekin loturik daude baldintzak, hala nola: baliabide ekonomikoetarako, enplegurako, prestakuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako sarbidearekin. Egoera, aldiz, honako honekin loturik dago: gizartearen, politikaren eta informazioaren arloko baliabideetarako sarbidearekin; emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoeraren gainean kontzientziatzeko baliabideetarako sarbidearekin; eta egoera hori agerian uztearekin.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Osasun Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Askatasunik gabeko egoeran dauden emakumeen baldintzak hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauetara bideratutakoak:

- Baliabide ekonomikoetarako sarbidea hobetzera.
- Enplegurako sarbidea hobetzera.
- Etxebizitzarako sarbidea hobetzera.
- Prestakuntzarako sarbidea hobetzera.
- Kulturarako sarbidea hobetzera.
- Osasunerako sarbidea hobetzera.

- Askatasunik gabeko egoeran dauden emakumeen egoera hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauetara bideratutakoak:

- Informaziorako sarbidera.
- Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea sustatzera.
- Autoantolaketa eta kontzientziazioa sustatzera.

1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Askatasunik gabe dauden emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea.
- EAEren eskumen-eremuan, preso dauden emakumeen sarbidea erraztea zerbitzu eta baliabide jakinetara –osasunaren, prestakuntzaren, lanaren, eta abarren arloko euren premiei erantzuteko–, berriz gizarteratzeko lagungarri izanik.
- Askatasunik gabeko aldia amaitu duten emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomiko en estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
- Emakume presoen amatasun-eskubideak babestea.

- Agintari eskudunei gomendioak egitea espetxeak emakumeen premietara egokitzea ahalbidezko araudiak garatzeari buruz, eta gerta daitezkeen zeharkako diskriminazioen aurrean, mekanismo zuzentzaileak ezar ditzaten.
- Gizarte-ekintzako arloetako diru-laguntzen barruan, askatasunik gabeko egoeran dauden edo preso egon diren emakumeei zuzendutako programak lehenestea, betiere helburua emakume horien baldintzak eta egoera hobetzea izanik, ahalduntzearekin eta gizarteko parte-hartzea indartzearekin loturiko estrategien bitartez.
- Gizarteratze-prozesuan dauden emakumeentzako laguntzen estaldura aztertzea, baliabide osagarriak sortu behar ote diren balioesteko.
- Abiarazitako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita izaten ari diren eraginarena ere.

1 A.5. HELBURUA:

ETORKINAK IZANIK, GIZARTE BAZTERKETAREN ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, KOLEKTIBO HORIETAKO EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOE-RA HOBETZEARREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Bazterketa-arriskuan dauden etorkinei arreta emateko kudeatzen diren baliabideetan eta programetan genero-ikuspegia integratzen aurrera egitea, kolektibo horietako emakumeek pairatzen duten diskriminazio bikoitzari –etorkin izateagatik, eta emakume izateagatik– aurre egiteko.

Azken urteotan, migrazio-fenomenoaren protagonista gizonezkoak, gehienbat, zirelako ideia aldatu egin da, eta migrazio-proiektuaren protagonista aktibo izaki, emakume etorkinen errealitate espezifikoak ageriago geratu dira. Emakume etorkin horien errealitate espezifikoa aintzat hartzea eta ikusaraztea ezinbestekoa da, pobreziaren, indarkeriaren, bakartzearen eta abarren aurrean duten babesgabetasun-maila handiagoa baita. Urrakortasun handiko egoeran dauden emakume etorkinei begirako helburua da. Helburu horren bitartez honako hau lortu nahi dugu: eremu horretako programak eta baliabideak egokitzea, emakume horien baldintzak eta egoera hobetearren; haien ahalduntzea indartzea eta gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak neutralizatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen berehalako premiekin loturik daude baldintzak, hala nola: baliabide ekonomiko-
etarako, enplegurako, prestakuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako sarbidearekin. Egoera,
aldiz, honako honekin loturik dago: gizartearen, politikaren eta informazioaren arloko bali-
bideetarako sarbidearekin; emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoeraren gainean kon-
tzentziazteko baliabideetarako sarbidearekin; eta egoera hori agerian uztearekin.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Osasun Saila.
- Kultura Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Bazterketa-arriskuan dauden emakume etorkinen baldintzak hobetzeko egokitutako bali-
bideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko baliabidetza hartuko ditugu
honako hauek bideratutakoak:

- Baliabide ekonomikoetarako sarbidea hobetzera.
- Enplegurako sarbidea hobetzera.
- Etxebizitzarako sarbidea hobetzera.
- Prestakuntzarako sarbidea hobetzera.
- Kulturarako sarbidea hobetzera.
- Osasunerako sarbidea hobetzera.

- Bazterketa-arriskuan dauden emakume etorkinen egoera hobetzeko berregokitutako bali-
bideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko baliabidetza hartuko ditugu hona-
ko hauek bideratutakoak:

- Informaziorako sarbidera.
- Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea sustatzera.
- Autoantolaketa eta kontzientziazioa sustatzera.

1A.5. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Emakume etorkinen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea, bazterketaren aurrean kalteberago egiten dituzten faktoreetan eraginda, eta kolektibo horiekin lan egiten duten administrazioen eta erakundeen jardunak orientatzeko neurriak eta jarraibideak ezarrita.
- Egun jasotzen dituzten etxebizitzaren eta ekonomiaren arloko laguntza eta baliabideen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
- Baliabide publikoetarako (osasun-laguntza, hezkuntza, lanerako prestakuntza, etxebizitzarako sarbidea) sarbidea bultzatzea.
- Etorkinei arreta emateko zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzea.
- Prestakuntza-ekintzak garatzea, egoera horretan dauden emakumeen autoantolakuntza eta ahalduntze-prozesua indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze alderia.
- Abiarazitako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita izaten ari diren eraginarena ere.

1A.6. HELBURUA:

EZINDUAK IZANIK, GIZARTE BAZTERKETAREN ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, KOLEKTIBO HORIETAKO EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Ezinduekin tratamendua eta esku-hartzea egitera bideratutako baliabideetan eta programetan genero-ikuspegia integratzen aurrera egitea, kolektibo horren barruan diskriminazio bikoitza –ezindu eta emakume izateagatik– pairatzen duten emakumeak aintzat hartzeko. Eta horregatik guztiagatik bizi dute babesgabetasun-maila handiagoa, pobrezia, indarkeriaren, bakartzearen, informaziorako baliabide ezaren eta abarren aurrean, eta horren ondorioz, bazterketa-arrisku handiagoa izaten dute. Helburu horren bitartez honako hau lortu nahi dugu: dauden programak eta baliabideak egokitzea, ezintasunen bat duten eta urrakortasun-egoe-

ran dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzarren; haien ahalduntzea indartzea eta gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak neutralizatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen berehalako premiekin loturik daude baldintzak, hala nola: baliabide ekonomiko-etarako, enplegurako, prestakuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako sarbidearekin. Egoera, aldiz, honako honekin loturik dago: gizartearen, politikaren eta informazioaren arloko baliabideetarako sarbidearekin; emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoeraren gainean kontzientziazteko baliabideetarako sarbidearekin; eta egoera hori agerian uztearekin.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Osasun Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Bazterketa-arriskuan dauden emakume ezinduen baldintzak hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko baliabidetza hartuko ditugu honako hauetara bideratutakoak:

- Baliabide ekonomikoetarako sarbidea hobetzera.
- Enplegurako sarbidea hobetzera.
- Etxebizitzarako sarbidea hobetzera.
- Prestakuntzarako sarbidea hobetzera.
- Kulturarako sarbidea hobetzera.
- Osasunerako sarbidea hobetzera.

- Bazterketa-arriskuan dauden emakume ezinduen egoera hobetzeko egokitutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko baliabidetza hartuko ditugu honako hauetara bideratutakoak:

- Informaziorako sarbidera.

- Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea sustatzera.
- Autoantolaketa eta kontzientziazioa sustatzera.

1A.6. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Ezintasun funtzionala, fisikoa edo psikologikoa duten emakumeen errealitate zehatza aztertzea, baita gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktore espezifikoak ere.
- Jasotzen dituzten laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
- Emakume horien premia espezifikoetara egokitutako etxebizitzarako sarbidea izango dutela zaintzea.
- Ezinduekin lan egiten dutenei prestakuntza ematea, genero-ikuspegitik begiratuta, emakume ezinduen baldintzak eta egoera hobetzeko programak diseina eta planifika ditzaten.
- Herritarrei zuzendutako informazio-kanpainak egitea, ezintasunen bat duten emakumeen irudi barne-hartzaileak eta ez-estereotipatuak sortzeko.
- Sare asoziatiboen sorrera ahalbidetzea.
- Abiarazitako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita izaten ari diren eraginarena ere.

1A.7. HELBURUA:

ADINEKOAK IZANIK, GIZARTE BAZTERKETAREN ARRISKUAN DAUDENEI ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK EGOKITZEA, KOLEKTIBO HORRETAKO EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEARREN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Adinekoekin tratamendua eta esku-hartzea egitera bideratutako baliabideetan eta programe-tan genero-ikuspegia integratzea, kolektiboko emakumeen premia espezifikoari arreta emateko eta horiek betetzeko. Emakumeen bizi-itxaropena luzeagoa denez, adinekoen barruan emakumeen proportzioa handiagoa da. Adin-tarte horretako emakumeen diskriminazio bikoitza

pairatzen dute, adin jakin batera heltzen diren herritarrek izaten dituzten zailtasunengatik, eta emakume izateagatik. Helburu horrekin honako hau lortu nahi dugu: programak eta baliabideak egokitzea kolektibo horretako emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko, eta gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak neutralizatzeko.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen berehalako premiekin loturik daude baldintzak, hala nola: baliabide ekonomiko-etarako, enplegurako, prestakuntzarako, kulturarako, etxebizitzarako sarbidearekin. Egoera, aldiz, honako honekin loturik dago: gizartearen, politikaren eta informazioaren arloko baliabideetarako sarbidearekin; emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoeraren gainean kontzientziatzeko baliabideetarako sarbidearekin; eta egoera hori agerian uztearekin.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Osasun Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Gizarte-bazterketaren arriskuan dauden adineko emakumeen baldintzak hobetzeko egokিতutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Baliabide ekonomikoetarako sarbidea hobetzera.
- Etxebizitzarako sarbidea hobetzera.
- Prestakuntzarako sarbidea hobetzera.
- Kulturarako sarbidea hobetzera.
- Osasunerako sarbidea hobetzera.

- Gizarte-bazterketaren arriskuan dauden adineko emakumeen egoera hobetzeko egokিতutako baliabideen kopurua.

Egoera horretan dauden emakumeen egoera hobetzeko baliabidetzat hartuko ditugu honako hauek bideratutakoak:

- Informaziorako sarbidera.
- Gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea sustatzera.
- Autoantolaketa eta kontzientziazioa sustatzera.

1A.7. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Hirugarren eta laugarren adineko emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea, baita gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak ere.
- Jasotzen dituzten laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
- Teknikariei (gizarte-zerbitzutakoei, osasun-langileei...) prestakuntza ematea genero-ikuspengia txerta dezaten.
- Adineko emakumeekin egindako lanean, autozaintza eta ahalduntzea –banakakoa eta kolektiboa– indartzeko jardunak sartzera, haien interesak eta premiak bideratzeko modutzat autoantolaketa bultzatuta.
- Abiarazitako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita izaten ari diren eraginarena ere.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B–:

AUTONOMIA FUNTZIONALIK EZ DUTENEI ARRETA EMATEKO BALIABIDE SOZIOKOMUNITARIOAK

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

49. artikulua.– Erkidegoarentzako zerbitzu soziokomunitarioak.

1. Euskal herri-administrazioek zerbitzu eskuragarriak, malguak, kalitatekoak eta erraz lortzekoak ezarri behar dituzte, hain zuzen ere, autonomia funtzional nahikoa ez izatearen ondo-

rioz eguneroko bizitzako jardunerako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen arreta-beharriaz erantzuteko.

7. Euskal herri-administrazioek atsedena eskaintzeko programak eta laguntza ekonomiko, tekniko eta psikosoziala emateko beste neurri eta zerbitzu batzuk ezarriko dituzte zaintza-lanak betetzen dituzten pertsonentzat; eta aztertu eta, hala badagokio, bultzatu egingo dituzte norbanakoen artean pertsonak zaintzen elkarri laguntzeko sor daitezkeen ekimenak eta formulak.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Autonomiarik ez dutenak zaintzeko baliabide soziokomunitarioak gehitu diren arren, gaur egun oraindik ere, zaintza horren erantzukizuna familia-sareak hartzen du bere gain, eta gehienbat emakumeek. Datuen arabera, zaintzaileen %84 emakumeak dira. Horrek guztiak badu arrazoa: lana sexuaren arabera banatzen da, eta generoan oinarrituta eraikitako gizarte bizi garenez, inoren laguntza behar dutenak zaintzeko zeregina “modu naturalean” emakumei esleitzen zaie.

Autonomiarik ez dutenak zaintzeko lana etxeko eremuan garatzen da, eta horregatik, gizarte bizi ikusten ez den lana da, lan hori egiten dutenengan sortzen duen zama ekonomikoa, psikologikoa eta gizarte-arlokoa ahaztuta. Zaintza-lanetan aritzen diren emakumeek denbora gehiena zeregin horretan ematen dute; hortaz, lanbidean, aisialdian eta gizarte-harremanetan garatzeko kalte nabarmena jasaten dute. Hori dela-eta, zama psikologiko astunak eragiten dituzte askotan, izan ere, gizarteak esleitutako rolari jarraiki, emakumeek egiten baitituzte lan horiek, beren denborari eta itxaropenei uko eginez, eta errudun-sentimendu handiarekin bizi dute beren denbora.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1B.1. HELBURUA:

Zaintzako lanetan aritzen direnen gizarte-arloko zama, eta zama ekonomikoa eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea.

1 B. 1 . HELBURUA:

ZAINZAKO LANETAN ARITZEN DIRENEN GIZARTE ARLOKO ZAMA, ETA ZAMA EKONOMIKOA ETA PSIKOLOGIKOA MURRIZTEKO BALIABIDEAK AREAGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Autonomia funtzionalik ez dutenak zaintzen dituzten lagunen –gehienbat, emakumeen– zama ekonomikoak, psikologikoak eta gizarte-arlokoak murrizteko baliabide publikoak gehitzea, eta emakumeek egin izan duten ohiko zaintzaren ordezkotako formula berritzaileak bilatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloak izango dira jardunen ardatz, gizarte-zerbitzuetako eremuan baliabideak areagotzea aipatzen baita.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Autonomia funtzionalik ez dutenak zaintzen dituzten emakumeen zama ekonomikoa, psikologikoa eta gizarte-arlokoa murrizteko, administrazioetako gizarte-ekintzako arloek bideratutako baliabideen kopurua.
- Egoitzen, zentroen, tokien, erabiltzaileen, langileen eta gastuaren kopurua, herri motaren, lurralde historikoaren eta titulartasunaren arabera.
- Gastu arrunta, herri motaren, lurralde historikoaren eta titulartasunaren arabera.

1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategian honako hauek lortzera zuzendutako jardunak sartzen dira:

- Euskadin, eremu pribatuan zaintza zenbateraino heltzen den aztertzea.
- Autonomia funtzionalik ez dutenen emakumezko zaintzaile informalek jasaten duten zama ekonomikoa, psikologikoa eta gizarte-arlokoa aztertzea.

- Oinarrizko gizarte-zerbitzuetako langileei prestakuntza ematea, generoan oinarritutako gizarte-eraikuntzak “zaintzaile-rolan” eta zama ekonomiko, psikologiko eta gizarte-arlokoetan duen eragin zuzenari dagokionez, eta autonomia funtzionalik ez dutenak artatzen dituzten emakumeen sindrome berriei (“burn out” sindromea) dagokienez.
- Emakumeek egin izan duten ohiko zaintzaren ordezkotako formula berritzaileak bilatzea, baita zama horiek arintzearen, administrazioetatik baliabideak sortzea ere.
- Bideratutako baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, horien eragina, estaldura eta eraginkortasuna neurtuta.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 1 I –:

ETXEKO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN, PREBENTZIOA ETA ARRETA HOBETZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

51. artikulua.– *Ikerketa*

1. Euskal herri-administrazioek emakumeen aurkako indarkeria-mota ezberdinen arrazoiak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak iker daitezen sustatuko dute. Era berean, indarkeria horiek erauzteko eta horien ondorioak konpontzeko aplikatzen diren neurrien eraginkortasuna iker dadin ere bultzatuko dute.

2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aldian-aldian ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena. Horretarako, inplikaturik dauden gainerako euskal herri-administrazioek informazioa emango diote beren ardurapean dituzten baliabideei eta programei buruz.

3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurreko paragrafoan aipatutako ebaluazioaren berri emango dio Eusko Legebiltzarrari.

52. artikulua.– Prebentzioa

Lege honetan jasota dauden gainerako neurri prebentiboak kontuan izan behar badira ere, euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan eta modu koordinatuan, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko.

53. artikulua.– Prestakuntza

1. Euskal herri-administrazioetan langileak prestatzeko eskumena duten erakundeek, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan, emakumearen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzen duten langileek prestakuntzaren arloan dituzten beharrezkoen diagnostikoa egin behar dute, eta aldian-aldian eguneratu; eta diagnostiko horren arabera profesional-taldeek dituzten beharrezkoen egokitzeko prestakuntza-programak jarriko dira abian.

2. Euskal herri-administrazioek, betiere, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen eta ezabatzen eta biktimak zaintzen eta haiei laguntzen diharduten erakunde pribatuetako langileek prestakuntza jaso dezaten lagunduko dute.

57. artikulua.- Harrera-pisuak eta larrialdietarako zerbitzuak

1. Foru- eta toki-administrazioek, beren eskumenen eremuan, etxeko tratatu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premiei erantzuteko harrera-baliabide nahikoak izango direla bermatuko dute.

2. 20.000 biztanletik gorako udalerri guztiek eta kopuru hori gainditzen duten mankomunitateek (erata daudenek edo sortuko direnek) harrera-etxeak izan behar dituzte, etxeko tratatu txarren biktimek dituzten aldi baterako babes- eta bizileku-premia larriei erantzuteko.

3. Euskal herri-administrazio eskudunek hau bermatuko dute: lurralde historiko bakoitzean harrera berehala egiteko gizarte-zerbitzu bana egongo dela gutxienez. Zerbitzu horrek urte osoan eguneko 24 orduetan lan egingo du, eta gutxienez ondoko ezaugarriak beteko ditu:

a) Etxeko tratatu txarren edozein biktimaren eskura egotea, biktima horiek urgentziaz eta aldi baterako babes- eta bizilekua behar badute, beren egoera pertsonala, juridikoa edo soziala edozein dela ere.

b) Pertsonal espezializatu nahikoa izatea lehenengo arreta psikosoziala eskaintzeko, eta biktimei osasun-zentroetara, polizia-bulegoetara edo lehen momentuan beharrezkotzat jotzen diren beste zenbait lekutara laguntzeko.

c) Biktimen nahiz zerbitzuko langileen osotasun fisikoa babesteko beharrezkoak diren segurtasun-baldintzak izatea.

d) Zubi-lana egitea existitzen diren beste gizarte- eta harrera-baliabideetara iritsi ahal izateko.

4. Autonomia Erkidegoko Administrazioak erregelamenduz ezarriko ditu aurreko hiru paragrafoetan aipatutako harrera-baliabideek, kalitateari eta funtzionamenduari dagokionez, bete beharreko gutxieneko irizpide eta baldintzak. Erregelamendu horrek, betiere, ondokoa bermatzeko neurriak jaso behar ditu:

a) Aldi baterako babes- eta bizileku-premia larria duten biktimek, beste edonora ezin badute jo, harrera-baliabideetara jo ahal izatea, biktima horien egoera pertsonal eta soziala edozein dela ere.

b) Harrera-baliabideen ardura duten erakundeen artean koordinazioa egotea, bai eta erakunde horien eta etxeko tratu txarren biktimentzat dauden gainerako zerbitzuen eta baliabideen artean ere.

c) Mugikortasun geografikoa: horrela, segurtasun arrazoiak direla-eta beren udalerrira utzi behar duten eta utzi nahi duten emakumeek beste udalerrira batzuetan dauden harrera-pisuetara jo ahal izan dezaten.

d) Segurtasun-neurriak eta biktimei laguntzeko eta sostengua eskaintzeko zerbitzuak egotea, emakume horiek harrera-etxeetan dauden bitartean.

54. artikulua.– Poliziaren babesa

Euskal herri-administrazio eskudunek prestakuntza espezializatua eman behar diete emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko eta babesa emateko dauden poliziako kideei. Era berean, beharrezko prestakuntza eta baliabideak emango dizkiete euskal poliziei emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzerakoan eraginkortasunik handiena lortze aldera, eta, bereziki, etxeko tratu txarren biktima direnen babeserako onartzen diren neurri judizialen betearazteari eta kontrolari dagokionez. Horren guztiorren helburua, hain zuzen, biktimen segurtasuna bermatzea eta biktima horiek, beren borondatearen aurka, beren etxebizitzak utzi behar izatea saihestea da.

55. artikulua.– Laguntza juridikoa

Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek beharrezko neurriak jarri behar dituzte etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituztenek laguntza juridiko espezializatua, doanekoa, berehalakoa, integrala eta eskuerakoa izan dezaten. Laguntza horren barruan sartuko da prozesu penaletan akusazioa aurrera eramatea, eta, banaketa-, deuseztasun- eta dibortzio-kasuetan demanda zibilararen aurretik behin-behineko neurriak hartzeko eskatzea, edo izatezko elkar-teen kasuan kautelazko neurriak hartzeko eskatzea.

56. artikulua.– Laguntza psikologikoa

1.– Euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan, laguntza juridiko eta psikologiko urgentea, doanekoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuerakoa bermatu behar diete jazarpen sexistaren biktima direnei.

2.– Autonomia Erkidegoko Administrazioak beharrezko bitarteko pertsonalak eta materialak ezarri behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegietan eta auzitegietan peritu bidezko froga psikologikoak egin ahal izan daitezen, froga horiek beharrezkotzat jotzen badira etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen existentzia eta larritasuna egiaztatzeko.

62. artikulua.– Erakundeen arteko koordinazioa

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak gai honetan eskumenak dituzten gainerako euskal herri-administrazioekin erakunde arteko lankidetzak-akordioak egin daitezen sustatuko du; horrela, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diren kasuetan, erantzuna koordinatua eta eraginkorra izango da, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatuko zaie. Era berean, gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzarako bideak bilatu beharko dira.

2. Lankidetzak-akordio horietan, Autonomia Erkidego osorako homogeneousak izango diren jarduketak-irizpideak edo -protokoloak finkatuko dira, era horretako kasuetan dihardutenei zuzenduak. Gainera, mekanismo batzuk ezarriko dira akordiotan, aldeek konpromisoak betetzen dituzten jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.

3. Foru- eta toki-administrazioek zera bultzatuko dute: aurreko bi paragrafoetan aipatutako akordioak eta protokoloak garatu, zehaztu eta administrazio bakoitzaren errealitateara egokitu dituzten lankidetzak-akordioak eta protokoloak har daitezela beren lurralde-eremuan.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak dira emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenetatik larrienetakoa. Indarkeria horren erroa emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desoreka da, eta gaur egun desoreka horri eusten zaion arren, gizarte-bizitzaren alderdi guztietan berdintasuna lortzeko lan egin behar da desoreka hori desagerrarazi nahi badugu.

Hala ere, gertakariak hain dira garrantzitsuak eta etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen kasuak hain dira larriak, ezen ezinbestekoa baita premiazko jardun koordinatua gauzatzea biktima horiei asistentzia eta babes eraginkorra eskaintzeko. 2004. urtean, EAEn, emakumeen aurkako indarkeriaren eta tratu txarren kasuen ondoriozko delituek eta hutsegiteek eragindako salaketetatik 2.704 kasu (biktimizazio) atera ziren, 2.408 emakume (biktima) eraginpean hartuta.

Halaber, tratu txarren inguruan dauden datuak "icebergaren tontorra" baino ez direla nabarmena da. Gutxi gorabehera, etxeko erasoak %85 ez da salatzen, eta batez beste, tratu txarren egoerak 10 urtez luzatzen dira, biktimak zerbait egitea erabaki aurretik. Horri gagozkio- la, badira arrisku handiagoko zenbait egoera; esate baterako, ezintasunen bat duten eta/edo etorkinak diren emakumeek arrisku- edo babesgabetasun-arrisku handiagoa dute sexu-erasoen eta tratu txarren aurrean. Hori dela-eta, behar-beharrezkoa da indarkeria-zikloa goiz atzema- tea eta indarkeria-egoerak pairatzen dituzten emakumeei laguntzeko gizarte-sarea hedatzea, baina, betiere, diskriminazio bikoitza jasaten duten emakumeen babesgabetasun-maila han- diagoa neutralizatzeko neurriak erabaki behar direla kontuan izanik.

Bestalde, biktimei emandako arreta hobetzen jarraitu behar da. Egia da asko aurreratu dela erakundeen arteko koordinazioari dagokionez, eta tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako lane- an tartean sartutako eragile guztientzako jarraibide zehatzak ezartzeari dagokionez; hori guz- tiori erakundeen arteko akordioen bitartez, tokiko jardun-protokoloen bitartez, eta programa operatiboaren bitartez; hala ere, administrazio guztiek inplikatu behar dute oraindik ere koordi- nazio-mekanismo horiek abiarazteko, mekanismo horiek ezartzen dituzten udalerrien kopurua handituta eta adostutako neurriak modu eraginkorrean gauzatuta.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

11.1. HELBURUA:

Indarkeria-zikloa goiz atzematen diren kasuak areagotzea.

11.2. HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koor- dinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarrita, EAEko udalerrietan.

11.3. HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei harrera emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" jasotako neurriak ezarri eta eten- gabe hobetzen direla bermatuta.

11.1. HELBURUA:

INDARKERIA-ZIKLOA GOIZ ATZEMATEN DIREN KASUAK AREAGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Etzeko indarkeriaren zikloa goiz atzematea eta aurreragoko faseen garapenari aurrea hartzea helburu izango duen esku-hartze ildo bati ekitea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Plan honi dagokionez, goiz atzematea honako honi esaten diogu: indarkeriaren hasierako faseetan esku hartzen duten faktoreak (ahozko indarkeria eta indarkeria psikologikoa) neutralizatzea, bigarren fasean sartzea (indarkeria fisikoa) saihestearren.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- Herrizaingo Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Osasun Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Emakunde.
- Foru Aldundiak.
- EUEDEL.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Goiz atzemateko prebentzio-jardunen ondorioz atzemandako indarkeria-kasuen kopurua.

11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako esku-hartze estrategiak bi ardatz izango ditu: alde batetik, indarkeria-zikloa goiz atzemateko jardunak indartzea, biktima izan daitezkeenei nahiz erasotzaileei zuzenduta. Bestetik, oro har, gizarte osoaren, eta zehazkiago, gizarte-taldeek inplikazioa lortzeko jardunak, goiz atzemateko prozesuan laguntza-eragile informal izan daitezen.

11.2. HELBURUA:

TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMEI ARRETA, ASISTENTZIA ETA BABESA EMATEKO ESKAEREI KOORDINAZIOAREN, KALITATEAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN IRIZPIDEEN ARABERA ERANTZUTEA, ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN JARDUTEKO TOKIKO PROTOKOLOAK EZARRITA, EAEko UDALERRIETAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetan, arreta, asistentzia eta babesa emateko jarduna modu koordinatuan eta eraginkorrean gauzatzea, eta biktimei asistentzia integrala, eraginkorra eta kalitatezkoa bermatzea, zeregin horretan eskumena duten eragile guztiak koordinatuta. Horretarako, tokiko protokoloa baduten EAEko udalerrien egungo kopurua handitzea lortu nahi dugu, egun hiru baitira.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta eta babesa ematen tartean sartutako administrazioak eta erakundeak dira jardun horren xede, baita "etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak" ezartzeko tresna ere. Hala ere, esku-hartze berean eragina izan dezaketen udalerriaz gaindiko beste protokoloak ere kontuan izan beharko dira tokiko protokolo horietan.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
- Herrizaingo Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Osasun Saila.
- Emakunde.
- Foru Aldundiak.
- EUDEL.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarri dituzten udalerrien kopurua.
- Protokoloak aplikatzen tartean sartutako erakundeen kopurua.

11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Helburua lortzeko gomendatutako esku-hartze estrategian sartzen dira honako hauek lortzera bideratutako jardunak:

- Tokiko protokoloak ezartzeko udalek izaten dituzten eragozpenak aztertzea.
- Udalei baliabideak ematea, ezar ditzaten.
- Protokoloak abiarazteko topaketak egitea eta gidak osatzea.
- Ezarpenean tartean sartutako erakundeen artean jarraipenerako, hobekuntzarako eta koordinaziorako mekanismoak ezartzea.

11.3. HELBURUA:

TRATU TXARREN ETA SEXU ERASOEN BIKTIMEI HARRERA EMATEKO ESKAEREI KOORDINAZIOAREN, KALITATEAREN ETA ERAGINKORTASUNAREN IRIZPIDEEN ARABERA ERANTZUTEA, "ETXEKO TRATU TXARREN BIKTIMEI HARRERA ETA ETXEBIZITZA EMATEKO BALIABIDEAK HOBETZEKO PROGRAMAN" JASOTAKO NEURRIAK EZARRI ETA ETENGABE HOBETZEN DIRELA BERMATUTA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Harrera emateko baliabideei dagokienez, Erakunde arteko Akordioaren Jarraipenerako Batzordeak onartutako "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" hartutako neurriak garatzen direla bermatzea. Halaber, programa hori etengabe hobetu behar da, eta eraginkortasunaren eta koordinazioaren jarraipena egin.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Harrera emateko baliabideak izango dira jardun-eremua, betiere etxebizitzarekin loturiko baliabideak Plan honen Hirigintza eta Ingurumen arloan garatutako indarkeriaren aurkako programaren barruan kudeatuta.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Osasun Saila.

- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- “Etxeko tratu txarren kasuetan harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programatik” ezarri diren neurrien kopurua.
- Neurriak ezarri dituzten erakundeen kopurua.

11.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

Helburua lortzeko gomendatutako esku-hartze estrategian sartzen dira honako hauek lortzera bideratutako jardunak:

- Erakunde arteko Akordioaren Jarraipenerako Batzordeak onarturiko “Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan” erabakitako neurriak egiaz ezartzen direla egiaztatzea.
- Programa etengabe hobetzea.
- Indarkeriaren biktima izanik, harrera emateko ohiko baliabideek ematen dutena baino gizarte-babes handiagoa (ezintasun handiak dituzten emakumeak, toxikomaniarekin edo osasun mentalekin loturiko arazoak dituztenak...) behar duten emakumeei harrera emateko baliabide espezifikoak sortzea.
- Harrera-etxebizitzetan irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko baliabideak areagotzea, baita lagun egiteko eta babesa emateko zerbitzuez hornitzeko baliabideak ere.
- Profesionalak espezializatzeko prestakuntza-programak egitea.
- Tartean sartutako erakundeen artean koordinaziorako eta jarraipenerako mekanismoak ezartzea.

6.5

OSASUNAREN ARLOA



SARRERA

Bizi-kalitatearen adierazle nagusietako bat da osasuna, betiere ikuspegi integraletik begiratu eta, elementu biologizistarekin batera, psikologiaren, gizartearen eta kulturaren arloko alderdiak ere barnean hartuta. Bestetan bezalaxe, eremu horretan ere atzeman daitezke hainbat genero-joera; hain zuzen ere, ohiko moduan, emakumeen arazoek, premiek eta itxaropenek medikuntzan izan duten presentzia txikiagorekin loturiko joerak, baita emakumeen osasun-baliabideen erabilera ezberdinarekin, autozaintzako praktika ezberdinekin eta arrisku-jokabide ezberdinekin loturikoak ere. Beraz, dauden desorekak ezabatzeraz bideratu dugu osasunaren arloko jarduna.

MAINSTREAMINGA

Osasun-arazo askok emakumeei soilik eragiten diete edo emakumeengan bestelako eragina dute. Hori horrela izanik, emakumeen eta gizonen premia eta itxaropen ezberdinak kontuan hartu behar dira osasun-politika guztietan, zerbitzu soziokomunitarioak egokituta bereziki emakumeei zuzendutako osasuna sustatzeko eta prebentzioko neurriak hartzeko, eta genero-ikuspegia integratzeko herritar orori zuzendutako osasun-sistemaren jardunak planifikatu eta ezartzean. Legeari jarraiki, “berdintasuna bermatu behar da osasunarekin zerikusia duen ikerkuntzan eta arretan, eta azterketa, eztabaida eta kontzientziazioa suspertu behar da profesionalen, erabiltzaileen eta osasun-sistemeekin zerikusia duten eragileen artean osasun-sisteman emakumeek eta gizonek dituzten desberdintasunei buruz”.

Osasunaren arloan mainstreaminga, oro har, eta Legean xedaturiko helburuak, zehazki, ezartzeko, osasun-erakundearen planifikazioa, garapena eta emaitzak baldintzatzen dituzten prozesuek izan behar dute jardunaren ardatz, eta horrela, profesionalen eta erabiltzaileen kontzientziazioarekin lotura zuzenena duen faktorean eragingo dugu, ikerketa eta arreta sustatzearekin batera. Hain justu, praktika klinikoaren gidetan nahiz prozedura administratiboetan jasotako administrazioaren nahiz osasunaren arloko prozesuak berrikusi eta berriz diseinatzean, genero-ikuspegia txertatzeari lehentasuna eman behar zaio; hartara, osasun-jardunen eguneroko funtzionamendua planifikatzeko garaian emakumeen premiak aintzat hartuko dira.

Bestalde, eremu horretan genero-ikuspegia txertatzeak zera dakar: emakumeengan soilik edo gehienbat eragiten duten osasun-arazo eta gaixotasun espezifikoak hobeto aurre egitea, Legearen 44. artikuluan xedatzen denez; izan ere, honako hau ezartzen da artikuluan horretan: “emakumeei osasuna hobetzen lagundu behar zaie beren bizitza osoan; arreta berezia eskainiko zaie, orobat, emakumeengan eragin handiena duten osasun-arazoei”. Ezinezkoa denez helburu horri aurre egitea emakumeei bereziki eragiten dieten gaixotasun guztiekin, lehentasunezko zatitakoak hartu dira, dela larritasunagatik eta kopuruagatik, dela generoan oinarritutako gizarte-erakuntzak zeharo baldintzatzen dituelako: bularreko minbizia, garuneko gaixotasun baskularrak eta gaixotasun kardiobaskularrak eta elikadura-nahasteak.

AHALDUNTZEA

Emakumeak ahalduntzeko osasunaren arlotik egin daitekeen ekarpen garrantzitsuena honako hau da: emakumeek beren gorputzarekiko hartzen dituzten erabakiekiko eta dituzten iritzieki-ko –alegia, kontrolarekiko– errespetu-maila areagotzea osasun-erakundeen aldetik, norberaren osasunaren kudeaketan emakumeen autonomia indartuta, betiere informazioko eta orientazio-ko prozesu egokia abiapuntu izanik. Bizitzaren ziklo osoan, ugalketa-osasuna du ardatz jardun-programa horrek, hori baita emakumeei soilik eragiten dien osasunaren eremuetako bat, eta beraz, jardunaren ardatz izateko aukera gehien dituen. Zehatz-mehatz, honako hau lortu nahi dugu: oro har, antisorgailuetarako eta, bereziki, preserbatiboetarako irisgarritasuna eta horien erabilera areagotzea, nahi gabeko haurdunaldien kopurua gutxitu dadin, batik bat, nerabeen artean, eta behar izanez gero, koitoaren ondorengo eteterako eta Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako (HBE) irisgarritasuna erraztea. Horretaz gain, autozaintza areagotzea funtsezkoa da, baita emakumeen gogobetetze-maila igotzea ere, toko-ginekologian jasotako zerbitzuei dagokienez, bai ugalketa-ziklo osoan izandako arretaren aldetik, bai modu espezi-fikoan haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan. Erditzearekin loturik, honako hau ere proposatu da: kasu bakoitzean emakumeen iritzia kontuan izanik, egindako zesarreen eta epi-siotomien kopurua murrizteko joera hartzea, behar-beharrezkoak diren kasuetan soilik egin daitezkeen lortzeko.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Gure gizartean emakumeek funtsezko eginkizuna betetzen dute familiaren eta inguruko jende-aren mantenuan eta zaintzan; osasunaren eremutik, norberaren, familiaren eta lan-arloko bizi-tza bateragarri egiteko osasun-zerbitzuak egoki daitezke. Baina horretarako bi jardunbide ireki behar dira:

Lehen, osasun-arazoak dituztenei arreta ematen dieten zerbitzuak egokitzea eta garatzea, Legearen 44. artikuluan adierazten denari jarraiki, non ezinbestekotzat jotzen den “osasun-arazoak dituzten pertsonak zaindu beharrak –ordaindu gabe eta gehienbat emakumeek zaindu ere– etxeetan eragiten duen karga arintzea”. Emakumeek osasun-zaintzaile gisa betetzen duten rola inguruko gizarte-eztabaida sustatu behar da, eta zehazkiago, gaixoak zaintze-ko azken aldiko joera berriak (etxean ospitaleratzeak) emakumeen bizitzan eta lanean duen eraginaren inguruko eztabaida. Zaintza behar bai, baina ospitaleratu behar ez duten gaixo-en finantziaziorako eta kudeaketarako erakundeen arteko akordioa sustatzea da kontua, behar diren laguntza-mekanismoak ezarrita.

Bigarrena, gizarte- eta osasun-zerbitzuen ordutegiak malgutzea, norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko positiboa izango baita.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Osasunaren eremutik, emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko honako hau egin dezakegu: etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei arreta koordinatua eta eraginkorra eskaintzea, arreta hori emakume-kolektibo guztien (landa-eremukoak, etorkinak, adinekoak, ezin-duak, edo egokitzen jotako beste edozein kolektibo) premia espezifikotara egokitzeko ahalegina eginda. Bada Erakundeen arteko Akordio bat non arreta hobetzeko zenbait neurri definitzen diren; hortaz, dagoeneko baden protokoloko osasun-atalaren hobekuntza indartzea eta berrikustea estrategikoa izan daiteke, indarrak bikoiztea saihesteko eta planifikazioen arteko sinergia positiboak sor daitezen sustatzeko.

PROGRAMEN ETA HELBURUEN ZERRENDA

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA –1M–:

OSASUN SISTEMAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

1M.1. HELBURUA:

Dauden praktika klinikoan gidak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak –iker-keta-fasetik hasi, eta osasun-sistema publikoan aplikatzeko faseraino–.

1M.2. HELBURUA:

Dauden prozedura administratiboak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak, fase guztietan: diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.

2. MAINSTREAMING PROGRAMA –2M–:

EMAKUMEEI BEREZIKI ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNEI AURRE EGITEAN HOBETZEA

2M.1. HELBURUA:

Bularreko minbiziaren prebentzio-jardueratan parte hartzen duten emakumeen adina 70 urtera arte igotzea, gaixotasuna diagnostikatzen denean jasotako tratamenduari dagokionez, gogobetetze-maila handiari eutsita.

2M.2. HELBURUA:

Elikadura-nahasteen eragina murriztea, batik bat, neska gazteen eta neskatilen artean.

2M.3. HELBURUA:

Emakumeengan garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren prebentzio-portaerak areagotzea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:

UGALKETA OSASUNARI DAGOKIONEZ, EMAKUMEEK ERABAKI GEHIAGO HARTZEA

1A.1. HELBURUA:

Metodo antikonzeptiboetarako irisgarritasuna bermatzea, eta behar izanez gero, baita koitoaren ondorengo eteterako eta HBERako irisgarritasuna ere, nahi gabeko haurdunaldien tasak murriztearren, batik bat, nerabeen artean, eta sexu-transmisioko gaixotasunen prebentziorako metodo bakarra izaki, preserbatiboaren erabilera bultzatzea.

1A.2. HELBURUA:

Haurdunaldian eta erditzean egindako esku-hartze mediko-kirurgikoak kasu bakoitzerako aginduen –behar-beharrezkoak soilik– araberakoak direla ziurtatzea, zesareen eta episiotomien kopurua murriztera joz.

1A.3. HELBURUA:

Emakumeen gogobetetze-maila handitzea, haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan jasotako informazioaren inguruan, eta erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearen inguruan.

1A.4. HELBURUA:

Emakumeen gogobetetze-maila areagotzea, ugalketa-zikloan berezkoak diren aldaketek eragindako gorabeheren eta arazoen prebentzioari eta arretari dagokienez, informazio eta erabakimen parte-hartzailea sustatuta, emakume guztientzako eskuragarri izango diren azterketa tokoginekologikoekin.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–:

OSASUN ARAZOAK DITUZTENAK ZAINTEAK ETXEO EREMUAN ERAGINDAKO LAN ZAMA MURRIZTEA

1B.1. HELBURUA:

Osasun-arazoak dituzten eta zaintza behar duten lagunen –ez autonomoak– kasuan, zerbitzu soziokomunitarioetan artaturiko lagunen kopurua handitzea.

1B.2. HELBURUA:

Osasun-arreta emateko ordutegia zabaltzea, osasun-arreta eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri izan daitezen.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –1I–:

INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA FISIKOA ETA PSIKOLOGIKOA EMATEA.

1I.1. HELBURUA:

Indarkeriaren biktima diren emakumeen osasun fisikoari eta psikologikoari arreta egokia bermatzea, Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren esparruan adostutako osasun-protokoloa ezarrita eta etengabe hobetuta.

OSASUNA: Programen eta jardun helburuen banaketa ardatzetan

MAINSTREAMINGA	AHALDUNTZEA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	INDARKERIA
1M: Osasun-sisteman genero-ikuspegia txertatzea 1M.1. HELBURUA: Dauden praktika klinikoen gidak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak –ikerketas-fasetik hasi, eta osasun-sistema publikoan aplikatzeko faseraino–. 1M.2. HELBURUA: Dauden prozedura administratiboak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak, fase guztietan: diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan. 2M: Emakumeei bereziki eragiten dieten gaixotasunei aurre egitean hobetzea 2M.1. HELBURUA: Bularreko minbiziaren prebentzio-jardueratan parte hartzen duten emakumeen adina 70 urtera arte igotzea, gaixotasuna diagnostikatzen denean jasotako tratamenduari dagokionez, gogobetetze-maila handiari eutsita. 2M.2. HELBURUA: Elikadura-nahasteen eragina murriztea, batik bat, neska gazteen eta neskatilen artean. 2M.3. HELBURUA: Emakumeengan garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren prebentzio-portaerak areagotzea.	1A: Ugalketa osasunari dagokionez, emakumeei erabaki gehiago hartzea 1A.1. HELBURUA: Metodo antikonzeptiboetarako irisgarritasuna bermatzea, eta behar izanez gero, baita koitoaren ondorengo eteterako eta HBERako irisgarritasuna ere, nahi gabeko haurdunaldien tasak murriztearen, batik bat, nerabeen artean, eta sexu-transmisioko gaixotasunen prebentzioarako metodo bakarra izaki, preserbatiboaren erabilera bultzatzea. 1A.2. HELBURUA: Haurdunaldian eta erditzean egindako esku-hartze mediko-kirurgikoak kasu bakoitzerako aginduen –behar-beharrezkoak soilik– arabera direla ziurtatzea, zesarren eta episiotomien kopurua murriztera joz. 1A.3. HELBURUA: Emakumeen gogobetetze-maila handitzea, haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan jasotako informazioaren inguruan, eta erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearen inguruan. 1A.4. HELBURUA: Emakumeen gogobetetze-maila areagotzea, ugalketa-zikloan berezkoak diren aldaketek eragindako gorabeheren eta arazoaren prebentzioari eta arretari dagokionez, informazio eta erabakimen parte-hartzailea sustatuta, emakume guztientzako eskuragarri izango diren azterketa tokoginekologikoekin.	1B: Osasun-arazoak dituztenak zaintzeak etxeko eremuan eragindako lan-zama murriztea 1B.1. HELBURUA: Osasun-arazoak dituzten eta zaintza behar duten lagunen –ez autonomoak– kasuan, zerbitzu soziokomunitarioetan artaturiko lagunen kopurua handitzea. 1B.2. HELBURUA: Osasun-arreta emateko ordutegia zabalitzea, osasun-arreta eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitzaren bateragarri izan daitezen.	1I: Indarkeriaren biktimak diren emakumeei arreta fisikoa eta psikologikoa ematea 1I.1. HELBURUA: Indarkeriaren biktimak diren emakumeen osasun fisikoa eta psikologikoa arreta egokia bermatzea, Sexu-erasoak eta etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko Akordioaren esparruan adostutako osasun-protokoloa ezarrita eta etengabe hobetuta.

PROGRAMAK, HELBURUAK ETA JARDUN ESTRATEGIAK GARATZEA

MAINSTREAMINGA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1 M–:

OSASUN SISTEMAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

44. artikulua.- Osasuna

2. Autonomia Erkidegoko Administrazioak emakumeen eta gizonen tratua eta aukera-berdintasuna behartu behar du osasunarekin zerikusia duen ikerkuntzan eta arretan. Horretarako, aintzat hartuko du gizonen eta emakumeen dituzten egoerak, baldintzak eta beharrezkoak desberdinak direla, eta, ondorioz, politika espezifikoak garatuko ditu beharrezkoa denean. Bestalde, azterketa, eztabaida eta kontzientziaketa suspertu behar du profesionalen, erabiltzaileen eta osasun-sistemarekin zerikusia duten eragile artean eremu horretan emakumeen eta gizonen dituzten desberdintasunei buruz.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIKAPENA:

Beste hainbat zientzia bezala, medikuntza ere gizonen lanbidea izan da iraganean, dela ikerketarekin loturiko alderdietan, dela jarduna bera. Lanbide horretan emakumea pixkanaka sartu denez, eta genero-ikuspegia ere arian-arian txertatu denez, osasun-arloko jakintza nahiz praktiken oinarri izan den genero-joera agerian geratu da, eta alde fisiologikoak, ekonomikoak eta gizarte-arlokoak onartu eta aintzat hartzen dituzten ikuspegi eta politika berriak sortu ahal izan dira, jendearen osasun-egoeran eragin handia dutela. Ildo horiei bultzada ematen jarraitzea ezinbestekoa da, praktika klinikoari buruzko gidetan eta prozedura administratiboetan oinarrituta jarduna, osasun-arloko praktikaren garapenean gako-tresnak baitira.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1M.1. HELBURUA:

Dauden praktika klinikoan gidak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak –iker-keta-fasetik hasi, eta osasun-sistema publikoan aplikatzeko faseraino–.

1M.2. HELBURUA:

Dauden prozedura administratiboak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak, fase guztietan: diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.

1 M. 1 . HELBURUA:

DAUDEN PRAKTIKA KLINIKOEN GIDAK ALDATZEA ETA GENERO IKUSPEGIA TXERTATUTA EGITEA BERRIAK –IKERKETA FASETIK HASI, ETA OSASUN SISTEMA PUBLIKOAN APLIKATZEKO FASERAINO–.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Dauden praktika klinikoan Gidetan gomendatzen diren osasun-arloko esku-hartzeetan –diagnostikoari, prebentzioari edo terapiari dagozkionak– genero-aldeak aintzat hartu eta jaso daitezkeen lortzea, baita genero-ikuspegia txerta dadin ere, etorkizuneko gomendio klinikoak landu eta diseinatzeko garaian.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Plan honi dagokionez, praktika klinikoan gidetan genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- Sexuaren arabera bereizitako datuak daudenean.
- Egindako praktika klinikoan gidetan hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzen denean.
- Praktika klinikoan gidak diseinatu aurretik, emakumeen eta gizonen premien inguruko diagnostiko bereizgarria egingo dagoenean, biologiaren, gizartearen eta kulturaren arloko errealitatearen arabera.
- Diseinatutako praktika klinikoan gidetan eta prozedura administratiboetan genero-eraginaren aurreikuspena egiten denean.
- Eraginpean hartzen dituen emakumeen eta gizonen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak edo arauak izango duen eragin bereizgarria ebaluatzen denean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Genero-ikuspegitik begiratuta aldatutako praktika klinikoan giden kopurua.
- Genero-ikuspegia txertatzen duten praktika klinikoan gida berrien % (praktika klinikoan gida guztiei dagokienez).

1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako esku-hartze estrategia hau gomendatzen da:

- Praktika klinikoan gidetan genero-eragina aztertzeako metodologia eta tresna egokienak ezartzeko azterketa egitea.
- Praktika klinikoan giden azterketa egitea.
- Osasun-sistemaren praktiken diseinuan emakumeen parte-hartzea sustatzea.
- Genero-ikuspegia eta araudiak integratzeko metodologiak ezagutaraztea.

1M.2. HELBURUA:

DAUDEN PROZEDURA ADMINISTRATIBOAK ALDATZEA ETA GENERO IKUSPEGIA TXERTATUTA EGITEA BERRIAK, FASE GUZTIETAN: DISEINUAN, EZARPENEAN ETA EBALUAZIOAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Osasun-sistema publikoaren funtzionamendu administratiboan emakumeen ezaugarriak eta premiak aintzat hartuko direla egiaztatzea, oraingo eta etorkizuneko prozedura administratiboetan genero-ikuspegia txertatuta.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Plan honi dagokionez, prozedura administratiboetan genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- Sexuaren arabera bereizitako datuak daudenean.
- Prozedura administratiboetan hizkuntza modu ez-sexistan erabiltzen denean.
- Prozedura administratiboak diseinatu aurretik, emakumeen eta gizonen premien inguruko diagnostiko bereizgarria eginga dagoenean, kulturaren eta gizartearen arloko ezaugarriak eta ezberdintasunak aintzat hartuta, baita ekitatean eragin dezaketen beste faktoreak ere.
- Diseinatutako prozedura administratiboetan gizonen eta emakumeen arteko genero-eraginen aurreikuspena egiten denean.
- Prozedura administratiboek eraginpean hartzen dituzten emakumeen eta gizonen egoeraren eta baldintzen gainean izango duten eragin bereizgarria ebaluatzen denean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Genero-ikuspegitik begiratuta aldatutako prozedura administratiboen kopurua.
- Genero-ikuspegia txertatzen duten prozedura administratibo berrien % (egindako prozedura administratibo berri guztiei dagokienez).

1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako esku-hartze estrategia hau gomendatzen da:

- Jardun administratiboaren protokoloen azterketa egitea.
- Azterketa horretatik gomendioak ondorioztatzea.
- Emakumeen parte-hartzea ziurtatzea prozedura administratiboen diseinuan.
- Gomendioak ezagutaraztea.
- Genero-ikuspegia kontuan izateko araudia sortzea.

2. MAINSTREAMING PROGRAMA –2M–:

EMAKUMEEI BEREZIKI ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNEI AURRE EGITEAN HOBETZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

44. artikulua.- Osasuna

1. Euskal herri-administrazioek emakumeei osasuna hobetzen lagundu behar diete beren bizitza osoan; arreta berezia eskainiko diete, orobat, emakumeengan eragin handiena duten osasun-arazoei.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Programa honetan sar daitezkeen gaixotasunak ugari dira, baina emakumeei bereziki eragiten dietenak, gero eta gehiago agertzen ari direnak edo emakumeengan eta gizonengan eragin edo sintomatologia ezberdina dutenak lehenetsita, hiru gaixotasun hartu dira lehentasunezkoetat: bularreko minbizia, elikadura-nahasteak eta garuneko gaixotasun baskularrak eta gaixotasun kardiobaskularrak.

- 2004. urtean, 287 emakume hil ziren EAEn bularreko minbiziak jota (8). Kopuru hori aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa den arren, prebentzioko jokabideak erabakigarriak dira beherezko joerari eusteko: Frogatuta dago 50 eta 64 urte bitarteko emakumeen –Bularreko minbiziaren prebentzio goiztiarreko Planaren barruan hartutako adin-tartean daudenak– %7k soilik ez duela inoiz mamografia bat egin. Zenbateko hori %24ra igotzen da 64 urtetik gorako emakumeen kasuan (landa-eremuan are gehiago handitzen da proportzioa) eta %70era 50 urtetik beherakoetan (9). Hortaz, ezinbestekoa da prebentzio-planeko adin-tartearen muga goitik zabaltea eta 50 urtetik beherako emakumeak sentsibilizatzen hastea, aldizka azterketak egitea beharrezkoa dela uler dezaten.
- Elikadura-nahasteek batik bat emakumezko biztanleei eragiten diete eta erregistraturiko kasuen kopuruak goranzko joera du. Gaur egun, 18 eta 24 urte bitarteko 10 emakumetik 3k (10) ez du behar adinako pisua. Horretaz gain, gaixotasun horrek emakumeengan eragin handiagoa izatea genero-rolekin loturiko arrazoi psikosozialen ondorioa da. Horren guztiaren ondorioz, tratamenduan ez ezik, batik bat gaixotasuna agertzearen prebentzioan jardun behar da, dela banakako mailan, dela gizarte-mailan.

(8) Iturria: *Osasun Publikoaren Txostena 2004*. Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

(9) Iturria: *Osasun Inkesta 2002*. Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

(10) Iturria: *Emakumeak zifratzen Txostena 2004*. Emakunde, Eusko Jaurlaritza.

- Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak dira heriotza eragiten duten arrazoi nagusia, gizon nahiz emakumeengan: hainbat motatatik, emakumeen artean garuneko gaixotasun baskularrak eta gaixotasun kardiobaskularrak dira heriotza eragiten duten lehenengo arrazoia, %31ko proportzioan (11). Hala ere, sexuaren arabera sintomatologia ezberdina duenez, gaixotasun hori goiz diagnostikatzea zaila izaten da. Beraz, herritarren artean prebentzio-jokabideak areagotu behar dira, eta osasun-langileak sentibilizatu sintomatologia ezberdinen inguruan.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

2M.1. HELBURUA:

Bularreko minbiziaren prebentzio-jardueratan parte hartzen duten emakumeen adina 70 urtera arte igotzea, gaixotasuna diagnostikatzen denean jasotako tratamenduari dagokionez, gogobetetze-maila handiari eutsita.

2M.2. HELBURUA:

Elikadura-nahasteen eragina murriztea, batik bat, neska gazteen artean.

2M.3. HELBURUA:

Emakumeengan garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren prebentzio-portaerak areagotzea.

2M.1. HELBURUA:

BULARREKO MINBIZIAREN PREBENTZIO JARDUERATAN PARTE HARTZEN DUTEN EMAKUMEEN ADINA 70 URTERA ARTE IGOTZEA, GAIXOTASUNA DIAGNOSTIKATZEN DENEAN JASOTAKO TRATAMENDUARI DAGOKIONEZ, GOGOBETETZE MAILA HANDIARI EUTSITA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Bularreko minbiziaren atzematean eta tratamenduan kalitatea hobetzea, ikuspegi objektibotik begiratuta ez ezik –alegia, garaiz antzemateko programan sartzen diren adineko emakumeen edo osasun-azterketak egiten dituzten emakumeen kopuruarekin, eta agindutako tratamenduen emaitzekin lotuta–, ikuspegi subjektibotik ere begiratuta, hain zuzen ere, tratamenduan jasotako tratuarekiko gogobetetze-mailarekin lotuta.

(11) Iturria: *Osasun Publikoaren Txostena 2004*, Osasun Saila, Eusko Jaurlaritzak.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen gogobetetze-maila hobetu dela esango dugu diagnostikoan eta tratamenduan jasotako tratuaren arabera, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

- Diagnostiko eta tratamendu azkarra eta eraginkorra.
- Kalitatezko informazioa, ulertzeko moduko hizkera erabilita.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Bularreko azterketak egiten dituzten emakumeen %, hiri-eremutan eta landa-eremutan bizi diren emakumeen arteko aldeei erreparatuta.
- Gaixotasuna diagnostikatu zaien emakumeen gogobetetze-maila, jasotako informazioari eta tratamenduari dagokionez.

2M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Lehentasunezko zat jotako kolektiboei eta bularreko azterketetan ez parte hartzeko arrazoiei buruzko ikerketak egitea, eta emaitzei jarraiki, goiz atzemateko programa eguneratzea.
- Prestakuntza-ekintzak egitea, gaixoei eman beharreko tratu egokiaren inguruan.
- Gaixotasunaren diagnostikoa duten emakumeei laguntza psikologikoa ematea.

2M.2. HELBURUA:

ELIKADURA NAHASTEEN ERAGINA MURRIZTEA, BATIK BAT, NESKA GAZTEEN ETA NESKATILLEN ARTEAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Elikadura-nahasteen eragina murriztea eta, azken urteotan, itxura fisikoaren inguruko kultura-presio nabarmenaren ondorioz, eta ohitura ez hain osasungarriak ugaritzearen ondorioz, izandako kasu-igoeraren joerari buelta ematea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Elikadura-nahaste ohikoenak honako hauek dira: gizentasuna, anorexia eta bulimia; batik bat gazteei eragiten diete, eta bereziki, emakume gazteei. Azken aldian, nahasteak eta gero gazteagotan agertzen ari dira.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

Anorexia, bulimia eta gizentasun kasuen kopurua eta bilakaera, adinaren eta sexuaren arabera.

2M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau proposatzen da:

- Elikadura-nahastea eragiten duten arrazoiak eta nahasteen egiazko eragina ezagutzeko ikerketa indartzea.
- Haurtzaroaren eta gaztaroaren inguruan dauden biztanle talde guztiei (ikastetxeetako gurasoei, irakasleei, ikasleei) zuzendutako komunikazioko, sentsibilizazioko eta prestakuntzako jarduerak egitea.
- Ikastetxeetan, hitzaldiak eta tailerrak egitera bultzatzea, elikadura-nahasteen inguruan, bizimodu osasungarriaren inguruan, kultura-azterketaren inguruan, horrek gorputzaren irudian duen eraginaren inguruan, betiere gizartean onartutako edertasun-idealekiko jarrera kritikoa areagotuta emakumeengan.

2M.3. HELBURUA:

EMAKUMEENGAN GARUNeko GAIXOTASUN BASKULARREN ETA GAIXOTASUN KARDIO-BASKULARREN PREBENTZIO PORTAERAK AREAGOTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Profesionalak nahiz emakumeak sentsibilizatzea garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren inguruan, eta gaixotasun horiek emakumeengan duten eraginaren inguruan; baita patologia horiek agertzeko zenbait jarrerak duten eraginari buruzko informazioa ematea ere.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Honako hauek dira arrisku-jokabideak: tabakoa eta alkohola kontsumitzea, ariketa fisikorik ez egitea eta elikadura osasungarria ez izatea.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Emakumeen kirolaren parte-hartze tasa eta kirolari emandako denbora.
- Alkohola kontsumitzen duten emakumeen %.
- Tabakoa kontsumitzen duten emakumeen %.

2M.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Sexuaren arabera, garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren sintomatologiaren, garapenaren eta tratamenduaren alderdi bereizgarriei buruzko ikerketak sustatzea, eta emaitzei jarraiki, diagnostikoarekin eta tratamenduarekin loturiko praktika klinikoek gidak eta adostutako jardun-ildoak berrikustea, genero-ikuspegitik begiratuta.
- Tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzearen arriskuen inguruko prebentzio-programetan genero-ikuspegia txertatzea, emakumeen eta gizonen kontsumoaren ezaugarri berezietara egokituta.

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1 A–:**UGALKETA OSASUNARI DAGOKIONEZ, EMAKUMEEK ERABAKI GEHIAGO HARTZEA**

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:*44. artikulua.- Osasuna*

4. Euskal herri-administrazioek bete egin behar dituzte sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzeko dakartzan beharrianak. Horretarako, prebentzio- eta asistentzia-programak prestatuko dituzte; horien artean egongo dira planifikazio sexuala erraztera eta nahigabeko haurduntzeak eta sexu bidez transmititutako gaixotasunak saihestera bideratutakoak.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Azkeneko mende laurdenean, ugalketa-osasunaren inguruan emakumeen erabakiak hartzeko gaitasuna nabarmen hobetu den arren, badira eremu horretan aurrera egitea ezinbestekoa dela erakusten duten hainbat alderdi: haurdunaldiaren borondatezko etetea egiten duten zen-troen kopuru txikia eta zentro horiei buruzko informaziorako irisgarritasuna; zenbait eremutan –landa-eremutan, batik bat– metodo antikonzeptiboak eta koitoaren ondorengo etete-metodo-ak lortzeko gaur egun oraindik ere dauden zailtasunak; haurdunaldian eta erditzean beharrik gabe medikalizatzea... Esate baterako, EAEko zesareen proportzioa %17 da, baina sektore publikoaren (%14) eta pribatuaren (%31) (12) artean dauden alde nabarmenak ikusita, argi dago medikalizazioa ez dela beharrezkoa, kasu askotan.

Bestalde, toko-ginekologiako zerbitzuen inguruan, emandako arreta hobetzen jarraitu behar da, bai haurdun dauden emakumeek eta bikotekideek jasotzen duten informazioaren kopuruari eta kalitateari dagokionez, bai zerbitzuaren arintasunari dagokionez, bai emakumeek adierazitako borondatearen eta lehentasunen aurrean osasun-langileen sentikortasunari dagokionez, bai ugalketa-zikloak eragindako gaixotasunen eta gorabeheren arrazoiei eta tratamenduei buruzko ikerketari dagokionez.

(12) Iturria: *Osasun Publikoaren Txostena 2004*, Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1A.1. HELBURUA:

Metodo antikonzeptiboetarako irisgarritasuna bermatzea, eta behar izanez gero, baita koitoaren ondorengo eteterako eta HBerako irisgarritasuna ere, nahi gabeko haurdunaldien tasak murriztearren, batik bat, nerabeen artean, eta sexu-transmisioko gaixotasunen prebentziorako metodo bakarra izaki, preserbatiboaren erabilera bultzatzea.

1A.2. HELBURUA:

Haurdunaldian eta erditzean egindako esku-hartze mediko-kirurgikoak kasu bakoitzerako aginduen –behar-beharrezkoak soilik– arabera direla ziurtatzea, zesarren eta episiotomien kopurua murriztera joz.

1A.3. HELBURUA:

Emakumeen gogobetetze-maila handitzea, haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan jasotako informazioaren inguruan, eta erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearen inguruan.

1A.4. HELBURUA:

Emakumeen gogobetetze-maila areagotzea, ugalketa-zikloan berezkoak diren aldaketek eragindako gorabeheren eta arazoaren prebentzioari eta arretari dagokienez, informazio eta erabakimen parte-hartzailea sustatuta, emakume guztientzako eskuragarri izango diren azterketa tokoginekologikoekin.

1 A. 1 . HELBURUA:

METODO ANTIKONTZEPTIBOETARAKO IRISGARRITASUNA BERMATZEA, ETA BEHAR IZANEZ GERO, BAITA KOITOAREN ONDORENGO ETETERAKO ETA HBerako IRISGARRITASUNA ERE, NAHI GABEKO HAURDUNALDIEN TASAK MURRIZTEARREN, BATIK BAT, NERABEEN ARTEAN, ETA SEXU TRANSMISIOKO GAIXOTASUNEN PREBENTZIORAKO METODO BAKARRA IZAKI, PRESERBATIBOAREN ERABILERA BULTZATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Metodo antikonzeptiboetarako, –behar izanez gero, eta emakumeek eskatuz gero– koitoaren ondorengo eteterako, edo dagokionean, haurdunaldiaren borondatezko eteterako sarbide erraza lortzea EAEko herritarrentzat, oro har, eta, batik bat, neska-mutilentzat, landa-eremuetako estaldurari arreta berezia emanda. Honako hauek lortu behar dira: premien arabera eskaintza bermatzea eremu bakoitzean, eskura dituzten zerbitzuei buruzko informazio gehia-

go ematea, eta haurdunaldiaren, GIBaren transmisioaren eta sexu-transmisioko beste hainbat gaixotasunen arriskua saihesteko preserbatiboa erabiltzea zein garrantzitsua den jakinaraztea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Antisorgailuetarako eta koitoaren ondorengo eteterako sarbidea herritar orori bermatzen zaion arren, prebentzio-jardunak bereziki nerabeei zuzendutakoak izango dira, izan ere, kolektibo horretan baitituzte ondorio larrienak nahi gabeko haurdunaldiek.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Antisorgailuak lortzeko zailtasunak dituztela dioten nerabeen %.
- Sexu-harremanetan preserbatiboa erabiltzen dutela dioten nerabeen %.
- Nahi gabeko haurdunaldien %.
- HBE egiten duten zentroen kopurua.

1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Honako hauen inguruan dagoen informazioa hobetzeko azterlana egitea:
 - Antisorgailuen inguruko informazioa eta erabilera nerabeengan.
 - Lortzeko zailtasunak.
 - Farmazietan eta familia-plangintzako zerbitzuetan emandako arretaren kalitatea eta banaketa geografikoa.
- Eskuratutako jakintzari esker, zerbitzu-eskaintza berrikusi eta egokitu ahal izango da, eremu geografiko guztietan familia-plangintzaren arreta bermatzeko, eta orientazio pertsonalizatua eta antisorgailu-eskaintzarako irisgarritasuna hobetzeko nerabeentzat, zerbitzuen ordutegiak ez ezik, hitzordu motak ere egokituta, eta pribatutasuna bermatuta.

- Bestalde, haurdunaldia eteteko eta koitoaren ondorengo eteterako zerbitzuetarako irisgarritasunaren banaketa-mapa egitea ere gomendatzen da, zerbitzuen kopurua eta zerbitzu horiei buruzko informazioa ere areagotzeko, irisgarritasuna edo estaldura txikiagoa den tokietan.
- Horretaz gain, neska-mutilen artean sexu-jokabide autonomia eta arduratsua lortzeko informazio- eta hezkuntza-programak garatzea gomendatzen da.
- Emaitzak ziurtatzeko eta jarduna gizarte-aldaketetara egokitzeko, nerabezaroan haurdunaldiaren prebentzioko ekintzen jarraipena egitea proposatu da, baita ekintzen eragina ebaluatzea eta ateratako ondorioen arabera ekintzak aldatzea ere.

1 A.2. HELBURUA:

HAURDUNALDIAN ETA ERDITZEAN EGINDAKO ESKU-HARTZE MEDIKO-KIRURGIKOAK KASU BAKOITZERAKO AGINDUEN -BEHAR-BEHARREZKOAK SOILIK- ARABERAKOAK DIRELA ZIURTATZEA, ZESAREEN ETA EPISIOTOMIEN KOPURUA MURRIZTERA JOZ.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Haurdun dauden emakumeen osasunerako arriskuak saihesteko ezinbestekoa den kasuetara soilik murriztea ebakuntza mediko-kirurgikoen (episiotomiak, zesareak, etab.) kopurua.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

EAEen erditzen diren emakume haurdunei emandako arreta eta haien egoera hobetzera bideratua dago helburua.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Zesareen %.
- Episiotomien %.
- Bestelako ebakuntzen %.

1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Helburu hori lortzeko honako estrategia hau gomendatzen da:

- Erditzearen arazoak konpontzeko trebetasunen eta jakintzen inguruko prestakuntza ematea sendagileei, medikalizazioa areagotu gabe, zesarreak, episiotomiak eta abar egiteak dituen ondorioen berri emanda beti amei, eta haien erabakia errespetatuta.
- Erditzea medikalizatzearen alderdi positiboen eta negatiboen berri ematea, erabakiak hartzeko garaian amaren iritzia eta parte-hartzea errespetatzea.
- Amentzako zerbitzu publiko guztietan erditzealdiko analgesiaren eskaintza bermatzea, ordutegi guztietan eta asteko egun guztietan. Nolanahi ere, ahal izanez gero, amaren nahia errespetatuta ezarriko da estrategia.

1A.3. HELBURUA:

EMAKUMEEN GOGOBEKETZE MAILA HANDITZEA, HAURDUNALDIAN, ERDITZEAN ETA ERDITZE ONDOKOAN JASOTAKO INFORMAZIOAREN INGURUAN, ETA ERABAKIAK HARTZEKO GARAIA IZANDAKO PARTE-HARTZEAREN INGURUAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Haurdunaldian eta erditzean, haurdun dauden emakumeek dituzten aukeren inguruan –abantailak eta desabantailak– nahikoa informazio ez duten kasuak pixkanaka-pixkanaka murriztea –erabat desagertu arte–; halaber, baita justifikaziorik gabe emakumeen nahia eta erabakia errespetatzen ez diren kasuak ere.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Haurdunaldian izan daitezkeen gorabeheren aurrean dituzten aukeren inguruan, eta gorabehera espezifikorik gabeko haurdunaldiaren eta erditzearen kasuetan dituzten aukeren inguruan emakumeek duten informazioa hobetzea; eta sendagileek emakumeekin batera erabakiak hartzen dituzten kasuak gehitzea.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Jasotako informazioarekin gustura daudela dioten emakume haurdunen %.
- Haurdunaldiaren, erditzearen eta erditu ondokoaren inguruko erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearekin gustura daudela dioten emakume haurdunen %.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Haurdun dauden emakumeen eta bikotekideen gogobetetze-mailak aztertzea.
- Haurdunaldian, erditzen eta erditu ondokoan, osasunerako heziketarako jarduerak, eta edoskitze-teknikei buruzko entrenamendu espezifikoko jarduerak sustatzea, baita edoskitzearekin hasteko eta horri eusteko lagungarri eta mesedegarri izango diren ospitale-errutinak ere, OMEren eta UNICEFen gomendioei jarraiki, bularra ez ematea erabakitzen duten emakumeen erabakia uneoro errespetatuko dela bermatuta.
- Tartean sartutako osasun-langileen artean emaitzak ezagutaraztea, sendagileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko moduluak diseinatuta, honako hauen inguruan: sendagileek emakumeekin batera erabakiak hartzeak duen garrantziaren inguruan, eta haurdun dauden emakumeek gorabeheren eta jarduteko aukeren inguruan jasotzen duten informazioa gehitzeko premiaren inguruan.

1A.4. HELBURUA:

EMAKUMEEN GOGOBEKETZE MAILA AREAGOTZEA, UGALKETA ZIKLOAN BEREZKOAK DIREN ALDAKETEK ERAGINDAKO GORABEHEREN ETA ARAZOEN PREBENTZIOARI ETA ARRETARI DAGOKIENEZ, INFORMAZIO ETA ERABAKIMEN PARTE-HARTZAILEA SUSTATUTA, EMAKUME GUZTIENTZAKO ESKURAGARRI IZANGO DIREN AZTERKETA TOKOGINEKO-LOGIKOEKIN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Ugalketa-zikloan berezkoak diren aldagiek eragindako gorabeherak, hilekoan edo hilekoa etortzeagatik edo joateagatik gorabeherak dituzten emakumei, eta gorabehera edo arazo horiei aurrea hartzeko asmoz osasun-sistemara jotzen duten emakumei dituzten aukeren berri ematea, baita behar bezalako eta gogobetetzeko tratua ematea ere.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Gure ustez behar bezalako eta gogobetetzeko arreta da emakumeei ugalketari dagokion osasun-egoeraren berri, gorabeheren arrazoien berri, eta dituzten aukeren berri ematen diena; informazioa eman ostean, erabakiak batera hartzen direna, betiere itxaronzerrendak desagertzeko lan eginda.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Praktika klinikoan giden eta toko-ginekologiako jardun-protokoloen kopurua.
- Toko-ginekologiako zerbitzuetara jotzen duten emakumeen gogobetetze-maila, jasotako informazioari dagokionez.
- Toko-ginekologiako zerbitzuetara jotzen duten emakumeen gogobetetze-maila, erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzeari dagokionez.
- Toko-ginekologiako gaixotasunei eta gorabehereri buruz egindako ikerketen kopurua.
- Toko-ginekologiako azterketak egiteko itxaron behar izandako denboraren batez bestekoa.

1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

Honako bi estrategia havek gomendatzen dira:

Lehena, oro har, toko-ginekologiako zerbitzuei buruzkoa:

- Toko-ginekologiako ohiko azterketetan itxaronzerrendak arintzeko osasun-zerbitzuak birmoldatzea.
- Ugalketa-osasunari buruzko azterlan kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea: emakumeen gogobetze-maila.
- Emakumeei gehien eragiten dieten ugalketa-zikloarekin loturiko gorabeheren eta gaixotasunen alderdi ezezagunen inguruko ikerketak indartzea.
- Osasun-langileei prestakuntza ematea, honako havei buruzko informazioko eta sentsibilizazioko jardueren bitartez:

- Ugalketa-osasunaren arreta.
- Menopausiaren sintomei aurre egiteko beste aukerak, sortzen badira.
- Laguntza psikosoziala emateko estrategiak.
- Toko-ginekologiako azterketetan egiten diren praktikei buruzko alde aurreko informazioa ematearen garrantzia, emakumeei zor zaien begirunea gordez.

Bigarrena, menopausiaren tratamenduari buruzkoa:

- Menopausiaren eragin negatiboei aurre egiteko aukerei buruzko ikerketak bultzatzea.
- Aurre egiteko garaian gehiegizko medikalizazioa murriztea, emakumeei horren ondorioen berri eman eta bestelako aukerak eskaintzen dizkieten programak osatuta.
- Adineko emakumeei laguntza emateko estrategia berriak aztertzea, euren osasunean modu negatiboan eragiten duten faktore psikosozialei aurre egiteko.
- Diagnostikoa eta/edo terapia egiteko teknika espezializatuak eskatzen dituzten menopausiaren alderdiak asistentzia espezializatura bideratuko direla bermatzea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1 B–:

OSASUN ARAZOAK DITUZTENAK ZAINTEAK ETXKO EREMUAN ERAGINDAKO LAN ZAMA MURRIZTEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

44. artikulua.- Osasuna

3. Asistentzia-prozesuen diseinua egiterakoan, Osasun Administrazioak neurriak hartu behar ditu osasun-arazoak dituzten pertsonak zaindu beharrak –ordaindu gabe eta gehienbat emakumeek zaindu ere– etxeetan eragiten duen karga arintzeko.

47. artikulua.– Xedapen orokorra

Euskal herri-administrazioek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dute. Horretarako, honako alderdiak sustatuko dituzte: etxeko lanetan gizonek erantzunkidetasuna edukitzea; enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharrei egokitzea; zerbitzu soziokomunitarioak sortzea eta egokitzea; laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak eratztea; eta delako helbururako egoki iritzitako beste edozein neurri.

49. artikulua.– Erkidegoarentzako zerbitzu soziokomunitarioak

3.– Haurrei hezkuntzaren eta laguntzaren aldetik arreta eskaintzeko zerbitzuei, eguneko zentroeiei, egoitzei eta mendeko pertsonaei arreta eskaintzeko gainerako zentro eta programei zuzenduta dauden laguntzen deialdietan, euskal herri-administrazioek lehentasuna emango diete gainerako kalitate-irizpideak betetzeaz gain ordutegi eta egutegi zabal eta malguak dituzten zentro eta programei.

7.- Euskal herri-administrazioek atsedena eskaintzeko programak eta laguntza ekonomiko, tekniko eta psikosoziala emateko beste neurri eta zerbitzu batzuk ezarriko dituzte zaintza-lanak betetzen dituzten pertsonentzat; eta aztertu eta, hala badagokio, bultzatu egingo dituzte norbanakoen artean pertsonak zaintzen elkarri laguntzeko sor daitezkeen ekimenak eta formulak.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Gaur egun, ospitaleratze-egunak murrizteko joera dago mendebaldeko herrialdeetako osasun-zerbitzuetan, eta osatze-fasean dagoen jendea etxera bidaltzen dute, erizainen laguntza puntuala badute, edota etxeko lanetan laguntzeko norbait eskainita. Joera horren ondorioz, familiariek –eta batik bat, emakumeek– zaintzako zeregina hartu behar izaten dute beren gain, kasu askotan ezin baitute euren burua zaindu gaixoei (atsedena behar dutelako), eta ezin dituztelako etxeko lanak egin; hortaz, unean uneko laguntza edo laguntza partziala baino gehiago behar izaten dute.

Bestalde, osasun-zentroen ordutegia mugatuegia denez gaur egun, laneko bizitza eta osasuna zaintzea –norberarena nahiz inoren laguntza behar dutenena– ez dira erraz bateratzeko modukoak izaten.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1B.1. HELBURUA:

Osasun-arazoak dituzten eta zaintza behar duten lagunen –ez autonomoak– kasuan, zerbitzu soziokomunitarioetan artaturiko lagunen kopurua handitzea.

1B.2. HELBURUA:

Osasun-arreta emateko ordutegia zabaltzea, osasun-arreta eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri izan daitezen.

1 B. 1 . HELBURUA:

OSASUN ARAZOAK DITUZTEN ETA ZAINZA BEHAR DUTEN LAGUNEN -EZ AUTONOMOAK-KASUAN, ZERBITZU SOZIOKOMUNITARIOETAN ARTATURIKO LAGUNEN KOPURUA HANDITZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Ospitaleratze joera berriek familien –eta bereziki, emakumeen– bizi-baldintzetan duten eragina geldiaraztea, autonomoak ez diren baina ospitaleratzetik behar ez duten gaixoak artatzeko osasunaren eta gizartearen arloko zerbitzuak eta koordinazioa areagotu eta hobetuta.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Pertsona kopurua handituta, pixkanaka-pixkanaka artatu gabeko eskatzaileen proportzioa ez ezik, zerbitzu soziokomunitarioak jasotzeko itxaronaldiak ere murriztea lortu behar da.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Osasun Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Artatu diren ospitaleratu gabeko lagun ez-autonomoen proportzioa.

1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Osasun-laguntzan erabiltzen ari diren eredu berriek (ospitalean egoteko egunen murrizketak, etxeko laguntza...) zaintzaileen eta gaixoen familiakoen osasunean eta bizi-kalitatean

izan duten eragina ikertzea, osasun-sistemari dagokionez, emakumeek hartzen duten alderdi osagarriaren rolari arreta berezia jarrita, eta emakume-kolektibo bakoitzaren ezaugarri espezifikoak aintzat hartuta. Gizartearen eta ekonomiaren arloan horrek guztiak duen garrantzia aztertzea, baita autonomoak ez direnentzako gizartearen eta osasunaren arloko egitura hobetzeko aukerak ere, praktika onenak bilduta eta Euskadin aplikatzeko bidegarritasuna aztertuta.

1 B.2. HELBURUA:

OSASUN ARRETA EMATEKO ORDUTEGIA ZABALTZEA, OSASUN ARRETA ETA NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI IZAN DAITEZEN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Osasun-zentroen ordutegiak zabaltzeko beharrezko akordioak eta adostasunak bilatzea eta aztertzea, osasun-arreta eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri izan daitezen.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Ahal dela, ordutegia ahalik eta zabalena izango da, gizartearen eta, batez ere, emakumeen premiak aintzat hartuta.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Goizez eta arratsaldez irekita dauden osasun-zentroen kopurua.
- Goizez eta arratsaldez irekita dauden osasun-zentroen ordutegiak.

1B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

Osasun-zentroak irekitzeko ordutegiak malgutzearen bideragarritasuna aztertzea, osasun-arloko profesionalak eta sindikatuetaordezkariak sentsibilizatzea, honako honen inguruan: osasun-zentroetako ordutegiak zabaltzeko gizartean dagoen premiaren inguruan, eta zabalkuntza ezartzeko plan bat egiteko premiaren inguruan, gizartearen premiak aintzat hartuta.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 11–:

INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA FISIKOA ETA PSIKOLOGIKOA EMATEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

51. artikulua.– Ikerketa

1.- Euskal herri-administrazioek emakumeen aurkako indarkeria-mota ezberdinen arrazoiak, ezaugarriak, arazoa identifikatzeko zailtasunak eta ondorioak iker daitezen sustatuko dute. Era berean, indarkeria horiek erazteko eta horien ondorioak konpontzeko aplikatzen diren neurrien eraginkortasuna iker dadin ere bultzatuko dute.

2.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aldian-aldian ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena. Horretarako, inplikaturik dauden gainerako euskal herri-administrazioek informazioa emango diote beren ardurapean dituzten baliabideei eta programei buruz.

3.- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak aurreko paragrafoan aipatutako ebaluazioaren berri emango dio Eusko Legebiltzarrari.

52. artikulua.– Prebentzioa

Lege honetan jasota dauden gainerako neurri prebentiboak kontuan izan behar badira ere, euskal herri-administrazioek, beren eskumen-eremuan eta modu koordinatuan, sentsibilizazio-kanpainak egin behar dituzte emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko.

53. artikulua.– Prestakuntza

Euskal herri-administrazioetan langileak prestatzeko eskumena duten erakundeek, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin lankidetzan, emakumearen aurkako indarkeria kasuetan esku hartzen duten langileek prestakuntzaren arloan dituzten beharrezkoen diagnostikoa egin behar dute, eta aldian-aldian eguneratu; eta diagnostiko horren arabera profesional-taldeek dituzten beharrezkoen egokitzeko prestakuntza-programak jarriko dira abian.

62. artikulua.– Erakundeen arteko koordinazioa

1. Autonomia Erkidegoko Administrazioak gai honetan eskumenak dituzten gainerako euskal herri-administrazioekin erakunde arteko lankidetzak-akordioak egin daitezkeen sustatuko du; horrela, etxeko tratatu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen diren kasuetan, erantzuna koordinatua eta eraginkorra izango da, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatezkoa bermatuko zaie. Era berean, gai honetan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzarako bideak bilatu beharko dira.

2. Lankidetzak-akordio horietan, Autonomia Erkidego osorako homogeneousak izango diren jarduketak-irizpideak edo -protokoloak finkatuko dira, era horretako kasuetan dihardutenei zuzendutakoak. Gainera, mekanismo batzuk ezarriko dira akordiotan, aldeak konpromisoak betetzen dituzten jarraipena egiteko eta ebaluatzeko.

3.- Foru- eta toki-administrazioek zera bultzatuko dute: aurreko bi paragrafoetan aipatutako akordioak eta protokoloak garatu, zehaztu eta administrazio bakoitzaren errealitateara egokitu dituzten lankidetzak-akordioak eta protokoloak har daitezela beren lurralde-eremuan.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Gaur egun, Etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko Akordioa indarrean dago, eta horren barruan sartzen da osasun-protokoloa. Askotan, etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen laguntza-eskaerak jasotzen dituzten lehenengo erakundeak osasun-zerbitzuak izaten dira, eta gehienetan, bakarrak. Hori dela-eta, funtsezkoa da bermatzea horrelako egoeren aurrean osasun-zerbitzuen jarduna planifikatzera bideratutako neurri eta plan guztiak berrikusi eta etengabe hobetzen direla.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

11.1. HELBURUA:

Indarkeriaren biktimei diren emakumeen osasun fisikoari eta psikologikoari arreta egokia bermatzea, Sexu-erasoak eta etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearen arteko Akordioaren esparruan adostutako osasun-protokoloa ezarrita eta etengabe hobetuta.

11.1. HELBURUA:

INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN OSASUN FISIKOARI ETA PSIKOLOGIKOARI ARRETA EGOKIA BERMATZEA, SEXU ERASOAK ETA ETXEKO TRATU TXARRAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO AKORDIOAREN ESPARRUAN ADOSTUTAKO OSASUN PROTOKOLOA EZARRITA ETA ETENGABE HOBETUTA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko Erakundeen arteko Akordioaren esparruan ezarritako osasun-protokoloak behar bezala ezarri eta etengabe hobetuko direla bermatzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Arreta fisiko eta psikologiko egokitzen hartuko dugu osasun-protokolo horretan ezarritakoari behar bezala atxikitzen zaiona.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Osasun Saila.
- Osakidetza.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko protokoloari eta Indarkeriaren biktima diren emakumeei harrera hobe egiteko Erakundeen arteko Akordioan hoberako egindako aldaketen kopurua.
- Zerbitzuak eskatzen dituzten indarkeriaren biktima diren emakumeen kopurua, eta artatutako emakumeen kopurua.

11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Osasun-protokoloaren eragina eta emakumeen premien arabera egokitze-maila aztertzea, kolektiboen aniztasunari erreparatuta (landa-eremuko emakumeak, ezintasunak dituztenak, etorkinak, adinekoak...): izandako lorpenak, zailtasunak, egin daitezkeen hobekuntzak...

- Azterketa horretatik ondorioztatutako hobekuntzak ezartzea, eta Jarduteko Osasun Protokoloaren edukiak eta Protokoloa etengabe hobetzeko neurriak ezagutaraztea tartean sartutako eragileen artean.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren eta desagertzearen eremuan (polizia, epaitegietako langileak...), eta biktimei laguntza eta asistentzia ematen –osasun-langileak, harrera-zerbitzuak, elkarteak...– lan egiten dutenekin prestakuntza-jarduerak egitea, Indarkeriaren aurrean jarduteko erakunde arteko Protokoloaren edukien inguruan. Prestakuntza horrekin premia espezifikoak dituzten kolektiboei arreta emateko ahalmena lortzen dela ziurtatzea.
- Osasun-eremuko espezialitateen curriculumean prestakuntza espezifikoa sartzera behartuko duen araudia sortzea, gai hauen inguruan: emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, garaiz atzematea eta modu integralean aurre egitea; halaber, Etxeko tratatu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloaren, eta Sexu-erasoak eta etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren betetze-maila aztertzea.

6.6

HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN ARLOA



SARRERA

Gure herri eta hirietako lurraldearen eta hirigintzaren antolamendua batik bat produkzioaren arloko antolamenduak eragindako premien arabera egin da; arlo hori gizonei esleitu izan zaie, eta emakumeak, orain dela gutxi arte, baztertuta egon dira. Hori horrela izanik, kasu askotan, eremu horretako politiketan eta jardunetan ez dira aintzat hartu emakumeen premia eta interesak, ezta ugalketa-eremuak eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteak eragindako premiak ere. Hortaz, euskal botere publikoen esku-hartzea ezinbestekoa da, esku-hartze arlo honetan ere berdintasun-printzipioa egiaz txerta dadin.

Arlo honetarako proposatu diren esku-hartzeak Legearen 46. artikulua dute oinarri; izan ere, honako hau dio: euskal herri-agintee beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko.

Hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuko planifikazioan emakumeen premiak, ekarpenak eta onarpena txerta daitezen, funtsezko iritzitako bost alderdi landuko ditugu:

- Planifikazioko eta erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea.
- Planifikazioko eta erabakiak hartzeko prozesuetan berdintasuna.
- Azpiegiturak egokitzea norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko.
- Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa gune publikoetan.
- Emakumeek gizarteari egindako ekarpenak balioestea balio sinbolikoa duten hiri-elementuen bitartez (kale-izenak, monumentuak, eraikin garrantzitsuen izenak...).

MAINSTREAMINGA

Hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuetarako Legean ezarritako helburuak (3. artikulua, 4. atala) bete eta genero-ikuspegia txertatzeko, emakumeen eta gizonen egoera eta premia bereizgarriak kontuan izan behar dira, desorekak ezabatzeko helburu eta jardun espezifikoak ezarri behar dira, eta modu sistematikoan hausnartu egin behar da, gauzatzen diren esku-hartzeetan generoak duen eraginaren gainean. Horretarako, honako hau da estrategiarik eraginkorrena: esku-hartze eredu eta tresna estandarizatuak txertatzea, mainstreaminga ezartzea ez ezik, ezarpen hori ebaluatzea ere errazte aldera. Horretaz gain, politikariak eta teknikariak prestatu eta sentsibilizatu behar dira gai horren inguruan, eta planifikazioko eta diseinuko parte-hartze prozesuetan parte hartuko duten emakumeak gaitu.

Beraz, hiri-planifikazioaren eremuan, genero-ikuspegia txertatzeko estrategiarik egokiena araudia –tresna edo eredu estandarizatuak txertatzea ahalbidetuko duena– aldatzea da, politikarien eta teknikarien prestakuntzarekin eta sentsibilizazioarekin batera.

Garraio publikoaren kasuan, diagnostikoak egin behar dira eta emakumeek parte hartu behar dute horretan, horrela soilik lortuko baitugu gabezien berri izatea eta gabezia horiek emakumei nola eragiten dieten jakitea, emakumeak izanik garraio publikoaren erabiltzaile nagusi.

Ingurumen-arloari dagokionez, Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak dira biderik egokiena ingurumenarekin loturiko alderdi guztietan mainstreaminga txertatzeko, gure lurraldean zeharo finkatuta eta instituzionalizatuta dauden parte-hartze tresnak baitira.

AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzeari laguntzeko, bi alderdi nagusitan oinarritzen da arlo hori: Lehen, eta Legearen 46. artikuluari jarraiki, “politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea”; bestela esateko, erabakiak hartzeko eta planifikazioko prozesuetan emakumeen parte-hartzea ahalbidetzea (kargu politikoetan eta teknikoetan, nahiz herritarrek parte hartzeko prozesuetan presentzia izanik). Bigarrena, gure herri eta hirietan emakumeen presentzia sinbolikoa areagotzea, kale eta plaza zein nahiz eraikin garrantzitsuei emakume-izena jarritz eta monumentuen bitartez.

Herritarrek parte hartzeko prozesuetan emakumeen presentzia areagotzeko, sentsibilizazioa da estrategia egokia, presentzia desorekatua agerian utzita; horrela, esku-hartzea beharrezkoa dela egiaztatu eta frogatuko dugu. Halaber, funtsezkoa da emakumeak prozesu horietan parte hartzeko gaituak egotea, bestela, eta hirigintzarekin, ingurumenarekin eta garraio publikoarekin loturiko gaiak zein konplexuak diren aintzat hartuta, ezin izango bailukete parte hartu, haien presentzia alferrikakoa izanik. Legearen 23. artikularen arabera, “trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea ahalbidetzen du gaitasunak”.

Araudietan parekotasun-irizpideak txertatuz gero, horien eraginkortasuna indartzeaz gain, eraginkortasuna ebaluatzea ere ahalbidetuko da, araudiaren betetze-maila egiaztatuta. Legearen 23. artikulua aplikatzeko modu bat da hori; artikulua horretan, honako hau sustatu nahi da: zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatu etako kide izateko pertsonak izendatzerakoan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

Hirigintzaren eta garraio publikoaren planifikazioa funtsezko alderdiak dira norberaren, familiararen eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko: zerbitzu mota guztien kokapenak, eta beraz, gertutasunak edo urruntasunak, iristeko erraztasunak edo zailtasunak baldintzatu egiten du jendearen bizitza. Zonak oso bereziak dituen hiri batean zaila da bateratzea, etengabe alde batetik bestera ibili behar baita jarduera bat edo beste egiteko (lan egiteko, erosketak egiteko, ikasteko, aisialdirako, eta abarrerako); aldiz, zona multifuntzionalen diseinuarekin, eguneroko bizitzako gune edo zerbitzu guztiak bertatik bertara izatea ziurtatzen da. Jarduera ezberdinak uztartzeko ahalegina egitean hainbat arazo sor daitezke, eta horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da denbora ongi kudeatzea eta, hortaz, joan-etorriak murriztea. Ildo berari jarraiki, hiriarren planifikazioa behar bezalakoa izatearekin batera, garraio publikoaren planifikazio egokia ere beharrezkoa da, eta horretarako, emakumeek nola erabiltzen duten jakin behar da eta zein premiari erantzun behar dion. Nolanahi ere, garrantzitsua da zonaren ezaugarriak gogotan izatea, eta bereziki, hiri- edo landa-eremua den kontuan hartzea; izan ere, hain errealitate ezberdinak izaki, irtenbide egokituak beharko dituzte.

Hiri-diseinuaren baldintzapean dagoen beste faktore bat irisgarritasuna da, dela dauden guneak hobetuta, dela hirigune berriak eraikita. Arkitektura-oztopo guztiak ezabatuz gero, jendearen autonomia areagotzen da, eta batik bat, ezintasunen bat duen jendearena; eta aldi berean, ezinduak zaintzen dituztenek edo haiei laguntzen dietenek ere denbora gehiago izaten dute. Legearen 49. artikulua 1. atalean dioenez, "Euskal herri-administrazioek zerbitzu eskuragarriak, malguak, kalitatekoak eta erraz lortzekoak ezarri behar dituzte, hain zuzen ere, autonomia funtzional nahikoa ez izatearen ondorioz eguneroko bizitzako jardunerako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen arreta-beharritzanei erantzuteko".

Bai hirigintzaren eremuan, bai garraio publikoaren eremuan, honako hauek dira estrategia egokienak: oztopoak identifikatzea, konponbiderako neurriak ezartzea, eta ezarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatzea. Hiri-planifikazioaren kasuan, arlo horren arduradutenei prestakuntza emateari funtsezko deritzogu, baita genero-ikuspegia txertatzea bermatuko duen araudia egokitzeari ere. Garraio publikoari dagokionez, diagnostikoak egiteko garaian emakumeek parte hartzea oso garrantzitsua da, haien premiak modu zuzenean eta zehatz-mehatz ezagutzeko aukera izango baitugu, baita eguneroko joan-etorrietan izaten dituzten oztopoak ezagutzekoa ere.

INDARKERIA

Hiri-diseinuak jendearen segurtasuna baldintzatzen du, eta batik bat, emakumeena, bi zentzutan: alde batetik, indarkeria-ekintzak gerta daitezkeen tokiak sortzeko lagungarri edo eragozpen izan daiteke (toki iluna edo urrunekoa delako, edo inor bakarrik harrapa daitekeelako eta

laguntza eskatzeko aukerarik ez izan); bestetik, segurtasun-sentsazioa edo segurtasun-ezaren sentsazioa eragiten duten inguruneak sortzea susta dezake (alde handia dago toki garbi, jendetsu eta argitu baten, eta toki zikin, bakarti eta ilun baten artean), eta horrek eragina du emakumeen herriaz gozatzeko mailan eta haien mugigarritasunean, zeren segurtasun-ezaren sentsazioa izanez gero, toki jakin batzuetatik, bakarrik edo ordu jakinetan ibiltzea saihestuko baitute.

Hori dela-eta, egiaz arriskutsuak direlako, edo egiazko mehatxurik baden ala ez den alde batera utzita, segurtasun-ezaren sentsazioa eragiten dutelako, toki horiek identifikatu egin behar dira. Eta identifikatu ostean, neutralizatzeko neurri egokiak diseinatu behar dira. Halaber, ezinbestekoa da segurtasun-eza eragiten duten toki berriak sor daitezen saihestea, eta horretarako nahitaez bete beharreko araudia behar da, aplikatu beharreko irizpideak adieraziko dituen.

Horretaz guztiaz gain, eta indarkeriaren biktima diren emakumeei dagokienez, izaten duten arazo espezifiko bat honako hau da: harrera- eta larrialdi-zentroetatik ateratzen direnean ez dutela bizitzeko etxebizitza egokirik. Erakundeek badituzte neurriak premia horri erantzuteko, baina hala ere, baliabidea hobetzen jarraitu behar da eta kasuan kasu erantzun egokia bermatu. Zalantzarik gabe, indarkeriaren biktima diren emakume guztiek ez dute egoera hori bizi, baina berezko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenek bai, ez baitute etxebizitza bat alokatzeko adina diru izaten. Emakume horien kasuan, bikotekidearekin bizi ziren etxera itzultzea baino beste aukerarik ez izatea saihestu behar da –esan gabe doa, segurtasun-arrazoiengatik–; hortaz, behar-beharrezkoa da erraztasunak ematea etxebizitza bat lortzeko.

PROGRAMEN ETA HELBURUEN ZERRENDAA

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA –1M–:

GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA HIRIGINTZAREKIN, GARRAIOAREKIN ETA INGURUMENAREKIN LOTURIKO POLITIKETAN ETA PROIEKTUETAN

1M.1. HELBURUA:

Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra ezartzea.

1M.2. HELBURUA:

Garraio sozietate publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta esku hartzeko tresna ezartzea.

1M.3. HELBURUA:

Ingurumenari dagozkion ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko eredu ezartzea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:

HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN EREMUETAN, PLAN-GINTZA, DISEINUA ETA HOBEKUNTZAK EGITEKO PROZESU GUZTIETAN EMAKUMEEK PARTE HARTZEA ETA PAREKOTASUNA

1A.1. HELBURUA:

Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea eta parekotasuna bermatzea hirigintzaren eta ingurumenaren (batik bat, Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan) eremuetan egiten diren parte-hartze prozesuetan. Horrelako prozesurik ez badago, parte-hartze prozesuak egiteari bultzada ematea.

1A.2. HELBURUA:

Herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, garraio publikoaren plangintzan emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izanik.

1A.3. HELBURUA:

Emakumeen presentzia areagotzea hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako kargu publikoetan eta teknikari karguetan, gutxienez 40-60 proportzioa lortu arte.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:

EMAKUMEEK GUNE PUBLIKOARI EGINDAKO EKARPENA –GIZARTEAREN, KULTURAREN ETA HISTORIAREN ARLOKOA– ONARTZEA

2A.1. HELBURUA:

Besteak beste, kaleen eta plazen izenaren bitartez, monumentuak eraikita edo eraikinei izena jarrita gizonei eta emakumeei egiten zaizkien gizarte-mailako omenaldiak orekatzea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–:

HIRIKO ETA GARRAIOAREN AZPIEGITURAK EGOKITZEA NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO, ETA NORBERAREN AUTONOMIA GARATZEKO

1B.1. HELBURUA:

Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearren, hirigintzako plangintza-eta diseinu-irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.

1B.2. HELBURUA:

Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak aplikatzea garraio publikoan.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –1I–:

EMAKUMEEN SEGURTASUNA ETA SEGURTASUN SENTSAZIOA HOBETZEA

1I.1. HELBURUA:

Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren tokiak identifikatzea herrietan, neutralizatzeko neurriak ezartzearen. Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren toki berriak sortzea saihesteko irizpideak ezartzea.

1I.2. HELBURUA:

Behar izanez gero, indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza-eskaeraren %100 betetzea, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzerakoan edo etxebizitzarako sarbidean lehentasuna edo bestelako abantailaren bat emanda.

HIRIGINTZA, GARRAIO PUBLIKOA ETA INGURUMENA: Programen eta jardun helburuen banaketa ardatzetan

MAINSTREAMINGA	AHALDUNTZEA	BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA	INDARKERIA
1M: Genero-ikuspegia integratzea hirigintzarekin, garraioarekin eta ingurumenarekin loturiko politiketan eta proiektuetan 1M.1. HELBURUA: Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra ezartzea. 1M.2. HELBURUA: Garraio sozietate publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta esku hartzeko tresna ezartzea. 1M.3. HELBURUA: Ingurumenari dagozkion ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko eredua ezartzea.	1A: Hirigintzaren, garraio publikoaren eta ingurumenaren eremuetan, plangintza, diseinua eta hobekuntzak egiteko prozesu guztietan emakumeek parte-hartzea eta parekotasuna 1A.1. HELBURUA: Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea eta parekotasuna bermatzea hirigintzaren eta ingurumenaren (batik bat, Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan) eremuetan egiten diren parte-hartze prozesuetan. Horrelako prozesurik ez badago, parte-hartze prozesuak egiteari bultzada ematea. 1A.2. HELBURUA: Herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, garraio publikoaren plangintzan emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izanik. 1A.3. HELBURUA: Emakumeen presentzia areagotzea hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako kargu publikoetan eta teknikari karguetan, gutxienez 40-60 proportzioa lortu arte. 2A: Emakumeek gune publikoari egindako ekarpena -gizartearen, kulturaren eta historiaren arlokoa- onartzea 2A.1. HELBURUA: Besteak beste, kaleen eta plazen izenaren bitartez, monumentuak eraikita edo eraikinei izena jarrita gizonen eta emakumeen egiten zaizkien gizarte-mailako omenaldiak orekatzea.	1B: Hiriko eta garraioaren azpiegiturak egokitzea norberaren, familiaren eta lan-arloko biziiza bateragarri egiteko, eta norberaren autonomia garatzeko 1B.1. HELBURUA: Familiaren, norberaren eta lan-arloko biziiza bateragarri egitearren, hirigintzako plangintza- eta diseinu-irizpideak identifikatzea eta aplikatzea. 1B.2. HELBURUA: Familiaren, norberaren eta lan-arloko biziiza bateragarri egiteko neurriak aplikatzea garraio publikoan.	1I: Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa hobetzea 1I.1. HELBURUA: Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren tokiak identifikatzea herrietan, neutralizatzea neurriak ezartzearen. Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren toki berriak sortzea saihesteko irizpideak ezartzea. 1I.2. HELBURUA: Behar izanez gero, indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza-eskaeraren %100 betetzea, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzerakoan edo etxebizitzarako sarbidean lehenetsia edo bestelako abantailaren bat emanda.

PROGRAMAK, HELBURUAK ETA JARDUN ESTRATEGIAK GARATZEA

MAINSTREAMINGA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–:

GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA HIRIGINTZAREKIN, GARRAIOAREKIN ETA INGURUMENAREKIN LOTURIKO POLITIKETAN ETA PROIEKTUETAN

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

46. artikulua.- Ingurumena eta etxebizitza.

1- Euskal herri-aginteez beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, bestek bestek, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Hirigintzako planifikazioaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuan genero-ikuspegia txertatzen izandako esperientziaren bitartez, emakumeen eta, oro har, herritarren bizibaldintzak hobetu daitezkeela frogatua geratu da. Ikusi dugu, halaber, hori lortzea oso konplexua dela eta epe luzerako lana eskatzen duela, ikerketak, prestakuntza eta sentsibilizazioa ezinbestekoak izanik bai herritarrei dagokienez, bai profesionali dagokienez. Programa honen helburua, hain justu, honako hau da: genero-ikuspegia modu sistematikoan txertatzea hiru eremuen (hirigintzaren, ingurumenaren eta garraioaren) planifikazioan eta diseinuan.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1M.1. HELBURUA:

Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra ezartzea.

1M.2. HELBURUA:

Garraio sozietate publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta esku hartzeko tresna ezartzea.

1M.3. HELBURUA:

Ingurumenari dagozkion ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko eredia ezartzea.

1 M. 1 . HELBURUA:

HIRIGINTZAKO EKINTZA PLANETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO TRESNA ESTANDARRA EZARTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Hirigintzan, erabakiak hartzeko eta planifikazioko prozesuetan genero-ikuspegia txerta dadin erraztea, eta eremu horretako praktika onak bultzatzea eta zabaltzea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- Sexuaren arabera bereizitako estatistikak egiten direnean.
- Lantzen diren dokumentuetan hizkuntza modu ez-sexitan erabiltzen denean.
- Jardun edo arau jakin bat diseinatu aurretik, emakumeen eta gizonen premia bereizgarrien diagnostiko bat egiten denean.
- Diseinaturiko ekintzen genero-eraginaren aurreikuspena egiten bada.
- Emakumeen egoeraren edo baldintzen gainean eragin negatiboa izango duten ekintzak aldatzen edo ezabatzen badira.
- Diagnostikoan atzemandako emakumeen premiak betetzeko ekintza espezifikoak egiten badira, eta batik bat, familiako eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea, eta gune publikoan emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa sustatzeko ekintzak.
- Eraginpean hartzen dituen emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak edo arauak izango duen eragina ebaluatzen bada.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Garraio eta Herri Lan Saila.
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Hiri-planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko premia araudian sartu duten udalen kopurua.
- Ikuspegi horri jarraiki egindako hirigintzako esku-hartzeen kopurua, guztira.
- Egindako proiektuetatik, praktika ontzat har daitezkeen kopurua.

1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako estrategia honako honetan oinarritzen da:

- Hirigintzaren diseinuaz eta plangintzaz arduratzen diren kargu publikoetako nahiz kargu teknikoetako lagunak sentsibilizatzea, eta horiei prestakuntza eta aholkularitza ematea.
- Tresna estandarra lantzea.

1M.2. HELBURUA:

GARRAIO SOZietate Publikoetan Genero Ikuspegia Txertatzeko eta Esku Hartzeko Tresna Ezartzea.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Garraio publikoaren plangintza eta diseinua hobetzeko aukerak atzematea, eta egungo egoera aldatzeko aukera bideragarriak ematea. Horretarako, emakumeen premiak nahiz inguruko berezko ezaugarriak aintzat hartu behar dira (esaterako, hiriko edo landa-eremuko zona den). Garraio publikoaren antolamenduak emakumeei bereziki eragiten die, askotan ez baitute beste aukerarik izaten joan-etorriak egiteko, erabiltzaile nagusiak izanik. Garraio publikoaren kalitateak baldintzatzen du, zuzen-zuzenean, emakumeen denboraren eta mugigarritasunaren kudeaketa, baita emakumeek zaintzen dituzten beste lagunena ere.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauetan:

- Sexuaren arabera bereizitako estatistikak egiten direnean.
- Lantzen diren dokumentuetan hizkuntza modu ez-sexitan erabiltzen denean.
- Jardun jakin bat diseinatu aurretik, emakumeen eta gizonen premia bereizgarrien diagnostiko bat egiten denean.
- Diseinaturiko ekintzen genero-eraginaren aurreikuspena egiten bada.
- Emakumeen egoeraren edo baldintzen gainean eragin negatiboa izango duten ekintzak aldatzen edo ezabatzen badira.
- Diagnostikoan atzemandako emakumeen premiak betetzeko ekintza espezifikoak egiten badira, eta batik bat, familiako eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea, eta gune publikoan emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa sustatzeko ekintzak.
- Eraginpean hartzen dituen emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak izango duen eragina ebaluatzen bada.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Garraio eta Herri Lan Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Egindako txostenen edo azterketen kopurua.
- Proposaturiko eta gauzaturiko hobekuntzen kopurua.
- Hobekuntzak egin dituzten garraio-konpainien kopurua, publiko nahiz pribatu izan.

1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Garraio-enpresetan diagnostikoak egitea ahalbidetuko duen tresna estandar bat lantzea eta aplikatzea, genero-ikuspegitik begiratuta.

1 M.3. HELBURUA:

INGURUMENARI DAGOZKION EKINTZA PLANETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO EREDUA EZARTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Ingurumenaren eremuan genero-ikuspegia pixkanaka txertatzea, Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak aplikatuta, instituzionalizatuta eta ezagutarazita.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Genero-ikuspegia txertatu dela esango dugu honako kasu hauek:

- Sexuaren arabera bereizitako estatistikak egiten direnean.
- Lantzen diren dokumentuetan hizkuntza modu ez-sexitan erabiltzen denean.
- Jardun edo arau jakin bat diseinatu aurretik, emakumeen eta gizonen premia bereizgarrien diagnostiko bat egiten denean.
- Diseinaturiko ekintzen genero-eraginaren aurreikuspena egiten bada.
- Emakumeen egoeraren edo baldintzen gainean eragin negatiboa izango duten ekintzak aldatzen edo ezabatzen badira.
- Diagnostikoan atzemandako emakumeen premiak betetzeko ekintza espezifikoak egiten badira.
- Tokiko Agenda 21eko eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetako parte-hartze prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea bermatzen bada.
- Eraginpean hartzen dituen emakumeen egoeraren eta baldintzen gainean jardunak edo arauak izango duen eragina ebaluatzen bada.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Ihobe.
- Mendikoi, S.A.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak diseinatzeko, ezartzeko eta ebaluatzeko garaian genero-ikuspegia txertatzen duten udalen kopurua.
- Tokiko agenden emaitzetan genero-ikuspegia txertatzearen eragina: emakumeek edo emakume-elkarteek Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan egin-dako ekarpenen kopurua.

1M.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra sortzea.
- Udaletxeetan eta ingurumen-aholkularitzako erakundeetan, Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak ezartzeko ardura duten kargu publikoetako nahiz kargu teknikoetako lagunak sentsibilizatzea, eta horiei prestakuntza eta aholkularitza ematea.

AHALDUNTZEA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A–:

HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN EREMUETAN, PLAN-GINTZA, DISEINUA ETA HOBEKUNTZAK EGITEKO PROZESU GUZTIETAN EMAKUMEEK PARTE HARTZEA ETA PAREKOTASUNA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

46. artikulua.- Ingurumena eta etxebizitza

1. 1- Euskal herri-aginteei beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Herritarrek parte hartzeko prozesuak gero eta garrantzi estrategiko handiagoa lortzen ari dira eremu askotan, eta batik bat, Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak ezartzeko garaian. Hirigintzako erabakiak hartzeko eta planifikazioko zenbait prozesutan ere txertatzen ari da. Zalantzarik gabe, herritarrek parte hartzeko modu aktiboa denez, erakundeetatik bide hori indartzen jarraitu behar da. Baina ezinbestekoa da prozesu horietan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea bermatzea eta zaintzea, baita parte-hartzea paritarioa izan dadin sustatzea ere. Hori lortzeko, aktibotasunaren aldeko jarrera izan behar da, eta emakumeen parte-hartze paritarioa bermatzeko hainbat irizpide hartu behar dira aintzat. Programa honen helburua, hain zuzen ere, honako hau da: parte-hartze prozesuak paritarioak izatea, eta parte-hartze prozesurik ez badago, sortzea, betiere parekotasun-irizpideei jarraiki.

Garraio publikoaren kasuan, aparteko aipamena egin behar dugu. Garraio publikoa diseinatzeko eta planifikatzeko prozesuetan, emakumeen presentzia paritarioa izatea baino gehiago, emakumeak nagusi izatea proposatzen da. Horren arrazoia honako hau da: emakumeak dira garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak, eta egoera hori kontuan izan behar da garraioa antolatzeke garaian, batik bat, emakumeen premiei erantzun behar baitie.

Egia da emakumeak sartzen ari direla, poliki-poliki, erabakiak hartzeko eta planifikazioko eremuetan, baina oraindik ere ezinbestekoa da horretarako pizgarriak ezartzea. Hirigintzan, ingurumenean eta garraio publikoan beharrezkoa da ahalegin hori egitea, zenbait mailatan zertxobait maskulinizatuak dauden eremuak baitira, eta parekotasuna bultzatzeko neurriak eskatzen baitituzte.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

1A.1. HELBURUA:

Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea eta parekotasuna bermatzea hirigintzaren eta ingurumenaren (batik bat, Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan) eremuetan egiten diren parte-hartze prozesuetan. Horrelako prozesurik ez bada, parte-hartze prozesuak egiteari bultzada ematea.

1A.2. HELBURUA:

Herritarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, garraio publikoaren plangintzan emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izanik.

1A.3. HELBURUA:

Emakumeen presentzia areagotzea hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako kargu publikoetan eta teknikari karguetan, gutxienez 40-60 proportzioa lortu arte.

1A.1. HELBURUA:

EMAKUMEEN ETA EMAKUME ELKARTEEN PARTE-HARTZEA ETA PAREKOTASUNA BERMA-TZEA HIRIGINTZAREN ETA INGURUMENAREN (BATIK BAT, TOKIKO AGENDA 21en ETA LANDA GARAPENeko ESKUALDEKO PROGRAMETAN) EREMUETAN EGITEN DIREN PARTE-HARTZE PROZESUETAN. HORRELAKO PROZESURIK EZ BADAGO, PARTE-HARTZE PROZESUAK EGITEARI BULTZADA EMATEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Herritarrek parte hartzeko prozesuetan emakumeen presentzia ziurtatzea, parte-hartzea paritarioa izatea, eta horrelako prozesurik ez dagoen tokitan horiei ekitea.

Gure erkidegoan, hirigintzaren eta, batez ere, ingurumenaren eremuetan sartzen ari dira herritarrek parte hartzeko prozesuak, Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programen bitartez, non herritarrek modu sistematikoan parte hartzen duten. Ez dugu ahaztu behar garrantzitsua dela administrazioaren eta emakume-elkarteen arteko komunikazio naturala ahalbidetuko duten mekanismoak izatea, abian dauden erabakiak hartzeko edo planifikazioko prozesuen inguruan informazioa izan dezaten emakumeek, eta elkarteak ere kontuan izan ditzaten, herritarrek parte hartzeko prozesuetan parte har dezaketzen gizarte-eragileak baitira. Halaber, erakundeek elkarre horien ezaugarriak, aldarrikapenak, premiak, gaitasunak, baliagarritasunak, etab. zeintzuk diren jakitea ere garrantzitsua da, haien parte-hartzea errazte eta egokitze aldera.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Egoera paritarioa dela esango dugu parte-hartzaileen %40, gutxienez, emakumeak direnean, emakumeek aurkeztutako alegazioak aintzat hartzen direnean, eta gutxienez, honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

- Behar bezala parte hartzeko informazioa eta prestakuntza izatea emakume parte-hartzaileek.
- Parte-hartze tailerrak antolatzeko garaian emakumeen denbora-mugak eta mugigarritasuna kontuan izatea, haien presentzia ziurtatzeko.
- Emakumeen ekarpenak kontuan izatea.
- Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Ihobe.
- Mendikoi, S.A.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Hirigintzako eta ingurumeneko planifikazioan, diseinuan eta hobekuntzetan herritarrek parte hartzeko deialdien kopurua.
- Emakumeen presentzia paritarioa izan den parte-hartze prozesuen kopurua (lehen adierazitako irizpideen arabera).
- Hirigintzako eta ingurumeneko planifikazioan, diseinuan eta hobekuntzan solaskide publiko izateko gaitasuna lortzeko prestakuntza-jardueretan parte hartu duten emakumeen kopurua.

1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Herritarrek parte hartzeko prozesuak antolatzeko eta kudeatzeko ardura dutenak nahiz herritarrek berak sentsibilizatzea. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua ez dela ikusaraztea estrategia ona izaten da eremu horretan esku hartu behar dela frogatzeko.
- Prozesu horietan, emakumeen eta, bereziki, emakume-elkarteen parte-hartzearen ehunekoa aztertzea eta ikusaraztea.
- Emakumeak gaitzeko programak garatzea.
- Parte-hartzea sustatzeko mekanismo eta baliabide ekonomikoak, baita giza baliabideak ere, ematea.

1A.2. HELBURUA:

HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAK ABIARAZTEA, GARRAIO PUBLIKOAREN PLANGINTZAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA PAREKOA IZANIK.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Emakumeek garraio publikoaren planifikazioan esku har dezaten laguntzea, herritarrek parte hartzeko prozesuen bitartez; hartara, erabiltzaile nagusien premiak eta lehentasunak zeintzuk diren jakingo dute konpainiek.

Emakumeak dira garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak; baina horrek ez du esan nahi beti galdetzen zaienik ibilbideak, lineak, ordutegiak, ibilgailuak, araudiak... diseinatzeko garaian. Hala ere, garraio publikoaren planifikazioa funtsezko alderdia da emakumeek denbora (emakume askorentzat hain urria den baliabidea) eta joan-etorriak (gizonekin alderatuta, ohikoa-goak eta askotarikoak izaten direla) antolatzeko. Garraio-konpainientzat mesedegarriak izango lirateke horrelako prozesuak, haien xede-bezero nagusia zaintzeko eta horri eusteko aukera izango luketelako.

Garraio publikoaren planifikazioan emakumeen parte-hartzea ezinbestekoa dela ulertzeko, hainbat alderdi izan behar dira kontuan:

- Gizon gehienekin alderatuta, emakumeen mugikortasun-ereduak askoz ere konplexuagoak dira. Gizonekoek joan-etorri "pendularrak" egiten dituzte, hau da, bi puntu finkoren arteko joan-etorriak egiten dituzte, ordutegi erregularrekin; baina emakumeen ereduak askoz ere konplexuagoak dira. Joan-etorria laburragoak egiten dituzte, baina maizago eta egunean zehar.
- Emakumeen joan-etorrien zirkunstantziak eta helburuak ere izan behar dira kontuan: inoren laguntza behar dutenak (haurrak, adinekoak, gaixoak, ezinduak...) zaintzen dituztenez, haiekin egiten dute joan-etorria, edo zama eramaten dute (erosketak, esaterako); joan-etorriaren helburua ugalketa-lanarekin loturik egoten da maiz, hortaz, toki askotara joan behar izaten dute (merkatura, ikastetxera, ospitalera, parkera, lantokira...), hamaika zeregin betetzeko.
- Garraio publiko on batek koordinatuta egon beharko luke zerbitzuen (osasunaren, gizar-tearen, hezkuntzaren, kulturaren, merkataritzaren, eta abarren arlokoak) kokapenaren planifikazioarekin, kokapen horrek baldintzatzen baititu emakume askoren joan-etorriak, eta hortaz, haien denboraren kudeaketa.
- Garraio publikoaren erabiltzaile nagusiengandik informazioa jasotzeko, haien lankidetzazuzena behar da.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Pareko presentzia egokia lortu dela esango dugu parte-hartze prozesuetako parte-hartzaileen osaera gutxienez %40 eta gehienez %60 denean bi sexuetako edozeinetan.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Garraio eta Herri Lan Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Mendikoi, S.A.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Abiarazitako parte-hartze prozesuen kopurua.
- Emakume parte-hartzaileen kopurua.
- Parte-hartze prozesuetatik eratorrita, egindako hobekuntzen kopurua.

1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Helburu hori lortzeko honako estrategia hau gomendatzen da:

- Erabiltzaileen gogobetetze-mailaren diagnostikoa egitea.
- Garraio publikoko konpainiak sentsibilizatzea.
- Parte-hartze prozesuak egiteko baliabideak erraztea.

1A.3. HELBURUA:

EMAKUMEEN PRESENTZIA AREAGOTZEA HIRIGINTZAREN, GARRAIOAREN ETA INGURUMENAREN EREMUETAKO KARGU PUBLIKOETAN ETA TEKNIKARI KARGUETAN, GUTXIENEZ 40-60 PROPORTZIOA LORTU ARTE.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Emakumeen presentzia areagotzea hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako erabakiak hartzeko eta planifikazioko eremuetan.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Plan honen esparruan, administrazio publikoarekin eta enpresa publikoekin loturik dago helburua, betiere emakumeen presentzia gutxiengoa bada.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Garraio eta Herri Lan Saila.
- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Ihobe.
- Mendikoi, S.A.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Hirigintzarekin, garraioarekin eta ingurumenarekin loturiko erabakiak hartzeko eta planifikazioko lan-taldeetan dagoen emakume kopurua, administrazioaren maila guztietan.
- Lan-talde horietan emakumeek duten hierarkia-posizioa.
- Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordean dauden emakumeen kopurua.
- Lurralde Politikarako Aholku Batzordean dauden emakumeen kopurua.
- Euskal Herriko Ingurumen Batzordean dauden emakumeen kopurua.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumenerako Aholku Batzordean dauden emakumeen kopurua.
- Euskal Herriko Natura Zaintzeko Aholku Batzordean dauden emakumeen kopurua.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Erabakiak hartzeko eta planifikazioko talde guztietan parekotasuna eskatzeko mekanismoak ezartzea, bai administrazioaren barruan, baita enpresa publikoetan ere. Plan honen indarreko 4 urteak parekotasunerantz aurrera egiteko bidea izango dira, pixkanaka-pixkanaka emakumeen presentzia areagotu dadin.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:

EMAKUMEEK GUNE PUBLIKOARI EGINDAKO EKARPENA –GIZARTEAREN, KULTURAREN ETA HISTORIAREN ARLOKOA– ONARTZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

3. artikulua.- Printzipio orokorrak

6.– Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.

Euskal aginte publikoek sexuaren araberako rol sozial eta estereotipoak desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonari eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta hori, gainera, balorazio eta aitorpen ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Kaleen eta plazen izena, monumentuak eta hiriguneko elementuen bitartez gizartean onarpena emateko beste hainbat modu adierazgarri izaten dira, hain zuzen ere, gizarte batek ofizialki eta espresuki bere egiten dituen eta aldarrikatzen dituen balioen adierazgarri. Hirigintzako elementuetan emakumeen presentzia txikiagoa izatearen arrazoia horixe da, alegia, historian zehar emakumeek izan duten gizarte-mailako balioespen txikiagoa. Emakumeen gizarte-onarpenean eta egoeran izan diren aldaketek eragina izan behar dute gizartearen omentzeko modu horretan, eta hirigintzako elementuen bitartez emakume gehiago goraipatzea bultzatu behar da. Emakumeen presentzia publiko sinboliko hori gune publikoa okupatzeko beste modu bat da, historian zehar emakumeentzat mugatua izan baita, gizonekin loturik zegoelako.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDIA:

2A.1. HELBURUA:

Besteak beste, kaleen eta plazen izenaren bitartez, monumentuak eraikita edo eraikinei izena jarrita gizonari eta emakumeei egiten zaizkien gizarte-mailako omenaldiak orekatzea.

2A.1. HELBURUA:

BESTEAK BESTE, KALEEN ETA PLAZEN IZENAREN BITARTEZ, MONUMENTUAK ERAIKITA EDO ERAIKINEI IZENA JARRITA GIZONEI ETA EMAKUMEEI EGITEN ZAIZKIEN GIZARTE-MAILAKO OMENALDIAK OREKATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Kaleen eta plazen izenaren bitartez, monumentuak eraikita edo eraikinei izena jarrita emakumeei aintzatespen sozial handiagoa egitea.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Pertsonei eta kolektiboek eskainitako hiri-elementuen bitartez emakumeei eta gizonei egiten zaien aintzatespen soziala orekatu dela esango dugu, bi sexuen arteko proportzioa ekitatiboa denean.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

— Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Kale-izendegian sartutako emakume-izenen kopurua eta proportzioa.
- Gaur egun, emakumeei eskainitako monumentuen eta eraikinen kopurua.
- Eraikitzen diren hirigune berrietan, kale-izendegian, monumentuetan eta abar jartzea aurreikusita dauden emakumeen izenen kopurua eta proportzioa.

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Jendearen eta erakundeen izena duten kale-izendegiak, monumentuak eta bestelako hirigintzako elementuak aztertzea, dauden erreferentziak eta transmititzen diren balioak ere kontuan izanda.
- Emaizak ezagutarazita sentibilizatzea.

- Kaleei eta plazei izenak jartzeko, eta monumentuak eraikitze iradokizunak jasotzeko zerbitzua ezartzea edo zehaztea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1 B–:

HIRIKO ETA GARRAIOAREN AZPIEGITURAK EGOKITZEA NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO, ETA NORBERAREN AUTONOMIA GARATZEKO

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

46. artikulua.- Ingurumena eta etxebizitza

1. Euskal herri-aginteez beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.

49. artikulua.- Erkidegoarentzako zerbitzu soziokomunitarioak

1. Euskal herri-administrazioek zerbitzu eskuragarriak, malguak, kalitatekoak eta erraz lortzekoak ezarri behar dituzte, hain zuzen ere, autonomia funtzional nahikoa ez izatearen ondorioz eguneroko bizitzako jardunerako beren kabuz baliatu ezin diren pertsonen arreta-beharriez erantzuteko.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

Joan-etorriak egiteko gure gizartean gero eta urriagoa den baliabide garrantzitsu bat ezin bestekoa da: denbora. Norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea zaila edo ezinezkoa dela esaten badugu, egunean zehar burutu behar diren lan guztiak erabilgarri dugun denboran egitea ezinezkoa dela esatea da. Denbora-falta horri aurre egiteko, besteak

beste, joan-etorriak murriztu behar dira (kopuruari, aldeari eta iraupenari dagokionez). Horretarako, hirietako eta hiri-garraioaren planifikazioan kontuan izan behar da norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitea.

Hirigintzako plangintza egiteko garaian, zerbitzu mota guztiak badirela, irisgarriak direla eta gertu daudela bermatu beharko litzateke. Halaber, irisgarritasunarekin eta mugigarritasunarekin loturiko alderdiak ere aintzat hartu beharko dira hirigintzako diseinuan, mailaren batean edo bestean inoren laguntza behar dutenen autonomiari laguntzearen. Hori horrela izanik, laguntza behar duten horiei (beste egoera batean, laguntza eta zaintza beharko bailukete) ez ezik, zaintzaileei ere lagunduko genieke, haien lan-zama murriztuta.

Garraioari dagokionez, bi alderdi hauek izan behar dira kontuan: ibilbideen eta ordutegien egokitasuna, eta ibilgailuak egokitzea. Bi alderdi horiei erreparatuta, joan-etorrietan emandako denbora optimizatuko litzateke eta inoren laguntza behar dutenek autonomia-maila handiagoa izango lukete, eta inoren laguntza behar dutenekin edo zama astunekin bidaiatzen duten lagunen garraioa erraztuko litzateke.

Ahaztu behar ez dugun beste alderdi bat honako hau da: zona bakoitzaren ezaugarriak, eta batik bat, landa-eremuko edo hiriko zona ote den, zeren sakabanaketak, distantziek eta orografiak garraio publikoaren antolamendua guztiz baldintzatzen baitute.

Emakume askoren premietan oinarritzen dira neurri horiek; baina hala ere, egia esateko, aplikatuz gero herritar guztien mesederako izango litzateke, bizi-kalitatea, oro har, hobetzen baita. Erabateko erantzunkidetasun-egoera lortuz gero, emakumeentzat nahiz gizonentzat izango litzateke mesedegarri.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERRENDA:

1B.1. HELBURUA:

Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearren, hirigintzako plangintza-eta diseinu-irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.

1B.2. HELBURUA:

Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak aplikatzea garraio publikoan.

1 B. 1 . HELBURUA:

FAMILIAREN, NORBERAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEARREN, HIRIGINTZAKO PLANGINTZA ETA DISEINU IRIZPIDEAK IDENTIFIKATZEA ETA APLIKATZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Lan-arloko, norberaren eta familiaren bizitza bateragarri egiteko eragozpenak –hirigintzaren planifikazioak eta diseinuak eragindakoa– identifikatu eta ezabatuta, jendearen bizi-kalitatea hobetzea. Batik bat, etxeko lanak egiteko, jendea zaintzeko eta jendearen autonomiari laguntzeko erraztasunak jartzea da ekintza horien xedea. Eta landa-eremuko eta hiriko inguruneetako berezko ezaugarriak ere aintzat hartu behar dira.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Plan honi dagokionez, hirigintzako plangintzan eta diseinuan hiru alderdi hauek izan behar dira kontuan:

- Zerbitzuen kokapena eta irisgarritasuna. Familia eta norbera zaintzeak eragindako premiei erantzuteko beharrezko zerbitzuak (osasunaren, gizartearen, hezkuntzaren, kulturaren, kirolaren, merkataritzaren eta beste hainbat arloko zerbitzuak) eskura izatea da kontua, baita zerbitzuen kokapena egokia izatea ere, horietara iristeko joan-etorrietan denbora larregi eman behar ez izateko.
- Zonifikazioa. Gehiegi espezializatutako zonifikazioa (merkataritzako zona, aisialdiko zona, bizitegi-zona, laneko zona, etab.) saihestu behar da, bateragarritasuna zailtzen baitu, joan-etorri ugari egitera behartzen duelako lagun baten eta horren mendekoen bizitzaren alderdi guztiei erantzuteko.
- Arkitektura-oztopoak. Hirigintza-diseinuari dagokionez, maila batean edo bestean inoren laguntza behar dutenen autonomiari mugak jartzen dizkieten arkitektura-oztopoak ezabatzea oso garrantzitsua da, familia zaintzearekin loturiko zereginak eragozten baitituzte.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Foru Aldundiak.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Genero-ikuspegitik begiratuta, hirigintzaren planifikazioan eta diseinuan diagnostikoak egin dituzten udalerrien kopurua.
- Hiri-diseinuarekin loturik (zerbitzuen kokapena, zonifikazioa eta arkitektura-oztopoak), identifikatutako eta neutralizatutako bateragarritasunerako eragozpenen kopurua.
- Emakumeek joan-etorrietan emandako batez besteko denbora.

1 B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Gomendatutako estrategia honako honetan oinarritzen da:

- Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko hirigintzako planifikazioarekin eta diseinuarekin loturiko eragozpenak gainditzeko irtenbideak identifikatzea, ebaluatzea eta proposatzea.
- Arlo horietako arduradun diren profesionalei prestakuntza ematea, hobekuntza ezartzeko beharrezko tresnak eta esku-hartze irizpide egokiak izan ditzaten.
- Mugikortasun gutxitua dutenei buruzko egungo araudia aztertzea, eta bertan jasota ez dauden alderdi berriak txertatzeko egokitzea.

1 B.2. HELBURUA:

FAMILIAREN, NORBERAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK APLIKATZEA GARRAIO PUBLIKOAN.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteak eragindako premietara egokitzea garraio publikoa, etxeko lanak egitearekin, jendea zaintzearekin eta jendearen autonomiarekin loturiko premietara ere egokituta. Eta landa-eremuko eta hiriko inguruneetako berezko ezaugarriak ere aintzat hartu behar dira.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Garraio publikoa bateragarritasun-premietara egokitzeko neurrien bitartez, honako alderdi hauek hobetu behar dira:

- Ibilbideak eta bidaiak. Zerbitzu-sarearekiko (osasunaren, hezkuntzaren, kulturaren, gizar-tearen, kirolaren, merkataritzaren, eta abarren arlokoak) eta lantokiekiko komunikazioan, batik bat, aplikatu behar dira hobekuntza horiek.
- Ordutegiak. Lanarekin eta zerbitzu horiek baliatzearekin loturiko joan-etorrien premien araberakoa izan behar du ordutegiak.
- Itxaroteko tokiak. Itxaroteko tokiak erosoak izan behar dute, irisgarriak, eguraldi txarra denerako aterpea dutenak, eta segurtasunari dagokionez, toki egokian kokatu behar dira.
- Ibilgailuen egokitzea. Ibilgailuak egokituta egon behar dute, mugikortasun-arazoak dituztenen premiei erantzuteko, baita norberaren kargura dauden inoren laguntza behar dutenak eta familia zaintzearekin loturiko lanak eragindako premiei ere.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Garraio eta Herri Lan Saila.
- Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.
- Mendikoi, S.A.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Herritarrek parte hartzeko prozesuetan proposatutako hobekuntzen kopurua eta gauzatu-tako hobekuntzen kopurua.
- Garraio publikoaren konpainietako diagnostikoetan identifikaturiko arazoen kopurua, eta egindako hobekuntzak.
- Bateragarritasunaren aldeko hobekuntzen eragina: joan-etorrien kopurua, joan-etorrietan emandako denbora...

1B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIAK:

Honako estrategia hau proposatzen da:

- Diagnostikoak egitea, herritarren parte-hartzea ziurtatuta eta emakumeak nagusi izanik.
- Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearekin loturiko hobekuntzak ezartzea, diagnostiko horien bitartez identifikatuta.

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA – 11–:

EMAKUMEEN SEGURTASUNA ETA SEGURTASUN SENTSazioa HOBETZEA

PROGRAMAREN OINARRIA DEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ARTIKULUAK:

46. artikulua.- Ingurumena eta etxebizitza

1.- Euskal herri-aginteei beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.

HASIERAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA:

lkerketa ugariren arabera, herrietan eta hirietan badira hainbat leku non emakumeak ez diren seguru sentitzen, bai toki horietan indarkeria-egintzak gertatzeko baldintzak betetzen direlako (esate baterako, toki ilunak; erasotzaileek ezkutatzei aukera dute, edo biktimak bakartzeko), bai beldurra eragiten duten ezaugarri jakinak dituztelako (esate baterako, aparte dauden tokiak, argi gutxikoak edo zikinak).

Egiazko segurtasun-ezak (indarkeria-ekintza baten biktimak izateko aukerak) eta segurtasun-eza-ren sentsazioak (erasoak jasateko beldurra, aukera egiazkoa izan ala ez izan) emakumeen mugitzeko askatasuna mugatzen dute, eta ezin dute hiriaz behar bezala gozatu. Segurtasun-eza eragiten duten tokiak neutralizatuko dituen hirigintzako diseinu egokiaren bitartez, erasoak gertatzeko egiazko aukerak murrizteaz gain, emakumeei segurtasun-sentsazioa ematen zaie, gune publikoak gozatzeko aukera emanda eta haien mugikortasuna areagotuta.

Edozein esku-hartze gauzatu aurretik, "Beldurraren mapa" esaten zaiona egin behar da, emakumeek seguru ez daudela eta kalteberak direla sentitzen duten tokiak identifikatzen baitira. EAEko udalerririk askotan egin dituzte dagoeneko horrelako mapak, eta zenbait aldaketa ere ezarri dituzte.

Programa horrekin beste alderdi hau ere bete nahi dugu: indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen etxebizitzarako sarbidea, larrialdi-zentroetatik edo babes-etxeetatik ateratzen direne-

an. Emakume horien aukera bakarra beren bikotekideekin zuten etxera itzultzea ez izatea ziurtatu behar da; askotan gerta daiteke egoera hori, batez ere, estutasun ekonomikoaren egoeraren egoteagatik eta higiezinaren merkatuaren egungo egoera kontuan hartuta. Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko garaian lehentasuna emanez edo etxebizitza bat lortzeko bestelako abantailaren bat ezarriz konpon daiteke egoera hori.

PROGRAMA OSATZEN DUTEN HELBURUEN ZERREDA:

11.1. HELBURUA:

Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren tokiak identifikatzea herrietan, neutralizatzeko neurriak ezartzearen. Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren toki berriak sortzea saihesteko irizpideak ezartzea.

11.2. HELBURUA:

Behar izanez gero, indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza-eskaeraren %100 betetzea, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzerakoan edo etxebizitzarako sarbidean lehentasuna edo bestelako abantailaren bat emanda.

11.1. HELBURUA:

EMAKUMEAK SEGURTASUNIK GABE SENTITZEN DIREN TOKIAK IDENTIFIKATZEA HERRIETAN, NEUTRALIZATZECO NEURRIAK EZARTZEAREN. EMAKUMEAK SEGURTASUNIK GABE SENTITZEN DIREN TOKI BERRIAK SORTZEA SAIHESTEKO IRIZPIDEAK EZARTZEA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren tokiak identifikatzea, ezabatzea eta gehiago sor daitezen saihestea. Funtsean, herrietan eta hirietan emakumeak gustura egotea eta seguru sentitzea lortu behar dugu. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da emakumeen parte-hartzea, bai segurtasun-ezako toki horiek identifikatzeko eta eraldatzeko prozesuetan, bai segurtasun-irizpide jakin batzuk sortzeko eta ezartzeko garaian, dela gune berrien diseinuan, dela eraikia dagoen gune baten barruan esku-hartzeak edo aldaketak egitean. Halaber, Herrizaingo Sailaren lankidetzaren behar-beharrezkoa da, batik bat gune publikoetan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriarekin loturiko delitu-jarduerari buruzko datuak eta txostenak emateari dagokionez, eta adituen metaketari dagokionez.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Emakumeen segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa areagotzeko, beldurra eragiten duten tokiak ezabatu behar dira: bai arrisku objektiboa duten tokiak, baita segurtasun-ezaren sentsazioa eragiten dutenak ere, nahiz eta ez den erasorik gertatu.

Garraio publikoaren ibilbideak, bidaiak, ordutegiak eta itzaroteko tokiak diseinatzen direnean, segurtasun-irizpide horiek kontuan izan behar dira.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Herrizaingo Saila.
- Foru Aldundiak.
- Garraio eta Herri Lan Saila.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Identifikaturiko puntu beltzen kopurua, eta horiek neutralizatzeko egindako esku-hartzeen kopurua.
- Emakumeen segurtasuna bermatzeko diseinu-irizpideei dagokienez, araudia onartu duten udalen kopurua.
- Araudiari jarraiki gauzatzen diren esku-hartzeen kopurua.
- Erasoen kopurua eta mota, zonaren arabera.
- Emakumeen segurtasun-sentsazioa areagotzea guneko publikoetan (garraio publikoa barnean hartuta).

11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Herriko emakumeen parte-hartzearekin, segurtasun-eza eragiten duten tokiak eta toki horiek egokitzeko modu egokienak identifikatzea.
- Hirigintzako esku-hartze orotan nahitaez bete beharreko segurtasun-irizpideak jasotzen dituen araudia onartzea, garraio publikoarekin loturik.
- Emakumeei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, dituzten beldurrak arrazionalizatzatzen.

- Gune publikoetan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriarekin loturiko delitu-jarduerari buruzko datuak jakitea eta aztertzea.

11.2. HELBURUA:

BEHAR IZANEZ GERO, INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEN ETXEBIZITZA ESKAERAREN %100 BETETZEA, BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ESLEITZERAKOAN EDO ETXEBIZITZARAKO SARBIDEAN LEHENTASUNA EDO BESTELAKO ABANTAILAREN BAT EMANDA.

ESKU-HARTZEAREN HELBURUA:

Indarkeriaren biktima izan diren emakume guztiek etxebizitza duina eta segurua dutela bermatzea, harrera-etxetik ateratzen direnean.

KONTZEPTUAK MUGATZEA:

Indarkeriaren biktima diren emakumeak harrera- eta larrialdi-zentroetatik ateratzen direnean izaten dituzten arazoetako bat etxebizitzarena da, hau da, ez dutela bizitzeko etxebizitza egokirik. Erakundeek erantzuten diote, dagoeneko, premia horri, baina hala ere, baliabidea hobetzen jarraitu behar da eta kasuan kasu erantzun egokia bermatu. Zalantzarik gabe, indarkeriaren biktima diren emakume guztiek ez dute egoera hori bizi, baina berezko baliabide ekonomiko nahikorik ez dutenek bai, ez baitute etxebizitza bat alokatzeko adina diru izaten. Emakume horien kasuan, bikotekidearekin bizi ziren etxera itzultzea baino beste aukerarik ez izatea saihestu behar da –esan gabe doa, segurtasun-arrazoiengatik–; hortaz, behar-beharrezkoa da erraztasunak ematea etxebizitza bat lortzeko.

TARTEAN SARTUTAKO ERAKUNDEAK:

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- Foru Aldundiak.
- Udalak.

ERAGIN ADIERAZLEAK:

- Indarkeriaren biktima diren emakumeek egindako etxebizitza-eskaeren kopurua.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei esleitutako etxebizitzaren kopurua.
- Indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza lortzeko emandako abantailen kopurua.

- Indarkeriaren biktima diren emakumeentzat diren etxebizitzaren kopurua eta proportzioa, guztirakoaren gainean.

11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO ESTRATEGIA:

Honako estrategia hau gomendatzen da:

- Etxebizitzak esleitzeko politikak egokitzea, horrelako egoerak lehentasunezko hartuta.

7.

GOMENDATUTAKO EKINTZEN KATALOGOA



Jarraian ekintza-katalogoa aurkeztuko dugu, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planaren seigarren kapitulua osatzen duten arloetan ezarritako helburu guztiak erdiesteko gomendaturiko ekintzak barnean hartuta.

Gomendatutako estrategiak xehetasun handiagoz eta zehatzago garatuko ditugu, eta ekintza txertatzen den jardun-tresna motaren identifikazioa ere txertatu dugu. Hain justu, sei tresna mota definitu ditugu eta horien arabera sailkatuko ditugu erakundeetako jardun mota guztiak:

- Jakintza: Gai jakin baten inguruko jakintza areagotzera bideratutako ekintzak sartzen dira; hala nola mota guztietako ikerketak, azterlanak eta azterketak.
- Sentsibilizazioa: Kolektibo edo kolektibo multzo jakin bati zuzendutako informazioko, komunikazioko eta/edo kontzientziazioko ekintza guztiak sartzen dira; esaterako, kanpaina egitea, parte-hartze prozesuak, konferentziak, jardunaldiak eta biltzarrak.
- Prestakuntza: Kolektibo edo kolektibo multzo jakin baten berdintasun-politikak garatzeko edo betetzeko trebetasunak gaitzera eta sustatzera bideratutako ekintza guztiak sartzen dira.
- Zerbitzuak eta Baliabideak: Berdintasun-helburuak lortzeko lagungarri diren baliabideen –giza baliabideak, baliabide ekonomikoak, azpiegiturei dagozkionak edo bestelakoak– eta zerbitzuen –informazioko, aholkularitzako, laguntzeko zerbitzuak– kopurua areagotzera bideratutako ekintzak sartzen dira.
- Arauak: Berdintasunaren mesederako edozein arau sortzea edo egokitzea hartzen du barnean.
- Jarraipena egitea: Ekintza edo arau baten betetze-maila, arrakasta edo porrota neurtzeko ekintza guztiak sartzen dira; esate baterako prozesuaren, emaitzen edo eraginaren ebaluazioak.

Berdintasun-politiken programazioa errazteko xedea du katalogo honek, eta eskaintzen dituen sistematika eta egituraketa oinarri hartuta, esku-hartze planak diseina daitezke.

7.1.

KULTURAKO EKINTZAK

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA KULTURA ARLOETAN		
1M.1. HELBURUA:		
Kultura-jarduerak genero-ikuspegiari jarraiki planifikatzen eta betearazten dituzten Administrazioetako kultura-arloen kopurua handitzea.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Prestakuntza	1M.1.1.	Administrazioko langileei aukera berdintasunaren inguruko prestakuntza ematea, programatzen diren kulturaren arloko programen eta jardueren planifikazioan eta garapenean genero-ikuspegia txertatzeko gai izan daitezen.
Jakintza	1M.1.2.	Administrazioko eta azpikontratutako enpresetako langileentzat, barneko ezagutarazpen-gida bat lantzea eta zabaltzea, kulturaren arloko jarduerak eta programak diseinatu, planifikatu eta ezartzeko jarraibide eta praktika onak bilduta.
Jakintza	1M.1.3.	Kulturaren eremuan, emakumeen zaletasunak, itxaropenak, premiak eta interesak agerian uzteko diagnosiak egin daitezen sustatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.4.	Genero-ikuspegia integratzen duten plan, jarduera, programa eta arauak gauza daitezen sustatzea, helburuaren kontzeptuak mugatzean definitutako irizpideei jarraiki.
Jarraipena	1M.1.5.	Euskal administrazio publikoetako kultura-arloek ezarritako plan, jarduera, programa eta arauen genero-eragina ebalua dadin sustatzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.6.	Administrazioak kontratuak esleitzeko garaian, kontratatutako erakundea genero-ikuspegia txertatzera behartzen duen barne-araudia betetzen dela bermatzea eta ezagutaraztea, kultura-jarduerak diseinatu, planifikatu eta garatzean.
Prestakuntza	1M.1.7.	Gizartearen eta kulturaren arloko animazioko eta aisialdiko begiraleei eta zuzendariei prestakuntza ematea, genero-ikuspegia txertatutako jarduerak diseinatu, planifikatu, dinamizatu eta ebaluatzeke.
Jarraipena	1M.1.8.	Genero-ikuspegitik begiratuta, kulturaren arloko plan, arau, jarduera eta programak diseinatu, planifikatu eta ezartzeko praktika onei buruzko lan-mahaiak egitea, administrazio publikoen jardunean koordinazioa sustatuta eta gida eguneratuta.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A–:		
EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE–HARTZEA IZATEA KIROLAREN EREMUAN		
1A.1. HELBURUA:		
Bereizketa bertikala eta horizontala murriztea kirol-arlo eta -organismo publiko eta pribatuetan.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK:		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.1.1.	Euskal administrazioetako kirol-arloetan eta -organismoetan, eta kirol-klubetan eta -federazioetan dagoen bereizketa horizontala eta bertikala agerian utziko duen diagnostikoa egiteari bultzada ematea, eta jarduteko gomendioak ematea.
Araudia	1A.1.2.	Kirolaren Urteko Sariak emateko epaimahaietan emakumeen eta gizonen presentzia eta parte-hartze orekatua ziurtatuko duen araudia garatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.3.	Berdintasunerako eragileak edo aholkularitza-zerbitzuak kontratatzeke laguntza ekonomikoak, kirolaren eremuan eta kirol-sistemaren hierarkia-eskala osoan (teknikariak, entrenatzaileak, kirol-epaileak eta kudeatzaileak), lanbide maskulinizatuetan emakumeen presentzia areagotzea bultzatzeko neurriak hartzeko edo berdintasun planak egiteko garaian lagun dezaten.
Sentsibilizazioa	1A.1.4.	Euskal administrazioetako kirol-arloetako eta -organismoetako, eta kirol klubetako eta federazioetako politikariak eta teknikariak sentsibilizatzeko jarduerak egitea, egindako diagnosiaren emaitzak eta erabilgarri dauden baliabideak ezagutarazteko, kirolaren eremuan eta kirol-sistemaren hierarkia-eskala osoan (teknikariak, entrenatzaileak, kirol-epaileak eta kudeatzaileak), lanbide maskulinizatuetan emakumeen presentzia areagotzea bultzatzeko neurriak edo berdintasun planak ezartzeko.
Jarraipena	1A.1.5.	Euskal administrazioetako kirol-arlo eta -organismoen, nahiz kirol-federazio eta -klubei ebaluazio-txostenak eskatzea, bereizketa horizontala eta bertikala ezabatzeko hartutako neurrien gainean.

1A.2. HELBURUA:		
Emakumeen eta gizonen kirol-praktika dibertsifikatzea, kirol maskulinizatuetan emakumeen sarbidea eta kirol feminizatuetan gizonen sarbidea ahalbidetuta.		
A ESTRATEGIA:		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.A.1.	Genero-ikuspegitik begiratuta, kirolean (batik bat, euskal herri-kiroletan) emakumeen bilakaera, historia eta ibilbidea aztertzea, ikuskera androzentrikoa agerian utzita. Emakume kirolarien lorpenak eta ibilbidea agerian utziko dituzten ezagutarazteko eta zabalkundeko materialak sortzea.
Jakintza	1A.2.A.2.	Kirol federatuan dagoen genero-aldean eta, batik bat, emakumeen kirol-jarduerak lortzen duen babes txikian eragiten duten faktoreen gaineko ikerketa egitea.
Prestakuntza	1A.2.A.3.	Kirol-klubetako eta -federazioetako zuzendaritzako langileei prestakuntza ematea, aukera-berdintasunean oinarrituta, emakumeek kirol guztietarako sarbidea izan dezaten eragozpenak gainditzeko eta kirol-azpiegiturak egokitzeko (ikusuntu ergonomikotik eta funtzionaltik begiratuta).
Araudia	1A.2.A.4.	Emakumei eta gizonen zuzendutako sariak eta ordainsariak orekatzearren, diruz lagundutako kuota-sistema ezartzea.
Araudia	1A.2.A.5.	Komunikabide publikoetan gutxieneko kuota ezartzea, kirol-emankizunen %30 emakumeen kirol-emankizunak izan daitezen.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.6.	Emakumeen nahiz gizonen kirol-jardueri babesa ematea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.7.	Emakumeak gehiengo diren kirol modalitateentzako laguntza publikoak ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.8.	Emakumeen nahiz gizonen kirol-jardueri emandako babesetan zerga-pizgarriak ezartzea, bietako edozein gutxiengoa den modalitateetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.A.9.	Emakumeek eta gizonen egiten dituzten kirol-jarduerak dibertsifikatzeko laguntza publikoak ematea.
B ESTRATEGIA:		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.B.1.	Eskolako eta eskolaz kanpoko kirolaren eremuan, genero-aldea izateko eragiten duten faktoreak ikertzea, eta batik bat, generoaren arabera gizarte-erakuntzan oinarrituta, neska-mutilen kirol-praktika mugatzen duten faktoreak.
Sentsibilizazioa	1A.2.B.2.	Jarduera fisikoan eta kirol-jardueran aukera berdintasunaren inguruan sentsibilizatzea gurasoak, garatzen duten hezkuntza-lanean neska-mutilen kirol-praktika dibertsifikatua susta dezaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.B.3.	Kirolaren eta ariketa fisikoan eremuan, aukera berdintasunean oinarrituriko prestakuntza diruz laguntzea gorputz-hezkuntzako irakasleei, eskola-kiroleko eta aisialdiko begiraleei, eta entrenatzaileei, garatzen duten hezkuntza-lanean neska-mutilen kirol-praktika dibertsifikatua susta dezaten.
Jarraipena	1A.2.B.4.	Hezkuntzaren eremuan egindako kanpainen eta prestakuntzaren jarraipena egitea, eta eskola-eremuan genero-aldeari buruzko txostenak eskatzea.

1A.3. HELBURUA:

Parte-hartze kirolak egiten dituzten emakumeen proportzioa areagotzea, baita haien interesen arabera kirol-praktika hautatzeko aukerak ere.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Kirol motari dagokionez, emakumeen eta gizonen interes eta aukera bereizgarrien inguruko ikerketa egitea, administrazioek egiten duten kirol-eskaintzan sartu gabeko motak identifikatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.2.	Udal-kiroldegietako eta beste guneetako kirol-jardueren eta atsegin hartzeko jardueren programazioak egokitzea, emakumeek modu aktiboan parte hartuta egindako azterlana abiapuntu izanik.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.3.	Udal-kiroldegietako zerbitzuak, ekipamenduak eta guneak egokitzea emakumeen eta gizonen premien arabera, betiere aukera-berdintasuna errespetatuta.
Jarraipena	1A.3.4.	Udal-kiroldegietako kirol-eskaintzaren jarraipena egitea, baita zerbitzuak, ekipamenduak eta guneak emakumeen eta gizonen premia, zaletasun eta interes bereizgarrietarako egokitzearena ere.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA -2A-: EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA KULTURAREN ETA ARTEAREN EREMUAN

2A.1. HELBURUA:

Emakumeen kulturaren eta artearen arloko sorkuntza handitzea, baita gizartearen ikuspegi ez-sexista sustatzen duena ere.

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.1.	Emakumeentzako kulturagune erreferenteak sortzea, honako zerbitzu hauek barnean hartuta: – Ikertzeko, aholkularitza emateko eta dokumentazio feministako zerbitzua. – “Ikuspegi feministatik ikertzea” Prestakuntzagunea. – Kultura kontsumitzen duten emakumeentzako gunea. – Emakume artisten arteko hausnarketarako eta topaketarako gunea.
Jarraipena	2A.1.2.	Kultura-eremu guztietan emakumeek eta gizonek sortutako arte-produkzioen jarraipena eta azterketa egitea.
Araudia	2A.1.3.	Emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatzea, parekotasuna lortze aldera, euskal administrazio publikoak sustatutako edo diruz lagundutako sariak (artearen eta, literaturaren esparruan) emateko osatzen diren epaimahai guztietan, baita fondoak erosteko sortzen diren antzeko organoetan ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.4.	Kulturaren diziplina guztietan, genero-azterketak egiteko ikerketa-bekak ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.5.	Emakume artista gazteei bekak ematea obra garatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.6.	Emakumeen kultura-sorkuntza eta pentsamolde feminista sustatzen duten argitalpenei, hitzaldiei, erakusketei, bideoei laguntzak ematea.
Jakintza	2A.1.7.	Historian zehar, gizonen eta emakumeen kultura sortzeko izan dituzten moduak, emakumeen kulturaren ondareari egindako ekarpen historikoak ikertzea eta sistematizatzea, euskal kulturaren mundua bereziki aztertuta.
Sentsibilizazioa	2A.1.8.	Kultura-sorkuntzaren eta emakumeen inguruko eztabaida publikoa sustatzea, eztabaida-foroak eta topaketak antolatuta, emakumeen kulturaren munduari egindako ekarpen historikoa ezagutarazita, eta historian zehar emakumeen kultura sortzeko izan dituzten moduak balioetsita.
Sentsibilizazioa	2A.1.9.	Emakume sortzaileen eta artisten topaketak, jardunaldiak antolatzea, euren lana gehiago balioesteko, esperientziak elkartrukatzeko, eta sareak sortzeko eta egiteko moduak sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	2A.1.10.	Ezagutarazteko jarduera guztien barnean hartzea honako hauek: Administrazioak egiten edo bultzatzen dituen kultura- eta arte-produkzioak, emakumeen egindako lanak eta obrak, baita emakumeen kulturaren munduari egindako ekarpena jasotzen dutenak ere.

3. AHALDUNTZE PROGRAMA -3A-: EMAKUMEEK PRESENTZIA ETA PARTE-HARTZEA IZATEA KOMUNIKABIDEETAN

3A.1. HELBURUA:

Komunikabideetan emakumeen parte-hartzea areagotzea.

3A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	3A.1.1.	Titulartasun publikoa eta pribatua duten komunikabideetan diagnosiak egitea, emakumezko eta gizonezko kazetarien egoera agerian uzteko, eta bereizketa bertikala eta horizontala jakinarazteko.
Araudia	3A.1.2.	Komunikabide publikoetan parekotasuna izatera behartzen duen araudia sortzea, sexuen arteko alderik (+- %20) egon ez dadin.
Jarraipena	3A.1.3.	Komunikabide publikoetan parekotasun-araudiaren betetzearen jarraipena egitea, sexuen arteko alderik (+- %20) egon ez dadin.
Jakintza	3A.1.4.	Titulartasun publikoa duten komunikabide guztietan aukera berdintasuneko planak egitea.
Jarraipena	3A.1.5.	Komunikabide publikoetan, urtean behin berdintasun-ebaluazioa egin dadin sustatzea eta araudia betetzen dela egiaztatzea.
Prestakuntza	3A.1.6.	Aukera berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren inguruko prestakuntza ematea titulartasun publikoa duten komunikabideetako zuzendariei eta langileei, baita sexuen arteko alderik (+- %20) egon ez dadin, komunikabide publikoetan parekotasuna izatera behartzen duen araudiari buruzko informazioa ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.1.7.	Komunikabide pribatuetako zuzendariak sensibilizatzeko kanpainak egitea, enpresetan berdintasun planak eta diagnosiak abiaraz ditzaten, eta horretarako dauden zerbitzuen eta laguntzen berri emanda.
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.1.8.	Berdintasunerako eragileak edo aholkularitza-zerbitzuak kontratatzeako laguntza ekonomikoak ematea komunikazio-enpresei, berdintasun planak eta diagnosiak garatzeko, edo emakumeen parte-hartzea areagotu eta dibertsifikatuko duten neurriak ezartzeko, dela erantzukizun handiko mailatan, dela komunikabideen zeregin, atal edo arlo guztietan.
Jarraipena	3A.1.9.	Titulartasun pribatuko komunikabideei emakumeen eta gizonen parte-hartzearen adierazleen inguruko txostenak eskatzea.

3A.2. HELBURUA:		
Komunikabideetako saioetan emakumeen presentzia areagotzea, politikaren, gizartearen eta kulturaren arloko jardueretan aukera-berdintasunean duten presentzia agerian uztearren eta haien ahalduntzeari laguntzearren.		
3A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.2.1.	"Generoa eta Komunikazioa" arloko adituaren irudia sortzea, komunikabide publikoetan genero-ikuspegia txertatzen dela eta aukera berdintasuna errespetatzen dela bermatzeko.
Araudia	3A.2.2.	Komunikabide publikoek nahitaez betetzeko araudia garatzea, guztien intereserako gaiak eztabaidatzen diren saioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua arautzeko.
Jakintza	3A.2.3.	Hainbat gaitako emakume adituekin datu-basea sortzea, emakume horiek ezagutaraztearren eta komunikabideetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzearren.
Sentsibilizazioa	3A.2.4.	Honako hauek ezagutaraztea eta horiei buruzko informazioa ematea komunikabide publikoetako eta pribatuetako profesionalen artean: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen komunikabideei buruzko araudia; eta titulartasun publikoa duten komunikabideetako saioetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatera, eta zenbait gaietako emakume adituen datu-basea ematera behartzen duen araudia, betiere saio horietan guztientzat interesgarriak diren gaiak eztabaidatzen badira.
Jarraipena	3A.2.5.	Berdintasunerako Legearen araudia betetzen dela egiaztatzea eta horren jarraipena egitea; araudi horren arabera, titulartasun publikoa duten komunikabideek, euskal administrazioek, organismo autonomoek eta gainerako erakunde publikoek –mendekoak edo lotura dutenak– lehentasunezko tratua emango diete erakunde arteko kanpainei (Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak sustatuak), eta bultzatu egingo dituzte, betiere helburua honako hau izanik: desorekak desagertzea, eta gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzea, publizitatera bideratutako barruko nahiz kanpoko tokien edo saioen %30 utzita.
Jarraipena	3A.2.6.	Komunikabide publikoek emandako edukien ebaluazioa egitea.
Prestakuntza	3A.2.7.	Kazetariei prestakuntza ematea, informazio-zereginetan genero-ikuspegia integra dezaten, eta batik bat, gizartearen, politikaren, ekonomiaren eta kulturaren eremuetan, emakumeen errealitatea ikusezin bihurtuko ez duen moduan tratatu behar dutela informazioa, eta iturriak dibertsifikatu behar direla nabarmenduta.
Prestakuntza	3A.2.8.	EHUko Kazetaritzako eta Komunikazio Zientzietako irakasleei prestakuntza ematea, euren ikasgaietako edukietan genero-ikuspegia txerta dezaten.
Jakintza	3A.2.9.	Titulartasun publikoa eta pribatua duten kazetaritzako nahiz publizitateko komunikabideen saioetako edukia aztertzei ikerketak.
Jakintza	3A.2.10.	Komunikazioan genero-ikuspegia txertatzeko jarraibideak emango dituen estilo-liburu bat lantzea eta jendaurrean ezagutaraztea; liburu horretan, komunikabideek programazioak prestatzeko garaian kontuan izan beharreko hainbat elementu bilduko dira, hala nola: – Hizkera ez-sexista erabiltzea. – Emakumeen parte-hartze aktiboa eta presentzia orekatua bermatzea. – Emakumeei zuzendutako edo emakumeek sustatutako gizartearen, politikaren, ekonomiaren, zientziaren eta kulturaren arloko jarduerak ezagutaraztea, baita emakumeak ahalduntzeari laguntzen diotenak ere.

Sentsibilizazioa	3A.2.11.	Kazetaritzako nahiz publizitateko komunikabideen edukien azterketaren emaitzak ezagutaraztea komunikabide publiko eta pribatuetako profesionalei, eta EHUko kazetaritzako eta ikus-entzunezkoen fakultateei, eta argitaratutako estilo-liburua aditzera ematea.
Jakintza	3A.2.12.	Eragina izango duten publizitate-kanpainak diseinatzea, politikaren, gizartearen, zientziaren, ekonomiaren eta kulturaren arloko jardura guztietan emakumeen presentzia berdintasun-egoeran sustatzeko, baita emakumeak ahalduntzea eta genero-estereotipoak desagerraraztea sustatzeko ere.
Jakintza	3A.2.13.	Erakunde publikoetatik, eta batik bat, komunikazio-enpresa pribatuetatik bultzaturiko publizitate-kanpainen eragin mediatikoa aztertzea eta praktika onak sistematizatzea, genero-estereotipoak desagerrarazteko lagungarri badira.
Sentsibilizazioa	3A.2.14.	Genero-estereotipoak desagerrarazita, berdintasuna lortzeko asmoz, emakumeak eta gizonak pentsamolde-aldaketa errazteko roletan edo egoeratan agertzen dituzten publizitate-kanpainetako praktika onak eta eragin mediatikoaren azterketa ezagutaraztea komunikabide publiko eta pribatuetako profesionalen artean, batik bat, enpresa pribatuek sustaturiko kanpainak izanik.
Zerbitzuak eta Baliabideak	3A.2.15.	Berdintasunerako eragileak kontratatzeke diru-laguntzak ematea komunikabide pribatuei, informazioan genero-ikuspegia txertatzen dela eta aukera berdintasuna errespetatzen dela bermatzeko.
Jarraipena	3A.2.16.	Komunikabide pribatuek emandako saioetako edukiak aztertzea, eta ateratako emaitzei buruzko txostenak egitea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–: ERANTZUNKIDETASUNAREN KULTURA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEA		
1B.1. HELBURUA: Erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen dituzten gizartearen eta kulturaren arloko guneak areagotzea.		
1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.1.1.	Erantzunkidetasunaren kultura emakumeengan eta gizonengan zenbateraino dagoen txertatua eta zenbateraino den nagusi aztertzeo ikerketa egitea, eta zaintzaren eta erantzunkidetasunaren kultura sustatzeko gizartearen eta kulturaren eremuko praktika onak eta esperientzia berritzaileak sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	1B.1.2.	Honako hauek ezagutaraztea: erantzunkidetasunaren kultura emakumeengan eta gizonengan zenbateraino dagoen txertatua eta zenbateraino den nagusi aztertzeo ikerketaren emaitzak, eta zaintzaren eta erantzunkidetasunaren kultura sustatzeko gizartearen eta kulturaren eremuko praktika onak eta esperientzia berritzaileak, teknikariak eta politikariak sentsibilizatzeko, administrazioetik sustatzen diren gizartearen eta kulturaren arloko guneetan erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika txertatzeko premiarengatik.
Prestakuntza	1B.1.3.	Administrazioaren kultura-arloetako teknikariei prestakuntza ematea, kultura eta erantzunkidetasuna sustatzeko programak eta jarduerak diseina ditzaten.
Prestakuntza	1B.1.4.	Gizartearen eta kulturaren arloko eta hezkuntzako animazioaren eremuan –batik bat, aisialdian eta denbora librean– lan egiten duten hezitzaileei, begiraleei eta langileei prestakuntza ematea, zaintzaren etikaren eta erantzunkidetasunaren inguruko balioak sortzeko metodologiak eta baliabideak izan ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.5.	Erantzunkidetasunaren eta zaintzaren kultura sustatzeko jarduerak barnean hartuta, kulturaren eremuko zerbitzuak eskaintzen dituzten Hirugarren Sektoreko erakundeak lehenestea kontratatatzeko garaian.
Araudia	1B.1.6.	Honako hau barnean hartzen duen araudia garatuko da: titulartasun publikoa duten komunikabideek, euskal administrazioek, organismo autonomoek eta gainerako erakunde publikoek –mendekoak edo lotura dutenak– lehenestuzko tratu emango diete erakunde arteko kanpainei (Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak sustatuak), eta bultzatu egingo dituzte, betiere helburua honako hau izanik: zaintzaren etikaren eta erantzunkidetasunaren inguruko gizonen pentsamoldea aldatzea, publizitatera bideratutako barruko nahiz kanpoko tokien edo saioen %5 utzita.
Sentsibilizazioa	1B.1.7.	Gizonei zuzenduta, zaintzaren etikaren eta erantzunkidetasunaren inguruko pentsamoldea aldatze aldera, erakunde arteko sentsibilizazio-kanpainak egitea komunikabideetako saioen bitartez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.8.	Administrazioen kultura-arloetan diru-laguntza ildoak sortzea, erantzunkidetasunaren kultura eta zaintzaren etika sustatzeko proiektuak gauzatu nahi dituzten elkartei begira.
Jakintza	1B.1.9.	Haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko programak berriz aztertzea, erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzen duten jarduerak sartzearen.
Sentsibilizazioa	1B.1.10.	Haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdiko eta denbora libreko jarduerak ludikoak egitea, erantzunkidetasuna eta zaintzaren etika sustatzeko.
Prestakuntza	1B.1.11.	Zereginak dibertsifikatzeko tailerrak egitea gizonekin eta emakumeekin, generoan oinarritutako gizarte-erakuntzak mugatzen ez dituen trebetasunak eta gaitasunak gara ditzaten biek.
Jarraipena	1B.1.12.	Egindako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –1I–: GIZARTEAREN ETA KULTURAREN EREMU GUZTIETAN SEXISMOA DESAGERRARAZTEA		
11.1. HELBURUA: Sexuaren arabera, sexu batekoa edo bestekoa izan, jendeak giza duintasun gutxiago edo gehiago duela edo sexu-objektu soil direla adierazten duten irudi eta eduki mediatikoak murriztea, eta emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen dutenak desagerraraztea.		
A ESTRATEGIA:		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.A.1.	Publizitatea kontrolatzeko organo bat eratzea, komunikabideen eta publizitate-euskarrien bitartez hedatzen denaren inguruan aholku emateaz eta hori aztertzeaz arduratuko dena; horrela, sexuak eragindako diskriminazio mota oro desagerraraziko da. Aldi berean, komunikabide publikoek zabalduko edukiek beren kode etikoak izan ditzaten zainduko da.
Araudia	11.1.A.2.	Baliabide arau-emaileak betetzen direla zaintzea, publizitatea onartzeko irizpideei dagokionez eta produkzio-etxeen konpromiso-klausulari dagokionez; klausula horren arabera emakumeentzako iraingarriak eta/edo diskriminatzaileak diren irudiak edo mezuak ez erabiltzeko konpromisoa hartzen dute produkzio-etxeek.
Prestakuntza	11.1.A.3.	Komunikabide publikoetako eta pribatuetoako profesionalei prestakuntza ematea irudi eta eduki sexistak identifika ditzaten, hizkera egokia erabiltzeak duen garrantziaz jabe daitezen, eta eguneroko lanean hizkera ez-sexista erabiltzeko metodologiak eta baliabideak izan ditzaten.
Jakintza	11.1.A.4.	Titulartasun publikoa eta pribatua duten komunikabideetan, irudi eta eduki sexistak atzemateko ikerketak egitea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.A.5.	Komunikabide pribatuetoako zuzendaritzetako langileekin negoziazio-bideak irekitzea eta laguntza ekonomikoak sortzea, irudiak eta edukiak emateko garaian, sexuak eragindako diskriminazio-praktikak zuzentze aldera.
B ESTRATEGIA:		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Sentsibilizazioa	11.1.B.1.	Herritarrek sentsibilizatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arrazoien eta adierazpen moduen inguruan, batik bat, gizartearen, kulturaren eta komunikabideen eremuan, irudi eta eduki sexistak identifikatzea ahalbidetzeko, eta salatzea animatzeko, horretarako jarritako bideen berri emanda.
Prestakuntza	11.1.B.2.	Gurasoei prestakuntza ematea, irudi eta eduki sexistak identifika ditzaten, eta hezikidetzan oinarritutako irizpideak har ditzaten seme-alabek ikusteko programazioa hautatzeko garaian.

11.2. HELBURUA:		
Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sentsibilizazio-kanpainen kopurua handitzea.		
11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.1.	Erakunde arteko akordioak egiteari bultzada ematea, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko eta horren prebentziorako sentsibilizazio-kanpainak egiteko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.2.	Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztearen eta horren prebentzioaren inguruan sentsibilizatzeko edukiak programazioan sartzen dituzten komunikabideei diru-laguntzak ematea.

7.2.

HEZKUNTZAKO EKINTZAK

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: IKASTETXEETAN HEZKIDETZA SUSTATZEA		
1M.1. HELBURUA:		
Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Helduen Hezkuntzako ikastetxeen urteko programazio guztietan hezkidetza integratzea.		
A ESTRATEGIA:		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.A.1.	Hezkidetza lantzen ari diren ikastetxeen sarea sortzeari laguntzea, tartean sartutako irakasleek hezkidetzak berak eragindako jardueretan parte hartzea erraztuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.A.2.	Berritzegune guztietan hezkidetzarako langile espezifikoak izatea.
Prestakuntza	1M.1.A.3.	Berritzeguneetako langileei prestakuntza ematea hezkidetzaren inguruan.
Prestakuntza	1M.1.A.4.	Curriculum-dukietan eta irakaskuntza-praktikan, nahiz irakasleen balio, jarrera eta itxaropenetan joera sexistak atzemateko prestakuntza-ekintzak egitea, nesken eta mutikoen oinarritzko gaitasun guztiak indartuko dituzten metodologia-proposamenak diseinatze eta garatze aldera.
Jakintza	1M.1.A.5.	Gure Erkidegoan nahiz kanpoan izandako hezkidetzaren inguruko esperientziak ezagutaraztea eta argitaratzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.A.6.	Ikastetxeetara aldizka bidaltzen diren zirkularretan orientazio espezifikoak sartzea, hezkidetza garatzearen. Ikastetxeen hezkuntza-proiektuan hezkidetza sartzera eta hezkidetzarekin loturiko gaiak lantzeko asteko ordu-kredituak ematera bideratuko da edukia.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.A.7.	Hezkidetzan oinarritutako lanari pizgarriak ematea, sari espezifikoaren bitartez.
Arauak	1M.1.A.8.	Sexuen arteko aukera-berdintasuna lehenetsunezko gaitzat hartzea, praktika pedagogikoa hobetzeko laguntzen deialdietan: prestakuntza-proiektutan, berrikuntzako proiektutan, hezkidetzako esperientzietan...

B ESTRATEGIA:		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.1.B.1.	Ikastetxeetan hezkidetzaren ezartze-adierazleak definitzeko azterlan kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea.
Jarraipena	1M.1.B.2.	Ikastetxeetako kalitatea ebaluatzeko prozesuen txostenetan, kalitate-adierazleei hezkidetzaren gehitzea.
Arauak	1M.1.B.3.	Hezkidetzaren irizpidetza integratzea urteko programen ikuskaritza-protokoloetan.
Prestakuntza	1M.1.B.4.	Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoko langile guztiei hezkidetzaren inguruko prestakuntza ematea, kualifikazio espezifikoaren ikastaroen bitartez.

1M.2. HELBURUA:		
Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duten hezkuntza-materialen erabilera ezabatzea.		
1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Arauak	1M.2.1.	Hezkuntza-materiala baimentzeko irizpideak berrikustea, Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzea irizpidetza ezartze aldera. 30. artikulua betetzen ez duen hezkuntza-material ororen berri Berdintasunaren Defentsa Erakundeari nahitaez eman behar izatea.
Jarraipena	1M.2.2.	Hezkuntza-materialen batek Berdintasunerako Legearen 30. artikulua ez duela betetzen jakinarazten zaionean, Berdintasunaren Defentsa Erakundeak eskura dituen mekanismo guztiak baliatzea.
Jarraipena	1M.2.3.	Testu-liburuak baimentzea eta gainbegiratzeko arautzen duten irizpideak –emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari dagozkionak– aplikatzea, eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa urratzen duen material oro merkatutik ateratzea.
Sentsibilizazioa	1M.2.4.	Hezkidetzaren irizpideak betetzen ez dituzten materialen berri Defentsa Erakundeari emateko aukera dutela jakinaraztea ikastetxeei.
Sentsibilizazioa	1M.2.5.	Berdintasunerako Legearen 30. artikulua potentzialki betetzen ez duten materialen berri Berdintasunaren Defentsa Erakundeari emateko aukera dutela jakinaraztea hezkuntza-materiala aztertzen duten Berritzeguneetako langileei.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.6.	Berdintasunerako Legearen 30. artikulua betetzen ez duen curriculum- eta hezkuntza-materialaren berri eman dezaten pizgarriak ematea ikastetxeei, eta ezarritako pizgarriak jakinaraztea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A–: HEZKUNTZA SISTEMAN ERABAKIAK HARTZEKO EREMUETARAKO SARBIDEA		
1A.1. HELBURUA:		
Unibertsitate-sistemaren erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Araudia	1A.1.1.	Prestakuntzari eta ikerketari laguntzeko deialdietan, honako proiektu hauek balioestea bereziki: Berdintasunerako Legearen 33.4. artikuluan xedaturiko irizpideak betetzen dituztenak.
Jakintza	1A.1.2.	Erabakiak hartzeko eremuetarako sarbide paritarioa lortzeko dauden eragozpenak gainditzera bideratutako alderdiei buruzko ikerketak egitea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.3.	Unibertsitatean, emakumeen karrera profesionalari pizgarriak ematea, ekintza positiboen bitartez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Diru-laguntzak ezartzea, euskal unibertsitate-sistemaren eremuan emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko proiektuak egitea bultzatzeko.
Arauak	1A.1.5.	Unibertsitateko karrera profesionalean meritu gisa puntuagarriak diren jarduerak, eta erabakiak hartzeko eremuetako parte-hartzea familiaren eta norberaren bizitzarekin bateragarri izateko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea.
Arauak	1A.1.6.	Genero-ikuspegitik begiratuta, karrera profesionalean merituak balioesteko ezarritako irizpideak berrikustea eta aldatzea.
Sentsibilizazioa	1A.1.7.	Sentsibilizazio-jarduerak egitea, presentzia oso mugatua duten edo batere presentziarik ez duten eremuetan (kudeaketa, ikerketa-ildoen eta ikasketa-programen planifikazioa...), arian-arian, sartzen joan daitezen emakumeak.

1A.2. HELBURUA: Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen erabakiak hartzeko eremurako sarbidean, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.1.	Bigarren hezkuntzako sisteman, emakumeen eta gizonen presentziari buruzko azterlana egitea, sexuaren arabera, espezialitateen arabera eta zentroetan bete daitezkeen eginkizunen arabera banakatua. Zuzendaritzako postuetarako emakumeek sarbide txikiagoa izatearen arrazoiak aztertzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.2.	Diagnostikoei jarraiki, emakumeen zuzendaritza-postuetarako sarbideari laguntzeko neurriak ezartzea: prestakuntza, pizgarriak, sentsibilizazio-jarduerak...
Jarraipena	1A.2.3.	Bigarren hezkuntzako ikastetxeetako antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudiaren kalitateari buruzko txostenetan, emakumeen baldintzak eta egoera berdintasunezkoa izatea modu positiboan balioesteko mekanismoak ezarriko dira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.4.	Bigarren hezkuntzako hezkuntza-sisteman, erabakiak hartzeko eremuetako parte-hartzea familiaren eta norberaren bizitzarekin bateragarri egiteko mekanismoak ezartzea.
Sentsibilizazioa	1A.2.5.	Familiekin sentsibilizazioko jarduerak egitea, haurrek zuzendaritzako postuetan emakumezko eredu erreferenteak izateak duen garrantziaren gainean hausnar dezaten.

1A.3. HELBURUA: Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, irakasleen maila eta eginkizun guztietan, sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea.		
1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Araudia	1A.3.1.	Ikasleentzat erreferentzia-eredu izan dadin, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuagoa sustatzea lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako curriculum-gaietan, zentroetako erantzukizunen eta eginkizunen banaketan eta esleipenean.
Jarraipena	1A.3.2.	Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako ikastetxeetako antolamenduaren eta funtzionamenduaren araudiaren kalitateari buruzko txostenetan, hezkidetzaren ikuspegia txertatzea modu positiboan balioesteko mekanismoak ezartzea.
Jakintza	1A.3.3.	Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako sisteman, emakumeen eta gizonen presentziari buruzko azterlana egitea, sexuaren arabera, espezialitateen arabera eta zentroetan bete daitezkeen eginkizunen (garraioa, jangela, eskolaz kanpokoak...) arabera banakatua.
Sentsibilizazioa	1A.3.4.	Familiekin sentsibilizazioko jarduerak egitea, haurrek zaintzako zereginetan gizonetzko eredu erreferenteak izateak duen garrantziaren gainean hausnar dezaten.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–: JAKINTZA EZ-SEXISTA SORTZEA ETA HORRETAZ JABETZEA

2A.1. HELBURUA:

Unibertsitate-eremuan, genero-harremanen azterketari buruzko jakintzaren sorkuntza eta zabalkundea areagotzea.

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Araudia	2A.1.1.	Ikerketako eta berrikuntzako proiektuak garatzeko laguntzen deialdietan, honako hauek lehentasunezko gaitzat hartzea: genero-harremanen azterketa, jakintzaren arloetan emakumeek egindako ekarpenak, eta arrazoibide zientifikoaren eduki androzentrikoa aztertu eta gainditzea.
Prestakuntza	2A.1.2.	Proposatutako gaiekin loturiko Fakultate eta Unibertsitate Eskolen prestakuntzako, graduatibondoko eta udako prestakuntza-eskaintzaren programazioan, honako hauei buruzko ikastaroak, masterrak edo diplomak txertatzea: – Generoaren ikuspegia politika publikoetan. – Genero-ikuspegitik begiratuta, jakintza aztertu eta berrikustea. – Hezkidetzak.
Prestakuntza	2A.1.3.	Jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako ekarpen sozial eta historikoa jaso dadin, gai horien inguruko prestakuntza emateko 3 kreditu sartzea Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroan.
Sentsibilizazioa	2A.1.4.	Jakintza-arlo guztietako irakas-lanean eta ikerketa-lanetan genero-ikuspegia txerta dadin, hizkera ez-sexista erabil dadin, eta emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egindako garapen sozial eta historikoa jaso dadin sentsibilizazio-jarduerak egitea irakasleen artean.
Jakintza	2A.1.5.	Jardunaldiak, konferentziak eta/edo biltzarrak egitea, giza jakintzaren eremu eta diziplina guztietan emakumeek egindako ekarpenei buruz, eta jakintza sortzeko eremuan emakumeen egungo egoerari buruz, eta etorkizuneko joerei buruz.

2A.2. HELBURUA:

Neska-mutilek ikasketak hautatzean sexuen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, etorkizuneko aukera hobeak eskaintzen dituzten ikasketei eta tarte handiena dutenei lehentasuna emanda.

2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.2.1.	Azterketa sektorialak egitea: sexu jakin baten presentzia/absentzia, lanbideratzea, prestakuntza, eragozpenak, etab. Eta ondorioetan diagnosis lortzea, helburu hori betetzeko lehentasuneko esku-hartzea eskatzen duten karreren eta ikasketen inguruan.
Sentsibilizazioa	2A.2.2.	Irakasleei eta familiei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea, nesken prestakuntzak duen garrantzia eta eragin nabarmena aditzera emateko, etorkizunean aukerak izateari dagokionez. Orientazio-proiektuak hezikidetzaren ikuspegitik diseinatzeko eta garatzeko orientazioak eta/edo jarraibideak zabaltea zentroetan.
Prestakuntza	2A.2.3.	Nesken lanbide-proiektuan aukera handiagoak eskainiko dituzten azterketa-mekanismoak hartzea prestakuntza-ekintzen barnean, lan-munduan generoak duen eragina atzemateko.
Prestakuntza	2A.2.4.	Orientazio-profesionalentzako prestakuntza-jarduerak egitea, neskekin enpleguaren garrantzia eta mutilekin etxearen eta familiaren eremuko erantzunkidetasuna landu daitezen bereziki.
Prestakuntza	2A.2.5.	Ikasketa-arlo maskulinizatuenetako irakasleei prestakuntza ematea, emakumezko ikasleei harrera egiteko prozesuak hobetze aldera.
Prestakuntza	2A.2.6.	Heziketa Zikloak eta Lanbide Hastapenerako Programak ematen dituzten zentroetako zuzendaritza-taldeak gaitzea, produkzioaren eta gizartearen arloko inguruneak eskaintzen dituen aukerak aztertzearen, eta lanbide-profilak aukera horietara eta nesken interesetara, gaitasunetara, motibaziora eta itxaropenetara egoki ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.7.	Gaur egungo sistema arautuak eskaintzen dituen prestakuntza-ibilbideak egiteko emakumeek ere aukera izan dezaten, beharrezko mekanismoak ezartzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.8.	Heziketa Zikloetako ikasleek lantokietan praktikak egiteko proiektuak garatzeko hitzarmenak berrikustea, eta kasu kasu, nesken eta mutilen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera egokitzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.9.	Hezikidetzaren ikuspegitik begiratuta, orientazio-programatan aholkuak emateko gaituak dauden profesionalen kopurua handitzea.
Arauak	2A.2.10.	Jende eta/edo prestakuntza-erakunde jakinak hautatzeko garaian, eta horiei kontratuak esleitzeko garaian, balioespen-irizpidetzat hartzea programetan genero-ikuspegia txertatzea.
Arauak	2A.2.11.	Eskola-antolaketaaren esparruan, denbora eta tokia bermatzea orientazioari hezikidetzaren ikuspegitik ekiteko.
Arauak	2A.2.12.	Dagokionean, neskek ere praktikak egiteko aukera izateari begira, enpresek antolaketa eta azpiegiturak egoki ditzaten eskatzea lan ikuskaritzari.
Jarraipena	2A.2.13.	Heziketa Zikloetako ikasleek lantokietan praktikak egiteko proiektuak garatzeko hitzarmenak berrikustea, eta kasu kasu, nesken eta mutilen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera egokitzea.
Jarraipena	2A.2.14.	Lanbide Heziketaren curriculum-diseinua berrikustea, nesken eta mutilen arteko aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera egokitzeko.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B–: IKASLEENGAN ERANTZUNKIDETASUNA ETA ZAINTZAREN ETIKA SUSTATZEA		
1B.1. HELBURUA: Etxeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna areagotzea nesketan eta mutiletan.		
1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.1.1.	Haurrek eta gazteek familiaren lanetan eta erantzukizunetan duten erantzunkidetasunaren inguruko ikerketa egitea, oro har, haurren eta gazteen, eta kolektibo espezifikoaren ezaugarriak eta hasierako egoera aintzat hartuta: egungo denbora-erabilera, arrazoiak eta ondorioak, ikasleen artean erantzunkidetasuna sustatzeko estrategiak, eta beste testuinguruetan egindako esperientziak aztertzea, zaintza-lanak curriculumean txertatzeari dagokionez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.2.	Lehen hezkuntzan, adin bakoitzeko gaitasunen arabera, etxeko eta zaintzako lanak egiteko tailerrak diseinatzea eta burutzea.
Araudia	1B.1.3.	Bigarren hezkuntzan nahitaez eskaini beharreko aukerako ikasgaia sortzea, neska-mutilek etxeko eta zaintzako lan gehiago egin ditzaten, eta familiaren eremuan erantzukizunak hartzen ikas dezaten.
Jarraipena	1B.1.4.	Eskola-komunitatean erantzunkidetasuna sustatzeko tailerrak eta jardunak egiteko eskainitako ordu kopurua kalitate-adierazletzat hartzea eskoletan.
Sentsibilizazioa	1B.1.5.	Familiak sentsibilizatzea erantzunkidetasunaren garrantziaz eta etxetik nahiz eskolatik lantzeko premiaz jabe daitezen, betiere egoera espezifiko bizi duten kolektiboen hasierako egoera eta ezaugarriak aintzat hartuta: familia etorkinak, landa-eremuko familiak, kide ezinduren bat duten familiak...
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.6.	Ikastetxeetan, familien eta irakasleen arteko lan-taldeak osatzeari bultzada ematea, etxeko eta zaintzako lanetan erantzunkidetasuna sustatzera bideratutako estrategia bateratuak diseinatzearen.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.7.	Eskolako azpiegituren eta ikasleen beraien premien mantentze-lanetan eta zaintzan, ikasleen erantzukizuna areagotzeko zentroetan egindako jardun zehatzei diru-laguntzak ematea.
Jarraipena	1B.1.8.	Eskolako azpiegituren mantentze-lanetan eta zaintzan ikasleen erantzukizuna areagotzea lortzeko zentroetan egindako ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
Sentsibilizazioa	1B.1.9.	Gure Erkidegoan eta kanpoan, erantzunkidetasunarekin loturiko esperientziak eta praktika onak ezagutaraztea.

2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –2B–: ESKOLAKO DENBORA ETA AZPIEGITURAK EGOKITZEA ETA BERRIZ ANTOLATZEA

2B.1. HELBURUA:

0-3 urte bitarteko haurrentzako tokiak areagotzea, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan jangela- eta garraio-zerbitzuen eskaera beteko dela bermatzea.

2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.1.1.	Hezkuntza-eremuarekin loturiko zerbitzuen eskaintza eta eskaera aztertzea: jantokiak, garraioa, Haur Eskolak... Tokiak, jarduerak eta horiek guztiak gurasoen premia eta egoera ezberdinetara egokitzen ote diren aztertzea bereziki, eta eskaera eta eskaintza alderatzea, banaketa geografikoaren irizpideei jarraiki.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.2.	Haur-eskoletan ikasleentzako toki gehiago sortzeko baliabideak areagotzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.3.	EAEko jantokien baldintzei buruzko azterketa egitea, eta baldintza horiek hobetzeko eta estaldura areagotzeko baliabide gehiago bideratzea.
Jarraipena	2B.1.4.	Helburuaren betetze-mailaren jarraipena egitea, eta prentsaren bitartez, tartean sartutako erakundeen lankidetzara-maila eta izandako aurrerapenak jakinarazteari bultzada ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.5.	Zerbitzu soziokomunitarioen mantentze-lanetan eta/edo egokitzean laguntza ekonomikoak ematen dituzten enpresentzat zerga-pizgarriak ezartzea.

2B.2. HELBURUA:

Hezkuntza-zentroetan eta haur-eskoletan ordutegiak eta egutegiak malguagoak izatea, horien antolaketa-autonomia kontuan izanik, eta familien premiak betetzea bermatze aldera

2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.2.1.	Ordutegiak eta egutegiak zabal ditzaketen zentrozen azterketa egitea: irizpideak, jarduerak eta arduraduna.
Araukak	2B.2.2.	Eskola-ordutegiak eta -egutegiak zabaltzeko formulak bilatzeko erakunde arteko hitzarmena sortzea, eskola-ordutik at, jai-egunetan eta oporretan arreta handiagoa izan dadin: 14 ordutan, ordutegi jarraituan, arreta bermatzea. Hilabete guztietan arreta bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.3.	Eskolaz kanpoko orduetan, ikasgela batean edo gehiagotan, ikasleak artatu eta gainbegiratu dituzten langileentzako lanpostuak sortzea, eskola-ordutik at ikasteko eta elkartzeko tokia izan dezaten ikasleek.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.4.	Familiak bateragarri egiteari laguntzeko pizgarriak ematea zentzoei.
Prestakuntza	2B.2.5.	Prestakuntzako eskaintza planifikatzea, jardueren ordutegiak egokitu behar direla kontuan izanda, familiaren, norberaren eta lan-arloko erantzukizunak behar bezala uztartzearen.
Prestakuntza	2B.2.6.	Inoren laguntza behar dutenei arreta emateko zerbitzu soziokomunitarioak (maila guztietako ikastetxeak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.) egokitzea, lagun horien eta familien egiazko premiaren arabera eta dagoen eskaeraren arabera: ordutegiak, garraioa, banaketa geografikoa, oporraldia.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –11–:		
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN PREBENTZIOA ETA BITARTEKOTZA		
11.1. HELBURUA:		
Ikastetxeetan etxeko indarkeria-kasu guztiak atzematea, eta adostutako protokolo eraginkorrari jarraiki, kasu guztiei erantzuna ematea.		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.1.	Emakumeen aurkako indarkeria-ekintzak atzemateko metodologiari buruz ikerketak egitea.
Jakintza	11.1.2.	Etxeko tratu txarrek haurren eskolatzean duten eragina aztertzea eta neurriak erabakitzea.
Sentsibilizazioa	11.1.3.	Irakasleek nabaritzen duten emakumeen eta neskato-mutikoen aurkako indarkeria-zantzu ororen berri ikastetxeen zuzendaritza-organoei emateko moduen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa ematea irakasleei.
Sentsibilizazioa	11.1.4.	Etxeko indarkeriaren kasuetarako jardun-protokoloa lantzea eta zabaltzea zentroen artean: – zer egin, eskura dauden gizarte-zerbitzuak, eta ikasleak eskolatzeko izan ditzakeen arazoak.
Prestakuntza	11.1.5.	Hezkuntzaren eremuko profesionalei prestakuntza emateko jarduerak egitea, emakumeen aurkako indarkeria atzemateko trebetasunak eskura ditzaten.
Prestakuntza	11.1.6.	Orientazio Zerbitzuan eta Berritzeguneetan prestakuntza-jarduerak egitea, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuan erantzuteko eta bitartekotza egiteko.
Prestakuntza	11.1.7.	Berritzeguneetako irakasleek eta langileek genero-indarkeriaren inguruko prestakuntza izango dutela bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.8.	Emakumeen eta haurren aurkako indarkeriaren kasuan, arreta emateko eta bitartekotzako jardun-protokoloa lantzea eta zabaltzea eskola-eremuan, zentroak dagozkien gizarte-zerbitzuekin koordinatze aldera, eta etxeko indarkeriaren biktimak edo biktimen seme-alabak eskolatzeko neurri lagungarrien berri irakasleei emate aldera.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.9.	Berritzeguneetan, indarkeriaren aurrean eman beharreko arreta eta bitartekotza integratzea.
Arauak	11.1.10.	61. artikuluan zehazturiko irizpideak betetzen dituztenek haur-eskoletan lehentasunezko tratua izan dezaten irizpideak txertatzea.
Jarraipena	11.1.11.	Etxeko edo kideen arteko indarkeriaren kasuetarako jardun-protokoloen ezartze- eta betetze-maila ebaluatzea. Emaizak ebaluatzea eta etengabe hobetzeko neurriak ezartzea.

11.2. HELBURUA:

Indarkeriaren prebentziorako programa esperimentalak egitea ikastetxeetan, berdintasunean oinarritutako bizikidetza eta lankidetza lortzeko harremanen kultura aldatuta.

11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.2.1.	Ikastetxeen antolaketa aldatzea sustatzeko programa diseinatzea, helburuan ezarritako jarraibideei jarraiki.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.2.	Programa esperimentalak ezartzen duten ikastetxeentzat pizgarriak sortzea, antolaketa-kultura aldatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.3.	Ikastetxeetan, bizikidetza positiboa ahalbidetuko duten antolamenduak dagozkion laguntzeko eta aholkularitzako zerbitzuak erabakitzea.
Prestakuntza	11.2.4.	Parte hartzen ari diren ikastetxeetako irakasleentzat hezikidetzan oinarritutako prestakuntza antolatzea.
Sentsibilizazioa	11.2.5.	Programa garatzen ari diren ikastetxeen arteko hausnarketa-jardunaldiak antolatzea, programaren ezarpenari eta emaitzei buruzko esperientziak elkartrukatzeko aldera.
Sentsibilizazioa	11.2.6.	Programa esperimentalean parte hartzen ari diren ikastetxeetako familiak sentsibilizatzeko jardunaldiak antolatzea.
Jarraipena	11.2.7.	Programa esperimentalak garatu duten ikastetxeen emaitzak ebaluatzea.

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: ENPLEGU ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA		
1M.1. HELBURUA: Enplegu-zerbitzuetan genero-ikuspegia integratzea.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.1.	Administrazio-unitate bat sortzea, honako hauek lankidetzan aritzea, koordinatzea eta indartzea helburu duena: sail, zuzendaritza eta arloak, udal eta aldundietako enplegu-zerbitzuak, zentro laguntzaileak eta jardun horiek abiarazteko ardura duten gainerako erakundeak.
Jakintza	1M.1.2.	Laneko orientazioaren eta informazioaren eremuan edo lanerako prestakuntzan lan egiten duten organismo eta erakundeetan sakabanatua dagoen sexuaren arabera informazio estatistikoa biltzeko, datu-base homogeneo bat diseinatu eta garatzea. Eta enplegua/prestakuntza.
Jakintza	1M.1.3.	Txertaturiko aldagaiak sexuaren aldagaiaren arabera ustiatzeko eta aztertzeko aukera emateko moduko lagin zabalak hartzea, dela azterketa, ikerketa eta azterlanei dagokienez, dela egiten diren analisi eta ebaluazioei dagokienez.
Jakintza	1M.1.4.	Haur-hezkuntzako udal-zerbitzuak, adinekoei arreta emateko zerbitzuak eta enplegu-zerbitzuak antolatze moduak aztertzea, bateragarri egitea ahalbidetze aldera eta bete beharreko "hutsuneak" edo gabeziak identifikatze aldera, betiere izandako esperientziak –udalaren edo eskualdearen mailan– kontuan izanik.
Sentsibilizazioa	1M.1.5.	Zerbitzu soziokomunitarioak eta enplegu-zerbitzuak antolatze metodoei buruz egindako azterlanak ezagutaraztea, baita zerbitzu horietan atzemandako gabeziak betetzeko eta zerbitzu horien osagarri izan daitezkeen neurri arinei eta malguei buruzko azterlanak ere.
Arauak	1M.1.6.	Prestakuntza homologatzea, lanaren eremuan emakumeen berdintasunari buruz eta enplegu-zerbitzuak osatzen dituzten prozesu guztietan genero-ikuspegia integratzeko moduari buruz.
Prestakuntza	1M.1.7.	Enplegu-zerbitzuetako eta erakunde laguntzaileetako langileei prestakuntza ematea, laneratzeari laguntzeko prozesu integralaren fase guztietan genero-ikuspegia txertatzeko moduaren inguruan: laneratzeari, enpresak sustatzeari eta autoenpleguari buruzko informazioa, orientazioa, prestakuntza eta babesa ematea eta jarraipena egitea.
Arauak	1M.1.8.	Genero-ikuspegiaren arabera informazioa eta orientazioa egokitzea merkatuan eskaera duten enpleguetara bideratuta emakumeak, batik bat ordezkariak txikiegia duten lanbideetan. Horretarako, genero-ikuspegitik begiratuta berrikusi behar dira enplegura gerturatzeko fase guztietan baliatzen diren tresna eta baliabideak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.9.	Enplegu-zerbitzuei pizgarriak ematea emakumezko eskatzaileekin ekintza positiboa gauza dezaten, langileak eskatzen dituzten enpresetara bidaltuta eskatzaile horiek, batez ere emakumeek ordezkariak txikiegia duten postuak betetzeko.

Arauak	1M.1.10.	Zentro laguntzaileei diru-laguntzak esleitzeko balioespen-irizpideen artean sartzea honako hau: prestakuntzako eta enplegu/prestakuntzako proiektuetan genero-ikuspegia txertatzea.
Arauak	1M.1.11.	Lan-arloko, familiaren eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurri eta/edo horri laguntzeko zerbitzu malguak garatzea, eskolaldiaren iraupenarekin loturarik gabe, eta jendea zaintzeko unean uneko arreta ere ahalbidetuta (esaterako, zerbitzu-txekeak, bonuak, umezain-zerbitzuak, etab.), betiere prestakuntzako ekintza eta enplegurako zerbitzu guztietan emakumeen parte-hartzea ziurtatzearren.
Jarraipena	1M.1.12.	Diru-laguntza publikoa jaso duten prestakuntza-eskaintzetan eta enplegu/prestakuntzako programetan, emakumeenganako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa atzemateko jarraipen-mekanismoak ezartzea, elementu zuzentzaileak txertatuta, edo, dagokionean, prestakuntza ematen duen erakundearekiko lankidetzaz hitzarmena bertan behera utzita: sartzeko baldintzengatik, hartzeko eta hautatzeko prozesuengatik, ezagutarazteko bideengatik, hizkeragatik, etab.
Jarraipena	1M.1.13.	Baztertzailerak izan daitezkeen lan-eskaintzak identifikatzeko prozedurak ezartzea, eta neurri zuzentzaileak aplikatzea.
Jarraipena	1M.1.14.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A–: ENPLEGURAKO SARBIDEA AUKERA BERTINTASUNEAN		
1A.1. HELBURUA:		
Teknologiaren eta jakintzaren arloko osagai handia duten puntako sektoreetako enplegu teknikoetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotuta.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.1.1.	Emakumeen parte-hartzeari buruzko diagnostikoa egitea, erreferentzia-sektoretako lanbide teknikoetan (besteren kontura, autonomo eta sustatzaile gisa); unibertsitate, zentro teknologiko eta enpresen arteko I+G+B-ko proiektuetan; eta enpresetako beka-programetan. Jarduera horien eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko ezinbestekoak diren hasierako adierazleak diseinatu beharko dira diagnostiko horretan.
Jakintza	1A.1.2.	Sektore horietan emakumeen kontratazio bereizgarrian eragiten duten hautatze-prozesuak eta zenbait faktore aztertzea, eta faktore horiek leuntzeko jardunak diseinatzea.
Sentsibilizazioa	1A.1.3.	Erreferentzia-sektoretako enpresetara eta giza baliabideetako kontsultoretzatara zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egitea, erreferentzia-sektoretan emakumeak kontratatzea mugatzen duten estereotipoak desagerraraztearren, enpresa-erreferente positiboak sortuta, eta baztertzailak ez diren hautatze-prozedurak sustatzearren.
Sentsibilizazioa	1A.1.4.	Emakumeenganako sentsibilizazio-ekintzak egitea, sektore horietako okupazioetan emakumezko erreferenteak sortuta, eta erreferentzia-sektoretako enpresetako erantzukizun-karguetan emakumeen sareak sortuta, betiere okupazio horietarako emakumeen sarbidea errazteko asmoz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.5.	Emakumezko ikertzaileei, bekadun/ikertzaileei eta horrekin lotura duten karreretako azken urteko ikasleei orientazio-zerbitzua eskaintzea, erreferentzia-sektoreek eskaintzen dituzten aukeren inguruan, besteren konturako lanari dagokionez, lan autonomoei dagokionez eta enpresak sortzeari dagokionez. Besteak beste, Euskadiko klusterren bitartez, erreferentzia-sektoretako enprekin komunikazio-sistema iraunkorra ezarrita lortuko da informazio-inputa, behar diren eskumenak eta langileen premiak atzemateko.
Prestakuntza	1A.1.6.	Zeharkako eskumenei (talde-lana, proiektuak kudeatzea, bezeroekin loturikoak, zuzendaritza-trebetasunak) eta jarrera berritzailea eta lanbide-proiektzioa garatzeari buruzko prestakuntza diruz laguntzea, emakumezko ikertzaileei, bekadun/ikertzaileei eta erreferentzia-sektoretako lanbideekin lotura duten karreretako azken urteko ikasleei zuzenduta.
Prestakuntza	1A.1.7.	Enpresetan praktikak egiteko programetan eta enpresetan doktore-tesiak egiteko beka-programetan emakumeen parte-hartze kuota bat ezartzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.8.	Enplegua sustatzeko programa bat garatzea, erreferentzia-sektoretako lanpostu teknikoetan emakumeak kontratatzeari lagunduta, eta emakumeak kontratatze laguntza ekonomikoak emanda enpresei.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.9.	Lan-poltsak kudeatzen dituzten unibertsitateei eta zentro teknologikoei pizgarriak ematea, emakumeek ordezkariak txikiegia duten lanbideetan kontratatutako emakumeen kopurua handitzea lor dezaten.
Jarraipena	1A.1.10.	Unibertsitateen eta zentro teknologikoen lan-poltsetan izan daitezkeen lan-eskaintza baztertzailak identifikatzeko jarraipena egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, dagokionean.
Jarraipena	1A.1.11.	Abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

1A.2. HELBURUA:		
Industria-sektore tradizionalak osagai teknikodun enplegetan emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumeen parte-hartzea areagotzea.		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.1.	Sektore horietako emakumeen kontratazio bereizgarrian eragiten duten hautatze-prozesuak eta zenbait faktore aztertzea, eta faktore horiek ezabatzeko jardunak diseinatzea.
Sentsibilizazioa	1A.2.2.	Emakume langabetuei zuzenduta, informazioko, motibazioko eta orientazioko ekintzak egitea, ordezkariak txikiegia duten industria-sektoreetako okupazio teknikotan lana bilatzeari ekin diezaioten, kontratatzeak aukera handiak baitaude, kalitatezko enplegua izanik. Lanbide horietan okupaturiko emakumeen erreferenteak baliatzea.
Sentsibilizazioa	1A.2.3.	Familiei zuzendutako informazioko eta sentsibilizazioko ekintzak (hitzaldiak, industria-enpresetara bisitaldiak, etab.) egitea, industria-produkzioan emakumeek lan egiteko dauden aurreiritziak ezabatzeko, produkzio-prozesuetan izandako aldaketak nabarmenduta, baita enplegu mota horren kalitateari dagozkion onurak ere.
Sentsibilizazioa	1A.2.4.	Enpresaburuei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egitea, emakumeak kontratatzea eragozten duten estereotipoak ezabatzeko asmoz, batik bat, ordezkariak txikiegia duten lanbidetan. Horretarako, praktikak egiteko eta/edo lanerako emakumeak kontratatu dituzten enpresa-erreferenteak baliatu behar dira, bereziki industriaren sektorekoak.
Prestakuntza	1A.2.5.	Prestakuntza-eskaintzan moduluak txertatzea, honako gai hauen inguruan: antolaketa-eredu berrien inguruan, aitzindaritza moten inguruan, produkzio-moduen inguruan, eta abarren inguruan, baita industriaren sektorean lana bilatzen ari diren emakumei laguntzeko prestakuntza ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.6.	Adina gorabehera, emakumeen enplegua sustatzeko eta kontratazioari laguntzeko programak garatzea, enpresei emakumeak kontratatzeak laguntza ekonomikoak emanda, hainbat kontratazio modalitateetan emakumeen parte-hartze kuota handitzeko, eta batik bat, ordezkariak txikiegia duten lanbidetan eta kategoriatan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.7.	Erreferentzia-sektoretako lanbide teknikoetan –batik bat, ordezkariak txikiegia duten kategoriatan– sartzeko emakumeak gaituko dituen prestakuntza-ekintzetan emakumeen parte-hartzea sustatzea.
Arauak	1A.2.8.	Lanerako Prestakuntzari eta enplegu/prestakuntzako programei diru-laguntzak emateko garaian, lehentasunezko irizpidetza hartzea honako hau: prestakuntza-prozesuaren barruan, emakumeek enpresetan praktikak egitea, batik bat ordezkariak txikiegia duten lanbidetan.
Arauak	1A.2.9.	Lanerako prestakuntzako eta enplegu/prestakuntzako proiektuei zuzendutako laguntzak emateko garaian, balioespen-irizpidetza hartzea honako hau: proiektuen diseinuan, betearazpenean eta ebaluazioan genero-ikuspegia txertatzea.
Jarraipena	1A.2.10.	Enpresetan praktikak egiteko programei jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea, emakumeen parte-hartzea ziurtatzeko, batik bat, ordezkariak txikiegia duten okupazioetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.11.	Enpleguaren eta prestakuntzaren eremuan lan egiten duten profesionalen sareak indartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ebaluazioak eta esperientziak elkartrukatzea eta koordinatzea erraztearren.
Jarraipena	1A.2.12.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

1A.3. HELBURUA:

Enpresa-ekimenak sortzen eta sendotzen emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, emakumezko sustatzaileen parte-hartzea areagotuta, batik bat, ordezkaritza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Emakumezko enpresaburuen egoera eta premiak aztertzea, estrategia hau osatzen duten jardunak ahalik eta modu eraginkorrean garatze aldera.
Jakintza	1A.3.2.	Emakumeen enpresa-ekimenak sortzeko eta indartzeko finantziario-formulak aztertzea: laguntza-fondoak, banketxeekiko hitzarmenak kreditu mesedegarriak eta/edo abalik gabeko kredituak emateko...
Prestakuntza	1A.3.3.	Emakumezko ekintzaileei eta enpresaburuei zuzendutako programetan, faktore psikosozialek jardura ekintzailean duten eraginari buruzko hausnarketa-moduluak txertatzea, baita zeharkako trebetasunetako eta berrikuntzarako prestakuntza ere, metodologia esperientzialekin (mentoring, coaching, etab.)
Prestakuntza	1A.3.4.	Emakumezko enpresaburuei eta ekintzaileei zuzendutako programetan, emakumeek osaturiko enpresen arteko lankidetzak eta sare-lana sustatzeko jarraibideak txertatzea.
Prestakuntza	1A.3.5.	Landa-eremuko emakumei begirako prestakuntza-ekintzak egitea, enpresako eta merkataritzako teknikari buruz, kooperatibismoari buruz, produktzio teknikari berriei buruz, eta eremu horrekin loturiko jardura ekonomikoari buruz: turismoa, artisautza, etab.
Arauak	1A.3.6.	Emakumeek ordezkaritza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan, emakumeek sustatuko enpresa-ekimenei (autoenplegua, enpresak, kooperatibak eta lan sozietate anonimoak) lehentasuna ematea enpresa-proiektua lantzeko prestakuntza- eta aholkularitza-prozesuetarako sarbidean, proiektuaren bideragarritasuna aztertzean, eta enpresa abiarazteko prozesuan, baita eratze-gastuak, aktiboetan egindako inbertsioak eta funtzionamendu-gastu orokorrak finantzatzeko diru-laguntzetarako sarbidean ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.7.	ETEak sustatzen dituzten emakumeentzat pizgarriak ezartzea, ordezkaritza txikiegia duten sektoretan eta lanbidetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.8.	Gizarte-ekonomiako enpresetan emakume langabetuak bazkide-langile gisa edo langile gisa sartzeko pizgarriak ematea.
Jarraipena	1A.3.9.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA -2A-: EMAKUMEEN ETA GIZONEN LAN BALDINTZAK PAREKATZEA

2A.1. HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen lan-baldintzak parekatzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jardura-adarrei lehentasuna emanda.

SEKTORE PUBLIKOA

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.1.A.1.	Genero-diagnostikoa egitea, emakumeen lan-baldintzetan izan daitezkeen diskriminazioak edo desorekak identifikatzeko, ezarritako gutxieneko nahitaezko edukiak betez, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezko adierazleak ezarri.
Sentsibilizazioa	2A.1.A.2.	Honako hauek ezagutaraztea euskal gizarteari: genero-diagnostikoen emaitzak, emakumeen eta gizonen arteko desorekak ezabatzeko hartutako neurriak, eta jardun horien eragin-ebaluazioaren emaitzak.
Prestakuntza	2A.1.A.3.	Administrazio eta enpresa publikoetan, erakundeetan berdintasuna ezartzeko beharrezkoa den prestakuntza ematea lan-baldintzak kudeatzeaz arduratzen direnei.
Arauak	2A.1.A.4.	Administrazio publikoek eta horien mendeko enpresek -langileekiko negoziazio kolektiboaren bitartez- enplegu publikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak proposatzen dituztela ziurtatzea.
Arauak	2A.1.A.5.	Gehienbat kapital publikoarekin partaidetutako enpresetan eta administrazio publikoetan berdintasunerako planak lantzea eta ezartzea, egindako diagnostikoen ondorioetan oinarrituta, eta barne-funtzionamenduan identifika daitezkeen diskriminazioak eta desorekak ezabatzeko neurri zehatzak eta eraginkorrak barnean hartuta.
Arauak	2A.1.A.6.	Berdintasun-planen jardun-eremuetan sartzeari lanbide-sailkapenaren, lanpostuen balioespenaren eta dagozkien ordainsarien berrikuspena, gehienbat emakumeek okupaturiko lanpostuen eta lanbide-kategorien balioa gutxitzea saihesteko eta balio bereko lanaren aurrean soldata-aldeak desagerrarazteko, baita zeharkako diskriminazioa identifikatu eta ezabatzeko ere, eginkizunen arabera plusen eta osagarrien bitartez.
Jarraipena	2A.1.A.7.	Diagnostikoetan eta berdintasun-planetan gutxieneko nahitaezko edukiak gutxienez barnean hartzen direla bermatzeko beharrezko prozedurak ezartzea.
Jarraipena	2A.1.A.8.	Abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIVATUA		
2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.1.B.1.	Sexuaren araberako ordainsariei buruzko funtsezko datuen bilketa sistematikoa egitea eta hobetzea, jardun-sektoreak eta lanbide-kategoriak aintzat hartuta. Gizonen eta emakumeen ordainsarien eta soldatetako desoreka kuantitatiboaren bilakaera eta jarraipena egitea ahalbidetuko duten hasierako adierazleak ezartzea.
Jakintza	2A.1.B.2.	Negoiazio kolektiboan berdintasunerako politikak txertatzearen eremuko gidak, metodologiak eta esperientziak biltzea eta ezagutaraztea edo gizarte-eragileen esku jartzea, baita enpresetan berdintasuna ezartzeko lan-metodologiak ere.
Sentsibilizazioa	2A.1.B.3.	Lan Harremanen Kontseiluko kide diren erakundeen artean, sektore pribatuaren negoziazio kolektiboan emakumeen lan-baldintza txarrak hobetzeko neurriak ezar daitezen sustatzea, ordainsarietan diskriminazioa ezabatzeko neurriak, batik bat.
Prestakuntza	2A.1.B.4.	Bereziki balio bereko lanen aurrean ordainsari berdinak lortzeari dagokionez, enpresetan berdintasuna lortzeko modu praktikoa eta lege-xedapenak hobeto ezagutzearen, prestakuntza praktikoko eta juridikoko ikastaroak diruz laguntzea. Sindikatuei eta enpresaburu-elkarteei begirako ikastaroak izango dira.
Prestakuntza	2A.1.B.5.	“Lan-eremuan, emakumeenganako desorekak eta diskriminazioak” gaiari buruzko prestakuntza-plana diseinatzea eta ematea lan-ikuskatzaileei, sexuak eragindako diskriminazio-egoerak kontrolatzeko eta ezabatzeko zeregina behar bezala bete dezaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.B.6.	Erakunde horietan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko, eta adituak kontratatze laguntzak ezartzea enpresentzat, sindikatuentzat eta enpresaburu-elkarteentzat.
Arauak	2A.1.B.7.	“Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko erakunde laguntzaileak” hartzea berdintasun-politikak garatzen dituzten erakundeak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.B.8.	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak abiarazteak kostu ekonomiko erantsia eragiten dien enpresentzat zerga-pizgarriak ezartzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.B.9.	Emakumeak lanaldi osorako kontratatze, eta emakumeen behin-behineko edoaldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko pizgarriak ematea.
Arauak	2A.1.B.10.	Lan Ikuskaritzaren jardunean lehenetsuntzat definitzea honako hau: sexuak eragindako diskriminazio-egoerak kontrolatzea eta ezabatzeko, soldata-diskriminazioei arreta berezia eskainita.
Arauak	2A.1.B.11.	Lizitazioak esleitzeko eta diru-laguntzak emateko irizpideetan txertatzea honako hau: erakunde lizitatzaileretan edo diru-laguntzen onuradun direnetan berdintasun-politikak ezartzea.
Jarraipena	2A.1.B.12.	Berdintasunerako plan edo programa horietan jaso behar diren gutxieneko edukiak, eta plan edo programa horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	2A.1.B.13.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

2A.2. HELBURUA: Sektore publikoan eta sektore pribatuan, erantzukizun handiko postuetan emakumeen presentzia areagotzea.		
SEKTORE PUBLIKOA		
2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.2.A.1.	Maila teknikoen Zerbitzu Batzordearen postuak betetzeko balioesten diren meritua, eta/edo esleipen-irizpideak aztertzea, meritu edo irizpide horiek gehienbat gizonezkoen mesederako ote diren jakiteko. Kasuak kasu, atzemandako desabantailak leuntzeko ekintza zuzentzaileak diseinatzea.
Prestakuntza	2A.2.A.2.	Erantzukizun handiko postuak lortzeko beharrezkoak diren eskumenen inguruko prestakuntza homologatzea, emakumeen prestakuntza-premiak kontuan izanik (eduki teknikoak eta zeharkako trebetasunak).
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.A.3.	Erantzukizun handiko postuetako lan-denborak egokitzea lanaldiaren arabera eta/edo bateragarritasunari laguntzeko neurriak edo zerbitzuak eskaintzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.A.4.	Barne-prestakuntza lanaldiaren barruan ematea eta/edo bateragarritasunari laguntzeko neurriak edo zerbitzuak eskaintzea.
Arauak	2A.2.A.5.	Lanaldi-murrizketa hartu duten guztiei barne-prestakuntzarako sarbidea bermatzea, batik bat, lanpostuz igotzea eta/edo lan-baldintzak hobetzea ahalbidetzeko prestakuntza baldin bada.
Arauak	2A.2.A.6.	Dagokionean, Zerbitzu Batzordeko postuak betetzeko identifikatu diren neurri zuzentzaileak aplikatzea, emakumezkoen kolektiboa kaltetua izan ez dadin.
Arauak	2A.2.A.7.	Erantzukizun handiko postuetan emakumeak sartzeko ekintza positiboko neurriak ezartzea, batik bat ordezkariak txikiak duten lanbide-kategoriatan, betiere pixkanaka-pixkanaka parekotasuna lortzearen horrelako postuetan.
Jarraipena	2A.2.A.8.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIVATUA		
2A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.2.B.1.	Etengabeko prestakuntza-programetan emakumeen eta gizonen parte-hartze bereizgarria aztertzea, baita programa horiek bi kolektiboetan duten eragina ere, eta dagokionean, aldean arrazoiak.
Sentsibilizazioa	2A.2.B.2.	Etengabeko prestakuntzaren sustatzaile nagusi izaki, sindikatuak eta enpresaburu-elkarteak sentsibilizatzeko jarduerak egitea, prestakuntzako programen diseinuan eta garapenean emakumeentzako ekintza positiboak txerta ditzaten, batik bat erantzukizun handiko postuak okupatzeko ezinbestekoak diren eskumen teknikoetan eta zeharkakoetan (proiektuen kudeaketa, lan-taldean kudeaketa, zuzendaritza-trebetasunak, berrikuntzarako prestakuntza, etab.).
Sentsibilizazioa	2A.2.B.3.	Sindikatuak eta enpresaburu-elkarteak honako hau proposatzea: erantzukizun handiko postuetako lan-denborak lanaldiaren arabera egokitzea, eta/edo lan-arloko, familiararen eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurri lagungarriak ezartzea, baita lanpostuz igotzeko emakumeekiko ekintza positiboko neurriak ezartzea ere.
Sentsibilizazioa	2A.2.B.4.	Sindikatuak eta enpresaburu-elkarteak negoziazio kolektiboan honako hauek txerta ditzaten sustatzea: lanpostuz igotzeko irizpideak eta/edo emakumeak erantzukizun handiko postuetarako sarbidea bermatzeko ekintza positiboak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.2.B.5.	Prestakuntza-ekintza guztietan emakumeen parte-hartzea bermatzeko mekanismoak ezartzen dituzten Prestakuntza Planak pizgarriak ematea, batik bat, emakumeak ordezkariak txikiegia duten lanpostutara edo mailatara sartzeko gaikuntza emango dieten kasuetan.
Jarraipena	2A.2.B.6.	Diru-laguntza publikoa jaso duen etengabeko prestakuntzan, emakumeenganako zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa atzemateko jarraipen-mekanismoak ezartzea, elementu zuzentzaileak txertatuta, edo, dagokionean, prestakuntza ematen duen erakundearekiko lankidetzaz hitzarmena bertan behera utzita: sartzeko baldintzengatik, hartzeko eta hautatzeko prozesuengatik, ezagutarazteko bideengatik, hizkeragatik, etab.
Jarraipena	2A.2.B.7.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

2A.3. HELBURUA:

Gainerako langileen lan-baldintzetatik at dauden emakumezkoen langile-kolektiboen lan-baldintzak eta gizarte-estaldura parekatzeari bultzada ematea.

2A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.3.1.	Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezetan emakumeen egoera eta premiak aztertzea (Etxeko Zerbitzurako langileak eta Nekazaritzako Erregimen Berezia...).
Jakintza	2A.3.2.	Etxeko Zerbitzurako sektorearen ezkutuko ekonomia agerian uztea ahalbidetuko duten neurriak aplikatzeari buruzko ikerketak egitea, zerbitzuak emateko erakundeak sortuta Enplegu Sorgune Berrien filosofiari jarraiki, zerbitzu-txekeak...
Sentsibilizazioa	2A.3.3.	Etxeko Zerbitzurako lan-emaielen artean informazioa banatzea, kontratatzaile gisa dituzten betebeharren inguruan.
Sentsibilizazioa	2A.3.4.	Etxeko Zerbitzurako langileen lan-eskubideak ezagutaraztea, baita kolektibo horren gizartearen eta lanaren arloko baldintzak ere.
Arauak	2A.3.5.	Jarduera nagusia nekazaritzako ustiapenetan garatzen duten emakumeak jabe gisa edo jabe-kide gisa titular edo titularkide izateari bultzada ematea, titular edo titularkide izate horrek dakartzan eskubideen berri emanda.
Arauak	2A.3.6.	Estatuko Administrazioaren beste mailekin ekintza bateratuak egiteko aukera proposatzea, etxeko zerbitzuko lan-baldintzak gainerako langileekin parekatzeari, eta, batik bat, Erregimen Berezia eta Nekazaritzako Erregimen Berezia Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrekin parekatzeari dagokionez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.3.7.	Etxeko zerbitzuak eskaintzeko erakundeak sortzeari pizgarriak eta laguntza teknikoak emateko programa pilotua abiaraztea, emakumezko langileen lan-baldintzak hobetzeko zerbitzu horiek eskaintzeko beste modu batzuekin esperimentatzeko asmoz. Programa ebaluatzea eta praktika onak politika publikoetara eramatea.
Jarraipena	2A.3.8.	Abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B–: GIZARTEA ANTOLATZEKO EREDU BERRIA SUSTATZEA		
1B.1. HELBURUA: Etxeko eta zaintzako lanen balio ekonomikoa sistematikoki gehitzea gizarte-egituraren eta egitura ekonomikoaren inguruko azterketei, betiere produkzio-eremuarekin loturik aurkeztuta, hau da, produkzio-lanean eta ugalketa-lanetan emandako denborak batuta.		
1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.1.1.	Soilik etxeko lanetan aritzen direnei ez-aktibo kalifikazioa kentzeko sistema estatistikoak garatzea, horien egoeraren berri izateko beharrezkoak diren kategoriak sartuta.
Jakintza	1B.1.2.	Etxeko lanaren (jendea zaintzea barnean hartuta) balio ekonomikoa kalkulatzeko sistemak garatzea eta aplikatzea, eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko makromagnitude ekonomikoetan (BPG, NPG, Errenta Nazionale...) txertatzea.
Jakintza	1B.1.3.	Emakumeek doan egindako etxeko eta zaintzako lanek eragindako gizarte-aurrezkia kalkulatzea.
Jakintza	1B.1.4.	Hainbat lanbide-kategoriatako emakumeen lanaldiaren konparazio-kalkuluak egitea, gizonen produkzio-lana beren gain hartu ahal izateko emakumeek produkzio-lanetarako eta etxeko eta zaintzako lanetarako eman beharreko denbora kontuan hartuta, betiere honako hauek agerian uzteko: bizitzari eusteko oinarritzko premiak gizartean ez direla aintzat hartzen, eta ugalketako edo mantenuko lan-banaketak ez dagoela.
Sentsibilizazioa	1B.1.5.	Lanbide-kategorien arabera, lanaldi osoaren iraupenari dagozkion kalkuluak eta ugalketa-lanetan izandako gizarte-aurrezkiaren zenbatekoa euskal gizartean ezagutaraztea, helburu eredugarriari jarraiki.
Arauak	1B.1.6.	Lanaldiaren egiazko iraupena (produkzio-lanaren, eta etxeko eta zaintzako lanaren denbora batuta) sistematikoki aintzat hartzea, gizartearen eta ekonomiaren arloko politika guztietan, gizarte-denborak egokitzearen gizarte-premia guztiak betetze aldera.
Arauak	1B.1.7.	Eskualdearen edo udalaren eremuko esperientzia pilotua gauzatzea, gizarte-premia guztiak betetzeko gizarte-antolamenduan egin beharreko aldaketak eta sexuen arteko lan-banaketa ekitatiboa neurtzeko. Aldaketa horien eragina neurtzea eta izandako esperientzia eta emaitzak ezagutaraztea.
Jarraipena	1B.1.8.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

2. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –2B–: NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO NEURRIAK ETA LAGUNTZA ZERBITZUAK

2B.1. HELBURUA:

Etxeko eta zaintzako lanetan emandako denboraren erabileran emakumeen eta gizonen arteko desoreka kuantitatiboa murriztea, murrizketa hori honela zehaztuta: inoren laguntza behar duten lagunak zaintzeko eta amatasunak/aitatasunak eragindako baimenak eta lizentziak hartzen dituzten gizonen kopurua areagotuta administrazio publikoetan nahiz sektore pribatuan.

SEKTORE PUBLIKOA

2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.1.A.1.	Denboraren Erabilerari buruzko Inkesta bost urtean behin egiten denez, proposaturiko adierazleak bi urtean behin eguneratzea.
Sentsibilizazioa	2B.1.A.2.	Sentsibilizazio-ekintzak egitea, inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko eta aitatasunagatiko baimenak eta lizentziak gizonak har ditzaten.
Prestakuntza	2B.1.A.3.	Lanerako prestakuntzako ikastaro guztietan modulu bat txerta dadin bultzatzea, gizonak etxeko lanetan eta familia-erantzukizunetan erantzunkidetasuna hartzea beharrezkoa dela lantzeko.
Prestakuntza	2B.1.A.4.	Erantzunkidetasuna ezinbestekoa dela sentsibilizatzeko prestakuntza-produktuak (autoprestakuntza, bideoak, bestelakoak) prestatzea, eta enplegurako baliabide aktibo guztietan zabaltea.
Prestakuntza	2B.1.A.5.	Gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko baimenei eta lizentziei dagokienez, langileen eskubideen inguruko prestakuntza-ekintzak egitea, administrazio publikoetan giza baliabideak kudeatzeaz arduratzen direnei begira.
Arauek	2B.1.A.6.	Lanpostuen balioespena eta dagokion soldata-eskala berriz aztertzea genero-ikuspegitik begiratuta, gehienbat emakumeek okupatzen dituzten lanpostuetan gizonak okupaturiko balio bereko lanpostuen antzeko ordainsariak jasotzen dituztela bermatzeko.
Arauek	2B.1.A.7.	Inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko eta amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimenak hartzen dituztenei lehengo lanpostuetara itzuliko direla bermatzea, euren lanbide-garapenean kalteak izatea saihestuta.
Arauek	2B.1.A.8.	Amatasunagatiko eta aitatasunagatiko baja edo baimen guztiak behar den denboran eta moduan aurreikustea eta ordezkatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.A.9.	Familia-arloko arazoak eragindako eta amatasunarekin/aitatasunarekin loturiko baimenen erregimena zabaltea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.A.10.	Ordaindu gabeko baimenak hartzeko aukera ezartzea, indarreko legedian aurreikusten ez diren beste aukerak betetzeko (adopzioa bideratzea, iraupen luzeko gaixotasunak familian...).
Jarraipena	2B.1.A.11.	Inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatiko eta amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimenak emakumeek eta gizonak har ditzaten eragozpenak jartzen dituzten egoerak atzemateko jarraipena egitea. Eta dagokionean, neurri zuzentzaileak ezartzea.
Jarraipena	2B.1.A.12.	Amatasunagatiko/aitatasunagatiko baimen guztiak lantokietan ordezkatzeko direla ziurtatzeko jarraipen- eta kontrol-mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	2B.1.A.13.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIBATUA		
2B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Sentsibilizazioa	2B.1.B.1.	Familia-arloko arrazoiengatikoa baimenak, lizentziak eta eszedentziak, baita amatasunak eta aitatasunak eragindakoak ere, arautzen dituzten arauak ezagutaraztea langileen artean; halaber, Administrazio Publikoak neurri horiei heltzen zaizkien langileei ematen dizkien laguntzen berri ere ematea.
Sentsibilizazioa	2B.1.B.2.	Gure Erkidegoan eta kanpoan, erantzunkidetasunarekin loturik, enpresek garatutako esperientziak eta praktika onak ezagutaraztea enpresaburuen artean.
Sentsibilizazioa	2B.1.B.3.	Gizarte-eragileen arteko elkarrikereta sustatzea hitzarmen kolektiboetan honako hauek txerta ditzaten: amatasunagatikoa /aitatasunagatikoa baimenei edo edoskitzeagatikoa baimenei dagokienez, lege-araudian ezarritako iraupena luzatzea; baimen hori baliatzeko garaian malgutasuna ematea, langileen premien arabera; eta bi gurasoek lan egiten duten kasuetan, baimen horren zati bat aitzak hartzeko aukera dagoela xedatzen duen indarreko lege-araudia. Baimen horiek gizonak baliatzeko ahalegina egingo da.
Prestakuntza	2B.1.B.4.	Sindikatuak eta enpresaburu-elkarteei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea, amatasunagatikoa/aitatasunagatikoa edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeagatikoa baimen eta lizentzia horiek hartzen dituztenak ez daitezen kalteak suertatu lanbide-garapenean. Prestakuntza horren barruan sartuko dira lanpostuen balioespina eta dagozkien ordainsariak berrikusteko irizpideak, gehienbat emakumeak okupatzen dituzten lanpostuetan gizonak okupaturiko balio bereko lanpostuen antzeko ordainsariak jasotzen dituztela bermatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.1.B.5.	Baimenak eta lizentziak gizonak hartzeko pizgarriak ematea.
Jarraipena	2B.1.B.6.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

2B.2. HELBURUA:

Laneko denbora berrantolatze eta ordutegia malgutzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezartzea langileen lan-baldintzetan, administrazio publikoetan eta horien mendeko enpresetan, baita sektore pribatuko enpresetan ere, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jardura-adarrei lehentasuna emanda.

SEKTORE PUBLIKOA

2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.2.A.1.	Lanaldia egokitzeko zenbait formula aztertzea, eta lan-zamaren, antolaketaren ezaugarrien eta langileen egoeraren arabera, egokienak direnak aplikatzea, betiere ohikoa ez den lanaldia hartzen dutenei honako hauek bermatuz gero: – Ez zaie eragotziko ez lanbide-garapena, ezta barne-sustapena ere. – Ez dira erantzukizun gutxiko edo erabakitze ahalmen txikiko postuetara aldatuko. – Ez dute barne-prestakuntzako aukerarik galduko antolaketan lan-zentro nagusitik urrun egonda ere.
Sentsibilizazioa	2B.2.A.2.	Langileei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak egitea, bateragarritasunari laguntzeko neurriak baliatzeko motibatzearren.
Prestakuntza	2B.2.A.3.	Administrazio publikoetan, giza baliabideak eta lan-baldintzak kudeatzeaz arduratzen direnei prestakuntza ematea, bateragarritasuna eta bateragarritasuna bermatzeko neurriak aplikatzea beharrezkoa dela ikusarazteko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.A.4.	Gizonei nahiz emakumeei zuzenduta, bateragarritasunari laguntzeko zerbitzuak ezartzea, laguntza-zerbitzuei dagokienez premiak edo lehentasunak atzemateko azterketa oinarri hartuta.
Arauak	2B.2.A.5.	Laneko bilerak edo jende askoren parte-hartzea eskatzen duten bestelako jarduerak egiteko ordutegia zehaztea, horrelako jarduerak ordu jakinetan edo egun jakinetan jartzea ezinezkoa izanik.
Jarraipena	2B.2.A.6.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIVATUA		
2B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2B.2.B.1.	Enpresaren testuinguruan, lan-arloko, norberaren eta familiaren bizitza bateragarri egiteko esperientziak eta praktika onak, materialak eta azterlanak biltzea eta ezagutaraztea edo enpresen eta sindikatuen esku jartzea.
Jakintza	2B.2.B.2.	Bilketako eta/edo gastuko sistema publikoetan sar daitezkeen mekanismoak –zerga-onurak, prezio publikoak...– aztertzea, norberaren, familiaren eta lan-arloko premiak bateragarri egiteko laguntza ekonomikoak txerta daitezen.
Jakintza	2B.2.B.3.	Egiaztatze-erakundeen bitartez arau berria ezartzeko helburua lortzearen bideragarritasuna eta eraginkortasuna aztertzea, “enpresa bateratzailleak” edo “famihiarekiko arduratsuak” ziurtagiria emanez enpresei.
Sentsibilizazioa	2B.2.B.4.	EFQM ereduari “langileen gogobetetze-maila” irizpideari sar daitezkeen bateragarritasun-neurriak ezagutaraztea langileak hautatzeko enpresetan, eta enpresen kudeaketako eta zuzendaritzako ereduak ezartzen ari diren enpresetan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.B.5.	Bateragarritasuna bermatzeko zerbitzuak eta/edo neurriak ezarri behar dituzten enpresa pribatuei informazioa, aholkularitza eta prestakuntza ematea, baita lor daitezkeen laguntzen berri ematea ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.B.6.	Zerbitzu soziokomunitarioen mantentze-lanetan eta/edo egokitzean laguntza ekonomikoak ematen dituzten enpresentzat zerga-pizgarriak ezartzea, ezarritako helburua betetzeko moduan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2B.2.B.7.	Erantzukizun Sozial Korporatiboaren programetan, lan-arloko, familiaren eta norberaren bizitza bateragarri egiteko neurriak eta/edo zerbitzuak txertatzeko pizgarriak ematea.
Jarraipena	2B.2.B.8.	Laneko denbora malgutzeko neurriak, eta bateragarritasunari laguntzeko zerbitzuak eta/edo neurriak abiarazteko laguntzak eta/edo zerga-pizgarriak jaso dituzten enpresen jarraipena eta kontrola egiteko mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	2B.2.B.9.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –11–: LANEAN JAZARPEN SEXISTAREN PREBENTZIOA ETA DESAGERTZEA		
11.1. HELBURUA:		
Jazarpen sexistari aurre egitearren, prebentzioko eta jarduteko protokoloak ezartzea administrazio publikoetan eta sektore pribatuko enpresetan, okupatutako biztanleriaren proportzio handienak metatzen dituzten jarduera-adarrei lehentasuna emanda, jazarpen sexista hori agerian uzteko eta murrizteko asmoz.		
SEKTORE PUBLIKOA		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.A.1.	Jazarpen sexistak izan ditzakeen formak, zein egoeratan gertatzen den, eta biktimarentzako eta erakundearentzako ondorioak aztertzea.
Jakintza	11.1.A.2.	Jazarpen sexistaren eraginari eta maiztasunari dagokionez, hasierako egoera kuantifikatzea eta egindako aurrerapenak neurtzea ahalbidetuko duten adierazleak identifikatzea, bai sektore pribatuan, bai publikoan. Honako hauen arabera, gutxienez, bereiztea: jarduera-sektorearen, lanbide-kategoriaren eta kontratu motaren arabera.
Arauak	11.1.A.3.	Printzipioen adierazpena lantzea, administrazio publikoek eta mendeko enpresek jazarpen sexistaren aurrean harturiko prebentzioko eta ezabatzeko konpromisoa (zero tolerantzia-maila) agerian uztearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.A.4.	Jazarpen sexistaren egoeretan, prebentzioko, ebazteko, aholkularitzako, asistentziako, ikerketako, salaketako eta zigortzeko prozedurak lantzea.
Prestakuntza	11.1.A.5.	Administrazio publikoetan erantzukizun handiko karguak dituztenei prestakuntza espezifiko ematea, batik bat, giza baliabideak kudeatzen dituztenei, arazoaren prebentzioa eta ebazpen eraginkorra bermatze aldera. Prebentzio-jarduera gisa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza ere ematea.
Arauak	11.1.A.6.	Jazarpen sexistaren egoerak ebazteko hartutako neurriek biktimen lan-baldintzei kalterik ez eragiteko mekanismoak ezartzea.
Jarraipena	11.1.A.7.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

SEKTORE PRIBATUA		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.B.1.	Jazarpen sexista tipifikatzen duten araudi guztiak (nazioartekoak, Europakoak, estatukoak eta Autonomia Erkidegokoak) ezagutaraztea enpresetan, sindikatuetan eta langileen artean.
Sentsibilizazioa	11.1.B.2.	Jazarpen sexista zer den eta zer ez den argitzeko, nola tratatu eta nola aurrea hartu jakiteko ikus-entzunezko materiala sortzea eta enpresetan eta sindikatuetan banatzea.
Prestakuntza	11.1.B.3.	Lan-ikuskatzailerei prestakuntza ematea, jazarpen sexista ezabatzeko euren ikuskapen-zeregina gauza dezaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.B.4.	Prebentzio-ordezkariei eta enpresaburu-elkarteei zuzenduta, jazarpen sexistaren prebentzioari eta tratamenduari buruzko prestakuntza emateko pizgarriak eskaintzea, gai hori negoziazio kolektiboan txerta ahal izan dezaten.
Arauak	11.1.B.5.	Lan Ikuskaritzaren helburuetan eta jardute-irizpideetan honako hauek sartzea: jazarpen sexista debekatzen duten arauak betetzen direla zaintzea eta eskatzea.
Arauak	11.1.B.6.	Enpresetan jazarpen sexistaren prebentzioko eta tratamenduko protokolo orokorra landu eta enpresa eta sindikatuetan banatzea, erakunde bakoitzaren errealitateari egokitu eta ezarpena errazte aldera.
Jarraipena	11.1.B.7.	Beharrezko adierazleak ezartzea, eta abiarazitako jardunen eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egin eta horren arabera aldatzea.

7.4.

GIZARTERATZEKO EKINTZAK

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–:		
GIZARTE ZERBITZUETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA		
1M.1. HELBURUA:		
Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, diagnostikoetan, planifikazioetan, esku-hartzeetan eta ebaluazioetan genero-ikuspegia integratzea.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.1.1.	Administrazio publikoetako gizarte-arloko diagnostikoen ikuspegia berrikustea helburu duen ikerketa egitea. Eta diagnostiko horietan honako hauek barne hartzen ote diren aztertu beharko da: – Sexuaren arabera bereizitako datuak. – Emakumeen konparazio-egoera agerian uzten duen hizkera. – Arazo ezberdinek emakumeengan eta gizonengan duten eragin bereizgarriari buruzko beharrezko informazioa. – Kolektibo bakoitzean eta eremu bakoitzean dagoen genero-aldea. – Emakumeek eta gizonen baliabideetarako sarbidea eta kontrola izatea. – Premia praktikoen eta genero-interesen diagnostikoa.
Jakintza	1M.1.2.	Genero-ikuspegitik begiratuta, euskal administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan gauzatzen den gizarte-arloko esku-hartzearen fase guztiak berrikustea helburu duen ikerketa egitea, hobetu daitezkeen guneak atzematearren.
Prestakuntza	1M.1.3.	Administrazio publikoetako gizarte-ekintza arloetako teknikariei zuzendutako prestakuntza-ekintzak garatzea, gizarte-arloko diagnostikoak, plangintzak, esku-hartzeak eta ebaluazioak genero-ikuspegiari jarraiki egiteko gaitze aldera.
Jarraipena	1M.1.4.	Gizarte-arloko esku-hartzearen fase guztietan genero-ikuspegia txertatzen izandako hobekuntzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko ekintzak gauzatzea.
Jakintza	1M.1.5.	Genero-ikuspegiari jarraiki, gizarte-arloko plangintzan eta esku-hartzean praktika onak aztertzea eta sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.6.	Administrazio publikoek gizarte-arloan egindako diagnostikoen ikuspegiari buruzko ikerketaren emaitzak ezagutaraztea euskal administrazio publikoetako gizarte-ekintza arloetako teknikariei eta politikariei, eta politikariak sentsibilizatzea, "Gizarte-arloko plangintzan eta esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzearen" inguruan teknikariak gaitzearen, denbora eta baliabideak ematen lagun dezaten eta tartean sar daitezten.
Jarraipena	1M.1.7.	Araudia betetzea zainduko da, euskal administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak gaitzeari dagokionez, dela prestakuntza-planetan, dela hautaketako prozesuetan eta gai-zerrendetan.
Sentsibilizazioa	1M.1.8.	"Gizarte-arloko plangintzan eta esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzearen" inguruko praktika onak biltzen dituen materiala sortzea, gizarte-ekintzako arloetan banatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.9.	Berdintasun-eragileak kontratatzeke diru-laguntzak ematea Administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloei, arlo horietako langileei aholkularitza eta laguntza eman diezaieten gizarte-eremuko diagnostikoa, planifikazioa, esku-hartzea eta ebaluazioa egiteko genero-ikuspegitik begiratuta.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:		
ASKOTARIKO DISKRIMINAZIOA PAIRATZEN DUTEN ETA/EDO BAZTERKETA ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEEN BALDINTZAK ETA EGOERA HOBETZEA		
1A.1. HELBURUA:		
Pobrezia ekonomikoaren egoeran egonik, bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, egoera horretan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.1.1.	“Pobreziaren feminizazioaren” eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea.
Jakintza	1A.1.2.	Administrazio publikoek aginduta egiten diren ikerketetan eta estatistiketan gurasobakarra izatea ere txertatzea.
Jakintza	1A.1.3.	“Pobreziaren feminizazioaren” eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoaren estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Ezkontza-deuseztasuna, legezko ezkontza-banaketa, dibortzioa, izatezko bikotea hausturaz iraungitzea edo filiazio-prozesuaren kasuan, ezarritako pentsio osagarriak eta mantenu-pentsioak jasotzen ez dituztelako, edo alargun geratu direlako, egoera ekonomiko txarrean dauden emakumei errenta ziurtatzeko baliabide ekonomikoak ezartzea. Honako hauen bitartez: – Berme-fondoa sortzea, pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako. – Alarguntza-pentsio txikienentzako osagarriak.
Jarraipena	1A.1.5.	Pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako berme-fondoa sortzeari dagokionez, eta alarguntza-pentsio txikienentzako osagarriak ezartzeari dagokionez, legearen betetze-maila ebaluatuko da.
Jarraipena	1A.1.6.	“Pobreziaren feminizazioaren” eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako etxebizitza-baliabideen estaldura nahikoa ote den aztertzea, malgutzeko eta/edo kolektiboari lehentasun handiagoa emateko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.7.	“Pobreziaren feminizazioaren” eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak hobetzeko, gizartearen edo ekonomiaren arloko laguntza osagarriak ezartzea, hala nola: – Egoera ekonomikoa eta gizarte-arlokoa txarra izanik, soilik euren kargurako seme-alabak dituztenei begira, garraio publikoan laguntzak ematea. – Emakume horien seme-alaben ikasketetarako laguntzak eta bekak emateko irizpidetzat hartzea gurasobakarra izatea. – Euren kargurako seme-alabak dituzten emakumei lehentasuna ematea lanerako prestakuntzako ikastaroetan, euren premia espezifikoak artatuta. – Jardueretan eta/edo zerbitzuetan (jantokiak, haur-eskolak, udalekuak, etab.), soilik emakumeen kargura dauden adingabeak onartzeko irizpideak edo faktoreak txertatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.8.	Ama nerabeei informazioa, orientazioa eta aholkularitza emateko zerbitzuak eskaintzea, hezkuntza-sistemaren barruan iraungo dutela ziurtatzera bideratuak, edo kasuan kasu, euren gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetuta.
Prestakuntza	1A.1.9.	Administrazioko langileei eta hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeei prestakuntza ematea, emakume horien egoera hobetzeko programak diseinatu eta planifikatu ditzaten eta haien ahalduntzea susta dezaten.
Prestakuntza	1A.1.10.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dauden emakumeen mugimendu asoziatiboa indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, euren premiak eta interesak bideratzeko modutzat.
Jarraipena	1A.1.11.	“Pobreziaren feminizazioaren” eraginez, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1A.2. HELBURUA:		
Prostituzioan aritzen diren eta gizarte-bazterketaren arrisku-egoeran dauden emakumeei zuzendutako baliabideak egokitzea, haien baldintzak eta egoera hobetearren.		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.1.	Prostituzioaren arloko Jardun-plana lantzea, prostituzioan aritzen diren emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertze aldez aurreko diagnostikoan oinarrituta, eremu horretan lan egiten duten gainerako administrazioekin eta gizarte-taldeekin lankidetzan.
Jakintza	1A.2.2.	EAE, sexu-esplotazioa helburu duen emakumezkoen salerosketaren ezaugarriak eta nondik norakoa aztertzea, eta salerosketa hori desagerrarazteko neurri espezifikoak eta koordinatuak antolatzea.
Prestakuntza	1A.2.3.	Administrazioiko teknikariei eta dagokionean, hirugarren sektorean lan egiten duten erakundeei begira, prestakuntza-plana garatzea, nahi duten emakumeei laneko orientazioa emateko eta haien ahalduntze-prozesua indartuko duten alderdiak txertatuta, zeharkako moduan.
Jakintza	1A.2.4.	Prostituzioan aritzen diren eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.5.	Prostituzioan aritzen diren emakumeentzat atsedena- eta orientazio-zentroak sortzea, honako hauen inguruko premiak artatzeko: – Higienea. – Atsedena. – Lehen-mailako asistentzia. – Dauden baliabideen eta gizarte-zerbitzuen gaineko informazioa, baita kolektiboari laguntzeko elkarten eta erakundeen gainekoa ere – Sexu-transmisioko gaixotasunen prebentzioa – Euren kargurako jendea (haurrak eta inoren laguntza behar dutenak) laguntzeko zerbitzuak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.6.	Prostituzioan aritzen diren emakumeen ginekologia-osasuneko premia espezifikoak behar bezala erantzuteko baliabideak sortzea.
Araudia	1A.2.7.	Prostituzioa egiten den klubek edo lokalek osasunaren eta higienaren arloko, eta segurtasuneko gutxieneko baldintzak beteko dituztela bermatzeko beharrezko arauak ezartzea.
Prestakuntza	1A.2.8.	Prostituzioa utzi eta beste lanbide bat bilatu nahi duten emakumeei zuzendutako prestakuntzako eta lan-orientazioko programak antolatzea, haien ahalduntze-prozesua indartuko duten alderdiak txertatuta zeharkako moduan.
Prestakuntza	1A.2.9.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dauden emakumeen autoantolakuntza indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, euren premiak eta interesak bideratzeko modutzat.
Jarraipena	1A.2.10.	Prostituzioan aritzen diren eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1A.3. HELBURUA:

Droga-mendetasun arazoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Genero-rolekin loturik, emakumeengan droga-mendetasuna eragin dezaketen faktoreak ikertzea, baita genero-rolekin loturiko droga-mendetasunen ondorioak ere (arau-hauste bikoitza, zigor bikoitza, gehiegizko erruduntasuna...)
Prestakuntza	1A.3.2.	Osasun-arloko, gizarte-zerbitzuetako (gizarte-bitartekoak, lan-osasuneko eragileak, boluntarioak) eta hirugarren sektoreko profesionalei prestakuntza ematea, generoari eta droga-mendetasunei buruz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.3.	Arreta-zentroetan droga-mendetasun arazoak dituzten emakumeentzako programa espezifikoak izango direla bermatzea, eta programa horietatik abiatuta, mendetasunen eta genero-ikuspegiaren arteko lotura lantzea, ahalduntzearekin eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioarekin loturiko alderdiak txertatuta, zeharkako moduan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.4.	Tratamendu-programak egokitzea, espetxeratuen ezaugarri berezietara. patologia bikoitza, behin baino gehiagotan berrerortzea, iraupen luzeko zigorrak, haurdun dauden emakumeak, talde etnikoak, etorkinak, etab.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.5.	Tratamendu-programak egokitzea, droga-mendetasun arazoak dituzten eta prostituzioan aritzen diren emakumeen ezaugarri berezietara.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.6.	Mendetasuna gainditzeko programak egokitzea, droga-mendetasun arazoak eta familia-kargak dituzten emakumeen ezaugarri berezietara.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.7.	Mendetasuna gainditzeko tratamenduari ekin nahi dioten baina bizileku egonkorrik ez duten emakumeentzat, etxebizitza babestua erabakitzeko aukera emateko baliabideren bat erabakitzea.
Prestakuntza	1A.3.8.	Droga-mendetasunak dituzten emakumeen artean, parekoak eta osasun-eragileak prestatzea.
Prestakuntza	1A.3.9.	Osasun-hezkuntzako proiektuetan genero-ikuspegia integratzea.
Jakintza	1A.3.10.	Prebentzio-proiektuak (selektiboa eta egokituak) egokitzea emakumeen eta gizonen kontsumoaren ezaugarri berezietara.
Jakintza	1A.3.11.	Kidetasunagatiko mendetasunari eta bitariko mendetasunari buruzko ikerketa egitea emakume kontsumitzaileen artean eta kontsumitzaileak zaintzen dituzten emakumeen artean.
Jakintza	1A.3.12.	Droga-mendetasun arazoak dituzten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Sentsibilizazioa	1A.3.13.	Droga-mendetasunei buruzko programa, topaketa, jardunaldi eta mintegietan generoaren eta droga-mendetasunen inguruko adituak txertatzea.
Sentsibilizazioa	1A.3.14.	Emakumeei eta herritarrei, oro har, zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea generoarekin eta droga-mendetasunekin loturiko faktoreen eraginari buruz, emakumeei gehiegizko errua leporatzea saihestuta, eta ezkutuko droga-mendetasunak, alkoholismoak eta botiken gehiegizko kontsumoak emakumeengan dituzten ondorioen berri emanda.
Sentsibilizazioa	1A.3.15.	Emakume gazteei zuzendutako sentsibilizazio-kanpainak egitea tabakismoaren eta alkoholismoaren prebentzioari buruz, eta substantzien kontsumoaren, sexualitatearen eta nahi gabeko haurdunaldien arteko loturaren berri emateko.
Jarraipena	1A.3.16.	Droga-mendetasun arazoak dituzten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea droga-mendetasunen arloen eskutik.

1A.4. HELBURUA:		
Askatasunik gabeko egoeran daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horretako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.		
1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.4.1.	Euskadin askatasunik gabe dauden emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea.
Jakintza	1A.4.2.	Askatasunik gabeko aldia amaitu eta gizarteratze-prozesuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.3.	Askatasunik gabeko egoeran dauden emakumeen premiei erantzuteko zerbitzuak sortzea. Esate baterako: – Espetxearen eremutik kanpo, espetxeratu toxikomanoentzat arreta espezifikoko zerbitzuak, terapia-komunitateetan eta ordeztu tratamenduetan sartzeko errazte aldera. – Emakumezko espetxeratuak gizarte-zerbitzu normalizatuarentzako eta osasun-sistema publikorako sarbidea izatea, baita osasun-asistentzia espezializaturako ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.4.	Dagokien agintariei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea “Amen Unitateak” sortzeko, askatasunik gabeko egoeran dauden eta beren haurtxoei bizi nahi duten emakumeek horretarako aukera izan dezaten, erkidegotik kanpoko espetxeetara eraman behar izan gabe.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.5.	Dagokien agintariei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea “Mendeko Unitateak” ezartzeko: “Gizarteratzeko Zentroak” eta Sekzio Irekiak, non emakumeek erregimen irekian bete ahal izango duten zigorra.
Araudia	1A.4.6.	Gizarte-ekintzako arloetako diru-laguntzen barruan, askatasunik gabeko egoeran dauden edo preso egon diren emakumei zuzendutako programak lehenestea, betiere helburua emakume horien baldintzak eta egoera hobetzea izanik, ahaldunduekin eta gizarteko parte-hartzea indartzearekin loturiko estrategien bitartez.
Araudia	1A.4.7.	Emakumezko espetxeratuak bizilekutik gertuko espetxeetan zigorrek betetzeko aukera emango duten neurriak garatzeko aholkua ematea dagokien agintariei, baita gerturatzeko horretan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna errespetatu dadin beharrezkoak diren baliabideak sortzeko ere.
Araudia	1A.4.8.	Dagokien agintariei honako aholku hau ematea: destinoa esaten zaien espetxeetako zerbitzu osagarrietan (sukaldea, ile-apaindegia, garbategia, mantentze-lanak), egindako lana eta tailerretako produkzio-lana parekatzeko araudia garatzea espetxeetan.
Araudia	1A.4.9.	Dagokien agintariei honako aholku hau ematea: askatasunik gabe dauden emakumeek gatazka gutxiago eragiten dutenez, espetxeetako segurtasun-erregimena eta –neurriak egokitzeko barne-araudia garatzea.
Prestakuntza	1A.4.10.	Askatasunik gabeko egoeran dauden emakumei hezkuntza-baliabideetarako sarbidea erraztea, irakaskuntza-sistema arautuaren bitartez, lanerako prestakuntzaren bitartez, eta produkzio-tailerren bitartez.
Prestakuntza	1A.4.11.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dauden emakumeen autoantolakuntza indartzeko gizaritza- eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, eta emakumeen mugimendu asoziatiboarekin sareak sortzea.
Jarraipena	1A.4.12.	Askatasunik gabe dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1A.5. HELBURUA:

Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.5. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.5.1.	Euskadiko emakume etorkinen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea, bazterketaren aurrean kalteberago egiten dituzten faktoreetan eraginda, eta kolektibo horiekin lan egiten duten administrazioen eta erakundeen jardunak orientatzeko neurriak eta jarraibideak ezarrita.
Sentsibilizazioa	1A.5.2.	Emakume etorkinen baldintzen, egoeraren eta premien azterketaren emaitzak ezagutaraztea kolektibo horrekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeen eta teknikarien artean, euren jarduna genero-ikuspegiari atxikitze aldera.
Jakintza	1A.5.3.	Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Araudia	1A.5.4.	Behar izanez gero, emakume etorkinek baliabide publikoetarako sarbidea izan dezaten, irizpideak malguago bihurtzea, honako hauen inguruko premiak bermatzearren: – Osasun-asistentzia. – Hezkuntza. – Lanerako prestakuntza. – Etxebizitzarako sarbidea.
Prestakuntza	1A.5.5.	Genero-ikuspegitik begiratuta, emakume etorkinen baldintzak eta egoera hobetzeko programak diseinatzen eta planifikatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeei eta Administrazioko teknikariei prestakuntza ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.5.6.	Etorkinei orientazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatuetan genero-ikuspegia txertatzea.
Prestakuntza	1A.5.7.	Genero-ikuspegitik begiratuta, kulturarteko bitartekotzaren inguruko prestakuntza ematea etorkinen kolektibo horrekin lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeei eta administrazioko langileei.
Prestakuntza	1A.5.8.	Emakume etorkinei prestakuntza ematea, hizkuntza ez dadin oztopo izan emakume horiek oinarritzko eskubideak baliatzeko.
Prestakuntza	1A.5.9.	Emakume horiekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, egoera horretan dau den emakumeen autoantolakuntza indartzeko gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, euren premiak eta interesak bideratzeko modutzat.
Jarraipena	1A.5.10.	Etorkinak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1A.6. HELBURUA:

Ezinduak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horietako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.

1A.6. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.6.1.	Ezintasun funtzionala, fisikoa edo psikologikoa duten emakumeen errealitate bereizgarria eta espezifikoa ikertzea, baita gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktore espezifikoak ere.
Jakintza	1A.6.2.	Ezinduak izanik, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Jakintza	1A.6.3.	Ezintasunen bat duten eta bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako etxebizitza-baliabideen estaldura nahikoa ote den aztertzea, beren premia espezifikoetara egokitutako etxebizitzarako sarbidea izan dezaten zainduta, edo etxebizitzak egokitzeko laguntzak nahikoak ote diren aztertzea, eta ez badira, neurri zuzentzaileak hartzea.
Jakintza	1A.6.4.	Eguneko zentroetan, lanerako tailerretan edo aldi baterako edo behin betiko egoitzetan, azpikolektibo bakoitzaren premietara egokitutako zenbat toki dauden aztertzea, betiere familiaratzea eta gizarteratzea ahalbidetzeko edo horiei eusteko moduko esparru geografikoaren barruan, eta egungo errealitatea ebaluatu ostean, behar diren neurriak hartu ahal izateko.
Sentsibilizazioa	1A.6.5.	Herritarrei zuzendutako informazio-kanpainak egitea, ezintasunen bat duten emakumeen irudi barne-hartzaileak eta ez-estereotipatuak sortzeko.
Prestakuntza	1A.6.6.	Genero-ikuspegitik begiratuta, ezintasunen bat duten eta urrakortasun-egoera larrian dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko programak diseinatzen eta planifikatzen dituzten hirugarren sektoreko erakundeei, eta erakunde publikoetako, osasun-erakundeetako eta gizarte-erakundeetako langileei prestakuntza ematea.
Prestakuntza	1A.6.7.	Ezintasunen bat duten emakumeekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea gizartearen eta politikaren arloko trebetasunak lortze aldera, egoera horretan dauden emakumeen sare asoziatiboak sortzeko eta autoantolaketa indartzeko, euren premiak eta interesak bideratzeko modutzat.
Jarraipena	1A.6.8.	Ezinduak izanik, bazterketa-arriskuan dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1A.7. HELBURUA:		
Adinekoak izanik, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenei zuzendutako baliabideak egokitzea, kolektibo horretako emakumeen baldintzak eta egoera hobetearren.		
1A.7. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.7.1.	Hirugarren eta laugarren adineko emakumeen baldintzak, egoera eta premiak aztertzea, baita gizarte-bazterketaren arrisku handiagoan eragiten duten faktoreak ere.
Jakintza	1A.7.2.	Hirugarren eta laugarren adinekoak izanik, bazterketa-arriskuan dauden emakumeentzako laguntza eta baliabide ekonomikoen estaldura nahikoa ote den aztertzea, baliabide osagarriak malgutzeko eta/edo sortzeko irizpideak balioestearren.
Prestakuntza	1A.7.3.	Genero-ikuspegitik begiratuta, hirugarren eta laugarren adinean dauden emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko programak diseinatzen eta planifikatzen dituzten gizarte-zerbitzuetako langile espezializatuak prestakuntza ematea.
Prestakuntza	1A.7.4.	Osasun-langileei eta/edo -laguntzaileei prestakuntza ematea, adineko emakumeen osasun- eta psikologia-errealitateari buruz, emakume horiek berezkoak dituzten sindromeak ikusarazita: habi hutsa, burn out, eta gogo-aldatearen gorabeherak eragindako beste hainbat sindrome; bularreko edo umetokiko minbizia, eta zaintzaile informalaren rol tradizionalak eragindako lesioak.
Prestakuntza	1A.7.5.	Adineko emakumeekiko esku-hartze programetan prestakuntza-ekintzak txertatzea, autozaintza eta norberaren ahalduntzea indartzeko, eta haien interesak eta premiak bideratzeko modutzat autoantolaketa bultzatuta.
Sentsibilizazioa	1A.7.6.	Hirugarren eta laugarren adinean dauden emakumeen arrisku-faktoreei buruzko kanpainak egitea eta ezagutaraztea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.7.7.	Ikerteta-zentro espezializatuetan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea, adineko emakumeek izaten dituzten memoria-gorabeherekin loturiko alderdiak ere sartuta.
Jarraipena	1A.7.8.	Hirugarren eta laugarren adineko emakumeen baldintzak eta egoera hobetzeko baliabideen eraginkortasunaren eta eraginaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B–: AUTONOMIA FUNTZIONALIK EZ DUTENEI ARRETA EMATEKO BALIABIDE SOZIOKOMUNITARIOAK		
1B.1. HELBURUA:		
Zaintzako lanetan aritzen direnen gizarte-arloko zama eta zama ekonomikoa eta psikologikoa murrizteko baliabideak areagotzea.		
1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.1.1.	Dimentsio anitzeko ikerketa egitea, honako aztergai hauek barnean hartuta: zaintzako lanaren kostuak; Euskadiko eremu pribatuan zaintzaren nondik norakoaren azterketa, dagoen eskaera kalkulatzeko ahalbidetzeko; "zaintzaile informalek" euskal gizarteari egindako ekarpen ikusezina kuantifikatzea; lan horretan emakumeen eta gizonen parte-hartze bereizgarria; eta autonomiarik ez duten pertsonak zaintzen dituztenek jasaten dituzten zama ekonomiko, psikologiko eta gizarte-arlokoen azterketa, baita zama horiek izan ditzaketen ondorioen eta kostuen –zuzenak eta zeharkakoak– azterketa ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.2.	Autonomiarik ez dutenak zaintzen dituzten emakumei/pertsonei arreta eta orientazioa emateko zerbitzu espezifikoak sortzea administrazio publikoetako gizarte-ekintzako arloetan, honako zerbitzu hauek barnean hartuta: – Zaintzaren kostuari buruzko, eta generoan oinarritutako gizarte-erakuntzak "zaintzaile-rolarekin" duen lotura zuzenari buruzko hausnarketa-taldeak. – Emakume zaintzaileen gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea lortzeko prestakuntza-ekintzak, kolektibo gisa haien eskaerak antola eta bidera daitezkeen. – Zaintzako lanak eragin ditzakeen arrisku fisiko eta psikologikoen prebentzioarako laguntza psikologikoa. – Gizarte-arloko baliabideen eta baliabide ekonomikoaren gaineko orientazioa. – Laguntzeko eta atsedean hartzeko sistemak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.3.	Etkez etxeko laguntzarako aurrekontu-partidak handitzea.
Araudia	1B.1.4.	Diru-laguntza publikoen dekretuetan, honako helburu eta filosofia hauei atxikitzen zaizkien programak eta gizarte-eragileak txertatzea eta/edo lehenestea: zaintza-lanak egiten dituztenek jasaten duten zama ekonomikoa, psikologikoa eta/edo gizarte-arloko murriztearen, atsedean hartzeko programak edo bestelako jardunak garatzea, emakumeek zaintzearen ohiko formulaz bestelako aukera berriak bilatzearekin loturiko jardunak lehenetsita, baita gizonak zaintzako lanean tartean sar daitezkeen lortzeko jardunak ere.
Jakintza	1B.1.5.	Emakumeek egindako ohiko zaintzarekin loturarik ez duten formula berrien proposamenak eta aukera berriak bilatzea helburu duten ikerketak egitea, zerbitzu publikoak, gizonak tartean sartzea eta laguntza-sareak oinarri hartuta.
Prestakuntza	1B.1.6.	Oinarritzko gizarte-zerbitzuetako langileei prestakuntza ematea, generoan oinarritutako gizarte-erakuntzak "zaintzaile-rolan" eta zama ekonomiko, psikologiko eta gizarte-arlokoetan duen eragin zuzenari dagokionez, eta autonomia funtzionalik ez dutenak artatzen dituzten emakumeen sindrome berriei ("burn out" sindromea) dagokienez.
Jarraipena	1B.1.7.	Autonomia funtzionalik ez dutenak zaintzen dituzten emakumeen zama ekonomikoa, psikologikoa eta gizarte-arloko murrizteko baliabideen jarraipena eta ebaluazioa egitea, horien eragina, estaldura eta eraginkortasuna neurtuta.
Jakintza	1B.1.8.	Zaintza-lanak egiten dituzten emakumeen/lagunen zama ekonomikoa, psikologikoa eta gizarte-arloko murrizteko formulen diseinuan beste herrialdetan izandako praktika onak sistematizatzea.
Sentsibilizazioa	1B.1.9.	Zaintzaren zeharkako kostuak ezagutarazteko programak eta programa dokumentalak sortzea, zaintzaile informalei zuzendu.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –11–: ETXEKO INDARKERIAREN ETA SEXU ERASOEN AURREAN PREBENTZIOA ETA ARRETA HOBETZEA		
11.1. HELBURUA:		
Indarkeria-zikloa goiz atzematen diren kasuak areagotzea.		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.1.	Emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen eragina eta arrazoiak aztertzea, baita gertakari horiek salatzeke edo ez salatzeke erabakian eragiten duten faktoreak ere, askotariko diskriminazioa jasaten duten emakumeek (ezintasunen bat duten emakumeak, emakume etorkinak, adineko emakumeak...) salaketarik ez jartzean eragiten duten arrazoiei arreta berezia jarrita, baita, erasoren bat jasanez gero, nora jo dezaketen ez dakiten emakumeen proportzioa handia izateko arrazoiei ere, nahiz eta baliabideak bideratzen diren horren berri emateko.
Jakintza	11.1.2.	Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, gizartean indarrean dauden aurreiritzi, sinismen eta estereotipoei buruzko ikerketa egitea, gizarte-sarea zabaltzea eragozten baitute, indarkeriaren biktimak diren emakumei laguntzeko eragile gisa (honako kolektibo hauei arreta berezia emanda: gizarte-zerbitzuetako langileei, familia-hezitzaileei eta adingabeen hezitzaileei, osasun-langileei, ikastetxeetako irakasleei...).
Jakintza	11.1.3.	Indarkeria-zikloa goiz atzematen laguntzeko eragile informal izan daitezkeen talde berriak atzematea, eta atzemate horretan inplikatzeko lortzeko jardun espezifikoak diseinatzea.
Jakintza	11.1.4.	Emakumeen aurkako indarkeria-zikloaren prebentzio goiztiarraren inguruko praktika onak ikertzea eta sistematizatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.5.	Indarkeria-zikloaren hasierako fasetan (ahozko indarkeria eta indarkeria psikologikoa) dauden emakumei arreta eta etxeko asistentzia emateko zerbitzuak sortzea, bigarren fasean sartzea (indarkeria fisikoa), depresioak, autoindarkeria eta abar saihestearren, baliabide eta laguntza psiko-soziala eskainita.
Araudia	11.1.6.	Gizarte-eremuko espezialitateen (gizarte-hezkuntza, gizarte-lana, psikologia, soziologia, irakasle-ikasketak, gizarteratzea, dinamizazio soziokulturala...) curriculumean honako hau txerta dadin gomendatzea: prebentzioan eta goiz atzematean espezializaturiko prestakuntza, baita emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari modu integralean aurre egitea ere.
Araudia	11.1.7.	Ertzaintzaren prestakuntza-programan honako hau txertatzera behartuko duen araudia sortzea: prebentzioan eta goiz atzematean espezializaturiko prestakuntza, baita emakumeen aurkako indarkeriaren fenomenoari modu integralean aurre egitea ere.
Araudia	11.1.8.	HAEErekin hitzarmenak egitea, indarkeriaren prebentzioari buruzko prestakuntza-moduluak txertatzeko, eta biktimei emandako arreta hobetzeko.
Prestakuntza	11.1.9.	Gizarte Zerbitzuetako, Ertzaintzako eta hezkuntzako profesionalei zuzenduta, Emakumeen aurkako Indarkerian espezializatuko prestakuntza ematea, indarkeria-zikloa goiz atzemateko, eta indarkeria fisikoaren eta autoindarkeriaren prebentziorako.

Prestakuntza	11.1.10.	Maskulinitasunak eta indarkeriari buruzko prestakuntza espezifikoak ematea hezitzaileei, gizarte-langileei eta langileei, gizonekin lan psiko-soziala egiteko eta esku hartzeko. Erreferentziako eredu berriak izan daitezten.
Prestakuntza	11.1.11.	Emakumei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea ("bikote-arazoak", "gatazkak konpontzea", "negoiazioak maitasunean"...), helburu inplizituzat honako hau izanik: emakumeek indarkeria-zikloa ezagutzea eta indarkeriaren biktimak diren kasuetan, horretaz jabetzea.
Prestakuntza	11.1.12.	Gizonei zuzendutako prestakuntza-ekintzak egitea, indarkeriaren eta maskulinitasunaren arteko lotura lantzea helburu izanik, betiere indarkeriaren prebentziorako eta harreman-eredu berriak sustatzeko.
Sentsibilizazioa	11.1.13.	Herritarrek sentsibilizatzeko kanpainak egitea, baita indarkeria-zikloaren eta indarkeria jasaten duten emakumeentzako baliabideen berri emateko eta ezagutarazteko kanpainak ere, indarkeria-zikloa goiz atzematen eta laguntza-eragile informal gisa inplika daitezten lortzeko.
Sentsibilizazioa	11.1.14.	Gidak eta/edo ikus-entzunezko materiala sortzea indarkeria-zikloa azaltzeko, emakumeek beren bizitzan izan ditzaketen indarkeria-egoerak atzeman ditzaten, eta egoera horretatik ateratzeko baliabideen berri izan dezaten. Material horiek egokitu egin behar dira ezintasun funtzional, fisiko eta intelektuala duten emakumeen premietara eta adineko emakumeek izan ditzaketen mugetara, eta Euskadiko emakume etorkinen hizkuntza nagusietara itzuli beharko dira.
Sentsibilizazioa	11.1.15.	Herritarrek sentsibilizatzeko, emakumeen eta adingabeen aurkako tratu txarrak gertatzen diren kasuak agintari judizialari edo polizia jakinarazteko.
Sentsibilizazioa	11.1.16.	Gizonei zuzenduta, indarkeria-zikloa azaltzeko sentsibilizazio-kanpainak egitea, indarkeriaren hasierako etapetan sartzen diren erasoak egiten ari diren gizonak egoera hori atzemateko edo identifikatzeko gai izan daitezten.
Araudia	11.1.17.	Taxi-enpresekin hitzarmenak egitea, indarkeriaren biktima diren emakumei laguntzeko eragile gisa inplika daitezten larrialdi-kasuetan.
Prestakuntza	11.1.18.	Taxi-gidariei prestakuntza ematea, indarkeriaren biktima diren emakumei laguntzeko eragile gisa inplika daitezten, emakumeek garraio-bidea behar duten larrialdi-kasuetan.
Jarraipena	11.1.19.	Etxe indarkeriaren kasuetan arreta ematearekin lotura duten arloei txostenak eskatzea, goiz atzemateari dagokionez egindako jardueren eta programen berri eman dezaten.

11.2. HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta, asistentzia eta babesa emateko eskaerei koordinazioaren, kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarrita, EAEko udalerrietan.

11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.2.1.	EAEko udalerrietan tokiko protokoloak ezartzeko eragozpenak aztertzea, eta neurri zuzentzaileak zehaztea.
Prestakuntza	11.2.2.	Udaletako teknikariei eta, egonez gero, berdintasunerako eragileei prestakuntza ematea, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak garatzeari eta indartzeari buruz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.3.	Udalei eta mankomunitateei laguntza ekonomikoak ematea etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak osatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.4.	Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko protokoloak garatzeko jarraibideen gidak osatzea.
Sentsibilizazioa	11.2.5.	Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak abiarazi nahi dituzten udalen, eta protokoloa baduten udalen arteko topaketak egitea, izandako esperientziak, praktika onak eta hobetu daitezkeen alderdiak azal ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.6.	"Berdinsarea; Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko udalerrien sarea" sortu eta sendotzea, emakumeen aurkako indarkeriaren eremuan jarduteko ildo homogeneousak izate aldera, eta biktimei arreta hobea ematea eta koordinazioa ahalbidetuta.
Jarraipena	11.2.7.	Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak ezarri dituzten udalei jarraipena egitea, izan daitezkeen hutsuneak eta hobetu daitezkeen alderdiak edo arloak aztertuta.

11.3. HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei harrera emateko eskaerei kalitatearen eta eraginkortasunaren irizpideen arabera erantzutea, "Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" jasotako neurriak ezarri eta etengabe hobetzen direla bermatuta.

11.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jarraipena	11.3.1.	"Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" bildutako neurrien betetze-maila aztertzea.
Sentsibilizazioa	11.3.2.	"Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programaren" betetze-mailaren jarraipenaren emaitzak ezagutaraztea tartean sarturiko eragile guztiei.
Jakintza	11.3.3.	"Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak hobetzeko programan" jasotako neurriak ezartzeko programa operatiboa gauzatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.4.	Indarkeriaren biktima izanik, droga-mendetasun aktiboaren arazoak dituzten eta estaldura anbulatorio egokirik ez duten emakumeei harrera emateko baliabide espezifikoak sortzea, ohiko harrera-baliabideetan artatu ezin badira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.5.	Indarkeriaren biktima izanik, patologia mentalak dituzten emakumeei harrera emateko baliabide espezifikoak sortzea, ohiko harrera-baliabideetan artatu ezin badira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.6.	Indarkeriaren biktima izanik, ezintasun fisiko edo sensorialak dituzten emakumeei harrera emateko baliabide espezifikoak sortzea, ohiko harrera-baliabideetan artatu ezin badira.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.7.	Harrera-zerbitzurik ez duten zona edo lurraldeetan harrera-baliabide berriak sortuko dira.
Jakintza	11.3.8.	Etxeko tratu txarren biktimei harrera eta etxebizitza emateko baliabideak etengabeko hobetzeko sistema bultzatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.9.	Dauden harrera-etxebizitzetan segurtasun-sistemak hobetzeko laguntza ekonomikoak handitzea, laguntzeko eta babesa emateko zerbitzuak garatzeko langileak har ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.3.10.	Harrera-etxebizitzetan komunikazio- eta arkitektura-oztopoak ezabatzeko laguntza ekonomikoak handitzea.
Prestakuntza	11.3.11.	Emakumeen egoeretan aniztasunari arreta ematen, edo tratu txarren biktimekin lan egiten duten profesionalak espezializatzeko prestakuntza-programak egitea: patologia mentalak, ezintasun fisiko edo sensorialak, drogen mendekotasun aktiboaren arazoak.

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: OSASUN SISTEMAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA		
1M.1. HELBURUA:		
Dauden praktika klinikoek gidak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak –ikerketa-fasetik hasi, eta osasun-sistema publikoan aplikatzeko faseraino–.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.1.1.	Praktika klinikoek gidetan genero-eragina aztertzeko metodologia eta tresna egokienak ezartzeko azterketa egitea.
Jakintza	1M.1.2.	Lehentasunezko zatitako praktika klinikoek gidetan azterketa egin eta beharrezko gomendioak ondorioztatzea, genero-ikuspegitik begiratuta, premiazkoenak direla iritzitako gidak pixkanaka aldatzeko lehentasunen inguruan.
Araudia	1M.1.3.	Etorkizunean egingo diren praktika klinikoek gidetan emakumeen eta gizonen ezaugarri biologikoak kontuan hartzeko araudia lantzea eta ezagutaraztea.
Jakintza	1M.1.4.	Osasun-sistemaren praktiken diseinuan emakumeen parte-hartzea sustatzea, askotariko ordezkariak izateko ahalegina eginda: landa-eremuan bizi diren emakumeak, ezintasun mota ezberdinak dituztenak, etorkinak, adinekoak edo egoki iritzitako beste emakume-kolektiboetako kideak.
Prestakuntza	1M.1.5.	Genero-ikuspegia integratzeko metodologiak eta araudiak ezagutaraztea osasun-arloko langileen artean eta praktika klinikoek gidak egiten dituztenen artean, informazio eta sentsibilizazio ekintzen bitartez.
Jakintza	1M.1.6.	Ikerketa zientifikoak sustatzea proiektuak finantzatuta, betiere objektibotasunaren, lehiaren eta publizitatearen printzipioei jarraiki, eta osasunari eta generoari buruzko ikerketak egin daitezkeen bultzatuta, batik bat neke kronikoari, fibromialgiari eta antzeko gaixotasunei erreparatuz.
Jakintza	1M.1.7.	Osasun-zerbitzu publikoko medikuei irizpide uniformeak eskaintzea, neke kronikoa, fibromialgia eta antzeko gaixotasunak dituzten gaixoei zerbitzu integrala eta eraginkorra eman ahal izateko.

1M.2. HELBURUA:		
Dauden prozedura administratiboak aldatzea eta genero-ikuspegia txertatuta egitea berriak, fase guztietan: diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan.		
1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.2.1.	Lehentasunez kotzat jotako jardun administratiboaren protokoloen azterketa egitea, baita genero-ikuspegia integratzeko beharrezko prozesuena ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.2.	Lehentasunez kotzat jotako prozedurak pixkanaka aldatzeko gomendioak ateratzea azterketa horretatik, emakumeen eta gizonen premia bereizgarriak identifikatzeko genero-ikuspegia baliatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.3.	Emakumeen parte-hartzea ziurtatzea prozedura administratiboaren diseinuan, askotariko ordezkaritza izateko ahalegina eginda: landa-eremuan bizi diren emakumeak, ezintasun mota ezberdinak dituztenak, etorkinak, adinekoak edo egoki irizitako beste emakume-kolektiboetako kideak.
Sentsibilizazioa	1M.2.4.	Osasun-langileen artean ezagutaraztea gomendio horiek.
Prestakuntza	1M.2.5.	Prozedura administratiboak diseinatu eta lantzean genero-ikuspegia aintzat hartzeko araudia sortzea.

2. MAINSTREAMING PROGRAMA –2M–:		
EMAKUMEEI BEREZIKI ERAGITEN DIETEN GAIXOTASUNEI AURRE EGITEAN HOBETZEA		
2M.1. HELBURUA:		
Bularreko minbiziaren prebentzio-jardueratan parte hartzen duten emakumeen adina 70 urtera arte igotzea, gaixotasuna diagnostikatzen denean jasotako tratamenduari dagokionez, gogobetetze-maila handiari eutsita.		
2M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2M.1.1.	Bularreko minbizia goiz atzemateko programan emakumeek ez parte hartzeko eragiten duten faktoreak ikertzea.
Jakintza	2M.1.2.	Bularreko minbizia goiz atzemateko programetan aintzat hartu beharreko kolektiboak berrikustea, adin-tarte bakoitzean heriotza-tasaren murrizketari buruzko datu eguneratuen arabera, betiere aldagai guztiak kontuan izanda.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.1.3.	Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programa (BMDGP) garatzea identifikaturiko arrisku-taldeetan, eta prozesu guztian zehar, ezarritako kalitate-irizpideak betetzen direla bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.1.4.	Diagnostiko positiboa duten eta eskatzen duten emakumeei laguntza psikologikoa ematea diagnostikoaren/terapiaren fase guztietan, eta Bularreko Minbiziaren Detekzioko Goiztiarreko Programari (BMDGP) atxikitako unitate guztietan.
Prestakuntza	2M.1.5.	Minbiziaren tratamenduarekin lotura duten Osakidetzaen prestakuntza-moduluetan gomendioak txertatzea, gaixoei behar bezalako tratua ematearen inguruan.
Araudia	2M.1.6.	Linfedemaren eta mastektomiaren bigarren mailako bestelako ondorioen prebentziorako eta tratamendurako arreta bermatzea.

2M.2. HELBURUA: Elikadura-nahasteen eragina murriztea, batik bat, neska gazteen eta neskatilen artean.		
2M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2M.2.1.	Elikadura-nahastea eragiten duten faktoreak eta nahasteen egiazko eragina ezagutzeko ikerketa epidemiologikoa indartzea.
Jakintza	2M.2.2.	Elikadura-nahasteen prebentziorako eta tratamendurako plan integrala garatzea, alderdi fisikoak, psikikoak nahiz gizarte-arlokoak barnean hartuta.
Sentsibilizazioa	2M.2.3.	Familiei, irakasleei eta aisialdiko begiraleei informazioa ematea, elikadura-nahastearen arriskuen inguruan, goiz atzematearen inguruan, eta esku-hartze goiztiarren garrantziaren inguruan.
Sentsibilizazioa	2M.2.4.	Nutrizio-ohitura osasungarriak har ditzaten sustatzea familietan, emakumeen eta gizonen jokabide ezberdinen inguruan, eta jokabide horiek dakartzaten arriskuen inguruan sentsibilizatuta.
Prestakuntza	2M.2.5.	Haurrei eta nerabeei zuzendutako osasunerako hezkuntza-programetan elikadura-tailerrak txertatzea, nesken eta mutilen nutritzio-portaera ezberdinak aztertze, genero-ikuspegitik begiratuta.
Prestakuntza	2M.2.6.	Haurrei eta nerabeei zuzendutako osasunerako hezkuntza-programetan kultura eta gorputzaren itxura aztertzea, emakumeengan jarrera kritikoa bultzatuta gizartean dauden edertasun-ereduekiko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.2.7.	Elikadura-nahasteen inguruan, ohitura osasungarrien inguruan eta antzeko gaien inguruan hitzaldian eta tailerrak egiteko aukera ematea eskatzen duten eskolei.

2M.3. HELBURUA: Emakumeengan garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren prebentzio-portaerak areagotzea.		
2M.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2M.3.1.	Garuneko gaixotasun baskularrek eta gaixotasun kardiobaskularrek emakumeengan duten sintomatologiaren, garapenaren eta tratamenduaren alderdi bereizgarriak buruzko ikerketak sustatzea.
Prestakuntza	2M.3.2.	Tabakoa, alkohola eta drogak kontsumitzearen arriskuen inguruan, eskoletan egiten diren prebentzio-programetan nesken eta mutilen jokabide ezberdinen azterketa txertatzea, bizimodu osasungarriaren ohiturak bultzatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.3.3.	Genero-ikuspegitik begiratuta, emakumeen garuneko gaixotasun baskularren eta gaixotasun kardiobaskularren diagnostikoa eta tratamendua egiteko praktika klinikoen eta jardun-ildo adostuen gidak berrikustea, asistentzia-maila guztietan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2M.3.4.	Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa, eta botiken eta drogen behar ez bezalako erabilera murrizteko prebentzio-programak egokitzea, emakumeen eta gizonen kontsumo ezberdinen ezaugarrietara.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA –1A–:		
UGALKETA OSASUNARI DAGOKIONEZ, EMAKUMEEK ERABAKI GEHIAGO HARTZEA		
1A.1. HELBURUA:		
Metodo antikonzeptiboetarako irisgarritasuna bermatzea, eta behar izanez gero, baita koitoaren ondorengo eteterako eta HBErako irisgarritasuna ere, nahi gabeko haurdunaldien tasak murriztearren, batik bat, nerabeen artean, eta sexu-transmisioko gaixotasunen prebentziarako metodo bakarra izaki, preserbatiboaren erabilera bultzatzea.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.1.	Honako hau hobetzeko azterlanak egitea: antisorgailuen –eta bereziki preserbatiboaren– inguruko informazioa eta erabilera nerabeengan, dela eskaeraren aldetik (nerabeen nahia), dela eskaintzaren aldetik (farmazietan eta familia-plangintzako zerbitzuetan emandako arretaren kalitatea eta banaketa geografikoa). Azterlanaren helburua izango da oro har antisorgailuen eta, bereziki, preserbatiboaren erabilera sustatzeko ekintza-plana egitea.
Jakintza	1A.1.2.	Haurdunaldia eteteko eta koitoaren ondorengo eteterako zerbitzuetarako irisgarritasunaren banaketa-mapa egitea, zerbitzuen kopurua areagotzeko irisgarritasuna edo estaldura txikiagoa den tokietan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.3.	Haurdunaldiaren Borondatezko Etetea (HBE) egiten duten ospitale publikoen sareko zentroen kopurua handitzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Osasun-arreta emateko zentro publikoetan Haurdunaldiaren Borondatezko Etetearen inguruko informazioa eta osasun-asistentzia egokia ematen dela bermatzea, prozesu guztian isilpekotasuna ziurtatuta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.5.	Zona geografiko guztietan familia-plangintzari arreta emango zaiola bermatzea.
Jakintza	1A.1.6.	Nerabeei begirako orientazio pertsonalizatuari eta antisorgailu-eskaintzarako irisgarritasunari eustea eta hobetzea, ordutegiak eta hitzordu motak egokituta (azkartasuna eta malgutasuna), eta pribatutasuna bermatuta.
Sentsibilizazioa	1A.1.7.	Neska-mutilen artean sexu-jokabide autonomoa eta arduratsua lortzeko informazio- eta hezkuntza-programak garatzea.
Sentsibilizazioa	1A.1.8.	“Koitoaren ondorengo eteteari” buruzko informazio egokia bermatzea.
Jarraipena	1A.1.9.	Nerabezaroan haurdunaldiaren prebentzioko ekintzen jarraipena egitea eta prebentzioko ekintzen eragina ebaluatu eta horren arabera egokitzea.

1A.2. HELBURUA:		
Haurdunaldian eta erditzean egindako esku-hartze mediku-kirurgikoak kasu bakoitzerako aginduen –behar-beharrezkoak soilik– araberakoak direla ziurtatzea, zesareen eta episiotomien kopurua murriztera joz.		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jarraipena	1A.2.1.	Zesareen eta episiotomien tasa ebaluatzea, tasa horretan eragiten duten aldagaiak identifikatuta eta praktika klinikoa izandako bilakaera aztertuta.
Jarraipena	1A.2.2.	Haurdunaldiko, erditzealdiko eta erditze ondoko ohiko azterketa guztietan egiten diren hainbat lan aztertzea, hala nola monitorizazio fetal elektronikoa, ile-mozketa, enema, episiotomia, eta abar.
Sentsibilizazioa	1A.2.3.	Egun lanean ari diren nahiz prestakuntzan dauden osasun-langileak sentsibilizatzea, haurdunaldian eta erditzean medikalizazioa murrizteak duen garrantziaren inguruan: zesarea eta episiotomia kopurua; eta sendagileek erditzearen arazoak konpontzeko dituzten trebetasunak handitzea, medikalizazioa areagotu gabe.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.4.	Amentzako zerbitzu publiko guztietan erditzealdiko analgesiaren eskaintza (anestesia epidurala eta beste hainbat teknika) bermatzea, ordutegi guztietan eta asteko egun guztietan.
Sentsibilizazioa	1A.2.5.	Erditzealdiko analgesiari buruzko abantailai eta arriskuei buruzko informazioa ematea emakumeei eta mina kontrolatzeko beste bide batzuk jakinaraztea, jakinarene gainean egonik aukera dezaten. Erditzea medikalizatzearen alderdi positiboaren eta negatiboaren berri ematea, erabakiak hartzeko garaian amak parte hartu behar duela eta amaren iritzia errespetatzea zein garrantzitsua den jakinarazita.

1A.3. HELBURUA:		
Emakumeen gogobetetze-maila handitzea, haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan jasotako informazioaren inguruan, eta erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearen inguruan.		
1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Haurdun dauden emakumeek eta bikotekideek honako gai hauen inguruan duten gogobetetze-maila aztertzea: informazioaren inguruan, jasotako zerbitzuaren inguruan, euren iritzien errespetatze-mailaren inguruan, eta haurdunaldian eta erditzean erabakiak hartzeko garaian izandako parte-hartzearen inguruan. Emakumeen gogobetetze-maila zein beste aldagaik baldintzatzen duen aztertzea, haurdunaldian eta erditzean osasun-sistema publikoak emandako zerbitzuari dagokionez.
Sentsibilizazioa	1A.3.2.	1A.3.1. ekintzaren planteamenduari erantzuteko egindako azterlanaren emaitzak zabaltzea, eta haurdun dauden emakumeei eta bikotekideei haurdunaldiaren eta erditzearen inguruko informazio guztia emateak duen garrantziak jabe daitezen sendagileak sentsibilizatzea, baita ahal den neurrian, erabakiak hartzeko garaian emakumeen iritzia kontuan izan dezaten ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.3.3.	Erditzeko garaian baldintzak eta prozedurak (dilatazio- eta kanporatze-faseak) malgutzea, erabakiak hartzerakoan amaren iritzia kontuan hartuta.
Jarraipena	1A.3.4.	Haurdunaldia kontrolatzeko protokoloak jarraiki, jaioaurreko probak egiteko ezarrita dauden epeak betetzen direla bermatzea, baita gurasoei emaitzen berri eta dituzten aukeren berri ematen zaiela ere.
Prestakuntza	1A.3.5.	Haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan, osasunerako heziketarako jarduerak, eta edoskitze-teknikei buruzko entrenamendu espezifikoak jarduerak sustatzea, baita edoskitzearekin hasteko eta horri eusteko lagungarri eta mesedegarri izango diren ospitale-ohiturak ere, OMEren eta UNICEFen gomendioei jarraiki, bularra ez ematea erabakitzen duten emakumeen erabakia uneoro errespetatuko dela bermatuta.

1A.4. HELBURUA:

Emakumeen gogobetetze-maila areagotzea, ugalketa-zikloan berezkoak diren aldaketek eragindako gorabeheren eta arazoen prebentzioari eta arretari dagokienez, informazio eta erabakimen parte-hartzailea sustatuta, emakume guztientzako eskuragarri izango diren azterketa tokoginekologikoekin.

A ESTRATEGIA:

1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.A.1.	Tokoginekologiako ohiko azterketetan itxaronzerrendak desagertzeko zerbitzu soziokomunitarioak birmoldatzea.
Jakintza	1A.4.A.2.	Ugalketa-osasunari buruzko azterlan kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea: besteak beste, emakumeen gogobetetze-maila, ugalketa-zikloarekin loturiko sintomen prebentziorako edo arretarako arloan, jasotzen duten informazioari, zerbitzuari eta beren iritziarekiko errespetuari dagokienez; emakumei gehien eragiten dieten eta/edo emakumeak gehien kezkatzen dituen ugalketa-zikloarekin loturiko gaixotasun eta/edo gorabeheren dagokienez.
Prestakuntza	1A.4.A.3.	Osasun-langileei prestakuntza ematea, honako gai hauen inguruan egindako azterketen emaitzei dagokienez: – Ugalketa-osasunaren arreta. – Menopausiaren sintomak tratatzeko beste aukerak, sortzen badira. – Laguntza psikosoziala emateko estrategiak.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.A.4.	Tokoginekologiako azterketetan egiten diren praktikei buruzko alde aurreko informazioa ematea, emakumei zor zaien begirunea gordez.
Jakintza	1A.4.A.5.	Emakumei gehien eragiten dieten ugalketa-zikloarekin loturiko gorabeheren eta gaixotasunen alderdi ezezagunen inguruko ikerketak indartzea: arrazoiak, prebentzioa, tratamendua, sintomatologia arintzea...

B ESTRATEGIA:

1A.4. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.4.B.1.	Menopausiak eragindako gorabeheren prebentzioko neurriei eta neurri terapeutikoei buruzko ikerketak sustatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.B.2.	Hormonen bidezko Ordezko Terapiak agintzen diren kasuak murrizteko eta ordezko tratamenduak eskaintzeko programa bat egitea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.4.B.3.	Diagnostikoa eta/edo terapia egiteko teknika espezializatuak eskatzen dituzten menopausiaren alderdiak asistentzia espezializatura bideratuko direla bermatzea.
Sentsibilizazioa	1A.4.B.4.	Menopausian erabiltzen diren prebentzio-neurrien eta tratamenduen eraginkortasunaz, abantailez eta desegokitasunaz emakumei informazioa ematea.
Sentsibilizazioa	1A.4.B.5.	Hormonen bidezko Ordezko Terapiak dituen arriskuen berri emakumei emateko informazioko eta sentsibilizazioko jarduerak egitea.
Jakintza	1A.4.B.6.	Adineko emakumei laguntza emateko estrategia berriak aztertzea, euren osasunean modu negatiboan eragiten duten faktore psikosozialei aurre egiteko.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA –1B–: OSASUN ARAZOAK DITUZTENAK ZAINTZEAK ETXeko EREMUAN ERAGINDAKO LAN ZAMA MURRIZTEA

1B.1. HELBURUA:

Osasun-arazoak dituzten eta zaintza behar duten lagunen –ez autonomoak– kasuan, zerbitzu soziokomunitarioetan artaturiko lagunen kopurua handitzea.

1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.1.1.	Autonomoak ez direnentzako egitura soziokomunitarioa hobetzeko aukerak aztertzea emakume-kolektibo guztien premia bereizgarriak aintzat hartuta, praktika onenak bilduz eta Euskadin aplikatzeko bideragarritasuna aztertuz.
Jakintza	1B.1.2.	Osasun-laguntzan erabiltzen ari diren eredu berriek (ospitalean egoteko egunen murrizketa, etxeko laguntza...) zaintzaileen eta gaixoen familiakoen osasunean eta bizi-kalitatean izan duten eragina ikertzea, osasun-sistemari dagokionez, emakumeek hartzen duten alderdi osagarriaren rolari arreta berezia jarrita eta, halaber, horren eragin ekonomikoari eta gizarte-arlokoari.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.3.	Zaintzetak behar dituzten baina ospitaleratzea behar ez duten gaixoen finantziaraziorako eta kudeaketarako erakunde arteko akordioa sinatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.4.	Gaixoak zaintzeko joera berriek (etxeko ospitaleratzea, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak eta/edo hilzorian daudenak etxean zaintzea...) familien bizi-kalitatean eta, batez ere, emakumeen osasunean duten eragina murrizteko behar diren laguntza-mekanismoak ezartzea.

1B.2. HELBURUA:

Osasun-arreta emateko ordutegia zabaltzea, osasun-arreta eta norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri izan daitezen.

1B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.2.1.	Osasun-zentroetako ordutegia malguago bihurtzea bideragarri ote den aztertzea.
Sentsibilizazioa	1B.2.2.	Osasun-arloko profesionalak eta euren sindikatueta ordezkariek sentsibilizatzea ordutegiak zabaltzeko gizarte-premiaren inguruan.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.2.3.	Osasun-zentroetako ordutegi berriak ezartzeko plana egitea, gizarte-premiak aintzat hartuta.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –11–: INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA FISIKOA ETA PSIKOLOGIKOA EMATEA		
11.1. HELBURUA:		
Indarkeriaren biktima diren emakumeen osasun fisikoari eta psikologikoari arreta egokia bermatzea, Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren esparruan adostutako osasun-protokoloa ezarrita eta etengabe hobetuta.		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.1.	Behar diren erakunde-egiturak sortzea administrazioaren maila guztietan, Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloaren eragina eta egokitze-maila –emakumeen premien arabera– aztertze, betiere kolektiboen aniztasunari erreparatuta (landa-eremuko emakumeak, ezintasunak dituztenak, etorkinak, adinekoak...): izandako lorpenak, zailtasunak, egin daitezkeen hobekuntzak, eta abar.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.2.	Indarkeriaren biktimei emandako arretan hobekuntzak egitea osasun-zerbitzuetan, 11.1.1. ekintzaren ondoriozko azterketetan gomendatutakoari jarraiki.
Sentsibilizazioa	11.1.3.	Tartean sarturiko eragileen artean ezagutaraztea Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloaren edukiak, ebaluazioen emaitzak eta etengabe hobetzeko neurriak.
Prestakuntza	11.1.4.	Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren eta desagertzearen eremuan (polizia, epaitegietako langileak...), eta biktimei laguntza eta asistentzia ematen –osasun-langileak, harrera-zerbitzuak, elkarteak...– lan egiten dutenekin prestakuntza-jarduerak egitea, Indarkeriaren aurrean jarduteko erakunde arteko Protokoloaren edukien inguruan. Prestakuntza horrekin premia espezifikoak dituzten kolektiboei arreta emateko ahalmena lortzen dela ziurtatzea.
Prestakuntza	11.1.5.	Indarkeriaren aurrean jarduteko erakunde arteko protokoloaren edukien inguruko prestakuntza ematea osasun-langileei, beste kolektiboei (polizia, langile judizialak...) ematen zaien prestakuntzarekin koordinatuta.
Araudia	11.1.6.	Osasun-eremuko espezialitateen curriculumean prestakuntza espezifiko sartzera behartuko duen araudia sortzea, gai hauen inguruan: emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, goiz atzematea eta modu integralean aurre egitea.
Jarraipena	11.1.7.	Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloaren, eta Sexu-erasoak eta etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko Akordioaren betetze-maila aztertzea.

7.6.

HIRIGINTZAKO, GARRAIO PUBLIKOKO ETA INGURUMENeko EKINTZAK

MAINSTREAMING ARDATZA

1. MAINSTREAMING PROGRAMA – 1M–: GENERO IKUSPEGIA INTEGRATZEA HIRIGINTZAREKIN, GARRAIOAREKIN ETA INGURUMENAREKIN LOTURIKO POLITIKETAN ETA PROIEKTUETAN		
1M.1. HELBURUA: Hirigintzako ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra ezartzea.		
1M.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.1.1.	Hiriaren hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra lantzea.
Sentsibilizazioa	1M.1.2.	Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea, hiriaren hobekuntzarekin, diseinuarekin eta planifikazioarekin loturiko gaietan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziari dagokionez.
Prestakuntza	1M.1.3.	Kargu publikoei eta teknikariei prestakuntza ematea, hiriaren hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeari buruz.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.4.	Tresna hori lantzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaintzea, sentsibilizazioa gauzatzea eta prestakuntza ematea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.1.5.	Hiriaren hobekuntzako, diseinuko eta planifikazioko proiektuetan tresna hori aplikatzea.
Araudia	1M.1.6.	Hiriaren hobekuntzan, diseinuan eta planifikazioan genero-ikuspegia txertatzeko premia araudian sartzea.
Jarraipena	1M.1.7.	Araudiaren aplikazioari jarraipena egitea.
Jarraipena	1M.1.8.	Genero-ikuspegia txertatzeari buruzko txostena egitea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearentzat.

1M.2. HELBURUA: Garraio sozietate publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko eta esku hartzeko tresna ezartzea.		
1M.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.2.1.	Tresna estandar bat lantzea, garraio-sozietate publikoek emakumeen premietarako egokitze-mailaren berri izan dezaten.
Sentsibilizazioa	1M.2.2.	Garraio-sozietate publikoetako arduradunak sentsibilizatzea, emakumeen premietarako egokitze-mailari buruzko diagnostikoa egitearen garrantziari dagokionez.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.2.3.	Diagnostikoak eta sentsibilizazioa gauzatzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaintzea.
Jakintza	1M.2.4.	Diagnostikoa egitea, gabeziak identifikatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.
Jarraipena	1M.2.5.	Aplikaturako hobekuntzen jarraipena egitea.

1M.3. HELBURUA: Ingurumenari dagozkion ekintza-planetan genero-ikuspegia txertatzeko erudia ezartzea.		
1M.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1M.3.1.	Tokiko Agenda 21etan eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan genero-ikuspegia txertatzeko tresna estandarra diseinatzea.
Sentsibilizazioa	1M.3.2.	Kargu publikoak eta teknikariak sentsibilizatzea, ingurumenarekin loturiko gaietan, eta batez ere Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan genero-ikuspegia txertatzearen garrantziari dagokionez. Diseinaturiko tresnaren berri ematea.
Sentsibilizazioa	1M.3.3.	Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak ezartzen dituzten aholkularitza-enpresak sentsibilizatzea genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez. Diseinaturiko tresnaren berri ematea.
Prestakuntza	1M.3.4.	Tokiko Agenda 21en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan genero-ikuspegia txertatzeari buruzko prestakuntza ematea ingurumenaren arloko aholkularitza-enpresei.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.3.5.	Aholkularitza teknikoko zerbitzua abiaraztea genero-ikuspegia txertatzeko moduari dagokionez, kargu publikoei, teknikariei eta ingurumen-arloko aholkularitza-enpresei zuzenduta.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1M.3.6.	Tresna diseinatu eta aplikatzeko, eta sentsibilizazioa eta prestakuntza emateko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak bermatzea.
Jarraipena	1M.3.7.	Tokiko Agenda 21 eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programak ezartzeko garaian genero-ikuspegia txertatu dela egiaztatzea.
Jarraipena	1M.3.8.	Genero-ikuspegia txertatzeari buruzko txostena egitea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearentzat.

AHALDUNTZEAREN ARDATZA

1. AHALDUNTZE PROGRAMA – 1A–: HIRIGINTZAREN, GARRAIO PUBLIKOAREN ETA INGURUMENAREN EREMUETAN, PLANGINTZA, DISEINUA ETA HOBKUNTZAK EGITEKO PROZESU GUZTIETAN EMAKUMEEK PARTE-HARTZEA ETA PAREKOTASUNA		
1A.1. HELBURUA:		
Emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea eta parekotasuna bermatzea hirigintzaren eta ingurumenaren (batik bat, Tokiko Agenda 21 en eta Landa Garapeneko Eskualdeko Programetan) eremuetan egiten diren parte-hartze prozesuetan. Horrelako prozesurik ez badago, parte-hartze prozesuak egiteari bultzada ematea.		
1A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.1.1.	Hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin, eta ingurumenarekin loturiko parte-hartze prozesuetan emakumeen eta emakume-elkarteen parte-hartzea aztertzea (parte hartzen duten emakumeen kopuruari eta ehunekoari, onartutako alegazioei, eta abarri dagokionez).
Sentsibilizazioa	1A.1.2.	Hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzako, eta ingurumeneko arduradunak sentsibilizatzea planifikazioko eta erabakiak hartzeko prozesuetan herritarrek parte hartzeak duen garrantziaren inguruan.
Araudia	1A.1.3.	Hirigintzaren eta ingurumenaren eremuetako planifikazioko eta erabakiak hartzeko faseetan, herritarren pareko parte-hartze prozesuak txertatzea eskatzen duen araudia sortzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.4.	Hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin eta ingurumenarekin loturiko prozesuetan herritarren pareko parte-hartze prozesuak gerta daitezen errazteko eta bermatzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak eskaintzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.1.5.	Administrazioaren eta emakume-elkarteen arteko komunikazio-bide berriak sortzea edo daudenak indartzea, hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin eta ingurumenarekin loturiko herritarren parte-hartze prozesuetan elkarre horien parte-hartzea ziurtatzeko.
Prestakuntza	1A.1.6.	Emakumeei zuzendutako prestakuntzako eta informazioko jarduerak gauzatzea, hiriaren planifikazio, diseinu eta hobekuntzarekin eta ingurumenarekin loturiko prozesuetan erabateko parte-hartzea izan dezaten gaitze aldera.
Jarraipena	1A.1.7.	Araudia betetzen dela ziurtatzeko jarraipena egitea, eta parte-hartze prozesuak ebaluatzea, emakumeen presentziari eta eraginari dagokienez (kopurua, proportzioa, emakumeei egindako eta onartutako proposamenak, etab.).

1A.2. HELBURUA:		
Herriarrek parte hartzeko prozesuak abiaraztea, garraio publikoaren plangintzan emakumeen eta gizonen presentzia parekoa izanik.		
1A.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.2.1.	Garraio publikoaren emakumezko erabiltzaileen gogobetetze-mailari buruzko diagnostikoa egitea.
Jakintza	1A.2.2.	Mugigarritasunari buruzko azterlanetan sexuaren aldagaia sartzea.
Sentsibilizazioa	1A.2.3.	Garraio-sozietate publikoetako arduradunak sentsibilizatzea, emakumeek planifikazioan parte hartzeak duen garrantziari dagokionez.
Sentsibilizazioa	1A.2.4.	Emakumeak sentsibilizatzea, garraio publikoaren planifikazioarekin loturiko parte-hartze prozesuetan parte har dezaten, banaka nahiz kolektibo gisa.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.5.	Garraio publikoko konpainiei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eskaintzea parte-hartze prozesuak eta sentsibilizazio-konpainak egin ditzaten.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.6.	Garraio-sozietate publikoei aholkularitza eskaintzea prozesua garatzeko.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1A.2.7.	Garraio publikoaren planifikazioa egiteko herriarrek parte hartzeko prozesuak garatzea, emakumeen presentzia nagusi izanik.
Araudia	1A.2.8.	Zerbitzua emakumezko erabiltzaileen premietara gehiago egokitzeko behar diren aldaketak egitea konpainien araudian.
Jarraipena	1A.2.9.	Parte-hartze prozesuetako proposamenetatik eratorritako aldaketak egin direla egiaztatzea.

1A.3. HELBURUA:		
Emakumeen presentzia areagotzea hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako kargu publikoetan eta teknikari karguetan, gutxienez 40-60 proportzioa lortu arte.		
1A.3. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1A.3.1.	Hirigintzaren, garraioaren eta ingurumenaren eremuetako erabakiak hartzeko eta planifikazioko prozesuetan emakumeen presentziari buruzko diagnostikoa egitea.
Sentsibilizazioa	1A.3.2.	Prozesu horietan, emakumeen parte-hartzeari buruzko azterlanen emaitzak ezagutaraztea, batik bat kargu publikoei eta teknikariei.
Araudia	1A.3.3.	Hirigintzaren, ingurumenaren eta garraio publikoaren eremuetan, erabakiak hartzeko eta planifikazioko lan-talde guztietan emakumeen presentzia parekoa izan dadin beharrezko neurriak hartzeko eskakizuna txertatzea dagokion araudian edo legedian, betiere datozen 4 urteak parekotasun horretara hurbiltzeko alditzat hartuta.
Jarraipena	1A.3.4.	Araudia betetzen dela edo erabakiak hartzeko eta planifikazioko lan-taldeetan parekotasuna txertatzeko ahaleginak egiten ari direla egiaztatzea.

2. AHALDUNTZE PROGRAMA –2A–:
EMAKUMEEK GUNE PUBLIKOARI EGINDAKO EKARPENA –GIZARTEAREN,
KULTURAREN ETA HISTORIAREN ARLOKOA– ONARTZEA

2A.1. HELBURUA:

Besteak beste, kaleen eta plazen izenaren bitartez, monumentuak eraikita edo eraikinei izena jarrita gizonei eta emakumeei egiten zaizkien gizarte-mailako omenaldiak orekatzea.

2A.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	2A.1.1.	Kale, plaza eta parkeen izenak aztertzea, baita udalerrietako monumentuak eta elementu sinbolikoak ere, emakumeen aintzatespen sinbolikoaren maila ebaluatzeak.
Araudia	2A.1.2.	Kale-izendegirako izenak hautatzeko eta monumentuak eraikitzeak prozesuak arautzeko araudia sortzea, kaleei, plazei, monumentuei eta abarri emakumeen izenak jartzea sustatzearen.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.3.	Kale-izendegirako izenak, monumentuak eraikitzeak proposamenak eta abarrerako iradokizunak egiteko bideak sortzea herritarrentzat.
Sentsibilizazioa	2A.1.4.	Kale-izendegiaren eta monumentuen bitartez, emakumeen presentzia sinbolikoaren azterketaren emaitzen berri ematea herritarrei, baita proposamenak egiteko bideen berri ere.
Zerbitzuak eta Baliabideak	2A.1.5.	Azterketaren emaitzak ezagutarazteko nahiz proposamenak egiteko garaian herritarren parte-hartzea sustatzeko behar diren baliabideak bermatzea.
Jarraipena	2A.1.6.	Kaleei, plazei, monumentuei... emakume-izena jartzeko prozesua ebaluatzea.

BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUNKIDETASUNAREN ARDATZA

1. BATERATZE ETA ERANTZUNKIDETASUN PROGRAMA – 1B–: HIRIKO ETA GARRAIOAREN AZPIEGITURAK EGOKITZEA NORBERAREN, FAMILIAREN ETA LAN ARLOKO BIZITZA BATERAGARRI EGITEKO, ETA NORBERAREN AUTONOMIA GARATZEKO		
1B.1. HELBURUA:		
Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearren, hirigintzako plangintza- eta diseinu-irizpideak identifikatzea eta aplikatzea.		
1B.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.1.1.	Hiriaren planifikazioarekin eta diseinuarekin loturik, familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko eragozpenei buruzko diagnostikoa egitea, eta batez ere, familia zaintzeko eta hein batean inoren laguntza behar dutenen autonomia garatzeko egiten diren lanak oztopatzen dituztenei buruz. Halaber, lehentasunezko neurriak identifikatu behar dira diagnostikoan.
Sentsibilizazioa	1B.1.2.	Horren inguruan egindako diagnostikoen emaitzak ezagutaraztea.
Prestakuntza	1B.1.3.	Hiriaren planifikazioaren eta diseinuaren arduradunei prestakuntza ematea, diagnostikoan identifikatutako hobekuntzak ezartzea ahalbidetzeko tresna egokiak eskaintze aldera.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.4.	Diagnostikoa eta prestakuntza egiteko, eta batik bat, hobekuntza ezartzeko behar diren baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.1.5.	Diagnostikoan lehentasunezko zatitako identifikatutako hobekuntzak gauzatzea.
Jarraipena	1B.1.6.	Diagnostikoaren bitartez identifikaturiko lehentasunezko hobekuntzak egin direla egiaztatzea.
Sentsibilizazioa	1B.1.7.	Praktika on gisa gauzatutako hobekuntzak ezagutaraztea.
Araudia	1B.1.8.	Gune publiko berriak sortzeko edo daudenak egokitzeko garaian, planifikazioko eta diseinuko irizpide jakin batzuk betetzera behartzen duen araudia sortzea; irizpide horiek norberaren, familiaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko lagungarri izango dira, eta batez ere, familia eta/edo inoren laguntza behar dutenak zaintzeko eta jendearen autonomia garatzea sustatzeko lanak gauzatzeari dagokionez.

1B.2. HELBURUA:		
Familiaren, norberaren eta lan-arloko bizitza bateragarri egiteko neurriak aplikatzea garraio publikoan.		
1B.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	1B.2.1.	Herritarrek parte hartzeko prozesuetan eta diagnostikoetan identifikaturiko hobetzeko proposamenen bideragarritasuna aztertzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	1B.2.2.	Identifikaturiko hobekuntzak ezartzeko behar diren baliabideak eskaintzea.
Sentsibilizazioa	1B.2.3.	Egindako hobekuntzen berri ematea eta praktika on gisa zabaltzea.
Jakintza	1B.2.4.	Egindako hobekuntzen eragina aztertzea.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARDATZA

1. INDARKERIAREN AURKAKO PROGRAMA –11–: EMAKUMEEN SEGURTASUNA ETA SEGURTASUN SENTSASIOA HOBETZEA		
11.1. HELBURUA:		
Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren tokiak identifikatzea herrietan, neutralizatzeko neurriak ezartzearen. Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren toki berriak sortzea saihesteko irizpideak ezartzea.		
11.1. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK		
Tresna	ID	Ekintza
Jakintza	11.1.1.	Emakumeak segurtasunik gabe sentitzen diren herriko tokiak identifikatzeko diagnostikoa egitea, garraio publikoak barnean hartuta. Horretarako, herriko emakumeek parte hartu behar dute. Lehenetsunezko esku-hartzea eskatzen duten puntuak zehaztu behar dira.
Jakintza	11.1.2.	Segurtasunik gabeko toki horiek neutralizatzeko irtenbide eraginkorrak proposatzea.
Jakintza	11.1.3.	Gune publikoetan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriarekin loturiko delitu-jarduerari buruzko datuak eta txostenak aztertzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.4.	Diagnostikoarekin hasi eta eraldaketekin bukatu, prozesu osoa egiteko behar diren baliabideak bermatzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.5.	Eraldaketak gauzatzea.
Sentsibilizazioa	11.1.6.	Prozesuaren emaitzen berri ematea eta praktika on gisa zabaltzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.7.	Segurtasunik gabeko tokiei buruzko herritarren kexak eta iradokizunak biltzeko zerbitzua sortzea.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.1.8.	Kexak eta iradokizunak biltzeko zerbitzua sortzeko baliabideak bermatzea.
Jarraipena	11.1.9.	Segurtasunik gabeko tokiak neutralizatzearen betetze-maila aztertzea.
Sentsibilizazioa	11.1.10.	Emakumeak sentsibilizatzea, gune publikoak baliatzeko beldurra arrazionaliza dezaten.
Araudia	11.1.11.	Hobetzeko edo eraldaketako esku-hartzeetan nahiz gune berriak eraikitzeko garaian aplikatu beharreko segurtasun-irizpideak txertatzea udal-araudian, genero-ikuspegitik begiratuta.
Araudia	11.1.12.	Hiriaren diseinu, planifikazio eta hobekuntzaren arduradunen, Herrizaingo Sailaren eta udaltzaingoen arteko lankidetzak eta komunikazio-protokoloa sortzea.
Jarraipena	11.1.13.	Segurtasun-irizpideei dagokienez, araudia betetzen dela, eta kexa eta iradokizunei jaramon egiten zaiela ziurtatzeko jarraipena egitea.
Jarraipena	11.1.14.	Gune publikoan emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren eta emakumeen segurtasun-sentsazioa areagotzearen inguruan, hartu diren neurri, programa eta baliabideen berri ematea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari.

11.2. HELBURUA:

Behar izanez gero, indarkeriaren biktima diren emakumeen etxebizitza-eskaeraren %100 betetzea, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzerakoan edo etxebizitzarako sarbidean lehentasuna edo bestelako abantailaren bat emanda.

11.2. HELBURUA LORTZEKO GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Tresna	ID	Ekintza
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.1.	Gizarte-etxebizitzaren eta babes ofizialeko etxebizitzaren ehuneko bat gordetzea indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.2.	Gizarte-etxebizitzaren eta babes ofizialeko etxebizitzaren zozketetan kupo berezi bat sartzea tratatu txarren biktima diren emakumeentzat.
Zerbitzuak eta Baliabideak	11.2.3.	Harrera-etxebizitzetako egonaldia bete eta beste bizitokirik lortzeko aukerarik ez duten emakumei etxebizitzak esleitzea zuzenean, alokairu-erregimenean.
Jarraipena	11.2.4.	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuan, egindako esleipenen eta eskaeren jarraipena egitea, emakume horiei etxebizitza bermatzearen.
Jarraipena	11.2.5.	Tratu txarren biktima diren emakumei gizarte-etxebizitzak eta babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko hartutako neurrien eta eskaintako baliabideen berri ematea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari.